

AITA MARTZEL

BERTSOLARI

EDIZINO ARDURADUNA

A. Fermin Iraolagoitia

EDIZINO KOORDINAZINOA

Jabi Artaraz

MAKETEAREN DISEINUA

Juan Carlos Landa

MAKETATZAILEA

Nerea Uribe

ARGAZKIAK

IKAko artxiboa

Jabi Artaraz

LAGUNTZAILEAK

Maria Angeles Angoitia

Mila Egiguren

ARGITARATZAILEA

IKA Kultur Alkartea

Orue zk./g 48340 Amorebieta-Etxano (BIZKAIA)

Tel.: 94 630 81 98 • Faxa: 94 630 81 99

Emaila: orue@orue.biz

INPRIMAKETEA

RGM

LEGE GORDAILUA

BI-1761-07

ISBN

978-84-86399-36-8

ALE KOPURUA

2.500

KOLABORATZAILEAK





AURKIBIDEA

Sinismena	12
Eleiza	142
Andra Maria eta Santuak	184
Bizian Gora	232
Gizatasunez	322
Komentukale	424
Euskal Herria	462
Handikoz hemendikoz	484
• • •	
Nire bizitzako nondik norakoak	498
Aurkibide zehatza	506



AITA MARTZEL, KOMUNIKAZIOAREN HARIAN

Gizakia ilusio eta amets huts izaten den garaian ezagutu nuen aita Martzel. Gogoan daukat sermoia egiten lehen aldiz entzun nion hartan nola mintzatu zen Martin Luteroren aurka. Hiztun dotorea iruditu zitzaidan. Ez dut uste orduko hartan bertsoarik esan edo kantatu zuenik; ez dut gogoan behintzat. Baina jakin banekien ordurako aita Martzel bertsolaria zela. Baita bertsolari txapelketa nagusietan epai-mahaiko izaten zela ere.

Geroago jakin nuen Derioko Seminarion zeuden Xabier Amuriza eta Abel Muniategi bertsolari handien maisu ere izan zela, Xabier Amurizaren aitaren bitartekotzari esker. Honek ekartzen omen zizkion Xabierren eta Abelen bertsoak, eta, aita Martzelek zuzenketak egin ondoren, haiei berriro itzultzen.

Eubako seminarioan, gaur egungo Orueko ikastetxean, 1960ko hamarkada hasierako "Euskal Jaietan" bera ikusi ohi nuen eragile eta bertsolarien gai jartzaile. Bere eskutik ezagutu nituen ni baino zertxobait gazteago ziren Jon Enbeita eta Ireneo Ajuria ere, bertsoan.

Geroxeago, bizpahiru urtera edo, etorriko ziren "Ilargia putzura jausi" ber-

tsoak tartekatuz prestatu zigun antzerkitxoa eta abar. Antzerki emanaldi haiekin atera genuen martxan jarri nahian genbiltzan "Bidez" aldizkarirako behar genituen paper, klixe eta tintak erosteko dirua. "Auxmarra" ikastetxeak jartzen zuen.

Artean ez neukan aita Martzelek euskal eliza baten alde Bilbon emandako lehen urrats zailen berri. Baina horren guztiaren berri nik baino hobekiago emango duenik izango da.

Aitor dezadan lotsa pixka bat sentituenela aita Martzelek argitalpen honetarako nire partaidetza eskatu zidanean. Berak nahi zuenik eta batez ere berak mereziko lukeenik neregandik ez ote zuen jasoko uste izateak lotsatzen nau.

Ez dut izan liburu honetako bertso guztiak ezagutzeko aukerarik. Baina uste dut aita Martzelen bertsolaritza-
ren ezaugarri nagusiez ohartzeko hainbateko lagina izan dudala eskuartean.

Ezer baino lehen, hau da aita Martzelen bertso gintzan kontuan izan beharrekoa; berak hainbatetan aitortu izan duena, bestalde: "Ni beti apostolutzan ibili naiz. Beraz, nire lana ahal denik egokien burutzeko tresnarik onena

bezala erabili dut bertsoa, hasiera-hasieratik (orain 50 urtetik); sasoian sasoiko girokoak”.

“Bertsoak, espirituz eta neurritz, antzeko samarrak antolatu ditut, norentzako diren gogoan izanik. Ulerterrazak eta doinurik errazenera moldatuz”.

Garbi dago, beraz, komunikazioa edo komunikatu nahia izan dela aita Martzelen ahaleginaren ezaugarri nagusia. Honek keru propioa emango dio erretorika eta oratoria latinez ikasi zituen aita Martzelen bertsoetari.

Antzinako greziarren artean, jendaurrean mintzatu behar zutenei, edozein auzitan ikuspegi batetik nola argudiatu erakusten omen zieten maisuek. Aurrena, ikuspegi jakin baten alde; eta justu kontrako ikuspegiaren alde, ondoren. Uste izatekoa da, egiantzeko argudioak erabili eta sinesgarritasunik ez galtzean egongo zela ahaleginaren grazia, eraginkortasunik izatekotan, behintzat.

Ahozko diskurtso gehientsuenetan bezalatsu, bertsoaritzan ere entzuleengan bilatzen den eraginkortasuna da helburu. Horretarako egiantzeko argudioak erabiltzen duen trebezia erabakiorra izango da.

Baina haizea aldeko duen boladan, eta areago kontra eskutik, arrazoi galduan aritzea dagokionean.

Honetan abantaila bat izan du aita Martzelek. Bertso sorta jakin batzuetan salbu, bere ahalegina tesia edo egia baieztatuari dagozkion arrazoiketak bakarrik landuko dituelako. Hori bai, hartzailearen gogo bihotzen hunkiduraren bila, persuasio eta emozio bideak egoki erabiliz.

Joserra Gartzia bere Doktoreko Tesian aipatzen duenez, “persuasioa igorleak sortu eta bidaltzen duen mezua, hartzaileak alde aurretik dituen jarrerekin eta usteekin lehian sartzen da. Eta lehia horren emaitzaren ondorioa da saio persuasioaren arrakasta edo porrota.” Ikus “Gaur Egungo Bertsolarien Baliabide Poetiko Erretorikoak” liburua 34. orrialdean.

Persuasioaren helburua, beraz hartzailearengan eragitea da. Eta hau hala izango da bertsolarien kasuan eta halatsu, baita ere, sermoilarien kasuan. Eta horregatik, zuzen aritu dela aita Martzel esan behar, “norentzat diren gogoan izanik; ulertterrazak eta doinurik errazenera modatuz” ahalegindu dela aitortzen duen hartan.

Persuasioarena baita, aita Martzelek bere bertso sorta gehienetan duen helburua, hartzailearen hainbat ideia-erekiko eta usteekiko jarrera aldarazteko kinkan jarriz, edo eta jarrera horiek dauden-daudenean sendotzea eta arnasberritzea bilatu duenetan ere.

Eraginkortasun horren mesedetan, diskurtso distiratsuari baino gehiago erreparatuko dio arrazoiketa sinpleari; hartzailearentzat gertuko diren irudiak erabiliko ditu; beti, ordea, hizkera txukunean eta jasoan; eta maiz, pikardiazko, umorezko ziprizzinduraz bustiak. Erabiltzen dituen bertso molde ugariak ere merezi dute arretarik. Zeresanik ez molde bakoitzari dagokion teknika alorrean erakusten duen trebeziak. Azken batean, bere diskurtsoa argia eta zuzena izan dadin ahaleginduko da beti ere molde aprobe-

netan tolestaturaz esan beharrekoak. Hari mutur bati tira eta jarraian bukareraino askatzen den gure amonen kakorraz lanak bailiran.

Euskal Herrian badu bere tradizioa “egia berdaderoak” hitz neurtuetan esateko joerak. Aurreko mendeetan aurki daiteke hainbat elizgizonek utzitako arrastoa. Aita Martzelek azken berrogeita hamar urteotan, eta, batez ere, “Bizian Gora” mugimenduaren arduradun bezala dabilenetik garatu duen apostolutzan, ez bakarrik eutsi dio tradizio horri, baizik eta atal berri bat erantsi ote dion nago, burutu ez den Vatikanoko Bigarren Kontzilioan hastapena lukeen liturgigintza berriaren ildotik. Bertso berritan egindako salmodiarena, kantatzeko eginak diren otoitz giroko bertso sortak baitira liburu honetan irakurleak aurkituko dituen bat baino gehiago.

Nikolas Aldai

AITA MARTZEL PASIONISTEA

I. Eleizgizona

I.1 Aita Martzelek sinistu egiten dau.

- Aita Jaungoikoagaz tratua dauka. Bertsoz berba egiten deutso: "Bere seme-alabakaitik negar egiten dauan Aita", "Aita mundiala", "Jaungoikoa etxeko", "Zu zaitut iturburu eta itxaso"...
- Nazareteko Jesus eta bere Nekaldia dau gehienetan sermoi gai eta bertso gai: "Jesukristo gure Jauna", "Antxinako Kurutz bidea", "Kurutzan osasuna", "Jesukristo Kurutzeko kristauaren bizitza"...
- Espiritu Santuaren arnaseak indartzen dau bere sinismen bizitza: "Zatoz, Espiritu Santua", "Espiritu haizea", "Espiritua eta eleiza"...
- Sinismena sendotzeko, aita Martzelek, prestakuntzatik hasita, otoitza landu eta sinismena ospatu egiten dau: "Atez ate, gabon zorionak", "Aurtengo Belen barriak", "Txikiak haundi", "Zure presentzia barik ezin naz bizi".

I.2 Eleizan erreinuaren zerbitzari lez bizi da, eleiztarrei eta herriarrei aurpegia emonez.

- Alkarteak eta eleiz mogimentuak sortu ditu, eta aurrera egi-

ten lagundu deutse; esate baterako, "Mundu Hobeia", "Beti Aurrera" gazte mogimentua edo "Bizian Gora" adinekoen mogimentua.

- Lekuko eleizgizon lez eta lekuko eleiz ardurakizunez bizi izan da, Euskal Herriko eleizan eta, batez be, Durangaldean kokatuta. 1973-1984 aldian, Durangaldeko gotzain ordezkari izan da, eta geroago, Garaiko parrokiako arduradun, Berrizen taldeki-de, eta Izurtzako eta Mañariko arduradun...
- Nagusi eta menpeko, laiko eta obispo, Garizumako eta Gabonetako era guztietako gaiak bertsoz girotzen ditu: "Auzolanaren ederra", "Beti aurrera", "Hau izan da artzaina", "Jar zutik, laikoa"...

I.3 Sinismenduna eta eleizgizona da, eta Jesusen benetako jarraitzaile izaten jarraitzeko, aita Martzelek Jesusen jarraitzaile bikainenak gogoan ditu: Andra Maria eta Santuak.

- Bolibarren jaioa. Markina inguruan, Karmengo Amaren eskularioa ipini bako umerik ez

zan egongo. Arrateko Amari zenbat hitzaldi, bertso eta koplak Arrate Irratitik. Lourdesko Amari hainbat bisitaldi, joan aurretik, bidean doazala eta honuntzean be bertsoak kantatuz.

- Gure santuak beti euren artean: “Aita Kurtzeko”, “Balendin Berriotxoak, bertsolarien zaindari”, “Gora gure san Antonio”, “Gora Deustuko san Felizismo”, “San Lorentzo”, “San Martin”, “Santo Tomas”, “Paduako san Antonio”...

1.4 Bizian Gora nagusien eleiz mogimentuan, hasiera-hasieratik lanean eta taldea handitzen jardun dau.

- Sinismen bizitza gaurkotzea eta adiskidetasunez bizitzea dau helburu. Bizian Gora Bizkaian sortu zanetik arduradun da aita Martzel. Bizian Gora zer dan azaldu eta zabaldu egiten dau herririk herri, baita talde barriak sortu eta alkarte egunak ospatu be. Bizkaian zehar 40 talde zaintzen eta bisitatzen ditu: urtero aste bete Angoston egiten dabe, 15 egun Benidormen, kurtso hasierea eta amaie-

rea hainbat lekutan. “Alkar laguntza” ospakizun berezia be izaten dabe urtero-urtero, 3. mundurako laguntza eskatuz. Hamabostero batzarretarako gaiak prestatzen ditu.

- Mogimentu honek sortuazoz deutsoz aita Martzeli bizipen bizienak. Bizipenak bertsolaria bertsoan ipini dau. Ezin dau aita Martzelek bertso iturria itzi. Azken aldi honetan *Bizian Gora* izeneko liburu bildumea argitaratu deusku, bederatzi liburuz osotuz, esku artean dozuen *AITA MARTZEL BERTSOLARI* liburu hau kontuan izan barik.
- Adibidez, *Aita-amamen jakituria* liburuan, nagusien baloreak zaintzen eta ospatzen ditu. Eta askotan, bertsoen bidez, geure burua barrez ipinten dau.
- *Zer deritoxozu* liburuan, esaera zaharren bitartez herri bizitzan sartzen gaitu, Ebanjelioaren argia eskeiniz. *Jesusegaz topo* liburua irakurten badogu, gure eta herriaren duintasunak eta aberastasunak sentiduko doguz.

2. Gizona

- **Aita Martzelek gizakia giza-tiar egiten jardun dau.**

Gizakia ardatz hartu, eta herriagaz, eleizeagaz, Jaungoikoagaz, hartuemonetan jarri dau.

Gizakiari eleiz leihotik begiratzten deutso: jaiak, arazoak, herria, hizkuntza, santuak, gaixoak, umeak, ezinduak, gazteak, nagusiak, giza bizitza osoa argitzen ahalegindu da.

- **Gizakiarengana hurreratu eta herria barrutik bizi dau.**

Gizakiak barrutik bizi dauana, herriaren ikuspegitik, hori berori eleizeari erakutsi deutso. Eragozpen latzenak eleiztar batzuegandik jaso ditu, eta beste batzuk aukera eta laguntza handienak eskeini deutsoez.

- **Aita Martzelek bere eder jarioa, irudimena eta artista**

IBILBIDEA




sena gizatasunez, itxaropenez eta maitasunez erabili ditu: pasionisten alkartean, pasiotar familian, Euskal Herriko auzoetan eta herrietan, une gozoetan eta atsekabetuetan bere ederzaletasunaren eredu asperbakoa dogu. Hona hemen, horren adibiderako titulu batzuk: “Bakeak bakea dakar”, “Diruz erosi ezin diranak guretzat beharrezkoenak”, “Izan bihotz”,

“Kristau alaitasuna”, “Giza hel-dutasun bila”, “Urkiola, arnasleku”, “Zuk iso eta nik arre”, “Agur, Luis Antxia”, “Inuxenteak”, “Orue egoitza”...

- **Zapalduta, baztertuta edo ezinduta bizi diran behar-tsuentzat be mogimentu, talde eta modu barrien eragile agertzen jaku.** Bizian Gora taldeko partaideak oso argi daukie.

Fermin Iraolagoitia





Sinismena

Hauxe da aita Martzelen bizi ardatza. Herri bizitzaren barruan ikusi dogu beti, baina eleizgizon lez aurpegi emonez. Berari suertatu jakon eleiz aldika da luzea gorabehera haundikoa izan da. Inguruko eragin gogorrei eutsi behar izan deutse eta bere-berea dan aukera bideari jarraitu. Euskaltzaindiako urgazle izendatu eben 1968. urtean, baina lehenengotik itzi eban arlo hori albora; bertsolari txapelketearen eragile ere izan zan Bizkaia aldean hasiera baten; indarrean sartu zanean, arlo hori ere aparte itzi eban. Eleiz bizitzan eta eleizgintzan murgilduta jardun dau, aldian aldiko ekintza eta mogimentuetan esku hartuz. Euskerea eta bertsoa izan dira bere lan tresna berezienak lanbide guztietan. Sarri esan ohi dauanez, alkarteak eta eleiz mogimentuak bere sinismen bizitza ere aberastu eta sendotu egin deusiela. Bera asko ezagutzen eban abade batek esaten eban: “aita Martzel da praileen artean abadeena”; beti herri pastoraltzan ezagutu ebalako edo. Horregaitik edo, hiru aldiz bikario (gotzain ordezkari) aukeratua izan zan Bizkaiko euskal alderdian, abadeen, praile-monjen eta laikoen botoz.

AITA-AMA DAN JAUNGOIKOA

Aita! Ama!
—Zer da, semetxoa?
—Jakin nahi neuke
zelangoa dan
gure Jaungoikoa.

1

Bizia zor deutsagu
 ta bereak gara,
 gure Jainkoa Aita ta Ama
 biak da batera.

2

Aita dogun aldetik
 ona ta sendoa,
 eta Ama lez errukitsua
 hori da Jainkoa.

3

Aita, haundi eginda
 gura gaituana,
 eta gaixoa gau ta egunez
 zaintzen dauan Ama.

4

Gure bidelagun da
 Aitaren antzera,
 ta semea noiz helduko dagon
 Ama bihozbera.

5

Mundua egin dauan
 Aita Ahalguztiduna,
 eta zerua eskeintzen deuskun
 Ama on biguna.

6

Aita berbakoa da,
 ona ta zuzena,
 buruz Aita da, baina bihotzez
 Ama dau izena.

7

Aitak salbatzen gaitu
 Jesusen merituz,
 eta Ama lez bihotzak sutu
 bere Espirituz.

8

Berbaz ezin da, seme,
 nor dan ondo esan,
 Aita-Ama dan Jainkoarekin
 ume izan gaitezana.

SEME-ALABAKAITIK NEGAR EGITEN DAUAN AITA

*Gure ondoan, Jauna,
egon zaitex beti,
Zu sara gure bide
eta gure bizi*

1

Geure antzeko egin zinan Zu,
badakizu gure barri,
orain ondoan zagoz laguntzen
guztion kontsolagarri.

2

Jaio barritan: "Ama, titia"
eske ta eske negarrez,
eta gurutze baten hil zinan
Aitaxori deadarrez.

3

Aita ta ama sarri negarrez
biak alkarren onduan,
penaz beterik Zeuk be eurekin
negar egingo zenduan.

4

Zenbat gaixo ta zenbat behartsu
ta zenbat alargundurik,
eurekin negar egin zenduan
bihotza errukiturik.

5

Zer pena, asko deituak eta
hain gitxi aukeratuak!
Ezin indarrik hartu Aitaren
errukizko Erreinuak.

6

Egun barruko lanak amaitu
eta badoa mendira,
neke ta negar guztiak hantxe
Aitağaz gozatzen dira.

7

Kaliza hau kendu nigandik, Aita,
baina egin nahi dozuna,
danen gainetik burutu nahi dot
Zeuk agindu deustazuna.

8

Zergaitik, Aita, nozu kurutzan,
zergaitik itzi bakarrik?
Beti egin dot zure esana,
zergaitik zagoz hasarrik?

9

Badakit, Aita, hementxe neugaz
bihotz minez zagozana,
zeure eskuetan izten dot dana:
buru, bizi eta lana.

10

Oinaze minen artean, Seme,
egon naz zeugaz batera.
Ordua da-ta, zatoz Neugana
Jaun ta Jabe izatera.

11

Ez gaitu Aitak bakarrik izten
negarrez gagozanean,
bere ondoan hartuko gaitu
ordua datorrenean.

AITA MUNDIALA!

1

Ene Aita Jainkoa,
Aitarik onena,
nire hasiera ta
nire azkena.
Zeuretzat egin nozu,
hau da zoramena!
Hau jakin eta zelan
naiteke kondena?
Aitarik aitena,
ona ta zuzena,
emoidazu sena
seme onarena.
Bedeinkatua bedi
zure izena!

2

Ze bake ta zorion
Aitaren onduan,
leku hobeagorik
ez da munduan.
Han da zoriona, Zu
zagozan lekuan,
Zu gure poz iturri
orain ta zeruan.
Zu gure barruan
eta inguruan,
maitasun beruan,
harremon estuan.
Gure etorkizuna
zure eskuan.

3

Ez da munduan entzun
holako doktrinik,
Jesusen Barri onak
ez dau bardinik.
Aitaren esana ta
gogoia eginik,
nor da Jesus hainako
aitazulo finik!
Ez zan neke-minik,
kurutze, saminik,
Jesusek ekinik,
eroan ezinik...
Aitatxo bere alde
dala jakinik.

4

Jainkoa Aita dala
fedez dakiñunez,
horrek betetzen gaitu
askatasunez.
Bidean lagun dogu
argiz ta ilunez,
bere eskuan gagoz
gauez ta egunez.
Aitari entzunez
eta erantzunez,
bizi poztasunez
lanari jardunez.
Bizi gaitez beti
maitetasunez.

5

Egiaz autortzen dot
ni nazan makala,
Zu, Aita, errukitsu
eta leiala.
Pozik entzuten dozu
erreğu apala.
Beti agertzen zara
hain eskuzabala.
Badakit zarala
Aita mundiala,
ezer gitxi dala
nik gaur esan ahala.
Aita ez maitatzea
bai da mortala!

6

Bizitza burruka da
nunahi da nabari,
bada barru ta kanpo
guda ugari.
Makalaldian deitu
maite gaitun Hari,
eta jarraitu gogoz
geure bideari.
Begira Jaunari,
Kurutzekoari,
Bera da gidari,
gu bere gudari.
Jesus lagun dogula,
eutsi goiari!

7

Erruki hutsa zaran
Aitatxo laztana,
Jesus lagun hartuta
gatoz Zugana.
Ezagutzen gaituzu
makalak garana,
mila arrisku eta
bidea labana.
Gure neke lana,
amets ta afana,
geu osorik dana
Zureztat da, Jauna.
Emon basamortuan
zeruko mana.

8

Seme-alabok, Aita,
gatortzuz batera,
uste onez beterik
zure aurrera.
Beti bizi nahi dogu
zure esanera,
onean ta txarrean
Jesusen antzera.
Mila gorabehera,
bagatoz Etxera;
Aita bihozbera,
urten Zeuk atera.
Gurekin datorrena
da Jesus Bera.

ERRUKIZKO AITA

1

Semeak alde egin dau,
Aita, urrutira,
baina Zu ezin zara
penaz erretira.
Egunero urtenda
etxe atarira,
semea noiz helduko
ete dan begira.

2

Ardia galdu da ta
hor artzaina bila,
troka zuloan topau
deutsu erdi hila.
Bizkarrean hartuta
ai zer poz pilpila!
Zorionak emonaz
hango jente pila!

3

Pekatarri dala-ta,
gizonak harrika,
legearen atxakiz
ze erretolika!
Aita, Zuk aginduta
Jesus erruki da,
holan dala esanaz
Aitaren praktika.

5

Batzuk irribarre ta
besteak ukatu,
kurutz ondoan bazan
zeinek kondenatu.
“Aita, ez hartu aintzat
Neugaitik parkatu,
danak salbatzera Zeuk
ninduzun bialdu”.

5

Jesus eta lapurra
 biak kurutzean:
 —Jesus, nitaz gomutau
 zeruan sartzean.
 —Gaur han egongo zara
 Neurekin batean,
 Aitatxo han dauka^{gu}
 geure zain atean.

6

Zeuk bialdu zenduan
 Semea mundura,
 errukitsu zarala
 erakutsi gura...
 Izan errukiorrak
 Aitaren modura;
 danok salbatzea da
 Aitaren ardura.

7

Bihotz haundiko Aita
 ta errukiorra,
 guk hau ez sinistea
 hori bai gogorra!
 Zelan izan leiteke
 hain itsu ta gorra?
 Hau da inoiz ordaindu
 ezin dodan zorra.

8

Aita, hori bihotza
 samur ta leiala,
 errukizko itsaso
 sakon ta zabala!
 Egizu hau bihotzez
 sinistu daidala!
 Eskerrik asko, Aita,
 bai ona zarala!

GURE AITA

1

Hau da nire sinismena,
hau da nire zoramena!
Zeru ta lurren Egile Jaunak
AITA dauala izena!
Jesusek dino AITA zarala
eta Aitarik Aitena.

2

Jesusek esana baita
Zu zarala gure Aita.
Bizitzan dana geure onean
dator Zeuk holantxe nahita;
honetan beti ziur gágoz gu,
gaituzulako hain maita.

3

Zugan dogu hasiera
eta Zugan amaiera,
Mundu honetan badoguz, Aita,
makina bat gorabehera,
lagun eíguzu bizi gaitezan
beti zure esanera.

4

Aitaren Urtea aurten
nork ondo ospatu leiken!
Espiritua, lagun eíguzu
ABBA-AITATXO esaten,
eta Jesusen jarrera hartzen:
“Aitaxo, hona ni hemen”.

OI, AITATXO!

Agur zeruko Aita
errukiz betea,
zein gozoa dan Zuri
holan deitutea!
Beti dozu zabalik
etxeko atea,
Zu bai zarala ona,
Aitatxo maitea!

Iturritik dario
ur geldi ezina,
itsasoratzea da
bere atsegina.
Ezin ahaztu Zeuretzat
nozula egina,
Zeuk aseko deustazu
nire zuremina.

Tan-tan joka seintxoia
amaren sabela,
munduko argitara
urten nahi leukela.
Zure aberri minez,
ai, nire txanela,
mundu barrirantz doa
seintxoia bezela.

Aitatxo, zure bila
nabil bihotz-begi,
han-hemen zagozala
ta bilaka segi.
Bila dabilen honek
noizbait lortu begi:
Aita, Zeu ikustea
aurpegiz aurpegi.

JAINKOA AITA DA

1

Badakit AITA dala
gure Jaungoikoa,
poz-pezik bizitzeko
ez al da nahikoa?

2

Zure bidetan, Aita,
ez genbilzan artez,
zeuganatu gaituzu
Jesusen bitartez.

3

Espiritu Santua
bialdu deuskuzu,
berarekin Aitatxo
guk deitzen deusugu.

4

Zuganako bidean
lagun Andra Mari,
berarekin, Aita, gaur
gaukazuz kantari.

5

Bideko argi dogu
Aita, zure Hitza,
berak zuzentzen deusku
munduko bizitza.

6

Eleizan alkartuta
Jesus dogu buru,
Espiritua lagun
Zeu, Aita, helburu.

7

Zein aukera ederra
den Bizian Gora,
Aita zarala sartu
deust bihotz hondora.

8

Bizian Goran alkar
zenbat dogun maite!
hortxe zeruan, Aita,
Zeu ikusi arte.

JAINKOA ETXEKO

1

Behin baten izan nintzan Angoston,
hiru-lau urte badira,
nire bizitzak han hartu eban
ehun ta laurogeiko jira.
Bizian Gora Mogimentuak
egin ninduan konbida;
halako zerbait gozo-gozoa
sarturik bihotz erdira,
hantxe lehenengoz: "ene Aitatxo"
esan neutsan aurpegira.

2

Ustekabean, zelan ez dakit,
ez zan izan berehala,
baina ohartzen joan nintzan neu,
neure jabe ez nintzala.
Gau ta egunez beti ondoan
Jaungoikoaren itzala,
neu hortik zehar ibili arren
Bera beti da leiala,
larri orduan ez jat faltatzen
ama on baten magala.

3

Lehengo Jainkoa sinisten neban
urrun eta bildurgarri,
handik honuntza sentitzen dot nik
etxeke ta maitagarri.
Zenbat pekatu? Zelan aitortu?
Lehen ze estu eta larri!
Gaur nire kezkek aldatu dira,
Jauna Bera dot egarri,
kezka bildurrak uxatu deustaz
ta maitasuna ezarri.

4

Lehengo kezka zan zelan salbatu
bakotxak bere burua;
orain, gehiago kezkatzen nau ni
zelan ondu ingurua.
Beso zabalik kurutzean Zeu
zaitut nire liburua:
malkoak xuka, zauriak senda,
poz bihurtu zizpurua...
Jesus Jauna, Zeuk esanda dakit
dala bide segurua.

5

Lehen uste neban zerua zala
irabazien ordaina,
zenbat ahalegin zelan goituko
zeru gailurraren gaina.
Lehengo antzean, orain ta gero
pekatari gara, baina
geure aldera jarrita dago
maite gaituan artzaina;
bere burua jokatu dau-ta,
ziur nago, alajaina!

6

Benetan zara, Jesus maitea,
bihotz eder ta haundiko,
Zeuri zor deustut egin zarala
gaur nire bihotz erdiko.
Niregan graziz egin dozuna
agirian dot jarriko:
ziur nago Zuk zure eskutik
ez nozula, ez, itziko,
bat-bat eginda bizi gaitezan
Zu ta ni, biok, betiko.

ZU ZAITUT ITURRI ETA ITSASO

1

Inortxo bada gaur jakin-minez
gure zahartzaroko barri,
bertso batzuek jartzera noa
horrexen erakusgarri:
kristautasunak zahartzarorako
zenbat on deuskun ekarri!
Orain arteko martxa aldatu
ta askoz hobean jarri...
Ondorengoei profeta gisa
nahi deutsegu iragarri.

2

Gure begiak iluntzen doaz
mundu hontako argira,
baina barrutik argituz doaz
ederrago dan bizira.
Hamaika gauza ikusi dabe
ta orain dagoz begira:
itxuraz eder ziran guztiak
egiz hainbeste ez dira;
argigarria da begientzat
goitik datorren distira.

3

Gaur batetik ta bihar bestetik
gor haizea belarrian,
entzun nahi eta entzun ezinez
adi egon beharrian.
Isiltasunez inguratuta
sarri dago bakarrian,
Lagun barri bat ondoratu jat
alkarrekin marmarrian,
bihotz hondoan, a zer jarduna
alkarrizketa barrian!

4

Nire zentzunak moteltzen doaz,
bardintsu daukat mingaina,
edari biziz bizkortu behar
hartzeko bere tamaina.
Baina neugan dot Adiskide bat,
hau kontulagun bikaina!
Etengabeko alkarrizketa
ez dakit zelan dan, baina
noiznahi eta nunahi jarduten gara
hitz eta pitz geuk nahi aina.

5

Nire eskuak dardarka baten
biak alkarren antzeko,
orain ez dagoz burrukarako,
ezta lanik egiteko.
Baina lehen baino zabalagoak
mesedeak banatzeko,
etxe ta kanpo bake bideak
esku emonez lantzeko,
beti dagoz prest, nire ilobak
eta Jesus laztantzeko.

6

Nire gerrian eta oinetan
erreuma edo herrena,
ibili nahi ta ezin ibili,
zahartzaroak dakarrena...
Orain astiro nabil ta zuzen,
zahartzea ez da txarrena!
Bizkor ta oker baino hobe da
zuzen hartu azterrena,
asko ez baina zuzen doana
horixe da azkarrena.

7

Ezin naiz zutik ibili eta
ezin nahi dana makurtu,
gitxien uste danean zerbait
atera edo apurtu...
Ni neure martxan konforme nabil,
ez daukat zertaz bildurtu;
kilometroka mantsotu, baina
Jainko bideetan zuhurtu;
bide okerrak kendu ezkeru,
zuzenak berez laburtu.

8

Nire bihotza aspaldi baten
jabilkit nekez ta minez,
urte askoren zama astuna
ondo eroan ezinez.
Baina hustuz ta garbituz doa
lehen egindako zikinez...
Eta betetzen guztientzako
maitasun garbi ta finez,
pena bat daukat: egin ahal izan
eta gehiago egin ez!

9

Aspaldi baten erdi galduta
daukat nire memoria,
batean xoxo, bestean kuku,
hor dabil goiko txoria...
Gaurkoa ahaztu eta gomutau
haurtzaroko historia...
Hagaitik ez dot hain errez galtzen
nire gogo umoria,
Jaunaren esku dana itzita
hau da benetan gloria!

10

Lau pauso txiki emon orduko
urduritzen jat arnasa,
berez ikasi dot ez nazala
lehengo Joan edo Tomasa.
Baina lehen baino maiteago dot
gaur jokoa ta jolasa,
eta barruan hau bizi poza,
hauxe adore demasa!
Ez da alperrik, Jauna, Zurekin
hainbeste denpora-pasa!

11

Liraintasunak ihes eginda
zimurtu samar azala,
iruditzen jat udazkeneko
frutarbola bat nazala:
amets txoroak joanak dira
orbel igarrak bezala,
gaurtik aurrera nire bizitzak
fruitua emon daiala,
eskeintzen jarrai askorentzako
fruitua eta itzala.

12

Ez naz gauza ta galduta daukat
lanerako jenioa,
ez daukat ezer, ez dakit ezer,
agur nire balioa!
Baina aurkitu dot, zorionez,
nire estimazioa:
zelan leiteken hau jakiteko
hartu Ebanjelioa;
danen gainetik baloratzen da
bakarrik amodioa.

13


Hau holantxe da, eta alperrik
ezinari jo ostiko,
kezkaz nago hau laster amaitu
ta gero zer etorriko.
Jesus gúgaitik munduratzea
ez zan izan alperriko,
Berak desegin dau heriotza
eta bizi da betiko;
danau nigaitik eginda gero
ez nau ez galtzen itziko!

14

Nire bizia amaitzeaz ta
hau da bizi egarria!
Edanago ta egarriago,
hau da hau itolarria!
Ama lurraren sabel zaharrera
Zuk ninduzun ekarria,
laster nozu hor magal beroan
ni ume jaiobarria;
nunbait Zu zaitut nire iturri
ta itsas zoraagarria!



Santa Ageda jaiegunez —Izurtzan— eleiz eta herri arduradunak, aita Xanti mahaiburu eta koplakari dala.



Juan Manuel Agirreazkuena eta Agurtzane Zigorrage aita Martzelegaz Angoston.



Alkarlaguntza egunean Elorriko Asuncionista praileen eleizan.



Kurutzedun biziak —Jesusen ordezkook— Bizian Gorako lagunen bisitatxoa hartzen.



Mañariako zidarrezko Kurutzea. Aita Martzel Karlos Amantegi (zirineo) eta guzti.



Bittor Atxotegi eta Felix Atxa Bizian Gora Bizkaian hasi zantetik arduradun izandakoei agurra, esker ona agertuz eta txalotuz; Gernikako Errenteriko eleizan kurtsoaren azken eguneko ospakizunean. Asko zor deutse Bizian Gorak. Eta euren ondoan Bitoriano Arrien lehendakari barria, Pilar Bengoetxea eta Lourdes Elorriaga, arduradun barriak.

BARRI ONAREN PROFETA

1

Nazareteko Gizona,
inor bada, ha bai ona!
Gaixo ta pobre errukarriei
osorik emona.
Hauxe da Berak dinona,
Aitak agindu eutsona:
Jaungoiko Aitak benetan nahi dau
danon zoriona.

2

Gizonak kurutzan hila,
Aitak: "berbiztu dedila!".
Ez gero inor hilen artera
joan Haren bila.
Espiritua dabila
bizi sortzaile isila;
heriotzatik sortzen badaki
bizitza pilpila.

3

Zer dagon Kalbarioan,
Jesusen misterioan?
Dana amaitu zala ustetan
bere herioan.
Aitaren amodioan
biztu da ondorioan;
geroztik beti kurutzta dago
bizi jarioan.

4

Jesus dogula bitarte
danok gara senitarte;
Espirituak moldatu gaitu
Eleizan alkarte.
Diferentziak aparte,
gorputz bizi baten parte;
bere testigu gara, mundua
mundu dogun arte.

5

Lurrera doan hazia
neguz usteltzen hasia,
udabarrian hartzen dau barriz
bizi arnasia.
Hori bai dala gauzia:
heriotzatik bizia!
Hau da Jesusek jarraitzaileoi
damoskun grazia.

6

Ai, holako albisterik
ba al dago sinisterik?
Hilen artetik biztu dan Jaunak
zer dino besterik?
Kristau fede ta usterik
ez dau merezi izterik;
hau sinistuta ezin leiteke
bat bizi tristerik.

7

“Aiene eta aiena”
 beti holan dabilena,
 kanpaiak joten dihardu, baina
 beti da hilena.
 Pobre da aberatsena,
 aberats da pobreena;
 zoriontsu da bakarrik Jaunak
 asetzen dauana.

8

Dana da dan bestekoa,
 ez nahi dogun modukoa;
 buztarri hortan ekandu dana
 zorionekoa!
 Ezer ez da betikoa,
 bakar-bakarrik Jainkoa;
 AITA dogula jakin ezkeru,
 ez al da nahikoa?

9

Kristau baten jokaera
 beti dago baietzera;
 bizi poza ta itxaropena
 da bere aukera.
 Joan dana itzi atzera
 eta begira aurrera;
 bizibarritzen da egunero
 Jesusen antzera.

10

Goiko arnasez beteta,
 Barri Onaren profeta;
 bere bizitza beterik dago,
 ez da barriketa...
 Ez da nahikoa protesta,
 buru gogorra ere ez da;
 Jesus bizi da, ekin ta jarrai.
 Eup, hori dok-eta!



BERBIZTU DA! BERBIZTU DA!

*Berbiztu da, berbiztu da
Jesus gure Jainkoa!
Zorionak! Zorionak!
Gaur da gure Paskoa.*

Negua amaitu da ta
betor udabarria,
Jaunak hausi dau betiko
heriotz lokarria.
Agur gauaren iluna,
hau argi pozgarria!
Jesus Jauna biztu da ta
askatu eztarria.

Jaunak agindu euskunez,
maitatu daigun alkar;
anai lez bizi gaitazan,
ez inor itzi bakar.
Aingerua deika dago:
“ibil zaitzeze azkar”.
Egiz alkar maitatzeak
Jesus tartera dakar.

BIZI BARRIKO KUKUA

1

Garizumatik Pazkora
bide ta neke asko da;
baina zer poza ekarten dauan
bihotzen hondora!
Hau bai pozezko denpora!
Jaurti tristurak kanpora!
Jesus biztu da eta dinosku:
jagi danok gora!

2

Hauxe dogu guk sinistu:
“hil zan Jesus dala biztu”.
Guretzat egun haundia da-ta,
jo danbolin, txistu.
Badira mila arrisku,
gogoa daigun barriztu:
hilen artetik biztu dan Jaunak
indar emon beisku.

3

Kanta daigun alkarrekin,
Pazko poza gorde ezin!
Hilen artetik biztu dan Jesus
hemen da gurekin.
Bizi barriari ekin
eta zabaltzen ahalegin;
Jesus Jainkoa mundu guztian
maitatua dedin.

4

Bizi barriko Kukua,
agur, Jesus Berbiztua!
Negu ondoren, udabarria;
danon gogokua.
Kendu hileta malkua,
Garizumako mantua:
heriotzatic bizira goaz,
gaur dogu Pazkua.

5

Hemen da udabarria,
nunahi da ezaugarria:
euskaldunok gaur ospatzen dogu
egun pozgarria.
Hau da gure egarria,
Jesus dogu iturria;
bakez ta pozez zaindu Zeuk, Jauna,
gure Aberria.

6

Aupa andra ta gizonak,
bardin aitona-amonak:
Hartu guztiok ZORIONAK gaur
Martzelek emonak.
Heriotz lurpe sakonak
itzi ditu Jesus onak;
bere izenean, hartu ta goza
PAZKO ZORIONAK!

BIZI DA BIZI!

1

Kristo Jauna biztu da,
gaur dogu Pazkoa.
Kristau zintzoak noiznahi bizi dau
“pazkoetakoa”.

2

Jesus gaur biztu dala
badogu sinisten,
zergaitik negar eta hiletak
ez doguz behin izten?

3

Biztu jakuna ez da
aldendu inora;
zuri ta niri, bidelagun lez
jatorku ondora.

4

Bakardadean, lagun,
beti gau ta egun,
pozetan eta neke-minetan
geugaz dago nahinun.

5

Kristau anaiartean
Bera da mahaiburu,
fedez ta pozez alkartzen gara
Beraren inguru.

6

Gure bizitzak badau
nundik norakoa,
gure zentzun ta zimentarria
biztu dan Kristo da.

7

Bildur ta heriotza
hartu ditu mende,
bere indarrez onartzen doguz
hainbat lan ta neke.

8

Kristok askatu gaitu,
apurtuz kateak;
eta zabaldu deuskuz betiko
zeruko atea.

9

Alai, aske ta bakez
gizon danen anai,
hori da Kristok eskeintzen deuskun
grazi ta onginahi.

10

Eskerrik asko, Kristo,
zorionak Zuri!
Inork ez beste mesede egin
deuskuzu gaur guri!

11

Hauxe da bizi poza,
Zuri esker mila!
Kristo, Zeu zara bizi barria
darion pilpila.

12

Basamortuan zehar
pozez aberrira,
Zeu bidelağun, zuzendu gaizuz
zoriondegira!

JESUKRISTO GURE JAUNA

1

Urtez adin betekoa,
ez naz atzo goizekoa;
baina gero ta egarriago
jabilkat kolkoa.
Sinisten dot Jaungoikoa,
kristau naz ni betikoa;
oraindik ez dot Jesukristogan
sinisten nahikoa.

2

Jainkoa gizon egina,
ume koxkor atsegina;
pekatuan ez, bestetan dogu
gurekin bardina.
Badaki zer dan samina,
egin nahi eta ezina...
Kurutze baten gúgaitik hil zan
hain maitale fina.

3

Jainko ta gizon batera,
biak benetan gainera;
Jainkoa gizon, gizona Jainko,
hau dok hau aukera!
Pekatuak gorabehera,
zorionekoak gera;
Aitarenean bitarteko ona
dogu Jesus Bera.

4

Aita dala ta ez dala,
zenbat neke astrapala!
Bere Erregetza zabaldu nahirik
Haren egin ahala!
Aitaren Seme leiala,
guretzat bihotz zabala;
gorengo mailan beti jartzen dau
gaixo ta makala.

5

Hau da beharrezkoena:
hartu bide on zuzena;
bihotz barritu ta gero deitu
Jesusen izena.
Lehenengoa da azkena,
ta azkenengoa lehena;
azpikoz gora jarri deusku ta
munduko ordena.

6

Zelan lortu zoriona?
Entzun Jesusek dinona:
Bihotz pobrea izatea da
iturri sakona.
Bakegile dan gizona
errukitsua ta ona,
geroko pozez, Jesusen alde
osorik dagona.

7

Nun egon gaixotasuna,
han Jesusen maitasuna;
herren, itsu ta gaixoentzat da
Jesus ezaguna.
Gatx minduei osasuna,
saminduei poztasuna;
danen gainetik, hauxe da Jesus:
“pobreen Laguna”.

8

Kurutze baten ezarri,
oinaze minetan larri;
zigor, arantzak, Kurutza ditu
Jaunak ezaugarri.
Ondo daki gure barri,
gogora dagigun hau sarri:
kurutzan hilez gaitu Jesusek
bizira ekarri.

9

Kurutza ez da azkena,
bai ondoren datorrena;
Jaunak betiko menperatu dau
etsairik txarrena.
Jesus dogu gogorrena,
jakina dogu horrena:
“ez da sekula galduko Niri
jarraitzen deustena”.

10

“Zoaze munduan zehar,
ez zaituet izten bakar”;
Espiritua lagun, Jesusen
barri emon behar.
Zabaldu ziran bai azkar,
lau haizetara su ta gar;
gaurko Jesusen lekuko gara
gu gazte eta zahar.

11

Jesu da gure bizia,
bidea eta egia;
Berari esker, garana eta
daukagun guztia.
Badogu bere grazia,
zerua irabazia;
harro sentitzen da Jesusekin
kristau errazia.

12

Hau kristau anaiartea,
Eleizako alkartea;
Jesusek guri dohan emonda
loteri partea.
Kristau lez bizi tartea,
ta zaindu pasaporteia;
Jesusi esker, adiskidea,
hau da suertea!

13

Jesusen Ama Maria,
eta bardin da guria;
Jesusen jarrai, fede bidean
dogu gidaria.
Entzun, Ama, eskaria:
emon grazi ugaria;
zure ondoan lortu dagigun
betiko saria.

14

Zer garan dogu ikusi,
eskerrak gure Jesusi!
Orain bizitzan behar dogu hau
egiz erakutsi.
Jesu inoiz ere ez itzi,
bere eskuari eutsi;
orduan ziur, Jesusekin gu
bai gara nagusi!



Bizian Gora kristau eskola sakona da; eginaz ikasten da. Eta zelan parte hartu ospakizunetan!



"Hemen errezu gitxi eta otoitz asko egiten dogu", azpimarkatzen dabe bertan dabilzan askok.

JESUS KURUTZEKOARI

1

Hemen gaukazuz, Jesus maitea,
zure aurrean apalik,
Zeu zaitugu hor kurutzan hilda
gure zain beso zabalik.
Aitak bialdu zinduzan, Seme,
gu ikusita makalik,
errukarri dan batentzat ez da
inun holako magalik!

2

Aitarengandik etorri zinan;
oi, Jesus, gu salbatzera,
bizira deika ibili zinan
eskeiniz mila aukera.
Azken batean emon deuskuzu
zeure bizia berbera;
gu bizitzeko, Zuk hil beharra,
ama on baten antzera.

3

Horrenbestean maite ginduzun
hortik zure hil beharra,
egiten danaz erakusten da
maitasunaren indarra.
Jesus maitea, biztu niregan
Zureganako sugarra,
gaurtik aurrera izan zaitezun
Zu nire bizi bakarra.

4

Gaur bedeinkatzen zaitugu, Jesus,
nahiz ta ukatu behinola,
pekatariok Zugar daukaugu
salbazinoko kaiola.
Aitari deika, gutzat parkeske,
borbor odol dariola,
Zeu kurutzean zaitugu, Jesus,
gure Maisu ta Eskola.

JESUKRISTO GURE JAUNAREN AITA

A, a, a...

Agur Jesusen Aita,
neurea ere baita;
Beraġaz zaitut maita
A, a, a, agur Jesusen Aita.

E, e, e...

Ene Aitatxo maite,
nik zure borondate
beti nahi neuke bete.
E, e, e, ene Aitatxo maite.

I, i, i...

Aitaren zerbitzari,
gizonen ordezkari,
gure alde opari.
I, i, i, aitaren zerbitzari.

O, o, o...

Zuk badakizu ondo
nik zaitut maiteago
beste guztiak baino.
O, o, o, Zuk badakizu ondo.

U, u, u...

Harrigarri zara Zu,
ahuspeztuta naukazu,
otoitzean jo ta su
U, u, u, harrigarri zara Zu.

A, a, a...

Gure Aita ta dana,
zeruetan zarana,
nik maite zaitudana
A, a, a, gure Aita ta dana.

E, e, e...

Jainko izenaren jabe,
Zureak goi ta behe,
danak autortzen dabe.
E, e, e, Jainko izenaren jabe.

I, i, i...

Erreinuaren barri,
nahi dogu iragarri,
munduan martxan jarri.
I, i, i, erreinuaren barri.

O, o, o...

Nire buru ta gogo,
Aita, beti prest nago
zure nahia egiteko.
O, o, o, nire buru ta gogo.

U, u, u...

Ogia emoiguzu,
gure zorrak parkatu,
bardin daigun jokatu.
U, u, u, ogia emoiguzu.

A, a, a...

Guk sinisten doguna,
 Aitaren maitasuna,
 Zuk beti deuskuzuna
 A, a, a, guk sinisten doguna.

E, e, e...

Bakarrik itzi nabe,
 zatoz Zeu nire alde,
 ezin dot nik Zu gabe.
 E, e, e, bakarrik itzi nabe.

I, i, i...

Aitatxo, Zeuk ikusi,
 ez ni bakarrik itzi,
 laguntza erakutsi.
 I, i, i, Aitatxo, Zeuk ikusi.

O, o, o...

Hau eta ondorengo
 zure eskuetan daگو,
 Zeuk nahi dozuna ondo.
 O, o, o, hau eta ondorengo.

U, u, u...

Zeure semea nozu,
 nahi dozuna egizu,
 zer egin Zeuk dakizu.
 U, u, u, zeure semea nozu.

NI NAZ BIDEA, EGIA ETA BIZIA

1

“Ni naz zuen BIDEA
garbi ta zuzena,
betor nire atzetik
bila dabilena”.

—Gehitu eiguzu, Jauna,
gure sinismena,
Zeu zara zerurako
biderik onena.

2

“Ni naz goiko EGIA
behin ta betikoa,
bizitzaren berbea
ziur ta tinkoa”.

-Zu gure Eguzkia
bihotz betekoa,
argitu gaizuz beti,
Jaun bihotzekoa.

3

“Ni naz zuen BIZIA
goitik etorria,
agortu ezina da
nire iturria”.

—Emoiguzu edaten
ur bizigarria,
Zeuk asetu egizu
gure egarria.

NUN JAIO BILA

1

Bertso batzuek jartzera nator
ahal ditudanik onenak,
danoi bihotzez ezarri nahirik
poztasunezko kemenak.
Harrotzen gaitu, ta ez lotsatzen
dogun kristau sinismenak,
Kristogan daukaz bere sustraiak
gaur gure itxaropenak,
alkarren alde egin Berari
eskaririk beroenak.

2

Jainko txikia, gizon haundia,
hau bai dala miraria!
Gauza txikian dagon haundia:
gizonen zerbitzaria.
Lagun eiguzu egin egiten
sobra dago hizlaria;
maitasunezko burrukan beti
Zeu zaitugu gidaria,
on egitea izan dedila
bilatzen dogun saria.

3

Zure helburu beti izan zan
Aitaren borondatea,
Aita bihotzez goraldtu eta
gizonei on egitea.
Ondo dakigu etxe askotan
dago norbaiten faltea;
betoz etxera, behingoz itzirik
espetxe ta erbestea,
zure jaiotzan izan daigula
danok zorion betea.

4

Zure inguruan batzen gaituzu
Jesus Ume jaiobarri,
urtero kantuz jartzen dituzu
guztion bihotz-etzarri.
Gaixo ta pobre, bakar ta mindun
geuk on eginaz alkarri,
barrero ere jaio zarala
askok daiola igarri;
etorri zatoz, baina ama ordez
behar dozu nork ekarri.

OI, EMMANUEL!

1

Gaur EMMANUEL jaio jaku ta
hau da gure bizi poza!
Belen aldian agertu jaku
bizi barriaren goiza.

2

Oi, Emmanuel, "Jainkoa gūgaz"
hau da zorion betea!
"Jainkoa gūgaz" Zeu zaitugula
lurra ez da erbestea.

3

Oi, Emmanuel, "Jainkoa gūgan"
Zu gure bizi laguna,
"Jainkoa gūgan" Zeu zarala, ni
zelan bizi alarguna?

4

Oi, Emmanuel, "Jainko gūgaitik"
lurrera jatsi zinana,
"Jainko gūgaitik" jaio zara-ta,
eutsi gu garean dana.

5

Oi, Emmanuel, "Jainkoa gūtzat"
hau bai mundu aldrebesa!
"Jainkoa gūtzat" zarealako
guk damotsugu "baietza".

6

Oi, Emmanuel, agertu zara
gaur gūgaz maitemindua,
Gabon gauean dana bete da,
egia lehen agindua.

ZUK JARRAITU EGIDAZU!

*Hori da maitasuna,
Jauna, deustazuna! (bir)
Dei ta dei zagoz noiz jasoko zain
nire erantzuna. (bir)*

1

Amaren sabelean
sortu nintzanean,
aurrez nengoan, Aita,
zure bihotzean.
Izenez deitu zeunstan
maitez jaiotzean,
eta eusten deustazu
arnas bakoitzean.

2

Zenbat bider jaso dot
zure dei isila,
aukerak izan ditut
mila eta mila...
Orain Zeuk jarri nozu,
Aita, zeure bila,
zeurea nozu eta
zeuretzat nadila.

3

Sarri egon naz minez
kurutzan negarrez,
ta bertan entzun zaitut
“Aita” deiadarrez.
Jesus neu lez kurutzan
neu salbau beharrez;
kurutzan salbau nozu
maitasun indarrez.

4

Zuk, Aita, deitu eta
nik Zuri erantzun,
bizitzan egin gara
alkarren ezagun.
Alkarrentzat izanaz,
zer poza dauka gun!
Ez dot besterik behar
Zeu bazaitut lagun.

ESPIRITUAREN DOHAIK

1

Laster bi mila urte ditugu
 Jesus gizon egin zala,
 ahal dan ondoen hau ospatzeko
 egin jaku dei zabala.
 Gogoan hartu aurtengo txanda
 Espirituak dauala;
 otoitz ta jardun, gertatzen dabil
 Jesusen Eleiz leiala,
 Espirituak bere dohaiez
 eurrez hornidu gaizala.

2

Jesus Maisua da kristauontzat
 bizitzako gidaria,
 baina munduak zabaltzen deusku
 saltsa-maltsa ugaria.
 Espiritua gugan dauka
 Jesus Berak isuria;
 egia zer dan jakin dagigun
 jainkozko JAKITURIA,
 maisuak maisu, baina Jesus da
 bakarrik geure-geuria.

3

Gatxez ta gaiztoz har jota dago
 Adan zaharraren sustraia,
 guk ezin dogu ezagutu ta
 bete Jainkoaren nahia.
 Baina Jesusek bihurtu deusku
 jainko semetzako gaia,
 ta Espirituak isuri deusku
 ADIMENAREN dohaia,
 bere laguntzaz burutu daigun
 Aitaganako bidaia.

4

Hau zoriona, Jesus Bera da
 danetan gure kidea,
 Berari esker, gizakia da
 Jainkoaren senidea.
 Gugan bizi dan etxe laguna
 Espiritu Aixkidea,
 bere Hitzez ta bere dohaiez
 damosku BURUBIDEA,
 buru-bihotzez daigun Aitaren
 gogoko erizpidea.

5

Azken orduan Jesus maiteak
 emon euskun zeregina:
 Jainko erreinu egin daigula
 mundu oker erdikina.
 Okerra beti indartsua da
 Eleiza, barriz, erkina;
 baina hor dago SENDOTASUNA
 Espiritu eragina,
 bere laguntzaz eginkor jaku
 geuretzat dana ezina.

6

Alperrik jardun, Jainkoa nor dan
 buruz ezin da ulertu,
 Berak nahi dauan lez bakoitzari
 egiten jako agertu.
 Espiritua dabil lanean
 eta ezin da aspertu;
 geuk jakin barik, argitzen gaitu
 eta JAKINTZAZ suspertu;
 Jainkoa nor dan Berak bakarrik
 agertu daike eta zertu.

7

Zer misterio ete da, jaunak,
 fededunaren bihotza!
 Seguru asko barru giroa
 ez da izango lei hotza.
 Espirituak nahi dauan eran
 zuzentzen dau bakoitza;
 barru muinetan isurtzen deutso
 dohaiez maite OTOITZA,
 Jaungoikoari AITA deitzeko
 grazi ahalmena damotsa.

8

Maiteminduak ba ete deutse
 alkarri lotsa bildurrik?
 LOTSA ta BILDUR SANTUAK ezik,
 ez da besteren apurrik.
 Jainkoa eta kristau zintzoa,
 nun da hain lagun samurrik?
 Espirituak lagun ezkerok,
 hor ez dago, ez, guzurrik:
 hau dakianak daki, bestelan
 inork ezin emon hurrik.

ESPIRITUARI OTOITZA

- E** spiritua, eske gáukazuz,
gúgana etorri zaite,
Zeuk lagunduta, Aita Jainkoa
bihotzez daigula maite.
- S** uzko mihingainez agertu zinan
apostoluen gáinera,
dohai bardinez jaitsi zakiguz
zure zintzoen artera.
- P** ekatupean katigaturik
askatasunaren bila,
Espiritua, zure laguntza
gúgana jatsi dedila.
- I** ndar emoile zarean Hori,
erruki, zatoz gúgana,
Zeuk lagunduta, bete ahal daigun
gure bizitzako lana.
- R** i-rau edozer esan ta egin,
ez da izaten onena;
emoiguzu Zeuk bide onean
behar dogun iraupena.
- I** lunaldian argi zaitugu,
nekealdian laguntza,
gure indarrak huts egitean
Zeuk eraiguzu goruntza.
- T** utik ez daki inork Zu barik
zer ta noz komeni jakon,
Zugán ustea jarri dogu-ta,
norabidea Zeuk emon.
- U** stekabean jausten bagara,
laprast eginda lurrera,
Zeuk dakizun lez, jaso gágizuz
jarraitu daigun aurrera.
- A** men esanda, Espiritua,
amaitzen dogu jarduna,
asko eskatzen deutsugu eta
Zeuk emon behar doguna.

ESPIRITUA ETA ELEIZA

1

Eleizaren miraria
benetan harrigarria:
era batera santua dogu
ta pekataria.
Giza haragiz jantzia,
barrutik Jainkoz betia;
Espiritua da Eleizaren
indar ta bizia.

2

Zelan leiteken horrela,
Eleiz Amaren sabela?
Espirituak Ama eginez,
Maria bezela.
Hark kentzen deutso ustela,
bizkortzen pauso motela;
eten barik dau biziazoten,
galdu zan bestela.

3

Ondo datoz jakintsuak,
ekintzaile ta maisuak,
baina Eleizan euskarri dira
fededun santuak.
Menperatuz arriskuak
eta sendotuz eskuak,
euren bitartez biziazoten
dau Espirituak.

4

Ez bada Espiriturik,
ez dago sakramenturik;
ez bokazino, ez Bibliarik,
ez santa-santurik.
Badoğu eskarmenturik,
euki daigun sinisturik:
azal hutsa dan Eleizan Jaunak
ez dauka lekurik.

5

Zelangoa dan gorputza,
asko eragiten deutsa:
Espiriturik ez dan lekuan
dana azal hutsa.
Hau Eleizaren kurutzta,
baina ez da umezurtza;
Espirituak emoten deutsa
goiko arnas putza.

6

Sinismena dala bide,
Eleizan danok senide:
Jesusen Gorputz santuan danok
gara atalkide.
Egina dogu konbite:
orain alkarren lankide,
Espirituak egin gaizala
zeruan mahaikide.

ESPIRITU ARNASEA

1

Eginak gara buztinez,
Jainkoaren esku finez.
Aitak bihotzez gure gainera
bizi arnasa eginez;
seme-alabok bete ginduzan
bere izate bardinez.

2

Bizitza ez da jolasa,
ostatu baten gaupasa.
Bide luze ta aldapa gora
ezin iraun geure kasa;
indar adorez gu betetzera
dator Aitaren Arnasa.

3

Guk zer egin badakigu,
baina barrutik katigu.
Espiritua arnasa sendoz
askatzera datorkigu,
nunahi ta beti izan gaitezan
Jesus Jaunaren testigu.

4

Oraindik ez da nahikorik,
badoğu egitekorik.
Espiritua, Zureztat ezer
ez dago ezinezkorik;
txikia haundi egin daikenik
nor da Zu bezelakorik?

ESPIRITU GIZONA

1

Birjaioa dan gizona,
gogoz garbi ta sakona.
Bizi barria barrutik polpol
Espirituz dariona;
Jainkoa Bera Aitatzat dauka,
hau bai dala zoriona!

2

Jesus Maixuaren jarrai,
gizon danak ditu anai.
Bere ardura, nori on egin,
batez ere behartsuai;
Espirituak eraginez ta
zerbitzari izateko gai.

3

Munduan bizi beharra,
baina ez da mundutarra.
Goğor eginez menderatzen dau
pekatuzko lege zaharra;
Espirituak emoten deutso
horretarako indarra.

4

Goğo ta bide zuzenez,
bizi da itxaropenez.
Espirituak sendotuten dau
goiko graziz ta kemenez;
ğero zeruan horniduko dau
koroï eder ta omenez.

ESPIRITU HAIZEA

1

Itsaso sakon zabala,
antzu sabel ta azala;
Espiritua ezarri jakon,
eta horra berehala:
arrain haundi ta txikiz bete zan
itsasoak hartu ahala.

2

Haize gozo eta fina,
Espirituz eragina:
Harek baretzen deusku bihotza,
ase gūgan jainkomina.
Jainkoa Bera gertatzen jaku
bizi lagun atsegina.

3

Haizearen burundara,
Apostoluak dardara.
Espirituak atera zitun
zokoetatik plazara:
“Jesus bizi da, gurekin dago,
Haren testigu geu gara”.

4

Zatoz, Haize zerutarra,
bultza gure ontzi zaharra!
Zatoz Jesusen Espiritua,
Jainko Aitaren indarra;
bizi barriko itsaso zehar
zaitez gure Artizarra!

ESPIRITU SUA

1

Jesus jaitsi zan lurrera,
su bizia ekartera.
Espirituak garbitzen gaitu,
urrea laban antzera;
Aitarengana eroan gaitu
familia izatera.

2

Sinain sutan sasia,
basamortuan zuzia.
Bizitzan zehar agertzen deusku
Yabe ezin ikusia;
Espirituak suz eta argiz
dakar bere presentzia.

3

Jaitsi zan Espiritua
Jesus Jaunak agindua.
Suzko mihingainez aldatu eban
apostoluen burua;
eta bialdu zitun zabaltzen
Jainkoaren Erreinua.

4

Espiritu gidaria,
behartsuen zaindaria.
Zeugana gatoz laguntza eske,
lagun dogula Maria:
orain zaindu ta Zeuk emoiguzu
gero betiko saria.

ESPIRITU URA

1

Jesus Jordango uretan,
Aita zerutik berbetan.
Espirituak bizi barria
sortzen dau gureztat bertan;
Berari esker, Jainkoak gaitu
seme-alaba benetan.

2

Hau zelan dan nork igarri:
"Agurea jaiobarri".
Espirituaz eta ur biziz,
hau bai dala miragarri!
Buru-bihotzak aldatu eta
bizi barrira ekarri.

3

Egarri dana putzura,
zelan aterako ura?
Espirituak geugan sortzen dau
iturri baten modura:
bertako ura dastau dauanak
hark ez dau besterik gura.

4

Ur bizia Zuk daukazu,
Espiritu, emoidazu!
Zerurainoko ur zirristada
sortzen dozuna zara Zu;
ur biziaren egarri naz-ta,
zatoz, zure zain naukazu.

ESPIRITU USOA

1

Oi, uso maitagarria,
hego zabalik jarria!
Espirituak zu hartzen zaitu
beraren ezaugarria;
Zu nun ezarri, hantxe sortzen da
jainkozko bizi barria.

2

Zein polita dan usoa,
zuria ta erosoia!
Espirituak erruki haundiz
darabil mundu osoa;
maitasuna da bere indarra,
sendoa, baina gozoa.

3

Usoaren hegapean
zein pozik eta bakean!
Espirituak ipinten deusku
bihotza bete-betean;
bakez ta pozez gainez eginaz
esan ezin dan bestean.

4

Uso zuri zerutarra,
isila, baina azkarra!
Entzun egizu gaur dagitsugun
gure otoitz deiadarra:
Guk geuk bakarrik ezin dogu-ta,
emoiguzu Zeuk indarra.

ZATOK, ESPIRITU SANTUA

1

Ez dakit ezer, ezer ez dakit,
 Oi, Espiritu Gorena!
 Goiko isuriz lagun zakidaz,
 argitu nire barrena.
 Zeuk esaidazu Zeu nor zaitudan
 ta ni Zuretzat naizena,
 nik ez dakit ta Zeuk esan nigan:
 "Abba-Aitatxo" izena.

2

Ez daiket ezer, ezer ez daiket,
 oi, Jainkoaren Indarra!
 Noiznahi ezinak ta nunahi mugak,
 "ezin dot" esan beharra.
 Aitaren Arnas, haize indartsu,
 bizi barriko sugarra,
 Espiritua, Zeu zara nigan
 dana daikezun bakarra.

3

Ez daukat ezer, ezer ez daukat,
 oi, dohai danen Iturri!
 Hautsa ta hutsa, besterik ez naz,
 beti zerbaiten egarri.
 Zeuretzat egin ninduzun eta
 Zeu zakidaz asegarri,
 goi ondasun ta dohaietara
 Zeuk naizula erakarri.

4

Ez dakust ezer, ezer ez dakust,
 oi, Espiritu argitsu!
 Beheko gauzetan jakintsu, baina
 goiko gaietan naz itsu.
 Galduta nabil noraezean;
 arren, argitu nagizu,
 zer dan egia ta zer dan ona
 Zeuk bakarrik baitakizu.

5

Ez dantzut ezer, ezer ez dantzut,
 oi, Espiritu isila!
 Kanpo ta barru gau eta egun
 eten bako iskanbila.
 Zatok ta zuhurtu sorgor daukadan
 entzumen entzungor, hila;
 nitzat ezina Zuk ahal dozu ta
 Zutaz egarri nadila.

6

Ez naz ezer ni, ni ez naz ezer,
 oi, Espiritu Jainkoa!
 Zeuretzat dozu ta bete eizu
 Zeuk nire bihotz hondoa.
 Zu ez bestek ni ezin bete nau
 eta Zugaz dot nahikoa,
 Zeuk landu eta burutu eizu
 Zeuk nigan hasitakoa.



Lourdesko Kurutz bidea egiten.



Alkarlaguntza egunez Durangoko Andra Mariaren eleizan, herriz herri aurkeztuz.



"Asto gaineko Jesus"en aurrean.



Angostoko Ama Birjinaren koba aurrean.

ANTXINAKO KURUTZ BIDEA

“Pilatok agindu dau”

SARRERAN

Hemen gatortzuz, Jesus,
gaur zure ondora,
Zuk gūgaitik egina
ekarriz gōgora.

Hartu gaizuz ondoan,
Ama, zure lagun,
Zeugaz Jesus onari
Lagundu deiogun.

LEHENENGO EGOTALDIA

Jesus, Zu gure ordez
zoaz kurutzera,
esker onez gatortzuz
Zuri laguntzera.

BIGARREN EGOTALDIA

Maitasunez lepora
kurutze astuna,
hor erakusten dozu
maite gaituzuna.

HIRUGARREN EGOTALDIA

Geure antzera, gizon
geugaitik egina,
sarri jausten garanok
jagiko bagina.

LAUGARREN EGOTALDIA

Jesus kurutzepean
ta Ama negarrez,
biak daukağuz hemen
geuri deiadarrez.

BOSGARREN EGOTALDIA

Simon Zirenetarra
Jainkoaren lagun,
geuk ere hurkoagan
lagundu deiogun.

SEIGARREN EGOTALDIA

Beronikak garbitu
deutsu aurpegia,
holakoak daroe
zure irudia.

ZAZPIGARREN EGOTALDIA

Emondako berbea
Jesusek bete dau,
gehiago ezinean
benetan maite nau.

ZORTZIGARREN EGOTALDIA

Jerusalemgo alabak
ez egin negarrik,
Aitaren nahia da-ta,
ez nago bakarrik.

BEDERATZIGARREN EGOTALDIA

Jesus bidean gora
jausi eta jagi,
eta zelan leiteke
ni Zugaitik nagi!

HAMARGARREN EGOTALDIA

Borreroen artean
triste ta biluzik,
gaur, behintzat, ez al deusut
neuk emongo pozik?

HAMAIKAGARREN EGOTALDIA

Kurutzean josita,
odol dariola,
hortxe dogu, kristauok,
maitasun eskola.

HAMABIGARREN EGOTALDIA

Gugaitik jaio zana
ta gugaitik bizi,
gugaitik hilaz Kristok
gaitu irabazi.

HAMAHIRUGARREN EGOTALDIA

Jesusen kuruzpean,
Maria eta Joan
lagun zintzoak beti,
Jesusen ondoan.

HAMALAU GARREN EGOTALDIA

Jesus lurpean eta
gainean harlosa;
Zuk guraگو dozu-ta,
eutsi neuk bihotza.

AMAIERAN

Horra kurutz bidea,
Jesusek amaitu,
orain gure txanda da,
Berari jarraitu.

Gora ta aintza, Jesus,
irabazi dozu,
Zeuk bizia emonaz,
berbiztu gaituzu.



ARANTZAZKO KOROIA

ZU ZARA MORROI ZINTZOA;
GIZONAK MINDUA ARANTZAZ,
AITAK KOROITUA AINTZAZ.

1

Buru makur ta isilik,
hor, esaneko Morroia,
neke-minez ia hilik;
lehen egundoko jipoia,
oin arantzazko koroia.

2

Arantza zuloetatik
borbor dagiri odola;
malkoak begietatik,
biak nahaste dariola.
Hau sufrimendu eskola!

3

Zergaitik dan esaterik,
ez da izan testigurik,
guzurri batzuk besterik.
Halan be, Jesus muturik,
nun horrelako Maisurik?

4

Haundituta aurpegia,
nunahi gorro ta txistua;
garesti dago egia!
Burlaz albotik gaiztua:
“igarri eiok, Kristua!”.

5

Estalki gorriz jantzita,
errege baten moduan,
moltzoak burlaz dihardu.
Kainabera bat eskuan,
beragaz joka buruan...

6

Ospe Jaungoiko Aitari,
Espirituaz batean;
aintza bere Semeari
zeruan eta lurrean,
errege danen gainean.

BIZITZAREN ETA HERIOTZAREN ARTEKO BURRUKA

1

Bizitzatik heriotza,
heriotzatik bizitza:
graziaren emaitza,
pekatuaren gaitza.
Erneko bada bizia,
usteldu behar hazia.

2

“Maitasuna da nagusi”;
gorrotoz dana jo t'hausi.
Azkenera arte eutsi,
nahiz ta burrukan jausi!
Gora Jesusen Golgota,
gorrotoaren porrota!

3

Aitaren borondatea
azken baten da betea:
Betor kurutz nekea,
bete arte epea.
Gizonak bota lurpera,
Aitak bizira atera.

4

Kurutza bedeinkatua,
gure birjaio lekua!
Zu hil beharrekoa
ta ni hortik sortua.
Gora ta aintza, Kalbario,
bizi barria dario!

5

Kurutz ondoan begira
beraren bi alderdira:
ilunpe ta distira,
heriotz ta pilpira.
Besarka biok osorik,
ez dago beste Kristorik.

6

Munduko Kurutz bidea
sarri bide kurutzea:
Zelango jarrerea,
sari edo kaltea.
Guk beti Jesus jarraitu,
Berak zuzenduko gaitu.

JESUKRISTO KURUTZEKOA KRISTAUAREN BIZITZAN

1

Ondo etorri, anai-arrebok,
alkartu gara barrero,
Kurutz ondoan Jesus onari
dana eskertuz bizi.
Bihotz betean hasi gaitzean
gogo beroz ta astiro,
fede argitan entzun deiogun
ta erantzun maitekiro.

2

Kurutze baten bizia emon
eta salbatu gaituzu,
geurerik ezer ez dogu eta
dana Zuri zor deusugu.
Harrezkero, Zu benetakoa
“Kurutzeduna” zaitugu,
Kurutze giltzaz zeru atea
dohan edegi deuskuzu.

3

Askotariko kurutzak datoz
bizitzan gure gainera,
bakotxa bere mailan jartzeko
kurutzea da aukera.
Baina nik badot Lagun zintzo bat
indartsu ta bihozbera:
betor Kurutza, baldin badator
Jesus beragaz batera.

4

Maisu argia da Jesukristo,
baina ez gero doktrinez,
jausi ta jagi, baztarrak jota
Kurutzbidea eginez.
Ez da nahikoa erantzutea
sentimentuz eta mihinez;
maitale batek erantzuten dau,
jarraituz maitasun finez.

5

Kristok sufriduz agertu deusku
bere maitasun neurria,
kostatzen ez dan maitasuna da
epela eta urria.
Maitasun garrez desegin eban
arerio bihurria;
Kurutz oinetan sortuz danontzat
bizi barri iturria.

6

“Jesus ordezeko” asko daukaguz
munduko Kalbarioan,
noiz agertuko lagun onen bat
bake ta poz jarioan.
Jesus ez dago laguntza eske
bakarrik sagrarioan;
bietan lagun izanaz, biok
alkarren pozkarioan.

7

Buruz ta begiz begiratuta
 ikusten zaitut josita,
 ta ezagutu, Zeugaz sufriduz,
 begiak malkoz bustita.
 Eta hau dana neugaitik dala
 goi argitan ikusita,
 nire bizitza kristautasunez
 Kurutz ondoan hazi da.

8

Mundu honetan maitasun barik
 dana da gatxa ta astun,
 horra Jesusek maitasun garrez
 Kurutzan zer lortu deuskun:
 Heriotzetik bizia sortu,
 eta zeruan partedun;
 maitasun horri erantzuteaz,
 a zer ardura daukagun!

9

Gora Kurutza eta gugaitik
 hor Kurutzan Hildakoa!
 Gora munduak Kurutzan Hila,
 Aitak berbiztutakoa!
 Hartu Zureztat nire baietza
 betea ta betikoa,
**HAINBESTERAINO MAITE LEIKENIK
 BAKARRIK DA JAUNGOÏKOA!!!**

JESUSEN ODOL TXIT BALIOTSUA

AGUR, KRISTOREN ODOLA!
PEKATU, ORDAIN SARIA,
ERRUKIZKO MIRARIA.

1

Jaungoikoaren Odola
gorrotoz aterazia,
Kristok maitez dariola;
bihurtu jaku grazia,
gutzat betiko bizia.

2

Zugan gure zoriona,
Zu gure bizi iturri;
Zer nahi dozu, Jesus ona?
Odol hustuta egarri:
gu Zeugana erakarri.

3

Jetsemani, Kalbario,
kurutze, zigor, arantza;
eten bako odol jario.
Jesus, nor Zutaz zalantza?
Zugan dogu esperantza.

4

Zeharo odol hustuta:
gure maitale martiri;
dan-dana emon deusku-ta.
Odolean dau agiri
zenbat emon deustan niri!

5

Alperrik egon galduta
pekatuaren pekatuz,
dana dago ordainduta.
Goazen Jesusgana damuz
ta parkamena eskatuz.

6

Aintza Aitaren eskoian
dogun Jainko Bildotsari,
bardin behean eta goian.
Espiritua gidari,
esker on Jesus Jaunari.

JESUSEN ZAURI GURGARRIAK

1

Agurtzen zaitut maitasun beroz,
 Jesusen Bihotz Santua,
 Kalbarioan amorru biziz
 izan zinan zulatua.
 Zure odol ta urez,
 gu sortuazo gurez,
 kenduz gure pekatua.
 Gaurtik aurrera izango zaitut
 bihotz osoz maitatua.

2

Agurtzen zaitut, Zauri dizditsu,
 eskumako eskukoa,
 untze zakarrez Kurutz habe
 kolpeka egindakoa.
 Fede bizitzan motel,
 Aitagaz nabil epel;
 ez al da zauri nahikoa?
 Edegi, arren, Aitarengana
 nire bihotz ta gogo.

3

Agurtzen zaitut, Zauri Santua,
 ezker eskuan egina!
 Borbor darizun Odol garbia
 maitasunez irakina.
 Eskatzen deusut apal:
 egin ni eskuzabal,
 behartsuen lagun fina.
 Zuri mosu ta hurkoa uko?
 Ken nire tratu zikina!

4

Agurtzen zaitut, eskumaldeko
 oineko Zauri sakona!
 Biderik bide hamaika pauso
 gure atzetik emona.
 Alperkeria kendu
 ta pausoak zuzendu,
 zabaltzera Barri Ona:
 Zeuri jarraituz, aurkitzen dala
 benetako zoriona.

5

Agurtzen zaitut, Jesus onaren
 Ezker oineko Zauria!
 Eta bertako odol iturri
 gure aldez isuria.
 Gure grina lausoak
 ta txarrera pausoak
 egin daben aberia...
 Garbitu, arren, gure lausoa
 ta sendatu ahuleria.

6

Agur, ospe ta milaka esker,
 Jesus maitale leiala!
 Ez da beste bat maite gaitunik
 Zuk gu gaituzun bezala.
 Burutik oinetara
 zauri gorri bat zara;
 munduak jakin daiala:
 "Jesukristok gu salbatzearren
 bizia emon dauala".

JETSEMANIKO BARATZEAN

JAGI TA GOAZEN BIDERA,
HORTXE DATOZ NIRE BILA;
HERIOTZ, ZATOZ NIGANA,
GIZONA BIZI DEDILA.

1

Zeru beteko atsegin ordezt,
atsekabeak aukera,
bere bizia emonaz gaitu
heriotzetik atera.

2

Burua behean, bihotza goian,
burruka latza gainean,
aingeruak dau gogo berotzen
“bai” esateko heinean.

3

Odol izerdiz gorputz osoa
lurreraino dariola,
ez da hain errez garbitzekoa
pekatuzko uriola.

4

Nahigabearen nahigabez jota,
Aitari otoitz eginez,
hil ala bizi, “bai, Aita” dino
guganako maiteminez.

5

Lurretik jagi, bidera urten
eta: “Neu naz Jesus hori”,
bere bizia emoteraino
eskeini jaku danori.

6

Lagunak ihes, herriak uka
eta ikasleak lotan,
otoitzik barik hutsa garala
joko dau oilarrak kotan.

7

Ilun be ilun da inguruan
barrunbea ilunago,
baina: “Aitatxo, Zuk badakizu,
zure esanera nago”.

JETSEMANIKO OTOITZA

1

Zerualdean Aita itzita,
—hau bai aldaketa latza!—
Gure artera jaitsi da Jesus,
gizartean gizon datza.
Poztu gaitezán, bada nork goza
Adanen fruitu garratza:
gogora daigun Jesukristo ta
Jetsemaniko baratza.

2

Hor zelan sortu zan heriotza
antzinako baratzeán,
zenbat nekemin, berez ta sendo
gizakia jaiotzeán.
Zorioneko baratz barrían
Kristo antziz otoitzeán,
Berari esker, salbatu gara,
zer poza hau oroitzeán!

3

Jainko sumina baretu nahirik,
gure salbamen lanetan,
odol izerdiz hor dago Jesus
bizi barríko neketan.
Gu zoriontsu egin asmotan,
Bera jarri da penetan!
nork ez antzemon hemen, Jesusek
maite gaitula benetan?

4

Mundua mundu danetik gora
hau burrukarik latzena:
Satanas bertan menderatu dau
suntsituz gure kondena.
Bere burua txiki egin dau,
gureztat da garaipena;
Zuk irabazi gaituzu, Jesus,
Zuri aintza ta omena.

5

Aintza Aitari ta esker ona,
bardin Jainko Semeari;
aintza berbera Biengandik dan
Espiritu Santuari.
“Gora Jesusen izen santua”
zeru ta lurra kantari,
Hark biziázo gaitu betíko,
Bera gure poz ta sari.

6

Aita maitea, kendu Nigandik
arren, kaliza nekea,
hiltako zori larrián daukat
nahigabetan arimea.
Baina hau bada zure gogo ta
nigazko borondatea,
bai, Aita, izan dedila nigan
oso-osorik betea.

KURUTZAN OSASUNA

1

Kurutzan zagoz beso zabalik
 Jesus Salbatzaile ona,
 Zuri bakarrik zor deutsugu gaur
 osasun ta zoriona.
 Lehen Zu zorigaitz,
 gaur bake zuhaitz;
 askatu dozu gizona.

2

Madarikapen urkamendia
 gaitztoentzat bildurgarri,
 gaur bedeinkapen zuhaitz zaitugu
 grazi guztien iturri.
 Munduak behera
 jaitsia Bera
 Aitak garaikur ezarri.

3

Gorputz Santua zauri gorritan,
 mila iturri dariola;
 garbitu gura dauanak, horra
 Jainko Beraren Odola.
 Guk Zu hor josi,
 Zuk gu erosi,
 hori maitasun eskola!

4

Heriotz bidez eten deuskuzu
 katibutzako katea,
 eta jaritxi aixkidetasun
 eta askatasun betea.
 Aita pozetan
 egiz gozetan
 semeokazko bakea.

5

Zuk hil beharra, gu biztearren,
 oi, maitasun miraria!
 Gurekin alkar banandu dozu
 Jesus, Zeutzat zan saria.
 Eskerrik asko,
 Zeu benetako
 gure Bitartekaria.

6

Gora Kurutze bedeinkatua,
 gora orain ta betiko!
 Zure besotan eskeini jaku
 oparitzat Jesukristo.
 Salbau gaituzu,
 gurtzen zaitugu
 bihotzez ta belauniko.

KURUTZAREN OINETAN

1

Badaukat tokitxo bat,
zein goxo dan bera!
Badaukat ordutxo bat,
sekretu antzera.
Han batzen gara Jesus
ta biok batera,
alkar maiteminduen
hartuemonera;
ez nago ezergaitik
alperrik galtzera!

2

Nor dan itaundu eta
horra erantzuna:
bere biziaren truk
salbatu gaituna.
Geure morroi eginda
Jaun guzti ahalduna,
horrenbestearaino da
deuskun maitasuna!
Esateko moduan:
hau da hau Laguna!

3

Zenbat sufridu dauan
begibistan dago:
Jainko barik, dirudi
gaizkile esklabo...
Azken arnasa emonda
ezin dau gehiago;
eta nik hau jakinda,
hain hotz zelan nago?
Gerorako itzita;
orduan, akabo!

4

Zergaitik sufritzen dau?
Ez al da jakina?
Ahaztuta al dauka
gugaitik egina?
Danok salbatzearren
Haren ahalegina!
Kurutzan hil zan Jesus
hain maitale fina,
zer poza berea gaur
hasiko bagina!

5

Zelan sufritzen dauan
jarri naz begira,
Haren berbak gogoan
hartzekoak dira.
Danei dana parkatuz
Jesus erruki da,
lapur ona sartzen dau
zeruen erdira;
Jesusek bere hitza
ez dau erretira.

6

Kurutzaren oinetan
bada zer ikasi,
Jesus deika dago-ta,
erantzuten hasi.
Han hartzen da nahi beste
indar eta grazi,
gainditzeko bideko
sastraka ta sasi;
Kurutzaren indarrez
baietz irabazi!

KURUTZ BIDEA BERTSOTAN

SARRERAKOA

Jesus maitea, hemen natortzu
bihotz zabalik aurrera,
Kalbarioko kurutz bidean
Zurekin bat egitera.
Maisu zintzoa, urten eidazu
gaur neure kurutz bidera,
Zeuk lagunduta, egin dagidan
Zeuk egin zendun antzera.

LEHENENGOA

Zu Jesus gizon egin zinan ta
ez al da nahiko berori?
Pobre ta gaixo lagun hartuta
zenbat mesede askori!
Danen ordainez hau entzun behar:
“bota kurutzera Hori!”.
Nire bizitzan ta inguruan
zenbat holako histori!

BIGARRENA

Kurutze astun bat lepoan ta
astunagoa barruan,
itxura danez, gaiztoagorik
ez zan izango munduan...
Baina gaur, Jesus, hemen naukazu
minez neu zure lekuan,
hau astunegi da nitzat eta
zagoz Zeu nire onduan.

HIRUGARRENA

Kurutzepean jausita zagoz
eta jagi ezinean,
agiri danez, gizon koxkor bat
neugaitik egin zinean.
Jesus laztana, begira neuri
egoera bardinean,
Zu ikusteak bizkortzen nau gaur
neure oinaze minean.

LAUGARRENA

Semea holan ikusi behar
jausi-jagika, tatarrez,
bere atzetik zoaz Zu, Ama,
samintasunez negarrez.
Beste seme bat hemen naukazu
zuri “ama” deiadarrez,
bakarrik ezin, Ama, lagundu
zure grazi zerutarrez!

BOSGARRENA

Jainko txikia, gizon haundia,
joan ziran zure indarrak!
Derrigorrean lagundu behar
hor Simon zirenetarrak.
Ez dau ez gauza askotarako
balio gizon bakarrak;
eta lotsea emoten deusku
inork lagundu beharrak.

SEIGARRENA

Odol izerdiz eta hauts artean,
 Jesus, hori da itxura!
 Aurpegi hori txukuntzea da
 Beronikaren ardura.
 Tximur ta tximaz, ai ta oi baten,
 etorten jat negargura,
 eskerrak, lagun onak jatortaz
 Beronikaren modura.

ZAZPIGARRENA

Hau biraoka, hori burlazar,
 ez dozu inor lagunik,
 lurretik gora jagiten, Jesus,
 nork lagunduko deutsunik.
 Neuk be ez daukat bakardadean
 poz ta bakezko egunik,
 Zu barik ezin eroan, Jesus,
 honen kurutze astunik.

ZORTZIGARRENA

Jerusalemgo ama-alabok,
 ez egin niri negarrik,
 zeuon etxean dozue nahiko
 gauza negargarri txarrik.
 Ez dozu, Jauna, zure ondoan
 hileta soinu beharrik;
 konpromisoan sartzen dana, bai,
 onartzen dozu bakarrik.

BEDERATZIGARRENA

Hainbeste neke hartuta gero
 hau al da irabazia!
 Gogo ta bihotz zehatz etenda,
 beraino zağoz jausia.
 Dana emon nahi: gogo ta bihotz
 eta azken arnasia.
 Neu be osorik Zeuretzat nadin,
 Jesus, eidazu grazia!

HAMARGARRENA

Goitik beheraino biluzik zağoz
 danen aurrean, zer lotsa!
 Egarriz hiltzen zağozala ta
 eskeini ozpin mingotsa...
 Zuri begira isilduten jat
 nire barruko aihotsa;
 Zu isilik ta ni aienaka?
 Hau bai dala gauza motza!

HAMAİKAGARRENA

Hemen naukazu Zuri begira
 gaur kurutzaren oinetan,
 neure kurutzan nagoalarik
 Zeu lez oinaze minetan.
 Zeuri begira bizi gura dot
 nire ordu saminetan,
 Ama, lagundu ondo urteten
 kurutze esaminetan.

HAMABIGARRENA

Lapur onari zerua eta
 beste danei parkamena;
 eta Aitaren esku onetan
 emoten dozu azkena.
 Eskerrik asko, orain ta beti,
 nire lagunik onena,
 o, Salbatzaile bedeinkatua,
 gora Jesusen Izena!

HAMAHIRUGARRENA

Hartu egizu, Ama, altzoan
 zure Seme Jesus zana,
 baina ez ahaztu Zuretzat neu be
 beste seme bat nazana.
 Bete daigula Jesusek bioi
 azken orduan esana:
 "Ama, hor dozu zure semea,
 seme, horra zure Ama".

HAMALAU GARRENA

Lurpean sartu zaitue, Jesus,
 zeru-lurren Jaun ta Jabe,
 Zuk esan eta egindakoak
 hau merezi izan dabe.
 Kaliza edan dozu osorik
 garratzena izanda be;
 ez bizitzan ta ez heriotzan
 ez naço lagunik gabe.

HAMABOSGARRENA

Sekula santan ez da gertatu
 holakorik lur gainean,
 "hilen artetik biztu zarala
 hirugarren egunean".
 Kurutz bidean aurrera nator
 zure bide bardinean,
 orain kurutzan Zugaz naço-ta,
 gero be bai azkenean.

Jarraitu deusat, Aita Jainkoa,
 Jesus zure Semeari,
 hemen naukazu orain Beragaz
 batera neu be opari.
 Azkenera arte zintzo ta zuzen
 jarrai deiodan Berari,
 zeure ondoan lortu dagidan
 Beragaz betiko sari.



Lourdesko kurutz bidea.

KURUTZEKOAREN ESKOLAN

1

Aita baten seme eta
alkarren artean anai,
Kristok Kurutzean hilez,
egin gaitu oinordegai.

2

Batzuk zapaltzaile eta
beste batzuk zapalduak,
Hau zuzentzen ez dan arte,
zeintzuk dira salbatuak?

3

Hiru asez, zortzi gosez,
eta: "niri zer ardura?".
"Kristo pobre" asko dago
nork zer emongo eskura.

4

Mundua beti izango da
eten bako Kalbario;
bat edo beste jokatu,
neutralak ez dau balio.

5

Kurutzean hildakoa
biztuta dago gurekin,
pobreen artean dago,
zintzo euren alde ekin.

6

Erramuz "Gora Kristo"ka,
barikuz ezezaguna;
ez ahaztu: lehen ta gaur Kristo
beti da "Kurutzeduna".

7

Munduak lurperatua
eta Aitak goratua,
aintza ta eskerrak Zuri,
oi, Jesus Bedeinkatua!

8

Ezerezetik mundua
sortu zenduan Jainkoa,
heriotzetik bizia
sortu dozu Betikoa.

ODOLEZ BERREROSI GAITUZU

1

Basamortu gorrian,
tente zutabea,
ta bere muturrean,
brontzezko sugea.
Kalbario mendian
bada bat hobea:
Jainko gizon egina,
guztion Jabea,
gure alde Kurutzan
errurik gabea.

2

Jainkoaren aginduz,
Moisesek behinola,
odolez seinalatu
etxe ta txabola.
Ederragorik bada:
"Kristoren Odola".
Bere ezaugarriaz
bustirik dagola;
ez da inor galduko,
ez hilgo inola.

3

Hondatu ginan danok
aita Adan zaharrez,
kutsaturik sortuak
jatorri zuztarrez.
Gizonak ezinean
eta Aita hasarrez.
Zu jatsi zinan, Jesus,
maitasun sугarrez,
eta askatu gaituzu
gu odol indarrez.

4

Bada zegaz garbitu
pekatu zikina,
bada zegaz gozatu
bizitzako mina:
Jesus, zure Odola
sendagai bikaina,
bizi iturri garden
agortu ezina.
Pekatoriok Zugan,
a zer lagun fina!

5

Idatzirik daukagu
gaineko oholean:
"Jesus Errege dala
Kurutz Arbolean".
Badoğu zer ikasi
Kurutz eskolean:
Maite-maite gaitula
bere odolean...
Ezarri bihotzean
eta marmolean.

6

Gora Zu, Aita Jainko,
maite gaituzuna,
eta Jesus gugana
bialdu dozuna.
Zuri, Jesus, aintza ta
gure maitasuna;
Zu zara salbamena
lortu deuskuzuna;
gora, Espiritua,
kristauon Laguna.

ZIGOR KURUTZEZ EROSIK

*ERRUDUN GARA,
ERRUKI GUTAZ
ERRUGABEKO BILDOTSA.*

1

Zigor, txistua, burla, destainak
entzuten dira albotik,
zotin artean: "Aita, parkatu",
Jesusen bihotz hondotik.

2

Jaun distiratsu, eguzkia be
argiz zenduan iluntzen;
gaur ikusita, Pedrok badino:
"Jesus ez dot ezagutzen".

3

Atzo hogeita hamar dirutan saldu
ta gaur burua urkatu;
Judas ez bestek gaur zure alde
ezin gehiago jokatu.

4

Hau ikusita, zure aurrean
ezin da izan neutrala;
hau sinistuta, bardin jarraitu?
Hau bai pekatu mortala!

5

Ez zidar-urrez, ez hitz ederrez,
ez gaituzu berrerosi;
zigor kurutzez lortu dozula,
Jesus, bihotzean josi.

6

Aintza Aitari ta Semeari,
Espirituari bardin,
egin ahalak ta ezin gehiago
gure alde dabe egin.

URTE SANTUKO KURUTZ BIDEA

1

Urte Santua dogu
aurtengo urtea,
gure egin beharra:
adiskidetzea.
Danok gura doguna
poza ta bakea,
baina ibili behar
hain bide luzea..
Bake bidea beti
da kurutz bidea.

2

Pilatok agindua:
"Jesus gurutzer",
Jesusek onartzen dau
betiko antzera.
Herri salbatzaileak
berbaz asko gera,
baina kurutz bidean
gehienak atzera;
besteak salbatzeko
hil behar norbera.

3

Kurutza beti dago
bata zein bestea,
bera zelan hartzen dan,
hor dago untzea.
Maitez besarkatzen dau
Jesusek berea,
guri erakutsiaz
gorako bidea,
kurutz bidea dogu
bide kurutzea.

4

Ahalguztiduna jaku
geuganaino jaitsi,
holan kurutzak ahal dau
lurrera eratsi.
Ezinaren aurrean
Jaunak irakatsi:
makalean dagola
Jainkoaren grazi;
zintzo iraun ezkerro,
baietz irabazi!

5

Gogoan hartu Jesus
eta bere Ama,
gizartearen alde
zer neke ta lana!
Kritika ez da nahiko,
ez berba labana;
herria salbatzen da
eginaz ahal dana;
gizonagaitik ez da
zertan itzi Jauna.

6

Hor dator Zireneo
lanetik etxera,
eta behartzen dabe
Jesus laguntzera.
Gure gizatasuna
neurtzeko aukera:
kurutzedun bategaz
hartzen dan jokera.
Ustegabeko hori
dogu Jesus bera.

7

Kurutz bidean gora
nekez eta minez,
gizon antzik ez dauka
aurpegi zikinez.
Nork iraindu bada
ta lagun finik ez;
asko pozten diranak
inoren saminez;
Beronikak jartzen dau
Jesus atseginez.

8

Jesus hiltzera doaz
bere herritarrak,
mila meseden orde
mila esker txarrak.
Aixkideak banandu,
apurtu batzarrak,
horra nora doazan
gaur gure indarrak!
Aixkidetu gaitez
lehengo lagun zaharrak.

9

Zotina ta hileta
badatoz bakarrik,
gizon minduarentzat
ei dira alperrik.
Jesusen esakerak
badauka susterrik:
“ekintzarik ez bada,
ez egin negarrik”;
jokatzeko orduan
ez bada paparrik.

10

Ibili ta ibili
bedratzigarrena,
horra Jesus lur jota
gizon ederrena.
Orduan hartu ohi da
biderik txarrena;
hobe da aztertzea
Jesusen barrena:
leherrenak eginaz bat,
Aitari arrena.

11

Inor jantzitearren
norbera biloztu,
salbatzaile izateak
bizitza mingostu.
Ez, Jesusi ez deutso
inork ezer ostu:
Berak emon egin dau
ta gu bizipoztu,
guk alkar maitatzeko
bidea damosku.

12

Untza, mailu, ezpata,
negar ta odola,
bizia maitasunez
borbor dariola.
“Jainkoak seme badau,
lagundu daiola”.
Jesusek: “Aita, parka,
ez galdu inola”.
Biolentzi zaleok,
hor dogu eskola.

13

Kurutzan dingilizka
 Jainko Seme bakar,
 zeru-lurrari zelan
 ez eragin dardar?
 Zintzotasunak hauxe
 gehienetan dakar:
 indarrean gaiztoak
 irabazi behar.
 Holakorik jazo da
 makina bat bidar.

14

Kurutzetik jaitsita
 Amaren besotan,
 urtu leio bateri
 bihotza malkotan.
 Agertu izan jaku
 Ama hau askotan,
 bakeak egin nahirik
 hainbeste Golgotan;
 adiskidetu gaizuz,
 Ama, oraingotan!

15

Jesus lurpera dabe,
 amaitu da dana,
 jakin nahirik gabiltza
 nun dan Jesus zana.
 Ez da alperrik izan
 Haren neke lana,
 Berari esker dogu
 zeru eder bana;
 BETIKO BERBIZTU DA
 JESUS GURE JAUNA.

ZIGORREZ ASTINDUA

1

Katez lotuta zağoz,
pizti bat baizina,
narru gorritan dardar
hori lotsa, mina!
Dana da zizpuru ta
odol zipriztina.
Ez al zara Zu, Jesus,
danei on eğina?
Ez al zara Aitaren
Seme atseğina?

2

Ene Aita, zigorka
haustu behar nabe,
ez dot beste lagunik:
kate ta zutabe.
Gizonen ordeğ nago,
ez naz errugabe;
hemen nozu zure ta
gizonen mirabe,
salbau eğızuz, Aita,
hil behar bada be!

3

Zergaitik, ene herri,
zergaitik zigorra?
Hau mesede ordaina,
bai dala gogorra!
Nun dira sendatuak:
itsu, mutu, gorra...?
Nun mila lagun heldu,
gazte ta koxkorra?
Eginak egin, herri,
maite zaitut, horra.

4

Bero daukat bihotza,
nahasturik burua:
hau da bizitzako
nire helburua?
Albotik biraroa,
isilik zerua.
Baina nire lekuko
ez da borrerua;
maite nauan Aita da,
hau bai seğurua!

5

Aintza ta esker ona
Jaungoiko Aitari,
aintza, hilez salbatu
ğaitun Semeari.
Aintza bera goi Arnas
Espirituari,
ekin orain ta beti
ğuztiok kantari,
ğizaldirik ğizaldi
Salbatzaileari.

6

Gorputza goitik behera
zauri bat eginik,
eta neugaitik dala
hau dana jakinik,
zelan ez deust eğiten
bihotzak zirkinik?
Zuk nigaitik jokatuz
gehiago ezinik,
ez deustut eskeini nahi
bihotz erdikinik.

BETIKO EGIAK

1

“Aitearen” bat eginda nator
gaur bertso barri kantura,
zeruko Aita, emoidazu Zeuk
argi pixka bat burura.
Galduta gabilz, anai maitiak,
pekaturik pekatura;
ez daigun ahaztu zertarako behin
etorri ginan mundura.

2

Ezerezetik atera gaitu
zeruko Aita Jainkuak,
geurerik ezer ez dogu bape
izan ezik pekatuak...
Guztiok gara, gorputz t'arima
Jaunaren errenteruak,
kontu zorrotza ordainduko dau
infernuetan gaiztuak.

3

Batzuk jaioten, besteak hilten,
horra, munduko kontua,
guk uste baino hurrago dauka
kumeak kanposantua.
Ardau ta koipe arimen kaltez
gizendu gorputz gaiztua,
basa ta buztin bihurtuko da
arren janari goxua.

4

Hutsik etorri ginan mundura
eta hutsik urten behar;
horra, zertara datozen gure
munduko neke ta behar...
Grazia baino besterik ezin
eroan geinke han zehar;
gaurtik arima edertu daigun,
belu izango da bihar.

5

Bidean dator bakotxarentzat
heriotz ordu iluna,
nun, noiz ta zelan inork ez daki,
hau buruko min astuna!
“Gaez lapurra lez helduko da”
Jesusek esan euskuna,
hori jakinda, ona ez banaz,
zertarako dot zentzuna?

6

Bonba atomika txarrena dozu
pekatua bihotzean,
hamaika galdu ditu betiko
bera daukela hiltzean!
Infernu sakon, kartzela ilun,
negar txilio bizian;
pekatu zer dan ikasiko dau
han Luziferren menpean.

7

Kontuz ibili gaitez an hemen
bestelan gero negarra,
urte gitxiko mesede orde
betiko erre beharra...
"Errez betiko salbau neinteken,
eta hau nire zoritxarra!"
Hori izango da infernuetan
mingarriena dan harra.

8

Bidekurutz bat da heriotza,
izenez "bidebieta",
danon aukeran bide bi da goz:
ezker eta eskumeta.
Itzartu zaitez, anai maitia,
okerretik zoaz-eta;
jausten bazara, ez da egundo
jasoko hango kisketa.

9

Jesus Jainkoak emongo deusku
merezi dogun epaia,
infernutarrak, negar garrazi;
santuak, kantu alaia.
Azken agurra alkarri eginda,
bakotxak bere bidia;
santuak goian, gaixtuak behean,
horra munduko amaia!

10

Buruak gora jaso daiguzan
begira zeru urdina;
neure anaiak, geuretzat dauka
Jainkoak hori egina.
Su ta gar baten han sartu dira
mila martiri, birjina...
Jagi ta bizkor merezi daigun
bakotxak koroi bardina.



BIZI NAHI!

1

Entzun barri daukaçu
aurtengo kukua,
gureztat onena da
Jesus Berbiztua.
Hau bai dala albiste
zorağarrizkua!
Alkar zoriontzeko
ez al da nahikua?

2

Zorionak, anaiok,
ağur beroena!
Gaur ospatzen dogu-ta,
Pazko astelehena.
Berbiztu dan Jesus da
batu gaituena,
Berak emon deiskula
dohairik onena.

3

Jaso barria dogu
Pazko albistea,
Jaunaren grazia da
guk hau sinistea.
Orduan zelan leike
fraile bat tristea?
Ez al dogu hartuko
txori alpistea!

4

Urteak gorago ta
indarrak beherago,
sarri esaten dogu:
gureak akabo!
Zer ba, Jesus Biztua
gugaz ez al dago?
Bera lagun dogula
jo daigun ordago!

5

Gu heziketaz gara
danok bakarzale,
luzaro jardun dogu
sutsu jo ta dale.
Gaur bide horretatik
sarri dator kale,
gaurtik aurrera bitik bat
egin eta bale!

6

Etxe haundiak eta
gu ia bapeza,
eta gugana inork
etorri nahi eza...
Ez al da hau, anaiok,
egizko pobreza?
Gutzat ezina dana
Jaunak bete beza!

7

Gaztaro ta sasoian
bageunkan indarra,
nunahi eza gutzen zan
lehen pasiotarra.
Nora doa gaur zaharra,
gainera bakarra?
Bizi beharrak dakar
alkartu beharra.

8

Bizitzan ikasirik
hainbeste karrera,
orain ikasi behar
zer dan zaharrera.
Urteak sortzen dabe
hainbeste barrera,
ahal dan ondoen hartu
eta jo aurrera!

9

Bere narrutik daki
batek zer dan zaharra,
noiznahi agertzen dira
gorro ta abarra...
Disimulau ezinik
tirri eta tarra,
egin daiogun geure
buruari parra.

10

Gehienok egin dogu
zahartzaro debuta,
gareanak gara-ta,
alperrik ezkuta.
Gaurtik aurrera, kontuz!
païttar ta bermuta,
entzun nahi ez badogu
hileta turuta!

11

Jesus, Zu egin zinan
gizonen antzeko
baina inoiz ere ez
zaharraren pareko.
Biztu gūgan gogoa
Zugaz egoteko,
gaztetasun barria
Zugandik hartzeko.

12

Hau anaiarte gaur
batu gaituzuna,
bizi barriz beteaz
kurutze astuna.
Irabazle zara Zu,
Jesus Txapelduna,
zahartzarorik ez daukan
betiko Laguna!

BIZI ITURRIA

1

Nazareteko Jesus,
 Juduen Errege,
 bai, Nagusi zaitugu
 Zu menderen mende.
 Zuri kalte eginak
 bihurtu mesede,
 besteei zerbitzea
 da zure botere;
 Zu lako besterik nor?
 Ez da ez bat ere!

2

Ondo hilik zağoz, bai,
 ezpata lekuko;
 bihotz hondotik ura
 zulatu orduko.
 Zu beti emoteko,
 buruari uko;
 nik asmakizunetan
 hamar mila truko;
 ez al deusut gehiago
 ezer ukatuko?

3

Zuhaitzik ederrena
 bai fruitu gozoa!
 Zuk dakizu osatzen
 gizonen gaixoa.
 Jesus hor Kurutzean
 zabalik besoa,
 Zuk argitzen deuskuzu
 bizitza osoa,
 Zeuk eskeintzen bakea
 ta paradisoa.

4

Bihotz hondotik horra
 izar distirantak,
 ezpateak atera
 azkenengo tantak.
 Kurutzaren ondoan
 Andra Mari Santak
 zer negar ta zotinak!
 Ez dira ez plantak!
 Jesus eta Amari
 esker on ta kantak.

5

Zein gozo dan Kristoren
 saihetseko ura!
 Zer mesede ekarri
 deuskun hark mundura:
 bizia Elizara
 ta Sakramentura;
 hauxe doa mundutik
 xirristan zerura.
 Zure heriotza, Jesus,
 guretzat bentura.

6

Agur Kurutze eder
 aintza ta aipamen!
 Zugandik dogulako
 grazi ta parkamen.
 Zu barik ez da ezer
 ez han ta ez hemen.
 Oi, Kurutzeko Jesus,
 Zu gure salbamen;
 Zuri aintza lehen, orain
 eta beti. Amen.

GEUK IKUSI DOGU

1

Ondo etorriak danok
 Bizkai irratira
 zer datorren begira:
 gaur nire aldetik, behintzat,
 albiste onak dira.
 Kurutzan hildako Jesus
 bihurtu da bizira,
 sentitzen da pilpira;
 eta Berarekin dator
 poza mundu guztira.

2

Jesusen bila ebilzan
 hilobi ilunean,
 hurrengo egunean;
 aingeru bat jarri jaken
 euren aldamenean.
 Zertan zabilze hor bila
 oker ezjakinean,
 bizirik dagonean?
 Biztu da, ez dago hemen
 Agur bere izenean!

3

Jaungoiko bako bizitza
 gehienetan da ilun
 zentzun bako ta astun;
 hauxe gertatzen da Jesus
 ez dogunean lağun.
 Zer dan sinismen argia
 hortxe dago ezagun
 zer bake ta poztasun!
 Geuri be holangoren bat
 ea suertatzen jakun!

4

Jesus berbiztuta gero
 ez da inora juan,
 hemen dago onduan,
 bardin lanerakoan ta
 otoitz ta jatorduan.
 Zein gozoa dan bizitza
 Jesus dagon lekuan,
 ikasleen moduan.
 Jesusekin topatea,
 zer hoberik munduan!

5

Jesusen anaiarte
 horixe da Eleiza,
 hobe holan balitza!
 Bere testigu izatea
 da behar dan baldintza.
 Jesusen testigantza da
 gu kristauon bizitza,
 otoitza ta zerbitza.
 Jesusen antzera bizi
 ez da nahikoa hitza.

6

Hilen artetik biztu da
 Jesus Jainko Bildotsa,
 Bera da gure poza;
 Aleluiaka entzun da
 aingeru kuku hotsa.
 Kristogaz batera danok
 Pazkoa daigun goza
 ta bateo mokotza;
 anaiok, Kristo biztu da
 ta alaitu bihotza!

EZ IZAN BILDURRIK!

1

Joan zan nire gaztaroa,
atseginez oparoa;
gehien batean zer nahi ta haxe,
a zer abaroa!
Ganean dot zahartzaroa,
berez beherantza naroa;
bildur ta kezka ni egotea
ez da arraroa.

2

Jauna, ez daukat indarrik
ta ez jat falta negarrik;
ai, ez al dozu hortik entzuten
nire deiadarrik?
“—Ez daukat entzun beharrik,
zeugaz naukazu itzarrik;
jakizu, maite, ez zaitut izten
inoz be bakarrik”.

3

Joandakoa iluna
ta bardin etorkizuna;
Zuk bete zeinke bakarrik, Jauna,
zahar baten hutsuna.
“—Ahaztu al jatzu, laguna,
Aitak deitsun maitasuna?
Bere eskuan itzi egizu
gaua ta eguna”.

4

Ezin dot jaso bururik,
ezin garbitu konturik;
kezkatan nago ba ete dagon
niretzat zerurik.
“—Eukizu hau sinisturik:
badozula han lekurik;
zeuri laguntzen nozu ondoan
hil eta bizturik”.

5

Ez zerurik ta ez lurrik,
 ez daukat ezer ziurrik...
 Ez jat sekula barruan sartu
 holako lapurrik.
 “—Guk dogun Aita samurrik!
 Inork ezin emon hurrik...
 Ni beti zeugaz naukazu eta
 ez izan bildurrik”.

6

Noraezean ta larri
 zahartzaroan nago sarri;
 Zeuk ikusita, Zuk badakizu
 ondo gure barri.
 “—Zuk uste on Nigan jarri
 ta esku hori ekarri;
 Neuk arinduko deusut gaineko
 zama ta buztarri”.

7

Behin itzarrik ta behin lotan
 kezka bardina askotan:
 dana itzita, joan beharra
 noiz izango dotan...
 “—Eukizu hauxe gogotan:
 zu betiko galtzekotan,
 nire bizia alperrik emon
 nebala Golgotan”.

8

Hau da poza barrenean
 Zurekin nagoanean!
 Bildur guztiak ihesi doaz
 zure izenean.
 “—Hemen naz aldamenean,
 zeugaz hartuemonean;
 biok alkartu arte betiko
 han Aitarenean”.

NI GAIXORIK EGON NINTZAN ETA ZUK...

1

Gizonaren legea
jαιο, bizi ta hil,
hau egi biribil;
gure bizitza horren
inguruan dabil.
Alperrik harro izan
jakintsu ta abil,
gaixoak jartzen gaitu
makal eta kikil;
hoba hau dan moduan
onartzea umil.

2

Alkar laguntzea da
aingeruen lana,
Jesusek esana:
"gaixorik nengoala
zu heldu Nigana.
Zuk holako batekin
egin zenduana
Neuri be egin zeunstan
haxe bera dana".
Hau aukera ederra,
ai ene laztana!

3

Pozak eta negarrak
dabe euren txanda,
banatzea lan da;
gaur gaixorik ta bihar
ondo jan-edanda.
Alkar behar dogu-ta,
ez sortu demanda,
jardun alkar laguntzen,
eskua emanda;
hau lehen, gaur eta beti
holantxe izan da.

4

Gaixoentzako ditut
ordurik onenak
ta nire ahalmenak,
hontara behartzen nau
kristau sinismenak.
Zer dira nire indar
eta ondorenak?
Neu nago zahar, gaixo ta
bi hankak herrenak.
Baina gehiago ahal dau
Jesusen izenak.

5

Batean, lagunakaz;
bestean, bakarrik;
ez da falta garrik;
ahal dana egiteko
badago indarrik.
Ez da inoiz faltako
gaixo edo zaharrik,
geuk emon ahal deutsalgun
laguntza beharrik.
On egiteko ez da
inoiz ordu txarrik.

6

Sarri alkartzen gara
gaixoen etxera,
aixkide antzera,
eurekaz egon eta
lagun egitera.
Otoitz egin ondoren
kristauon legera,
kartetan hasten gara
gaixo ta batera;
kopautxoak emoten
deutso amaiera.

7

Kristauok batzen gara
 domekako jaian,
 aldareko mahaian;
 gaixoak dira lehenen
 Jesusen eztaian.
 Geurea amaituta,
 ondoren jarraian,
 geuk zerbitzen deutsagu
 Ogitik jan daian;
 senide Afarian,
 parte emon nahian.

8

Noiznahi joaten gara
 gaixoen ondora,
 hantxe bai gustora!
 Jesus bertan dagola
 ekarriz gogora.
 Nagusiok badogu
 hainbeste denpora,
 dana geutzat hartuta
 ez goaz inora;
 gaixo eskola ona
 da "Bizian Gora".

9

Emoten dogun baino
 hartzen da gehiago,
 ikusita nago:
 hori ordaintzekorik
 dirurik ez dago.
 Neure bakardadean
 nengoen lehenago,
 gaixoei esker nabil
 gaur egun pozaگو;
 gaixoen bidez Jesus
 gaur dot maiteago.

PEKATURIK EZ!

1

Gaur asko bizi jaku
 hauxe sinisturik:
 “nik ez daukat okerrik,
 ez pekaturik”.
 Holakoak ez dauka
 Jaunagaz traturik
 edo ez dau hainbeste
 maila ta gradurik.
 Egon segururik:
 ez dago santurik,
 ez gizon modurik
 hain zuzen, juxturik.
 Baina ez jaku falta
 gaur “aingerurik”,
 ta zelan esan leike:
 “ez da zerurik?”.

2

“Santu barriak” badau
 bere jaungoikoa,
 neu gora ta neu behera,
 neu naz nahikoa.
 Nik garbi daukat beti
 barru ta kolkoa,
 gaizkilerik badao,
 beti da hurkoa.
 Laster da jokia:
 adar-ostikoa,
 edo ostekoa...
 A ze eperdikoa!
 Aita Santua ez da
 Erromakoa;
 santua neu ta neure
 erramakoa.

3

Gitxitu egin jaku
 kristau sinismena,
 baina “kredoak” gehitu,
 hau da ahalmena!
 Alderdi, talde danak
 badabe eurena,
 egia geurea ta
 guzurra besteena.
 Gero ondorena:
 bestea kondena,
 gatxa dakarrena,
 traidore alena!
 Jainkotxoak nahi dabe
 jarri ordena;
 Jainkoa ukatu ta
 nausi txerrena.

4

“Ez dago pekaturik”,
 hau atrebentzia!
 Egia, galdu bada
 kontzientzia.
 Hoba traba guztiak
 aurretik kentzia,
 edozein “maisu-maistrak”
 dauka lizentzia.
 Hau da zientzia:
 ondo mantentzia
 neure herentzia,
 komenientzia...
 Hortarako badira
 mila agentzia;
 mutilak, hau dok gure
 inozentzia!

5

Gizon harropuztua
 beti da petrala,
 mundu ta zerurako
 hoba apala.
 Jainkoa baztartzeko
 zenbat astrapala,
 gero norbera jarri
 jainkotxo bezala.
 Esan bala-bala,
 Jainkoa badala,
 bat eta leiala,
 Aita mundiala!
 Nahiko dogu Jainko bat
 bihotz zabala;
 ta sasikoetatik
 librau gaizala!

6

Zugana nator, Jesus,
 esker ta eskari,
 entzun zure preminan
 dagoanari.
 Nire bizitzan bada
 pekatu ugari,
 ugariagoa da
 zure ordain sari.
 Zu zaitut gidari,
 ordezeko opari
 ta bitartekari,
 gainera, janari...
 Kurutzan salbau nozu,
 a zer mirari!
 Uste osoz dinotsut:
 "ni pekatari".



POZA ETA ITXAROPENA

1

Negua, udabarria,
burruka luze larria,
berez dago ezarria.
Itxura baten galdurik zana
bera da bizi iturria.
Albora da hilarria,
zart!, heriotz lokarria,
hau albiste pozgarria!

2

Egia eta guzurra,
zintzoa eta maltzurra,
ongilea ta lapurra...
Gaiztoak alkar hartu ta emon
zintzo danari egurra;
jaği da Jainko ziurra,
ta ahuspez jausi da lurra:
“biztu danari agurra!”.

3

“Poza ta itxaropena”
hor gotzainen dei ozena,
hau pazko oihu zuzena!
Entzunak entzun, ez izan bildur,
bai adore ta kemena.
Oraindik ez da azkena,
hasibarri da onena:
neguaren ondorena.

4

“Jesus Jauna berbiztu da”,
ospatu daigun Pazkua,
azkenaren hurrengua.
“Heriotzak gaur galdu egin dau,
biziak hartu lekua”;
hauxe da kristau kantua:
gora Jesus berbiztua,
udabarriko kukua!

ATEZ ATE, GABON ZORIONAK!

1

Mañariarrok gatoz aurrera
Gabon kantuen soinura,
ZORIONAK gaur opatu nahirik,
holan da gure ohitura.

2

Jesus Mesias agertu jaku
Belengo askatxo baten,
bere izenez gatoz honuntza
albiste on hau ematen.

3

Aterik ate ei dabil hemen,
ostatu on baten bila,
zuen etxera datorrenean,
hartu eizue mutila.

4

Gabon gauean ta Urte Barriz,
izan osasun, bakea.
Pozik igaro dagizuela
da gure borondatea.

5

Limosnaz eta diruz laguntzen
ez zarie, ez, makalak,
laguntza eske gatorkizue
ta izan eskuzabalak.

6

Zeozer bada, eskerrik asko,
ezer ez bada, hor konpon!
Gure partetik ondo bizi ta
Gabon ta Urte Barri on!

AURTENGO BELEN BARRIAK

1

Jainko haundia, ume txikia,
Belengo Jesus laztana!
Gu zeruraino jaso gurarik,
beheraino jaitsi zinana.
Zu gizaseme, gu jainkoseme,
alkarrekin erdi bana,
oi, maitasunezko lana!
Zu hain txikia eginda, Jesus,
gure bila zatozana:
gaur maitasunez pa emotera
pozik gatoz Zuregana.

2

Haundi ustea, harrokeria,
besterik ez dago hemen;
txiki ta gaixo, poztu gaitezan,
gure lekua da Belen.
Zu zara, Jesus, gu behartsuon
pozbide ta itxaropen,
zer barri on ta zoramen!
Zeure lekuan jarri gaituzu,
Belen gu geu gara aurten;
munduko martxan azken garanok
Zeuk jarri gaituzu lehenen.

BELENDIK EGUBERRI ON

1

Iturritzako umeak
doaz Belenera,
danen partez Jesusi
agur egitera.
Bake ta zoriona
Hari eskatzera,
ta etorri dedila
guztion etxera.

2

Mariak esan deusku
Umearen partez:
guztiok bizitzeko
osasun ta bakez.
Alkarri lagunduaz
ahal dan borondatez;
eskatzen deuskuela
biak bihotz batez.

3

Idiak orru eta
astoak arrantza,
Jesustxo lolo jartzen
dihardue, antza.
Hotz egiten dau eta
ekin ta ez kantsa;
bota arnas beroa
bere alderantza.

4

Umeak min hartu dau
aitaren bizarrez,
ta isildu ezinik,
hor dago negarrez.
Gure laguntza eske
hasi da dearrez:
etorri eta Jesus
jarri daigun barrez.

5

Ez, ez negarrik egin,
Jesustxo laztana!
Zuretzat gure txalo,
dantza eta dana.
Gu sarri etorriko
gara Zuregana,
zure lagunak gara,
eutsi paatxo bana.

6

Izan Eguberri ta
Urte Barri onak,
Jesusen izenean
bihotzez emonak.
Bake pozez ospatu
aurtengo Gabonak,
eta gure partetik
danoi: ZORIONAK!

BELENGO IZARRA

1

Danon gogotan dago
Belengo Izarra;
hau entzun ordukoxe,
askok irriparra.
Erregeen bizarra,
ganbelu, abarra.
Esan gura dauana
ez da kontu zaharra.
Izar honek sortzen dau
jarraitu beharra.

2

Izarra ikustea
ez jaku ezina,
beti dago ñirñirka,
geu zuhurak bagina...
Zerua urdina,
eta ikus-mina;
zain daukaugu Belengo
Ume atsegina.
Erakutsi eiguazu,
Maria Birjina.

3

Galdu gordean gabiliz
itsas hasarrean,
salbatzarren zerbait
egin beharrean.
Gatx da bakarrean,
hobe alkarrean;
norantz dan esan jaku
Liburu Zaharrean;
gidari ona emon
deusku Izarrean.

4

Zintzoa beti dabil
bidez bide bila,
asetu nahi ta ezin
egarri isila.
Nahiz zahar, nahiz mutila,
ez badaگو hila,
Izarraren atzetik
urduri dabila;
noiz ikusiko pozez
Eguzki burpila.

5

Antzinako ohitura
da Erregeenetan
erregalu gozoak
hartuemonetan.
Olgetan benetan,
pozik zer ete dan;
Hauxe opa deusuet
aurtengo honetan:
bake ta osasuna
famili danetan.

6

Erregeen Izarrak
nor ez dau alaitu?
Eguzkiaren bila
pozez jarri gaitu.
Gauzak zuzen aitu,
eta ez gogaitu;
hartutako bidea
daigula amaitu;
Izarra lagun dala,
ekin ta jarraitu!

BIZITZATIK BIZIRA

1

Nork ez dau maite bizitza?
 Bere atzetik gabilta;
 guk ez daukaugu ta zeinek dauka
 azkenengo hitza?
 Ederra, baina murrirtza,
 ai, betikoa balitza!
 Sortu gaituan Jainkoak dauka
 eskuetan giltza.

2

Hara nun dan oinarria
 Jainkoak Berak jarria:
 Aita guztien Aita Bera da
 bizi iturria.
 Badoğu bizi barria
 Jesukristok ekarria;
 Beraġan ase ġeinke bakarrik
 ġure eġarria.

3

Heriotzaren iluna,
 danok larritzen ġaituna,
 hau barri ona Jesusek ġuri
 ekarri deuskuna:
 Aitaren Seme kutuna
 ġuġaitik hil dan Laguna,
 Berak argitu deusku betiko
 ġaueko Eġuna.

4

Larri garan orduetan
 sartu bihotz-buruetan:
 ġure ondoan dogula Jauna
 mila moduetan.
 Maite ġaitula benetan,
 ġeugaz dogula penetan;
 ġeure burua itzi daigula
 bere eskuetan.

5

Gurasoen ġurasoa,
 Aita maitale gozoa!
 Jesusen bidez konpondu dozu
 ġure arazoa.
 Luzatuz zure besoa,
 sendotu seme ġaixoa;
 zeurea naz-ta, Zeuġan jarten dot
 uste on osoa.

6

Heriotz, ez ġainontzeko,
 ez da ezer ġu ġaltzeko;
 Aita Jainkoa, eġin ġaituzu
 ġu zure antzeko.
 Munduan Zeu ġoratzeko
 eta alkar maitatzeko,
 ġero zeruan danok batera
 Zeuġaz bizitzeko.

HERIOTZA HIL DA, BIZIA BIZIA DA

1

Garizuma jardunaldia
 Pazkotan dogu buka,
 "aleluia" oihuka,
 bizi barriaren bila
 sekulako burruka:
 Grina gaiztoak bentzidu
 eta birtutez truka,
 behar dan dana uka;
 Jesusen jarrai joanak
 orain beretzat dauka.

2

Negu baltzaren ondoren
 dator udabarria,
 hau barri pozgarria!
 Jesus Jaunak astindu dau
 hilobiko harria.
 Heriotzaren lekuan
 polpol bizi iturria,
 ase hor egarria;
 Bera da mana gozoa
 Aitak gutzat jarria.

3

Gizonak kurutzan hila
 Aitak dakar bizira,
 hau da hau jirabira!
 Guztiontzat argitu da
 Pazkotako distira.
 Jesusen bila ez joan
 lurpeko hilobira;
 bai, bateo harrira;
 Beragaz biztu diranak
 damutuko ez dira!

4

Heriotzea hil da ta
 bizia da betiko,
 bizirik da biziko!
 Hilgarri dan guztiari
 emon adar, ostiko.
 Izan nahi dogu bizitzan
 Jesusen irudiko,
 bide zuzen garbiko;
 ziur gagoz holakoa
 ez da behin ere hilko!

HILDAKOA BIZIRIK DAGO!

1

Jesus Jauna biztu dala,
hau da gure sinismena,
gu Beragan biztu gara,
hau da horren ondorena.

2

Biztu dana geugan dago,
hau da gure Barri Ona,
harrezkero Jesus dogu
gure bake, zoriona.

3

Ikusi barik sinistu,
lekukoak bitarteko;
orduan, dino Jesusek
garala zorioneko.

4

Hartu doguna zabaldu
Jesus Jauna iragarri;
alkar maitatuz bat izan;
hau da gure ezaugarri.

5

Jesus Jaunak egin gaitu
danok famili bateko,
anai-arreben antzera,
bere eleiz izateko.

6

Gizonak erail ebena,
Aitak Haxe biztuazi,
Kristo betiko garaile,
Beragan geuk be irabazi.

7

Nazareteko Jesus ha
biztu da behin be ez hilteko,
errazoirik nahiko dogu
beti pozik ibilteko.

8

Kristorekin hil gara ta
Bateoz Beragan biztu,
bizikera barri batez
daigula hauxe egiztu.

9

Jesusek irabazi dau,
zure azkena, heriotz!
Ez izan bildur eta jo!
Jesus lagun, izan bihotz!

10

Gora Aita ta Semea,
aintza ta eskerrik asko.
Espirituaz batean
berbiztu gaituzulako.

GURE PAZKOA

1

Jesus, biztu zara-ta,
hau jai pozgarria!
Pozez doguz bihotza
eta eztarria.
Hortxe dogu guztiok
heriotz larria,
baina Zuk ase dozu
gure egarria:
zeruko giltz bihurtu
dozu hilarria.

2

Kristo berbiztu da-ta,
bizi gaiten alai,
zeru-lurretan danok
egiten dogu jai.
Danon Salbatzaileak
horra zer dauan nahi:
alkar maitatuz danok
gaitezala anai,
hauxe iragarreko
gizaki guztiai.

3

Aitak biztu dau Jesus.
Hau da miraria!
Gure fede oinarri
dan gertakaria.
Aingerutxo bat dator
Pazko kantaria:
Gizonak hil ebena,
ha pekataria,
Aitak biztu egin dau,
hori da saria!

4

Gu gara aihenak ta
Kristo mahatsondoa,
holan ez da faltako
gustuko mordoa.
Guk fruitu emotea
da bere gogoa:
emon daigula danok
asko ta gozoa;
Beraġaz bat eġinaz,
hartzen dan zumoa.

5

Jesus berbiztu zana,
guk fedez dakiġu,
hori ez jakitea
da nahiko kastigu.
Heriotzaren gatxak
ez ġaukaz katiġu,
hau sinisten dogula
iġerri bekiġu;
ġeuk izan behar dogu
Jesusen testiġu.

6

Jaunak eġinak ġara,
hau da albistea!
Ez al da pozġarria
guk hau sinistea?
Zer da Jainkoagaitik
Jainkoa iztea?
“Triste dan santua
da santu tristea”.
Sarri, otoiġza baino
hobe da txistea.



*Jesukristo Kurutzekoaren oinetan egotaldi
luzeak eġindako kristau jentea da.*

HILOBIA HUTSIK

1

Heriotzak dakarrena
betiko lege zaharra:
danok galdu beharra.
Bere mende hartu eban
Jainko Seme bakarra.
Baina Kristo izan dogu
askatzaile azkarra;
entzun da deiadarra:
Heriotz, Kristo biztu dok,
agur hire indarra!

2

Munduan inoiz izan dan
burrugarik latzena:
heriotz-bizitzena;
Satanasek eta Kristok
behin jokatu ebena.
Heriotzari barrutik
kendu deutso eztena
ta pekatu edena;
harrezkero, heriotza
ez da gure azkena.

3

Zeruko aingeru batek
deusku hau iragarri:
"Jesus da biztu-barri".
Hilobia hutsik dago,
ez zapi ta ez harri.
Heriotza ez da azkena
Kristok dau mende jarri;
Bera da bizi iturri.
Jesus Jauna biztu da-ta,
zorionak alkarri!

4

Jesukristo berbiztu da,
ez dau inork lapurtu,
alperrik hau guzurtu;
Aitak biztu dau lurpetik
ta bizira bihurtu.
Lagunei agertu eta:
"Bakea! Ez bildurtu!
Neu nazala ziurtu,
heriotza bentzidu dot
ta betiko apurtu".

5

Hilobi hotza itzita,
biztu da Jesus ona,
hiru egun egona;
bizi barri ta betea
munduari emona.
Gaurtik salbaturik dago
behin betiko gizona.
Zer poza dariona!
Gaur lortu deusku Jesusek
guztioi zoriona.

6

Aintza, ospe ta esker on
Zuri, Aita, lehenbizi,
Kristo bai dogu nausi;
Zuk biztuerazi dozu
ta heriotza hausu.
Gora Zu, Espiritua,
gure barruko pitxi;
agur t'erdi Jesusi!
Zurekin biztu gara-ta,
beti bizi ta bizi.

JAINKOAREN EGARRI

1

Zeru-lurren Egilea
da gure Salbatzailea,
gure Jaun eta Jabea!
Zure aurrean deika gaurkuz,
zabal eizuzu atea.
Zugan daukagu ustea,
Zugan gure poz betea,
Oi, ene Jesus maitea!

2

Antzinatikan ezagun,
gero egin ginan lagun;
zer hartuemon daukagun!
Zure bizia emoteraino
zer amodio deuskuzun!
Zu gabe dana da astun,
Zurekin bake osasun;
Zu zaitugula ondasun.

3

Egiz gara zure egarri,
zure bila gabilz sarri,
Zuk gaituzu erakarri.
Gure amaren sabeletik Zu
zaitugu lagun euskarri.
Bihotzez dogu igarri
Zu zaitugula oinarri,
maitasunezko lokarri.

4

Jainkotasunez erantzi
ta gizatasunez jantzi,
nekez gaituzu irabazi.
Maitetasunez gūganaino Zu
salbatzera zinan jaitzi
ta bizitzen irakatsi,
emonez indar ta grazi;
Zuri aintza ta gorantzi!

5

Aita ta ama batera
zaran Jainko bihozbera,
gatorkizuz gaur aurrera.
Eleiz Amaren maġal gozoan
emon deuskuzu sorrera,
zure bizitzan sarrera,
seme-alaben antzera.
Maitasunezko aukera!

6

Izatez buztin pitina,
baina graziz neurtu ezina;
zure antzeko eġina...
Erreġe Aitak sortuak gara
erreġe ta erreġina...
Eutsi gure maitemina,
garan ta dogun adina;
oi, Jainko maitale fina!

JESUS BERBIZTUAREN PRESENTZIA

Gugaitik hil eta berbixtu zan

*Beti sutan zagoz, Zu, / Jesusen Bihotza,
urtu gurarik gure / barruko izotza.
Zu Kurutzan hil zinan, / Jaungoiko Bildotsa,
bizi barri bihurtuz / gure heriotza.*

1

Bixtu da, ez dago hemen.

(Mt 16, 6)

Bizirik dagonaren

bila hilobira?

Aingeruak deiadar:

“Hemendik jagi da”.

Zer poza sartzen jakun

bihotzen erdira!

Gureztat ere berbok, ai, ai, ai,

esanak baitira.

2

*Zer zabilze hilen artean, bizi
danaren bila? (Lk 24, 5)*

Jesus berbixtu jaku

gaur hilen artetik,

hauxe sinisten dogu

ume ginanetik.

Eskerrik asko, Jesus,

bihotz-bihotzetik!

Zorionak ta aintza, ai, ai, ai,

guztion partetik!

3

Bai zentzun bakoak zariela!

(Lk 24, 25)

Zentzun bako jentea,

Jesusek dinonez;

itxura onak, baina

fruiturik emon ez...

Hemen gaukazuz, Jesus,

Zuri esker onez,

bete gaituzulako, ai, ai, ai,

zure zorionez.

4

*Jauna ikusi dot eta hau eta hau
esan deust. (Jn 20, 18)*

“Jauna ikusi dot gaur,

hau poz ta zorion!

Eta zuentzat dakart

hainbeste barri on”.

Jesusen testigua

ezin geldi egon,

hartu dauan grazia, ai, ai, ai,

beharko dau emon.

5

Ene Jauna eta ene Jaungoikoa!
(Jn 20, 28)

Tomasen: "Ene Jauna
eta Jaungoikoa!",
ikusi eta gero
sinistutekoa.
Ikusteko sinistu
da gure kredoa,
Jesusentzat hori da, ai, ai, ai,
zorionekoa.

6

Jauna da! (Jn 21, 7)

Mamuaren bildurrez
lagunak ziranez,
Joan da testigua,
"Jauna da" esanez.
Testigutzak behar dau
esana ezpanez,
baina askoz gehiago ai,ai,ai
egintzaz ta lanez.!

7

*Aitak Ni bialdu nauan lex, Nik ere
bialtsen xaituet zuek. (Jn 20, 21)*

Zelan zuen artera
Aitak Ni bialdu,
halan Nik bialduta
zuek be zabaldu.
Behar latza dala-ta,
ez, gero, makaldu,
"Jesusen Izenean", ai, ai, ai,
ez, ezin da galdu.

8

Ni zuekin noxue egunero.
(Mt 28, 20)

"Ez ahaztu egunero
nagola zuekin",
hau jakinda, zelan ez
bihotzak irakin!
Heriotza desegin
eban Jesusekin,
orduian baietz lortu, ai, ai, ai,
biok alkarrekin!

9

*Eta bere eskuak jasorik,
bedeinkatu egin ebazan.*
(Lk 24, 50)

Aitarengana doa
Seme on leiala,
zintzo bete ondoren
Aitak esan ahala.
Harrezkero guretzat
da zeru zabala;
anaio, ez daukagu, ai, ai, ai,
aixkide makala!

10

*Zure azken agurra
da bedeinkapena
ta honek betiko dau
bere luzapena.
Hori da guretzat gaur,
saririk onena:
zeruan alkartzean, ai, ai, ai,
ha bai zoramena!*

EGUZKI ERLOJUA

1

Eleiz horman ezarria,
gizaldietan jarria.
Neu geldi nago, eguzkia da
nire eragingarria;
bion artean emoten dogu
orduon joan-etorria.

2

Eguzkia jaun ta jabe,
ni beti haren mirabe.
Ni ez naz gauza ezertarako
haren laguntzarik gabe,
harek argi ta nik ordua jo
isilean ta suabe.

3

Sarri daukadaz begira,
ni zer ete nazan mira.
Ene, aixkide, sekretutxo bat
isilean belarrira:
orduak ondo jo nahi badozuz
zu be zoaz Eguzkira.

4

Ni hilda nago bizirik,
ez badaukat eguzkirik.
Entzun, aixkide, zu bardin zabilz
ez badaukazu argirik,
jo argi bila eta ez esan:
ez daukazula astirik.

5

Erlojuaren makina
da Jaungoikoak egina.
Arlo honetan ni eta zuek
dogu arazo bardina:
bere argirik ez badaukagu,
ezin bete zeregina.

6


Ni geldi ta zu mogikor,
garana Jainkoari zor.
Kontua ez da gu ibiltea,
ni motel eta zu bizkor;
zeinek hobeto orduak bete,
balioa hortik dator.

7

Ni naz burnizko orratza,
 azpian harria latza.
 Oi, gizon, zu zer zara gehiago?
 Nun dozu zure ardatza?
 Biok huts gara, gure ardatza
 Jainkoagan ez badatza.

8

Gu desegiten gaituna,
 lorrina eta iluna.
 Argia lagun, bete daigula
 guk geure eginkizuna,
 argitu arte iluntzen ez dan
 Eguzkiaren Eguna.



Merezi dau "eguzki erlojuari" isilean entzuten egotea.

GAURKO SASIKREDOA

1

Bertso antzeko batzuk
moldatzera noa,
inguruan badago
zer esan nahikoa.
Hau da nahastea, jaunak,
hau da hau lainoa!
Nork igarri zein dan gaur
askoren kredoak.

2

Batzuetan ondo datoz
Ebanjelioak,
ezin leitekez galdu
pribilejioak...
Holakoen kredoak,
a ze balioak!
Hasi orduko datoz
patrifilioak.

3

Gaur dira katoliko
ta bihar ateo;
bardin hartu ta itxi,
komeni ezkerro.
Gaur eskuman daukazuz
aupadaka bero,
ta bihar ezkerrean,
ta norantza gero?

4

Ez da errez bakoitza
nor dan jakitea,
hain errez aldatzen da
modaz txaketea!
Gaur agertzen jatzuna,
aixkide maitea,
bihar aurka daukazu
nun eingo kaltea.

5

Norbera ez besteak,
danak diktadore,
norbera goian bada,
orduak dotore.
Inoren arlo ta lan,
dana da folklore,
norbera jasotzeko
ze txalo ta lore!

6

Asmau ahalak asmatzen
mila gizon listo,
nundikan buztartuko
Satan eta Kristo.
Fede onez ez ei da
inortxo be gaizto...
"Ateo fededun" da
gure Txilibristo!

7

Orain bakotzak dauka
nork bere kredo,
dana neurritz eginda,
baita be Jainkoa.
Gaurko jente modua
ez da ez tontoa:
hasiera ta azkena
nork bere kolkoa.

8

“Egiak egi dira,
baina ez betiko”,
komeni bada hartu,
ezpada, ostiko...
Gaur ez dago ezinik,
ai, ene mutiko!
Sinistu nahiz ukatu,
danok katoliko!

9

Lehen baegoan lege
ta kontzientzia,
baina gaur nausi dago
gure zientzia.
Nahi bada ta ahal bada,
bada lizentzia,
Kredoaren ardatza
da komenientzia.

10

Gaurko kredo barri hau
amaitu baino lehen,
beste egi bat esan
behar dogu hemen:
“Neu gora ta neu behera,
neu azken eta lehenen;
beti neu in secula
seculorum. Amen”.



Nork igarri nor nor dan? Karnabalak batekoz beste jantzi eta ibilteko dira. Okerrena zera: sasikristau asko itxuraldatuta dabilzala urte osoan eta askotan. Nork antz emon zer diran?

JESUSEN ARTZAIN LAGUN

1

Bizitzaren gailurrean
esan beharrean nago:
Jauna, zoriontsu nozu,
sekula baino gehiago.

2

Jesus Artzain nagusia,
aukeratu nozu lagun:
“Lagunduko al deustazu,
artaldea zaindu daigun?”.

3

Artalde maitagarria
zaintzeko jarri deustazu.
Zeure izenean, Jauna,
ekingo deustat jo ta su.

4

Zeurea da, Jauna, hartu
nazan ta dodan apurra;
ta Zu nigaz zaitudala,
uxa lotsa ta bildurra.

5

Zer nazan ta zer ahal dodan
ez dozu esan beharrik,
Zeuk aukeratu nozu-ta,
nahiko zaitut Zeu bakarrik.

6

Bizian Gora gara gu,
Jesus, zure senitarte,
zintzo jarraitu nahi dogu
Zeu bila etorri arte.

TXIKIAK HAUNDI

1

—Gaur alkar ikustea,
Martzel, da pozgarri.
—Bihotz-eskuak, Txomin,
luzatuz alkarri.
—Gu beti gabiliz zerbait
eroan-ekarri.
—Gaur liburu bat dakart
argitara barri.

2

—Ez da errez agortzen
zure almazena.
—Beste hirugaz nahi dot
osotu dozena.
—Azken “umetxo” honek
zelan dau izena?
—”Txikiak Haundi” dozu
azal ta gizena.

3

—Zein da jorratu dozun
bizitza baratza?
—Adineko jentea
zein dan aberatsa.
—Jente horrek zertan dau
piper edo gatza?
—Nor baten balioa
Txomin, zertan datza?

4

—Hazur-maminak igar,
zimurra azala.
—Baina bihotza garbi,
samur ta zabala.
—Horregaz bizitzeko,
ez zaġoz makala!
—Oroi zaitetz altxorra
maitasuna dala.

5

—Zer balio dau horrek
munduko balantzan?
—Zu be ito al zara
kontsumoko saltsan?
—Gitxi bizi dira gaur
horren esperantzan.
—”Txikiak Haundi” dinot
zaharren alabantzan.

6

—Zuri gaur hau entzunda,
harriturik nago.
—Liburuak dinotsuz
nik baino gehiago.
—Irakurri nahi neuke
ta salgai al dago?
—Bizian Gorak dauka,
hartu eta pago.

AINZA ETA ESKER ONA ZURI!

*ESKERRAK BIHOTZETIK,
AITA JAUNGOIKOA!*

1

Lurreko gauzak lehen lez,
gaur ezin ikusi,
ederragoak Jaunak
deustaz erakutsi.

2

Gero eta gorrago
nire belarriak,
baina entzuten dodaz
oihartzun barriak.

3

Ezin dot hartu gauzen
arrasto usainik,
hobeak badirala
nago gaur jakinik.

4

Gauzak ikutu eta
ia danak bardinak,
gaur sentigarri jataz
ikutu ezinak.

5

Gauzen gozotasuna
ezin dot dastatu,
gaur mahai gozoagoa
Jaunak deust prestatu.

6

Bidean ibilteko
hanka biak sortu,
baina nire gógoa
Jaunak deust bizkortu.

7

Burua galdu eta
oroimenik gabe,
baina orain egin naz
buruaren jabe.

8

Itzi ondasunak ta
galdu osasuna,
pilatzen nabil galtzen
ez dan ondasuna.

9

Amodioa hoztu
ta galdu lagunak,
Jaunak betetzen deustaz
guztien hutsunak.

10

Norbera zaharrago ta
lagun gitxiago,
Zeu nirekin bazagoz,
ni konforme nago.

11

Lurreko bizitza hau
badoa gainbehera;
ondorengo hobeak
dauka hasiera.

12

Bizian Gora dozu
bizitza eskola,
bertan sartzen danari
on egin daiola!

AITATXOREN AURREAN OTOITZEAN

1

Eguneroko lanen ondoren,
mendiko bakardadera,
Aitatxorekin alkarrizketan,
maitasunez egotera.
Aita, hemen naukazu
bat gara Ni eta Zu,
gabilzan biok batera;
hemen naukazu Zeuk bialduta,
Zeu Aita lez agertzera.

2

Nire gogoa beti Zeu zara
ta zure borondatea,
halan zein holan, danen gainetik
izan dedila betea.
Danok alkartu gura
zeure mahai ingurura,
egin deutset konbitea.
Lau haizetatik milaka datoz,
zabalik euki atea.

3

Ez naizu itzi bakarrik, Aita,
gaur estu ta larri nago,
baina egizu zeure gogoa
nirea baino lehenago.
Nire neke ta lana
eta bizitza dana
zure eskuetan dago.
Hil edo bizi, Zeu izan zaitetz
gero eta maiteago.

4

Zu barik ezin bizi naz, Aita,
ni beti zure egarri;
egunez, zure lanean eta
gaugez, otoitzean sarri.
Biok alkarren lagun,
gizona salbau daigun,
hauxe da gure pozgarri.
Espiritua bekiñu bion
laguntzaile ta lokarri.

ASE NAGIZU, JAUNA, ZURE MAITASUNEZ

1

Sinisten doğu, Jainko,
Aita zaituguna,
hutsaren hutsetik Zeuk
sortu gaituzuna.
Zure eskuan gure
gaua ta eguna,
Zu gúgan ta gu Zúgan,
hau da batasuna!
Agortu ezina da
zure maitasuna.

2

Ez da beste aitarik,
ez beste amarik,
Zuk hainbeste daukanik
gure ardurarik.
Zeutzat egin ginduzun,
ez dot zalantzarik!
Zuk ez dozu galdu nahi
seme-alabarik;
ez Zuk ez gük ez doğu
pozik alkar barik!

3

Ni izatez izanik
Zuretzat egina,
Zuregan izan ezik
hau ase ezina!
Zeugan dago guretzat
poz ta atsegina,
Zu izanik guretzat
hain maitale fina,
gehitu Zureganako
gure maite-mina.

4

Baditugu eskeintzak
inguru guztitik,
iruntzi ahala gauza
kontsumo ontzitik.
Gehienak kalterako,
hamar hamabitik,
gaur oihu dagitsuğu
bihotzen erditik:
emoiguzu edaten
zeure iturritik.

5

Seintxoa bila dabil
amaren bularra,
eta aurkitu arte
garrazi negarra.
Areago niretzat,
oi, zure beharra.
Erakutsi eiguzu,
Aita zerutarra,
gu aseko gaituan
iturri bakarra.

6

Argi seme gara-ta,
heldu nahi argira,
argiaren atzetik
zenbat jirabira!
Isuri, arren, Jauna,
bihotzen erdira,
Zuregandik datorren
goi argi distira;
zuzendu gaizuz, Aita,
zure iturrira.

BA AL DAGO JAUNGOIKORIK?

UMEAREN ZENTZUNA,
ETXEAN ENTZUNA,
ETXE TA KALE HAU DA NAHASTEA
IKUSTEN DOGUNA!

1

Lehengo batean gauez
amaren onduan,
leku hobeagorik
nun dago munduan?
Esaidazu gaur, ama,
Jainkorik daguan.
Amak baietz erantzun,
ahal eban moduan.

2

Ikastolara nabil
euskera ikasten,
baina Jainkorik eta
ez dabe irakasten.
“Kontuz ibili, ume”,
amak esan eusten,
ardi narroz otsoak
hasi dira nahasten.

3

Jainkorik ez eta bai
neuk sarri entzuna,
Mezara noalako
zelango jarduna!
Seme, hartu gogoan
gaur dinotsuguna:
“izan beti euskaldun
eta fededuna”.

BAI MIRAGARRI, JAUNA!

1

Zeru, lur eta itsaso,
 mundu zoragarria,
 Aitak martxan jarria;
 Zeu zara diran guztien
 sortzaile t'euskarria.
 Eguzkiaren distira,
 zure irribarria,
 egunero barria;
 eurekin goraltzen zaitut,
 Aita maitagarria!

2

Seme-alaba gaituzu,
 Aita, zure antzeko,
 aingeruen pareko;
 mundu hau emon deuskuzu
 geuk landu ta zaintzeko.
 Danontzat emon deuskuzu
 geu bertan bizitzeko,
 eta Zeu goraltzeko;
 danok Aita zaitugu ta
 danok gara etxeko.

3

Izadiaren altzoan
 poz ta zorionean,
 nago esker onean;
 alkarrekin ta Zurekin
 hartu ta emonean.
 Badozu beste mundu bat
 honen aldamenean
 ta ordua danean,
 Zeuk munduz aldatu gaizuz,
 Aita, nahi dozunean.

4

Izaki bakoitza dogu,
 Aita, zure distira
 zure izpitxoak dira;
 ta Zeu agurtzen zaitue
 geu jarrita begira.
 Orain ikusten zaitugu
 ispiluz irudira,
 noiz biztuko argira;
 han bai ikusiko gara
 aurpegiz aurpegira!

BEGININIA LEZ ZAINTZEN NOZU, JAUNA

1

Batera zaitudana
Aita eta Ama; (bir)
begininia lez zaintzen nozu,
hau da zeuk esana. (bir)

2

Ez da inun aitarik,
ez eta amarik, (bir)
semeak zaintzen, Jauna, Zuk beste
ardura daukanik. (bir)

3

Zeurea da promesa,
nirea amesa; (bir)
Zutaz fiatu nintzan ta beti
Zugan dot babesana. (bir)

4

Ez lotan, ez itzarrik,
ez nago bakarrik; (bir)
ez da zugandik etengo nauan
inungo indarrik. (bir)

5

Badakizu nazala
gaixo ta makala; (bir)
baina inoren bildur ez naz, Zu
lagun zaitudala. (bir)

6

Zu lango maitalerik
ez da Zeu besterik; (bir)
Zutaz osoan fiatzen naz ta
ez daukat galtzerik. (bir)

BIHOTZEZ TXASTAU DAUANAK DAKI

1

Bizian Goran, anai-arrebok,
alkartu gara barriro,
gure erdian Jesus dogula,
hementxe bai dala giro!

2

Andra ta gizon alkartzen gara
famili askotakoak,
baina Bizian Gorari esker
gara senitartekoak.

3

Kristautasuna zein ederra dan
hemen ikasten da hori,
Jesukristoren jarraitzailea
hau bai dala kategori!

4

Bizian Goran gabilzanetik,
gara lehen baino gehiago,
penagarria eskola on hau
eza gutu ez lehenago!

5

Jesus gurekin bizi dogula
zein poz iturri sakona!
Hau jakiteak emoten deuskuz
bakea ta zoriona.

6

Hamabostero alkartzen gara
Jesusen maitasunean,
honek pozten ta bizkortzen gaitu
kristau alkartasunean.

7

Pasealdiak, karta jokoak
ta mila denpora-pasa,
gustuko jakuz, baina gehiago
Bizian Gora, Tomasa.

8

Bizian Gorak emon deuskuna
ezin saldu diru truke,
merkatu baten ez da salduko
hain gauza ona hain merke!

9

Hau ez dau inork diruz erosi,
ez eta buruz ikasi,
dabilenari emoten deutso
Jaunak behar dauan grazi.

10

Erdiak ere ez dira izan
hemen esan doguzanak,
hau zein ona dan bakarrik daki
bihotzez txastau dauanak.

ENE ARIMA, GORATU EIZU JAUNA

1

Zeru-lurren erdian
bihotza betian, (bir)
goratzen zaitut, Jainko maitea,
goraka batian. (bir)

2

Txoritxoak kantari,
arrainak igari; (bir)
“Gora Jainkoa” kantuz dario
nire bihotzari. (bir)

3

Aingeru ta buztina
nozu zeuk egina; (bir)
Zu maitatu ta goraltzea da
nire atsegina. (bir)

4

Gora! Eskerrik asko!
Asko ez da nahiko; (bir)
Zeure semea emoteraino
maite nozulako. (bir)

5

Gara seme ta Aita,
Zeuk halantxe nahita; (bir)
nazan guztia zeurea nozu,
zelan ez zu maita? (bir)

6

Goratua Zu beti,
halan izan bedi! (bir)
Guk biok halan ikusi arte
aurpegiz aurpegi. (bir)

EGIN OTOI!

1

“Aitaren” egin daigun,
otoitza hastean,
isiltasunean;
Aitaren aurrez aurre
jarri bitartean.
Sartu zaitez lehenengo
gelatxo batean,
eta deitu Aitari
“etxeko atean”
ta biok biotara
ekin jardunean.

2

Beharrezkoena da
geuk Berari entzun
ta gero erantzun;
Ebanjelioa da
gidari ta lagun.
Horra geure eskuan
zer pitxi daukagun,
egarri biziz noiznahi
erabili daigun;
Jainkozalea hortxe
da beti ezagun.

3

Jaunaren Hitza dator
bardin bakarrean
edo batzarrean,
behingoa jartzen gaitu
bihotz hausnarrean.
Testamentu Barrian
ta bardin Zaharrean,
dana bizibarritzen
da bere aurrean;
horregaitik gagoz gu
entzun beharrean.

4

Alperrik dalakoan
ez esan “hor konpon”,
lepoa ez emon.
Bere gazi-gezari
ez egin jaramon.
Argi nahiz ilun izan
zuk jokatu gizon,
ez ahaztu otoi tzaren
ona zertan dagon:
“maite gaitunarekin
egonean egon”.

5

Jainkoa Aita dala
 gogora ekarriz
 ta bere egarriz,
 entzun deiogun gogoz
 bihotz ta belarriz.
 Hitz egiten dau ahots
 isil ta pozgarriz,
 ta kantuz jartzen gaitu
 gogoz ta eztarriz;
 Berak asetzen gaitu
 bere bizi barriz.

6

Otoitza dohaia da
 ta nork bere lana,
 hartu ta emana;
 alperrak ez alperrik
 jo Jaunarengana...
 "Deika, bila ibili"
 Jesusek esana,
 ta lortuko dogula
 behar dogun dana;
 gaur be ez da agortu
 zerutiko mana.

7

Gogora zer jazo zan
 hango Betanian,
 Mariarenian:
 Jesus ostatu hartzen
 joan jakenian.
 Maria Jesusekin
 otoitz jardunian
 ta Marta sukaldean
 jo ta ke lanian;
 Jaunak Maria jarri
 toki onenian.

8

Ez goaz otoitzera
 ezer egitera,
 ez irabaztera;
 Aitaren aurrez aurre
 pozik egotera.
 Handik urtengo dogu
 Jesusen antzera,
 Erreinuaren alde
 gogor jokatzera;
 danetan ederrena
 da otoitza bera.

ESKERRAK JAUNARI! HAREN MAITASUNA BETIKO DA

1

Gora, Jaungoiko Aita,
zeru-lurren Jabe,
zureak goi ta behe;
zure haunditasuna
danak gurtzen dabe.
Diran guztiak dozuz
morroi ta mirabe,
ez da ezer gertatzen
Zeuk nahi izan gabe;
zure harrigarriak
gaur txunditzen nabe.

2

Aintza eta goralpen
Zuri, Jesus ona,
guretzat emona!
Deuskuzun maitasuna
egiz da sakona.
Danetan egin zinan
egizko gizona,
jainko seme eginaz
galduta egona;
Zuk ekarri deuskuzu
gure zoriona.

3

Jainko Espiritua
biztu gaituzuna,
geugan zaituguna;
txalo, esker on zuri,
oi, maite kutuna.
Zuk daroazu gugan
grazizko jarduna,
maitasunez prestatuz
betiko Eguna;
txalo, esker on Zuri,
oi, gure "Laguna!".

4

Agur eta gora Zu,
Amatxo laztana,
bihotzez esana!
Zeu zaitugu Jesusen
eta gure Ama.
Ez ahaztu gu semeon
zaindari zarana,
Zeugan dogu jarrita
gure uste dana;
bedeinkatu egizu
gure eskulana.

5

Agur, anai-arrebok,
eta mila esker,
nahi deusuet ager:
anai lez bizitzea
bai gozo ta eder!
Zor danak ordaintzeko
nik ez daukat ezer.
Eskerrik beroenak,
hartu mila bider!
eta, arren, parkatu
ezer bada oker.

6

Bete gaituzu, Jauna,
zure maitasunez
eta poztasunez.
Zoriontsuak gara
zure ondasunez.
Eta bizi nahi dogu
zintzo erantzunez,
testigantza emonez
maitale zentzunez:
Zu langorik ez dala
inor ta inun bez.

HEMEN NOZU, JAUNA, JARRAITU NAHI DEUTSUT

1

Zeuk dei egin deustazu
eta prest naukazu; (bir)
Zure arloan nun ta zer egin
Jauna, esaidazu. (bir)

2

Gaur eta bihar be bai,
besterik ez dot nahi: (bir)
“zure Izena iragarteko,
ekin eta jarrai”. (bir)

3

Zure jarraipenean,
otoitz ta lanean; (bir)
baietz erantzun nahi deutsut, Jauna,
behar nozunean. (bir)

4

Ez esku, ez hankarik,
zagoz begi barik; (bir)
on egiteko guk biok alkar
behar dogularik. (bir)

5

Gaixo, behartsu, bakar,
nork lagundu behar; (bir)
ahal dodantxoan lagunduteko
hemen nozu azkar. (bir)

6

Orain Zuri jarraitu
eta nun amaitu? (bir)
Maitasun batek biok betiko
alkartuko gaitu. (bir)

JAUNA, SALBAU NAGIZU!

1

Gure munduko bizimoduak
badirudi itsasoa,
gitxien uste dogun aldetik
joten deusku erasoa.
“Jauna, salbau nagizu”,
noiz, zelan Zeuk dakizu!
Zugan dot uste osoa.
Zure eskuan izten dot nire
bizitzako arazoa.

2

Sarritan goitik trumoia eta
behetik olatu marrua,
orduan laster kikiltzen da bat
nahiz izan gogor harrua.
“Jauna, salbau nagizu”,
noiz, zelan Zeuk dakizu!
Zaindu nire esparrua;
nire ontzian sartu zaitez ta
baretu nire barrua.

3

Neu makalago nazan orduan,
itsasoa harroago,
mila olatu iruntsi nahian,
bildur baten dardar nago.
“Jauna, salbau nagizu”,
noiz, zelan Zeuk dakizu!
Dana zeure eskuan dago.
Olatu, ekaitz ta haizeak baino
Zeu zara, Jauna, gehiago.

4

Halako baten, Zeuk nahi izanda,
etorri nintzan mundura,
martxa honetan laster naz heldu
zure Etxeko portura.
“Jauna, salbau nagizu”,
noiz zelan Zeuk dakizu!
Hori da zure ardura.
Nire batela heldu dedila
Zeu bizi zaran lekura!

LILURATURIK NAUKAZU, JAUNA!

1

Mundu zoragarria,
etxetzat jarria; (bir)
benetan zara guretzat, Aita,
liluragarria! (bir)

2

Ni izanik morroia,
Zuk jarri koroia; (bir)
zelan Zu nitaz maitemindua...
Hau amodioa! (bir)

3

Beti zaitut ondoan,
ta bihotz hondoan; (bir)
eginak egin, ezin gehiago
maite nozu doan. (bir)

4

Nor beste bat Zu lango?
Esan ta esango. (bir)
Munduan plen-plen egin nozu ta
gero zer izango? (bir)

5

Zenbat laztan ta mosu!
Zeuk zoratu nozu. (bir)
Nire bihotza betiko, Jauna,
irabazi dozu. (bir)

6

Zoraturik naukazu,
hain ona zara Zu! (bir)
Hemen hainbeste emonda, gero
zer ete daukazu? (bir)

MAITE ZAITUT, JAUNA, NEUGAZ ZAGOZALAKO

1

Aurretiaz maitatu
eta aukeratu; (bir)
hau sinistuta, zelan ahal deusut
nik ezer ukatu? (bir)

2

Maitezko zoriona
da hartuemon; (bir)
zelan kanpoan aurkitu nahi dot
barruan dagona? (bir)

3

Atsekabe atsegin,
beti alkarrekin; (bir)
maiteminduak bake ta pozik
alkar barik ezin. (bir)

4

Isilik ta ezkutu,
zelan ezagutu? (bir)
Maitasun berbaz bihotz erdian
Zu ez zagoz mutu. (bir)

5

Fedez sartu barrura,
adi ispilura; (bir)
hortxe aurkitzen zaitut pozarren
Aitatxo modura. (bir)

6

Aita, heriotzean,
etxez aldatzean; (bir)
hartu nagizu behin betirako
hor zure Etxean. (bir)

NI NAZ... ZU ZARA...

1

“Ni naz zuen BIDEA
garbi ta zuzena,
betor nire atzetik
bila dabilena”.
Gehitu eidazu, Jesus,
nire sinismena,
Zeu zara zerurako
biderik onena.

2

“Ni naz egi-EGIA,
ben-benetakoa,
bizitzaren Berbea
ziur ta tinkoa”.
Zu nire Eguzkia
behin ta betikoa;
argitu naizu beti,
Jaun bihotzekoa.

3

Ni naz bizi OGIA,
zeuontzat nagona,
nire Aitak guztioi
zerutik emona”.
Emon zure gosea,
Jesus lagun ona,
Zuk asetuta, lortu
daidan zoriona.

4

“Ni naz zuen BAKEA
bihotz betekoa,
apalei emon eta
dohan hartzekoa”.
Zure bakea, Jesus,
dot beharrezkoa,
Zugandik datorrena
da benetakoa.

5

Ni naz MAHATSONDOA
ta zuek aihenak,
fruitua emongo dau
Nigan dagoenak”.
Lagun deistala zure
grazizko ahalmenak,
emon ahal dagidazan
fruiturik onenak.

6

“Ni naz zuen BIZIA,
goitik etorria,
agortu ezina da
nire iturria”.
Emoidazu edaten
ur bizigarria,
Zeuk asetuz egizu
nire egarria.

7

“Ni naz ARTZAIN ona ta
ardien laguna,
bilatzen dot galdua,
osatzen minduna”.
Zuk argitzen deustazu
bideko iluna,
zaindu naizuz txabolan,
o, Artzain biguna!

8

“Ni naz BIZTUERA ta
betiko bizia,
berbiztuko da Nigan
dagoan guztia”.
Jarraituko deustuz, bai,
nire Nagusia,
Zuregaitik galtzea
da irabazia!

NAGUSI DAN JAUNA DOT INDARRA

1

Ikusten dozu, Jauna,
nire egoera,
aurrera beharrean
noa goitik behera.
Nire amets guztiak
hor doaz hutsera;
baina Zeu zatoz beti
niri laguntzera;
eta aurrera noa,
zure esanera.

2

Nire bizitzan izan
da neke ta lana,
eta ahal dan ondoen
jokatzen afana.
Zertarako izan da
nik egin dodana?
Maitasuna izan da
indartu nauana,
hau da zure aurrean
balio dauana.

3

Zuk dakizu ondoen
nire ahalegina,
ahalegin eta guzti
burutu ezina...
Zuri autortzen deutsut,
ezinaren mina,
gehien neurtzen dozuna
ez da etekina;
maitasunean dozu
zure atsegina.

4

Zeru-lurrak sortu ta
egin dituzuna,
aingeru ta gizonen
zoriontasuna.
Zure eskuan dago
nire ondasuna,
eta Zeugan bakarrik
nire etorkizuna;
Zeu ez ahal zara nire
aberastasuna?

5

Danak oker urtenda,
sarri nabil bero,
baina Zugana jota
pozik nago gero.
Hau ondo ikasi dot
eta harrezkero,
nahiz ta kontuak urten
dozenerdi zero,
milioi da zuk aurretik
bat jarri ezkeror.

6

Nekez ta asko erein
eta gitxi batu,
halan be ez naz, Jauna,
alperrik nekatu.
Zuk betiko legea
ez dozu aldatu:
zenbat zaitugun Zeu ta
hurkoa maitatu,
Zurekin pozik, Jauna,
egin leike tratu.

7

Ez da fidagarria
 lortu dodan nota,
 falta jakona, Jauna,
 Zeuk gainera bota.
 Neureari begira
 jartzen banaz jota,
 Zuk ipinten deustazu
 bihotza jasota;
 nire uste osoa
 Zuregan dago-ta.

8

Zu Aita zaitudala
 nork deust jakinazo?
 Jesukristok esanda,
 bihotzean jaso.
 Gu seme-alaba ta
 Zu gure guraso,
 gu galtzea litzake
 Zuretzat frakaso;
 Zu gure sorburu ta
 zorion itsaso.

9

Zuk sortu dozu nigan
 zure egarria,
 Zeu izanik aseko
 nauan iturria.
 Zueganako joera
 nigan ezarria,
 bego sendo bizirik
 maite lokarria,
 Zurekin bat eginik,
 Jaun maitagarria.

NIRE BEGIAK ZURI BEGIRA DAUKADAZ, JAUNA

1

Zu nire maite kabi,
naġo Zuri adi; (bir)
Espirituak barruan dinost:
"jagi, bizi hadi!". (bir)

2

Eguzkira begira
dana da distira; (bir)
halan da dana begiratzean
zure aurpegira. (bir)

3

Bila bihotz-begia,
zure aurpegia; (bir)
pozez zoratzen sarri dinotsut:
"hau da gehiegia". (bir)

4

Aurpegirik onena
aita-amarena; (bir)
zure aurpegi aurrean, Jauna,
nire gozamina! (bir)

5

Eguzkitan iluna
da argitasuna; (bir)
zer izango da Zuk argitzean
Betiko Eguna? (bir)

6

Jesusen izenean,
zuzen-zuzenean: (bir)
"Betiko argiz argitu naizu
horruntz noanean". (bir)

NOR NIRE AURKA?

1

Gure Aitaren indarra
maitasunezko sugarra.
Gu salbatzera bialdu euskun
behin Jesus Seme bakarra;
Aita zara-ta, seme-alabok
daukazu zaindu beharra.

2

Gugaitik jaio ta bizi,
hilaz gaitu irabazi.
Bizia emon eta, ondoren,
ezin gaitu galtzen itzi;
Jesus, Zu gugaz baldin baza goz,
danen aurka geu nagusi!

3

Aintza Espirituari,
gure bideko gidari!
Goiko indarrez sendotzen gaitu
isuriz grazi ugari;
zure laguntzaz, nor gure aurka,
nork eutsi gure indarrari?

4

Ama on baten modura,
Mariak gure ardura.
Jesusek Berak itzi ginduzan,
o, Ama, zure kontura;
zure eskutik helduko gara
zorioneko portura.

5

Zenbat ta zelango lagun,
guk geure alde dauka gun!
Ez da inor ta ez da ezer be
gu hondatze korik inun;
azken txapela geurea da-ta,
gogor jokatu dagigun!

6

Ni neu makala izanik
ta bildurrik ez daukat nik.
Nor da beste bat goian nahiz behean
Zuk beste indar daukanik?
Zu nire alde nigan baza goz,
nor indartsuago danik?

ESAIDAZU ZEOZERTXO

1

Jesusek: Txikitan ginan lagunak,
haunditan ezezagunak.
Ene, bazenki zenbat minduten
nauan zure hoztasunak!
Jakizu, zure begira doaz
nire gau eta egunak.

2

Nik: Jesus, zure ahalegina
ta nik hain gitxi egina!
Seme galdua hemen daukazu,
entzun damuzko zotina;
Zeuk bihotzean sortu deustazu
Zeu barik bizi ezina.

3

Jesusek: Zeugaitik onaren onez
nago bizia emonez.
Nik zure alde hainbeste egin
ta zuk eskerrik emon ez!
Zatoz ta biok bizi gaitazan
alkarrekin zorionez.

4

Nik: Hainbeste grina, arrisku,
uste baino lehen katigu.
Askatu nahita, Zu barik ezin,
hau biok ondo dakigu;
gaurtik neu nozu izan deustazun
errukiaren testigu.

5

Jesusek: Zeuk zer esango naukazu,
zeozertxo esaidazu.
Beso ta bihotz zabalik nago,
begiratu egidazu;
zoriontsuak izango gara
alkarrekin Ni eta zu.

6

Nik: Eginak eginda larri,
Zeuk ninduzun erakarri.
Eten deustazuz lotzen ninduen
mila kate ta lokarri;
gaur pozik gagoz lagun modura
biok begira alkarri.

ZU BETI NEUGAZ ZAGOZ, JAUNA

1

Gitxi da esan ahala,
hain ona zarala! (bir)
Nire aldetik hartu nahiz itzi,
Zu beti leiala. (bir)

2

Sarri zaitut ukatu,
eginaz pekatu; (bir)
Zuk, Aita ona, erruki haundiz
nozu zeuganatu. (bir)

3

Zu bai maitale fina
ta ni hain arina! (bir)
Maitasun haundiz edertu dozu
Zuk nire buztina. (bir)

4

Harrokeriz eztanda,
ezebez izanda; (bir)
hor egon zara noiz bihurtuko
ni ihes joanda. (bir)

5

Nahiz nik maitatu gitxi,
Zuk ez nozu itzi; (bir)
inoiz etxeko atea, Jauna,
ez deustazu itxi. (bir)

6

Osorik ta bizirik
Zeuk irabazirik; (bir)
ez deustut, Jauna, gaurtik eskatzen
Zeu beste saririk. (bir)

ZUGAN BETI NASAI TA BAKEZ BIZI NAZ

1

Gurasoen guraso,
Zuk ni sortuazo; (bir)
bila ta bila Zugana noa,
Zu nire Itsaso. (bir)

2

Zugaz bakez ta nasai,
maitasunez blai-blai; (bir)
ni Zugan ta Zu nigan eukita,
besterik ez dot nahi. (bir)

3

Zurea hemengoa,
zurea hangoa; (bir)
Zugaz bakea ta bizi poza,
eta zelangoa! (bir)

4

Gaur gora, bihar behera,
atzera-aurrera; (bir)
bakez ta pozik ibiliko naz
Zurekin batera. (bir)

5

Orain hemen munduan
ta gero zeruan, (bir)
plen-plen biziko naz, Jainkoa, Zu
zagozan lekuan. (bir)

6

Egin nozu euskaldun,
gainera fededun; (bir)
merezi barik, hau izateaz
zer suerte daukaun! (bir)

ZUGAZ BIZITZEA BESTE GAUZA BAT DA

1

Zer gauza dotorea
eguzkilorea! (bir)
Areago Zuk liraindu nozu
ni buztin orea. (bir)

2

Gauza ederrak hainbat
badira guretzat; (bir)
baina Zurekin alkarbizitza
da beste gauza bat (bir)

3

Bakea, bizi poza,
sari aproposa; (bir)
zure ondoan bakarrik, Jauna,
leiteke hau goza. (bir)

4

Zuregana zabaldu
ta poza ugaldtu; (bir)
ezeren truke hau ezin inork
erosi ez saldu. (bir)

5

Burua nahiz patrika,
beterik zatika; (bir)
Zu zara, Jauna, plen betetzeko
gure Amerika. (bir)

6

Zer gehiago espero,
Zu euki ezkeru? (bir)
Hau zoriona, gu alkarrekin
orain eta gero! (bir)

ZUK ONDO DAKIZU MAITE-MAITE ZAITUDANA

1

Neugaz zagoz beti Zu,
ta dana dakizu; (bir)
Jauna, jarraitu nahi deutsut eta
onartu nagizu. (bir)

2

San Pedroren antzera,
jo neban atzera; (bir)
damu dot, Jauna, hemen natortzu
Zuri jarraitzera. (bir)

3

Hau da zure indarra:
maitatu beharra; (bir)
Zuk parkatu ta desegin dozu
egin dodan txarra. (bir)

4

Espiritu-haragi,
jausi eta jagi; (bir)
Zeuk esana da: "gogoa bizkor,
haragia nagi". (bir)

5

Hau da nire autortza,
ez naz bape lotsa; (bir)
Hobenak hoben, Zuri damotsut
osorik bihotza. (bir)

6

Eskatzen deutsut Zuri:
grazia isuri; (bir)
ta biziko naz maitasun beroz
sendo eta guri. (bir)

ZUREA NAZ NI ETA ZU NIREA

1

Jauna, ni naz zurea
eta Zu nirea. (bir)
Maitasunak bat egiten gaitu,
maitale pare. (bir)

2

Zu zaitut Jaun ta Jabe,
ni zure mirabe. (bir)
Ezin gara gu pozik ibili
biok alkar gabe. (bir)

3

Maitaleak ezagun,
beti alkar lagun. (bir)
Biok alkarri begiratuta,
zer poza daukañ! (bir)

4

Sortu baino lehenago,
Zeuk egina dago. (bir)
Zeure Semea emonda gero,
zer emon gehiago? (bir)

5

Maitaleen zorion:
hartu eta emon. (bir)
Gu jainko seme egitearren,
egin zinan gizon. (bir)

6

Nire borondatea:
zure izatea. (bir)
Inoiz ukatzen badeutsut ezer,
erruki zaitea! (bir)

ZURE BEGIEN AURREAN BIZI NAHI DOT

1

Eguzkiak distira,
loretxoak jira; (bir)
nire bihotza, ene Jainkoa,
Zutaz egarri da. (bir)

2

Ez lotan, ez itzarrik,
ez nago bakarrik; (bir)
zure begien aurrean ez dot
inoren beharrik. (bir)

3

Indarra ta poza da
zure begirada; (bir)
bata nahiz beste, ondo etorri,
zure nahia bada. (bir)

4

Batzarrean alkartu
ta Zu bertan sartu; (bir)
gure erdian Zu be han zagoz
eta parte hartu. (bir)

5

Ikusi nahi zaitugu
eta eza gutu; (bir)
fede argitan agertu zaitez,
ez egon ezkutu. (bir)

6

Zugan dogu sinistu
zarala berbiztu; (bir)
lagun eiguzu bidean zehar,
zaiguzan begiztu. (bir)

ZURE ESKUETAN JARTZEN DOT NIRE BIZIA

1

Jaioak agur dio,
ta hilak adio! (bir)
Batak bestea hain hur dauka ta
zer dogun balio! (bir)

2

Dana ez da jolasa,
ez da jo ta pasa. (bir)
Buztina buztin, baina gūgan da
jainkozko Arnasa. (bir)

3

Garana ta doguna
da emon jakuna. (bir)
Ez dozu, Jauna, errez galduko
Zeuk egin dozuna. (bir)

4

Orain baino lehenago
sinisturik nago: (bir)
nire bizia ta heriotza
Jainkoagan dago. (bir)

5

Oinaze orduetan
ta arriskuetan: (bir)
nire bizia pozik jartzen dot
zure eskuetan. (bir)

6

Gaur hotz ta bihar bero,
etzi zer espero? (bir)
Ez naz inoren bildur ni, Jauna,
Zuk zaindu ezkeru. (bir)

ZURE MAITASUNA BETIKOA DA

1

Hemen naukazu, Aita,
gaur zure aurrean,
esker beroak Zuri
emon beharrean.
Zeuk jarri nozu barriz
gora indarrean,
bizibarritu nozu
ni nazan zaharrean.

2

Amaren sabelean
ninduzun maitatu,
ezer egin baino lehen
zeuretzat autatu.
Maite ninduzulako
doan aukeratu;
zure onaren onez
nozu liluratu.

3

Harrituta dinotsut:
"hau amodioa!".
Zu nire ondasun ta
nire balioa.
Barruko iturritik
hau poz jarioa!
Zu zara, Jesus, nire
EBANJELIOA.

4

Ez dogu karrerarik
ez beste afanik,
nork uste gure alde
jarriko zinanik?
"Azkenak lehenen dira"
dago Zeuk esanik;
Zu eskertzen badogu
gaurtik nahiko lanik!

5

Zeuren zaralako
dei egin deustazu,
zeurea nozu eta
prest hemen naukazu.
Baietz dinotsut, Jauna,
lagun egidazu;
gu alkarrentzat gara
Zu ta ni, ni ta Zu.

6

Jaungoikoa nun dagon
han da maitasuna,
maitasunean dago
zure nortasuna.
Maitasunez bizitzen
gura gaituzuna,
orduan zagoz gūgan,
hau da dinozuna.

ZURE MAITASUNAREN EGARRI NAZ, JAUNA

1

Bihotz eta eztarri
lehor ta egarri; (bir)
eta Zu, Jauna, zara bakarrik
nire asegarri. (bir)

2

Lur izan nahiz buztina,
Jauna, Zuk egina; (bir)
Zeuk ase ezik, nire bihotzak
zer ase ezina!

3

Zu nire Aita-Ama,
Jaungoiko laztana; (bir)
zeuretzat egin ninduzun eta
zeurea naz dana. (bir)

4

Zure lege bakarra:
maitatu beharra. (bir)
Zeuk biztu, Jauna, barruko laban
maitasun sugarra. (bir)

5

Arraintxoa uretan,
txoria airetan;
halan da nire bihotza zure
maitasun saretan. (bir)

6

Bidez bide nabila,
Jauna, zure bila;
zure maitasun itsaso hortan
asetu nadila. (bir)

ZURE PRESENTZIA BARIK EZIN NAZ BIZI

1

Umearen negarra,
amaren beharra; (bir)
Harek lez nik be behar dot, Aita
zure irriparra. (bir)

2

Arraintxoak zer gura?
uraren freskura; (bir)
nire Itxaso zu zaitut eta,
Zugan ni gustura. (bir)

3

Ez dau nahi kaiolarik,
hegaz muga barik; (bir)
ni naz txoria, zeru zabala
Zeu zaitudalarik. (bir)

4

Alperrik egin jira,
ezker-eskubira; (bir)
pozik bizi nahi dauana betor
zure presentzira. (bir)

5

Hor dabil alarguna,
nun ete laguna? (bir)
Bizi nahiz hilik, a zer Laguna
Zugan daukaguna! (bir)

6


Orain fede argitan,
gero begibistan; (bir)
Zeuk biziz bete nagizu, Jauna,
zure eguzkitan. (bir)



Alkarteko otoitza bai gozoa, Jauna erdian dala!



Hauxe da "eleiza bizia". Bizian Gora alkartetxoa gaixorik dagoan Austinen Bolibarko Gorrinotz baserrian. Fede bateko senitartea, hori da eleizea.



Nahi beste zertan edo hartan parte hartzeko prest: bai ospakizunetan, bai eginkizunetan.



Luzaroan gordeta edo ezjakinean ezkutuan euki dabezan dohaiak landu eta... jo ta ke.



Eleizea

Eleizea... Eleizea... Eleizea... Katolikoa eta lekukoa, Kristoren Gorputza eta euskal haragiz jantzia... Hauxe izan da aita Martzelek bizitza osoan bizi izan dauan arazoa eta helburua: Jesusen Eleizea gaurkotzea eta bertokotzea. 1954. urtean abadetza jasota, aita Martzelek bizi izan dauan eleiz esperientzia ez da izan txantxetakoa! Alde guztietatik jo dauan olatuen artean tente iraun eta aurrera egitea ez da izan gauerdiko ahuntzaren eztula. Beti egon da Euskal Herriko Eleizearen erdian samaraino murgilduta: hasiera baten, "Misi-no Santuak", herrietan eta gogartetxeetan gogojardunak, herriz herri askotariko berbaldiak eten barik. Vatikano II. Kontzilioaren ondorengo "Mundu Hobe" eritxon eleiz mogimentuan parte bizia izan zan Bizkaia aldean; 1973tik 1983ra bitartean, gotzain ordezkari (bikario) zala, "Beti Aurrera" ize-neko gazte mogimentua sortu eta zuzendu eban 10 urtean, Frias aldeko udalekuetara lehenengo urratsak emonaz. Eta azkenik, 1992an hasita Bizian Gora nagusien mogimentuaren arduradun da Bizkaian. Jakina, beti euskeraz eta bertsozko hauspoa erabiliz.

ELEIZ MISINOGINTZAN ERREINUAREN ZERBITZARI

1

Eleiza bere izatez
da misterioa,
honek emoten deutso
bere balioa.
Jaunak ezarri deutso
bere misioa:
Gizonei iragarri
Ebanjelioa,
Jaunaren onginahia
ta amodioa.

2

Jaunak sortu eban ta
bialdu mundura,
Berari jarraitzea
da bere ardura:
argi ta poza jarriz
non dagon tristura,
bizi barria sortuz
legami modura;
mundua eraldatuz
Jainko Erreinura.

3

“Nik bialtzen zaituet
otsoen erdira,
ta izango dozue
mila tirabira.
Jo itsas zabalera,
ez egon begira;
ez zagoze bakarrik,
ez naz erretira;
beti zuekin naço,
neure berbak dira.”

4

Eleizaren izena
kristau katoliko,
Jesusek aginduta
da mundu guztiko.
Nonahi bertakoa da,
tokian tokiko;
Jesusen berbak daukaz
gogoan betiko:
“Nik ez zaituet inoiz
umezurtz itziko”.



Zerbitzari espirituz diharduanak ez dau goitik behera ezer ezarten, ibilian eta txikien pausora moldatuz baino, bidelagun izanaz. Herri erlijiotasuna egokitatzat erabili dau beti: errogatibak, Lourdesera erromesaldiak, errosarioa, kurutzbidea eta abar, molde zaharrak Ebanjelioko argiz eta gatzez betez.

ESPIRITUAREN PRESENTZIA ELEIZAN

1

Arima bako gorputza dago
ez hanka ta ez bururik,
halantxe dago Eleiza ere
ez badau Espiriturik.
Eleizan ez da falta mezarik,
ez eta sakramenturik,
halan ere gaur, ikusten denez,
ez dauka garrrik, ez surik;
Espirituak lagundu ezik,
ezin dau emon fruiturik.

2

Bi mila urtez nekez ta lorrez
bide luzeak eginez,
bera bakarrik ibili balitz,
hondatua zan zikinez.
Espirituak iraunazo dau
goi arnas ta eraginez,
gizonak beti Eleiz Gorputza
bete ohi dau hondakinez,
Espirituak beti jarten dau
bizi barriz erneminez.

3

Hau ikusita, ez dago pozik,
ta nun da itxaropena?
Jainko Herria ez da gurea,
sortzetik da Kristorena.
Gora buruak, jaso bihotzak,
oraindik ez da azkena!
Espiritua ez dago hilda,
soma bere aztarrena;
negu ondoren udabarria
da beti Hark dakarrena.

4

Zein dan gogorra, nahi ta ezina
gure esperientzia!
Jainkoa danen gainetik dago,
ez galdu pazientzia.
Pekatu asko egin dogu ta
hau da penitentzia;
Espiritua Eleizan dago
bizi bere presentzia,
Berak gordeko dau Jesukristok
lortutako herentzia.

AGUR, LARREATAR KOLDOBIKA MIRENA GOTZAINA!

1

Koldobika Mirena
gotzai agurgarri!
Gaur zeu nahi zaitut bertso
kantura ekarri.
Orain hamasei urte
zinduezan jarri
Bizkaiko Eleiz buru,
batasun lokarri.
Hona hemen gaur danok
agurka alkarri.

2

Koldobika Mirena,
gainera Larrea,
ezaugarriz: bakea
ta irribarrea.
Zenbat ahalegin haundi
kentzen hasarrea,
eztia erabiliz
ta ez inarrea...
Bakez izten dozu gaur
Bizkaiko larrea.

3

Fedea ta euskera
dozuz altxorrian,
batera jaso dozuz
biak jatorrian.
Sendo babestu dozuz
garai gogorrian,
eta gogoz bultzatu
joan-etorrian.
Biokaitik gaituzu
betiko zorrian.

4

Ikuskizun ederra
Begoña beterik!
Esker on ta txaloak,
han ez zan besterik.
“Ahalegindu naz, baina
ez dago bakerik,
ez neban nahi Herria
honela izterik...”
Horrexek jartzen zaitu
pixka bat tristerik.

5

Aita izan zaitugu
zu gure artean,
eskerrik asko, Koldo,
bihotzak betean,
besarkada estu bat
txaloka batean.
Bizi zaitetz luzaro
osasun bakean;
ez zaitugu ahaztuko
Bizkaia maitean!



Koldobika Mirena Larrea, Bilboko gotzaina, irripartsua, baketsua eta euskaldun jatorra. Hor agertzen da, aita Martzelek Izurtzako eta Mañariko parrokia ardura hartu ebanean, beragaz batera partaide aktibo lez, Mila eta Maria Angeles onartuz eta bakotxari herriaren aurrean bere eginbeharrak izendatuz.

AIINGERUEN MISINOA

1

Gorputza minez, batetik;
gōgoa larri, bestetik;
ta ezin alde hemendik.
Jesus maitea, ikusten zaitut
zintzilik kurutzetik:
Aska naizu ilunpetik,
eroan zeure atzetik,
Zeuk gura dozun bidetik.

2

Asko ditut ezagunak,
banakatxo bat lagunak,
bihotz zintzo ta bigunak.
Euroi eskerrak argitzen jataz
bakardadeko ilunak.
Egiazko fededunak,
Zeuk bialtzen dituzunak
gozatzen gure egunak.

3

Hori da bokazinoa,
gutzat bedeinkazinoa,
aingeruen misinoa.
Alaitzen dabe bakardadea,
sortzen barre irrinoa,
pozten gure pasinoa,
arintzen kantzazinoa
ta emoten kariñoa.

4

Hau poza datorrenean
lagun bat gōgo onean
ta egon aldamenean!
Gure ordez Zeuk ordaindu, Jauna,
gaixo danon izenean:
zaindu bide zuzenean
eta gero, azkenean,
sartu zorionean.



Gaixoak eta behartsuak ziran Jesusentzat lehenengo lekuan zaindu beharrekoak; holan izan beharko dau bere jarraitzaileentzat ere. Aingeruena ez da bakarrik Jainkoa gurtzea, gizakiei euren beharrianetan laguntzea ere bai.

AITA MARTZELEN URREZKO EZTEGUAK

1

Urteak joan eta etorri
mailaz maila beti gora,
nahiz ondo joan, eta nahiz txarto
ezin bihurtu lehengora.
Jaungoikoaren hurrengo zara
indarrean zu, oi denpora;
urrezko maila zapaldu eta
pozik noa gehiagora,
gora bidean heldu nadila
oi, Jesus, zeure ondora.

2

Mundu honetan bizibideak
askotarikoak dira,
niri suertatu jatan bidetik
ez naz inoiz erretira.
Praile-abade pasiotarra
pozik bizi naz, begira...
Zoragarria sentidu neban
Kurutzearen distira!
Ez da beste bat ederragorik
sinismenaren argira.

3

Sinismen argiz begiratuta,
hauxe da gure aukera:
alde batetik, Jaunaren deia
eta, bestetik, norbera.
Nire bideak ekarri deustaz
mila neke, gorabehera;
baina Jesusen grazia lagun,
jo ta ke beti aurrera;
azken esprina joaz amaitu
mundu hontako karrera.

4

Berrogeita hamar urte emonak
Jainkoaren zerbitzari,
fede bidean lagundu nahirik
berrea dan Herriari.
Eginak egin, beti zorretan,
hartu bai dogu ugari;
gaur esker onez beterik, Jauna,
gaukazuz pozez kantari:
zidar ta urre ez dira ezer,
Zeu zaitugu nahiko sari.



San Pedro jaiaren inguruan, urtero ospatu ohi dira Begoñan, gotzaina buru dala, eleizbarrutiko abadeen zidarrezko eta urrezko ezteguak. Horra 2004. urtean Begoñan, hainbesteren artean aita Martzel bera ere urrezko ezteguetan. Beste hainbeste balegoz seminarioan, orduan bai dizdiz zidar-urreak!

AUPA, KARMELO!

1

Gotzai Laguntzaileak gaur
nakar bertso kantura,
adiskide modura;
ustekabeen zaitue
jaso gotzain gradura.
“Mila ZORION, Karmelo”!
Holan dogu ohitura,
hartu zeuk zelan gura...
Gaurtik “txano gorritxoak”
emongotsu azkura.

2


Atzo narruko galantaz
lurperaino jausia,
amets danak hausia...
Gaur Eleizak jarri zaitu
bere “Etxe Nagusia”.
Heldutxoa zagoz, baina
ez zagoz itsusia;
hemen dago auzia:
gorputz ta arima jokatu,
emon erakutsia!

3

Ondo dakigu, ez zara
euskalzale motela,
ez fededun epela;
lehendik dozu merezia
euskaldunen txapela.
Ricardo Blázquez jatorku
makila ta kapela,
badator, datorrela;
berak ta guk zeu zaitugu
“laguntzaile” bezela.

4

Sarritan esan ohi dogu:
“Egin bedi Zuk nahia”!
Hor amaitzen da jaia...
Hain urruti joan barik,
ez jaku falta gaia!
Titulu danen gainetik
zu zaitugu anaia,
bardin Blázquez gotzaia;
zuek eta guk batera
salbau daigun Bizkaia!



Nori ez jako ezagun eta maitagarri Karmelo Etxenagusia jauna? Azken urteotan Bilboko gotzain laguntzaile lez ezagutzen dogu. Baina Karmelo beti ezagutu dogu fededun eta euskaldun gartsu lez gure artean. Gotzain eginda gero ere, ez eban lainoetara igon; aukera barria berarentzat, herriarengana hurreratzeko, batez ere gaixoen, behartsuen eta baserritarren artera.

AUZOLANAREN EDERRA

1

Mendiak ez dau mendia behar,
baina bai gizonak alkar,
handiena be mila gauzatan
geratzen da txiki, kaxkar.
Preminaldian, auzolanean,
guztion indarrak behar;
ziur, gaur ez bada, bihar...
Maitasunezko hartuemonak
sortzen ditu poz ta indar,
guztiok gara beharrezko ta
ez egon gelditi ta bakar.

2


Batzuk asko ta besteak gitxi
hartu ditugun dohaiak,
baina ez daigun ahaztu, egundo,
danok garala anaiak.
Geure artean ospa daiguzan
egun ilun ta alaiak,
bardin hiletak ta jaiak.
Bihotz zabalez opa alkarri
zorionak, onginahiak,
danok batuko gaituan arte
Aitaren Etxeko Mahaiak.

3

“Andren meza” ta “andren eleiza”
zer da hemengo jarduna!
Zer zelan egin danok dakigu,
ta nok emon erantzuna?
Egia esan, bada oraindik
fededun dan euskalduna,
horra hor ikuskizuna:
andra ta gizon ipini nahirik
eleiz inguru txukuna;
mundu honetan dana behar da:
altarea ta komuna.

4

Bernagoitiko andra ta gizon
nor baino nor gehiagoka,
harek mailua, honek sorkia,
zizel, atxur eta soka...
“Eleiz etxea geurea da-ta,
hor dago itsusi, loka,
barriztea da erronka”.
Ondo ta eder jarri dabe ta
hor dagoz pozez saltoka;
eta guztiok eurok goraltzen
esker onez ta txaloka.



Eleiz bizitza beherantzat doala? Holan badirudi ere, eleiztar asko ez dagoz eleiza-ermitak bertan behera jausten iztekotan. Zenbat ahalegin, zenbat diru eta zenbat zer... barriztuten eta ganoraz jarten! Andra gehiegi altaran? Han bakarrik? “Hemen planta gitxiago eta ekintza gehiago”, erantzuten deutsue honeek!

BETI AURRERA

1

Kristau gaztedia
 BETI AURRERA!
 Goazen burrukara,
 BETI AURRERA!
 herrigintzan, gizonaren alde,
 BETI AURRERA!

*Bai, bai, BETI AURRERA! (bir)
 Herrigintzan, gizonaren alde,
 BETI AURRERA!*

2

Bide luzea da,
 BETI AURRERA!
 Eta mila arrisku,
 BETI AURRERA!
 Aldatz gora guztiok batera,
 BETI AURRERA!

*Bai, bai, BETI AURRERA! (bir)
 Herrigintzan, gizonaren alde,
 BETI AURRERA!*

3

Gaur, bihar ta etzi,
 BETI AURRERA!
 Argiz ta ilunez,
 BETI AURRERA!
 Bide lagun Jesus Jauna dogu,
 BETI AURRERA!

*Bai, bai, BETI AURRERA! (bir)
 Herrigintzan, gizonaren alde,
 BETI AURRERA!*

4

Nahiz bizia galdu,
 BETI AURRERA!
 Beste bat badoğu,
 BETI AURRERA!
 Aupa gazte, azkenera arte,
 BETI AURRERA!

*Bai, bai, BETI AURRERA! (bir)
 Herrigintzan, gizonaren alde,
 BETI AURRERA!*



Izen egokia aita Martzelek sortu eta 10 urtean Durangaldean zuzendu eban gazte mogimentuari ezarteko. Ehun gaztetik gora osotzen eban gazte mogimentu hau, Ermutik hasita Arratiarainoko esparru zabalean: kristau heziketaz, ospakizunez eta ekintzaz aberastuten joan zan. Hemen dozu Juan Maria Uriarte, orduan Bilboko gotzain laguntzailea, "Beti Aurrera" taldekoei irakatsi mamintsuak eskeintzen.

BILBOKO GOTZAIN BARRIA

1

Gotzaina gora, gotzaina behera,
hau dala ta hori dala,
aspaldi baten Bizkaia aldean
ha zelango astrapala!
Egonak egon, eginak egin,
kastilerriko ozpala...
Badator, betor; zabalik dauka
Bilboko "katedrala",
entrenatzaile argia bada,
ekipoa ez da makala!

2


Okerra oker dagola beti
gauza guztien aurretik,
inor ez ete egoan, jaunak,
gai zanik geure lurretik?
Datorren haxe dator Bilbora,
ez dakit nungo gainetik...
Horregaitik ez goaz ihesi
Eleizaren maġaletik:
ondo etorri, Ricardo Blázquez
eta bihotz-bihotzetik!

3

Gure artean sarri behar da
ahuntza ez bada akerra,
bere lepora bota deiogun
geuk egindako okerra.
Euskera bakoz ta erdalzalez
beterik dago bazterra;
kritika hutsez ez doa aurrera
gure Eleizako tailerra;
gotzain onenak berak bakarrik
ez dau irabazten gerra.

4

Kristau herriak jokatu behar
Jesusen jarraipenean,
danen gainetik Bera dago ta
Eleizaren barrenean.
Jarraitu daigun alkar lanean
kristau itxaropenean,
geure antzera, bera be bardin
gizon bat da azkenean;
kristau jator lez onartu daigun
Jainkoaren izenean.



Gotzain barria, baina herria lehengoa bera. Onena etorrita ere, nahiko lan; eta etorri zan baldintzetan, auskalo! Hamaika zalaparta izan zan bere etorreran! Espiritu Santuak berak ere ez dauka zeregin erreza, danen gustuko gotzain bakarragaz aulki bat betetzen.

HAU IZAN DA ARTZAINA!

1

Izan da gertaera bat
guretzat ez alaia:
hil jakula artzaia.
Mila ahalegin eginda,
heldu jako garaia.
Batetik hil beharra ta
bestetik bizi nahia,
gogorra da etsaia.
Ez, ez da betiko hiltzen
horrelako tantaia!

2

Mundu osoa korrika
zuri, baltz eta hori,
eraginez danori;
lau haizetara zabalduz
hamar mila histori.
Hau ete zan Joan Pauloren
gorengo kategori?
Itxura dozu hori;
bere egiazko goiburur:
“Ez bildurrik Kristori!”

3

Bere artalde zabala
nun bizi dan ikusmin,
hegazkinak hegazkin;
gorputza baldarra, baina
bihotza bizkor ta fin.
Mundua zan bere etxea
Erroma, Txina, Berlin...
Dana danentzat bardin.
Eginak eginda gero,
gehiago nahi ta ezin!

4

Munduan zehar emonaz
hainbeste jira-bira,
pila bat izan dira!
Ez da ordu asko egon
haizetara begira.
Arnasa dauan artean
ezin da erretira,
munduak ikusmira;
hil orduko zabaltzen dau
santu baten distira.



Joan Paulo IIa, mundu beteko aita santua. Jainkoa lagun, mundu osoko biztanleentzat aita eta santu izateko! Hatzamarra ez bakarrik, burua eta oinak jasoten ere baekian. Ikusi Bilboko gotzainei zerbait gogoratzen. Guk, berak ez besteok, harek zer egin behar leukean sarri aitazten dogu; behingoz behintzat geuk zer egin behar dogun ere entzun deiogun.

ITXURAK BAI, BAINA...

1

Eleiza dala ta ez dala,
sortu jakun astrapala;
Jainkoak gorde gaizala!
Eleizak hutsik daukaguz, baina
maixuak uxatu ahala.
"Eleiza ez da leiala,
batez be "ofiziala";
hau da askoren tripala.

2

Eleizak honela dino,
baina hau da kondizino:
"neugaz egon ezketino".
Trento ez bada, Batikano da,
lege edo tradizino.
Gixonto edo tximino,
bizi gaituk oraindino;
hau dok gure erlijino!

3

Jaio barritan estura,
bota bateoko ura;
besterik ez dau ardura.
Guraso eta kristau helduak
nagi dira ta logura.
Berba politen lilura,
baina bizitzan malura;
behar dana da itxura.

4

Txotxo koxkondu barritan
komuninoa argitan,
hor barriro izerditan!
Zer ta nun jango ta zer jantziko
"mojatxo" edo "kapitan".
Hori dala-ta, sarritan,
abadeekin erritan;
ta Corte Inglés, eztitan.

5

Gero datorren papela:
haurdun dago Manuela,
ezkondu behar dabela...
Hamasei urte ez daukaz eta
nork bedeinkatu pastela?
Zentzuna antzu, motela,
baina ernari sabela;
behin ezkondata, bestela!

6

Behin bat ezkondu ezkerro,
bardin da kristau ta pezero;
jo natarilerilero...
Hileta baten ezetz igarri
nor dan kristau, gerrillero?
Jan-edanean bai bero,
zintzotasunean zero;
hain garbi ez esan, gero!

7

"Honenak egin dau" esanda,
dator azkenengo txanda:
prestau meza eta anda.
"Aita Santuaren onespenez,
sakramentuekaz joan da"...
Hil dana santu ta santa,
"Gora" edo "Eusko" kanta;
eta agur hainbeste planta!

8

Horra zortzi bertso barri
geure buruari jarri,
zeinentzat dan nork igarri?
Itxuraz barik, egiz gaitez
guztientzat sinisgarri.
Jokatu buru-belarri
zintzo lagunduz alkarri,
Kristo dogula oinarri.

JABIER ETXEBARRIA ABADÉ

1

Hau da eguna, hau da ordua,
 guztiontzat pozgarria,
 geure lagun bat Kristoren ordezt
 saġaratzeko jarria.
 Hainbeste urtez bila ta bila
 nun aseko eġarria,
 azken batean aurkitu dozu
 zeuretzat dan iturria,
 Jesus Artzainak Eleiz barrutik
 eġin deustu dei larria.
 Ez da berez etorria,
 eten behar lokarria...
 Jesusi baietz emonaz dozu
 besarkatu buztarria;
 txaloak zuri ta ZORIONAK,
 Xabier Etxebarria!

2

Sasi artean lore eder bat,
 hau bai dala miraria!
 holako zerbait iruditzen jat
 egungo gertakaria.
 Eskerrak Zuri, Eleiz Amaren
 Artzain eta Gidaria!
 Gaurtik Xabier izango dozu
 zure Eleiz zerbitzaria.
 Jaso ġugandik bere aldeko
 esker on ta eskaria:
 Emon ġrazi uġaria,
 zakioz maite saria.
 Zeuk zaindu, Jauna, ġure Xabier,
 zure Ebanjelaria;
 bitarteko Zu jartzen zaituġu,
 Karmengo Andra Maria.

3

Pozez zoratzen alkartu ġara
 zorionezko eztaian,
 ene Xabier, zeuġaz batera
 abadeġintzako jaian.
 Beti izango ġaituzu lagun,
 zeu pozik ikusi nahian.
 Leku ġozo bat izango dozu
 kristau alkarte alaian,
 alkarlanean jardungo doġu
 bakoitzak ahal dauan ġaian.
 Artzain Onaren jarraian,
 hasi zerbitzatzen mahaiian,
 ġure Herriak Jesus ezautu
 eta maite izan daian.
 Zu lako batzuk behar ditu ġaur
 Jesus Artzainak Bizkaian.

4

Jainkoak Berak nahi dauan eran
 aukeratzen dau bakoitza,
 zuri, Xabier, suertatu jatzu
 Eleizan abadeġotza,
 alkarlanean Jesusen lagun
 artaldearen morrontza.
 Osorik eta beti Beretzat
 bizitzen ez izan lotsa,
 sentidu arren, zure bidean
 ġaurko munduan arrotza...
 Eġin Jaunari otoitza
 ta jaso ġora bihotza.
 Lanez ta fruituz bete eġizu
 Jesukriston ordezkotza,
 aupa ta ġora baten daukazu
 jaioterria: ZORNOTZA.

JAR ZUTIK, LAIKOA!

1

Ez praile ta ez abade,
inor ez da Eleiz jabe;
Jesus bakarrik da Eleizaren
oinarri, zutabe.
Hainbat dira laiko trebe
hor prestatzen etengabe;
kristau Eleizan ardura osoz
jokatu nahi dabe.

2

Aita santu eta gotzai,
praile, apaizak ere bai;
maila berean dira laikoak
Eleizan osogai.
Badira grazi ta dohai,
Jaunak emonak nolana;
gainerakoan, Eleiz Amagan
danok gara anai.

3

Entzun Jesus Maisuari:
"Nagusi da zerbitzari":
kristau dala-ta, zerbidu behar
batak besteari.
Dohaiak dira ugari,
kontu, asko daukanari!
Oker jokatu, egiten jako
kalte Eleizari..

4

Eleiz Amaren pobreza:
inork jokatu nahi eza.
Goitik agintzen, dana konpontzen
gehienbat apeza...
"Zuok kristauok, erreza
eta ondo entzun meza".
Bakoitza bere lekuan jartzen
ez da lan erreza.

5

Eleiz amaren indarra
ez da txintxin parra-parra;
bakoitzak bere lekuan emon
behar dau paparra.
Kargu, titulu ta abarra
mundukerizko gangarra...
Lehenengo danok daukaugu kristau
on izan beharra!

6

Gora dagigun Jainkoa!
Hau ere ez da nahikoa;
mundu barruan prestatu behar
pobreentzat mahaikoa.
Kristau aste ta jaikoa,
bizi garan garaikoa;
besteak beste Eleiz zara-ta,
jar zutik, LAIKOA!!!

LOTSABAKOAK!

1

“Egiak ez dau ezer balio”
 dinoe gogo maltzurrez,
 munduan norbait izatekotan
 nahastau behar da guzurrez.
 Ontzi ta jantzi politak, baina
 barrua beterik lurrez,
 itxura batean urrez...
 Egizaleok, ez ezkutatu
 guzurtiaren bildurrez;
 bestela dana beteko jaku
 lotsabakoz ta lapurrez.

2

Zuzentasuna ta maitasuna
 badira egiazkoak,
 Jainkoak Berak beste diraue,
 biak dira betikoak.
 Egiak zenbat balio dauan
 agertzen deusku Jainkoak,
 gure Jaun Kurutzekoak.
 Benetakoak izan gaitezan
 ta ez erdipurdikoak;
 egiak ere behar ditu gaur
 testigu lotsabakoak!

3

Nahi dana esan, nahi dana egin,
 guzur ta nahaste zabaldu,
 egi garbiak ta izen onak
 guzurraren truke saldu...
 Zintzoarentzat gaur da ordua,
 ez, gero, orain makaldu,
 ez aurpegia estaldu!
 Onari lotsa ona gorde ta
 okerrari lotsa galdu;
 ala egiak guzurrak haina
 eskubiderik ez al du?

4

Munduan ez da inoiz faltako
 guzurti lotsabakorik,
 izan ete da sekula santan
 mundu honen antzekorik?
 Guzur-egien burruka hontan
 ez itzi galtzen jokorik,
 nahiz ta ez izan gogorik.
 Guzur ta tranpaz nagusi baino...
 hobe da egon zororik;
 egia egi geldituko da
 baldin badago Jainkorik!

5

Guzurra guzur, ez da egia
 eta izango ez dana,
 gogoan hartu: “Neu naz egia”
 Jainko Semeak esana.
 Guzur jauntxoak egi moduzko
 itxura polit labana,
 engainatzeko afana!
 Alperrik dabilz guzur ta egi
 biei jartzen argi bana;
 egia bizi ta esateak
 badakar gaur nahiko lana!

6

Gora egia, behera guzurra!
 Ez izan erdipurdiko,
 egizaleak gogo bihotzez
 jarraitzen dau Jesukristo.
 Danen gainetik egizalea,
 horixe da katoliko,
 Jaungoikoaren begiko.
 Guzurra ustel laburra da-ta,
 ez, ez dau irabaziko,
 Jainkoa lagun, egon seguru,
 egia dala betiko.

ZATOK ELEIZA JASOTZEN

1

—Patxi ta Joxepa gatoz
gaur bertso kantura.
—Zerbait argitu nahirik
betiko modura.
—Eleiz bizitza dator
gaur nire gustura.
—Zuri ta niri, Patxi,
al deusku ardura?

2

—Hor zabilitze hainbeste
barruan sartuta.
—Baina, ez gabilz, Patxi
inork behartuta.
—Hortarako, Joxepa,
ni nago zahartuta.
—Zahartuta baino gehio
zagoz zakartuta.

3

—Zertarako dagoz hor
abade ta lagun?
—Hareik eurena, ta guk
geurea dagigun.
—Zuk ere hortik zerbait
jaso ete dozun...
—Ez al dakizu zuk zenbat
hartuta daukazun?

4

—Eleizan errez dago
nondik irabazi.
—Zuk ezin harrapatu,
hauxe da desgrazi...
—Diru kontuen barri
ez dozu ikasi?
—Lapur ona bazara
harrapa zeuk, Patxi!

5

—Eleizakoa ez da,
ez, gure ardura.
—Oraintxe itzartu da
lotatik agura!
—Eleiza ikusita,
ikus zer itxura!
—Zugaitik laster jaku
hondatu potzura.

6

—Zuok nahiko zarie
ni barik igual da.
—Patxi, zu ez bazatoz
zurea da falta.
—Gurekin sortuko da
ha zer porrusalda!
—Laster parao itzi
eta hartu alta!

7

—Josepa, laster gara santuen pareko.
 —Hori hobe da, ta ez jentilen antzeko.
 —Laster jarriko gara abaden ordeko.
 —Hareik ta gu eleizan bai gara etzeko.

8

—Parrokian ez dago niretzako lanik,
 —Patxi, ez esan, arren, gaur behar ez danik.
 —Ez al da beste inor gogoa daukanik?
 —Patxi, amore emonda, zu zatoz gaurdanik.

9

—Jendeak ni ikusi ta zer esango dau?
 —Zuri hau entzuteak lotsaz betetzen nau.
 —Joxepa, hola al da eleiza kontu hau?
 —Patxi, holan bakarrik izan al da kristau?

10

—Joxepa, nik ez dakit zer ta zelan egin.
 —Gu ez gabilz bakarrik, beti alkarrekin.
 —Ez dot gaur arte egin hainbeste ahalegin.
 —Jauna lagun dogula, borondatez ekin.

11

—Urteak aurrera ta zerbait egin behar
 —Bakarrik ezin da-ta, hartu daigun alkar.
 —Pentsatzeak bakarrik ipintzen nau dardar.
 —Ez itzi gerorako, berandu da bihar.

12

—Patxi eta Joxepa kantuz gabilz hemen.
 —Danok biztu beharra dogula esaten.
 —Martxan jarri gaitезan hau entzun baino lehen:
 Requiescat in pace seculorum. Amen.

MILA ETA MARIA ANGELES

1

Nire bizitza bedeinkatu dau
Jainkoak eskuzabalez,
beti egon naz inguraturik
lagun zintzo ta maitalez.
Danen artean aitatzen ditut
Mila ta Maria Angeles,
eurokaitik gaur zelan eskertu
Jainkoari behar dan lez?

2

Gure bizitza aberasten da
hartu eta emonean,
alkarlanean jardunak gara
eleiz bizitzan lanean.
Gotzainak jarri zinduezan behin
hemen baserri aldean,
Jesusen Barri Ona zabaltzen
Eleizaren izenean.

3

Jaunak Beretzat oso-osorik
aukeratuak baitira,
Berak bialdu zituan pozik
goizetik bere mahastira.
Bai gogo beroz erantzun zuek
zeuen dohaien neurrira,
ezağun da noiz sartu zinien
Izurtza ta Mañarira.

4

Gorputz-arima behin ta betiko
Jesukristori emonak,
gaurko Eleizak behar dituan
Jesusen testigu onak.
Hortxe zabiltze Berarengana
zelan ekarri gizonak,
danen partetik hartu eizue
eskerrak ta zorionak.

5

Andereño lez ekin ondoren
Ikastolako lanari,
Eleiz ardurak sortzen deusiez
neke, arazo... ugari.
Asko erein ta hain gitxi batu
neketsu dala nabari,
zuekin beti zorretan dagoz
Izurtza eta Mañari.

6

Azken aholku batzuk biontzat
daukadan esperientziz:
bide luze ta neketsua da
ta ibili pazientziz.
Zuen bihotzak bete eizue
Jesus Jaunaren presentziz
Orain ehuneko bat eta gero
zerua doğu herentziz



Aita Martzelek martxan ipini nahi izan dauan eleiz irudia: jatorri, sexu, adin eta bizikera ugarien senitartea. Mila eta Maria Angeles gaztetan Jaunari eleiz zerbitzurako baietza emondakoak dira: bata arratiarra eta bestea azpeitiarra. Andereño izandakoak urte askotan, eta bide batez, aita Martzelen pastoraltza lanetan partekide: "Beti Aurrera" alkartean, Izurtzako eta Mañariko parrokia arduradunkidetzan, eta orain lau urtetik honuntz Mila "Bizian Gora" nagusien mogimentuan koordinatzaile, gotzaitegiak haretarako hartuta; eta Maria Angeles andereño eta pastoral ekintzetan partaide.

ISAAK TOTORIKA ZIORTZAN MONJE

1

Mutil gazte jatorra,
gorputzez liraina
—ez bihotzez aina—,
Jaungoikoak apropos
Beretzat egina.
Gero ta biziago
barru irakina,
argitu jakon arte
grazi eragina:
“emakumea ez da
bakarrik birjina”.

2

Gazterik egin behar
betiko aukera,
begira aurrera;
bakotxak erabagi
zer izan norbera.
Aukerutzen dauana
da Jainkoa Bera,
baietz erantzutea
da kristau jarrera;
jokatzen dana ez da
gitxi gorabehera.

3

La Olivan hasten da
bere historia,
—kaiolan txoria—
bere kautan pentsatzen:
hau dok ganoria!
Baina ez dau galduko
bere umoria,
hantxe aurkituko dau
a1txor dotoria:
Isaak hor bizi da
kantatzen “gloria”.

4

Zistertarren artean
hezi ta hazia
—monjen errazia—,
zintzoak beti dauka
Jaunaren grazia.
Laster hartu deutsie
onaren trazia,
kostata, baina bertan
hartu dau plazia;
monjetzat ez da nahiko
bakarrik jantzia.

5

La Oliva itzita
 Ziortza auzora,
 benetan gustora!
 Sartu eta bertatik
 betiko arlora.
 Helburua beteaz:
 ora et labora.
 Gaez eta egunez
 Jainkoa gogora,
 irabazi ez danik
 ez sartu ahora.

6

Monje hutsa izan nahi
 eta ez abade,
 baina ez da jabe:
 nagusiak abade
 erabagi dabe.
 Atxur eta liburu,
 hor dabil jo ta ke,
 esana egiteko
 dago, gatx bada be:
 “nahiz monje, nahiz abade,
 ni beti mirabe”.

7

Lehenko baten monje ta
 gaur diakonutza,
 bazoaz goruntza;
 lastertxo abadetza...
 ez da kontu hutsa.
 Zaindu irribarrea
 ta ez munduz kutsa,
 hor ta hemen bizitza
 beti da kurutzta;
 hau zer dan ez dakizu
 mundu harroputza!



Isak Totorika, gotzainaren ondoan, Santiago katedralaren aurrean,
 “Bakearen aldeko” ospakizunean.

ERROGATIBA EGUNEZ URKIOLAN

1

Agur, anaiak! Agur, arrebak!
Izan bake osasunez;
danok alkarri opa deutsagu
errogatiba egunez.

2

Asaba zaharrak itzi euskuen
errogatiba ohitura,
urtero dogu ahal dan ondoen
ospatuteko ardura.

3

Izurtzak maite dau gogo beroz
antzinatik Urkiola,
hementxe sarri garbitzen jakuz
buru, bihotz ta odola.

4

San Antonio jarria dogu
fede bidean gidari,
eta lurreko preminorduan
laguntzaile ta zaindari.

5

San Antonio geure zaindari
Jesus Umea dauka-ta;
besteak txarrikumea dauka,
hau da San Anton Abata.

6

Batean gaixo, bestean pobre,
peste edo legortea,
geu zaintzen dago Urkiolako
Antonio bikotea.

7

Gaurko giroan gure artean
badogu nahiko pesterik:
gorrotoa bai, bizi pozik ez;
ez da ikusten besterik.

8

Gorputzarentzat ze komenentzi,
hainbeste mila aukera!
A ze ederto, beste danetan
egin bagendu antzera.

9

Errogatiban zuen aurrera
gatoz gaur santu maiteak,
behar doguzan on danak lortu
eta aldendu kalteak.

10

Errosario santua lehenen
eta gero parkamena,
meza santuan parte hartuta
azkenik bedeinkapena.

11

Bizibarritu nahi geunke hemen
bai gorputz ta bai arima,
zuen laguntzaz Espirituak
gaizala graziz anima.

12

Urkiolako Santutegia
guretzat bai maitagarri!
Zuen ondoan pol-pol dario
bake eta poz iturri.

13

Ezin bizi ta ezin jokatu
ez badukaġu bakerik,
Urkiolatik jaitsi nahi doġu
bake espirituz beterik.

14

Bedeinka, arren, ume ta ġazte,
bardin heldu ta naġusi;
zuen antzera orain ta beti
jarrai deioġun Jesusi.

15

Zuen zainpean ipinten doġuz
ġure etxe, solo, mendi;
orain arte lez osasun bakez
zaindu ġaizuez hemendik.

16

Gora bhotzez Urkiolako
Anton eta Antonio!
Eġinbeharrak bete doġuz ta
beste bat arte adio!



Mañariko Errogatiba egunez Urkiolako eleiz aurrean dantzaldia ikusten.

ETXERIK ETXE GABON KANTAK

1

Itzartu etxeokak,
etorri lehenbailehen,
ume txiki polit bat
jaio da Belenen.
Negarrez topau dogu
txabola zahar baten,
Beretzat ostaturik
ez al dago hemen?

2

Negua ta bilosik
hotzak hiltzen dago,
ume gaixoagorik
ez da inun jaio.
Astoa ta idia
daukaz berotzeko,
ez dira maisu txarrak
gizon askontzako!

3

Herodesek hartu dau
ezpata zorrotza
Jesusi emoteko
odol heriotza.
Pozik emon deiozun
ostatus bihotza,
bertan egin dagian
Jesussek jaiotza.

4

Zer janik gabe dago
ume gosek hila,
bere izenean gatoz
limosnaren bila.
Bota diru ta goxo
egin arte mila;
ez da gitxi poztuko
gaur gure mutila!

5

Umea poztuteko
idia hasten da: maaa,
eta astoa gero
arrantza baten: aaa.
Baina Umeak dino:
Ta gizona nun daaa?
Beragana joanda
emon deiozun paaa!

6

Gabon gaba dogu ta
aupa Mari Anton!
Jesusen izenean
bake ta zorion!
Osasun deizuela
guztiok etxion;
Eta beste bat arte
AGUR ETA GABON!!!

GABON JAIETARAKO ABESTITXOA

A, a, a!

Hau da egun alai,
poztu zaitez, anaia,
ospatu GABON jaia!
A, a, a! Ospatu Gabon jaia!

O, o, o!

Ume eder potxolo,
hemen dago lo ta lo,
Zuri mosu ta txalo.
O, o, o! Zuri mosu ta txalo!

E, e, e!

Maitasun poz ta bake
nork ez dau borondate?
Edegi leiho t'ate.
E, e, e! Edegi leiho t'ate!

U, u, u!

Guk Jesus maite dogu.
Saltzeko ez daukagu!
Geurean dau ostatu.
U, u, u! Geurean dau ostatu!

I, i, i!

Jesus da jaiobarri,
nork ez deutso igarri?
Jesus, ondo etorri!
I, i, i! Jesus, ondo etorri!



Aste Santuko "Pasiñue" dala-ta, "Jesus" ordezkatu behar ebanak zera inoan: "Nik ez dot sinisten, baina Pasiñue egoki dator teatrua egiteko. Eta ni teatru egiteko prestatzen naz". Berak malizia barik inoanak aita Martzel bihotzean ikutu eban. Hagaitik ahalegindu da kristau misterioak euskal antzerkitxo erara moldatzen, bertsoz eta kantuz.

GABON LOTERIA JOKATU

1

Gabonaldian berez
 jatorku burura
 betiko ohitura:
 loteria jokatu,
 gainera gustura.
 Txanpon ta Agur Mari
 jarri apustura,
 ea parrastada bat
 datorren eskura;
 entzun zelan jokatu
 kristinau modura.

2

Jokalari onena
 Maria Birjina,
 hoberik ezina,
 munduan ez da izan
 beste bat bardina.
 Jaunaren esanera
 mirabe egina,
 ordutik bera dogu
 gure erregina;
 Jaungoikoaren Ama
 izateko dina.

3

Erruki dau Jainkoak
 gure miseria
 ta zorakeria;
 hortik etorri jaku
 gure aberia.
 Bat egin dau burua
 gureaz beria,
 eta gu jainko egin
 hau da aukeria!
 Gugaz erdibananduz
 Gabon loteria.

4

Jaungoiko haundia da
 ume egin dana,
 sinisten be lana!
 Gu salbatu gurarik
 dator guregana.
 Bere jainko bizitza
 egin erdibana,
 gugaz alkarbananduz
 irabazi dana.
 Hau zoratzekoa da
 sinisten dauana.

5

Jesus agertu jaku
 Belenen mutiko,
 geure neurriko;
 bizi gara Bera noiz
 barriz etorriko.
 Orduan izango da
 itxura haundiko,
 esan euskunez, ez da
 makal ibiliko;
 eroango gaitula
 Beragaz betiko.

6

Lurrera jatsi da ta
 nun jaio eskatu,
 ta danak ukatu;
 hor abere artean
 hartu dau ostatu.
 Ez da epaitzen hasi
 nork egin pekatu,
 eta bai loteria
 geuretzat jokatu:
 gure abere aska
 zeruaz trukatu.

7

Gure alde egin dau
 gehiago ezinez,
 hain maitasun finez!
 Belenen maitasunak
 egin deutso gainez.
 Loteriak urten dau
 jokatu jakinez,
 ahalegintzen bazara
 zeuretzat da zinez;
 zeure eskuan euki
 eta zuk jakin ez!



Loteria euskeraz zozketa deitzen da. Zotza, izan ere, gauza askotarako erabilten da. Baserritarren artean, esaterako, ortuko bareari lepotik zotza sartuta bertan sikatuta izteko. Zotza, mehea eta hauskorra izanik, bizirik dagoana lehortzeko gauza da. Holan, Eguberri, Erregen, San Jose, Santa Ana eta, zozketaz janzen dabez. Eguberri ez da Jesusen jaiotza misterioa, zozketa aldia baino, bardin Erregen eta abar. Kontsumoko gizarteak zotz egokiak aukeratu ditu, bereak egin eta misterioak sikatzeko!

GABON ZORIONTSU!

1

GABON GAUA dogu ta
hau argitasuna!
Gugana jatsi jaku
hain maite gaituna.
Berak argitu deusku
munduko iluna,
zabal beti indartsu
ZORIONTASUNA!

2

Kantu, irrintzi, bertso
ta gainerakoak,
gozoenak ditugu
Gabon Gauekoak...
Jesusek egin gaitu
sendi batekoak,
zorionak guztioi
bihotz betekoak!

3

Bake ta pozik bada,
hartu eta emon
han jaioten da Jesus
noiznahi eta nahinon...
EGUZKIA sortu da
gaur guztioi GABON!
Jesusen izenean:
BAKE TA ZORION!

4

Aintza Jainkoari ta
gizonoi bakea,
nun da erregalurik
hau baino hobea?
Maitasunez zabaldu
alkarri atea,
orduan baietz izan
ZORION BETEA!

GARIZUMA BIZIA

1

Sarri entzun ohi dogu:
 “hartu edo itxi,
 kunplimentu gitxi”;
 ezer ez egiteko,
 hobe egon isi.
 Hitz ederrez esanda
 hamar mila pitxi,
 baina pratikan ezin
 erdia jaritxi;
 bada zer aldaturik,
 joko ta eritxi.

2

Hausterre gainean da,
 hautsaren eguna,
 gogoan doguna;
 hauts apur bat buruan
 ipinten jakuna.
 Hor harrokeria ta
 hor joko lizuna,
 azkenarako dana
 hutsa ta iluna;
 zuzendu nahi badogu,
 horra Garizuma.

3

Garizuman ohi datoz
 bijili ta barau,
 sardina, bakalau...
 Penitentzia honek
 asko poztuten nau:
 itzi gorroto, guzur,
 nasaikeri, birau,
 alkarri lagundu ta
 ahal dala, ez ernegau;
 penitentzia hauxe
 Jaunak nahiago dau.

4

Garizuman kristauok
 badogu ohitura,
 —ekarri burura—
 “egi santuak” entzun
 betiko modura.
 Pekatuz damututa
 jo Sakramentura,
 pausoak zuzenduaz
 behar dan lekura;
 Jaunak lagundu behar
 ta norberak gura.

5

Jesus deika dauka gu
 hortxe kurutzean,
 entzun bihotzean:
 batez be Garizuma
 urtero heltzean.
 Gugaitik zenbat egin
 dauan oroitzean,
 ta zenbat maite gaitun
 une bakoitzean,
 ez ahaztu zintzo dala
 betiko hitzean.

6

Hortxe dauka gu beti
 zabalik atea,
 osasun bidea;
 aukera askatzeko
 katigu katea.
 Ez da nahiko erdizka
 baietz esatea,
 goi laguntza behar da
 ta borondatea;
 oraingoan benetan
 da, Jesus maitea!

GARIZUMAKO JARDUNAK

1

—Aixkide, nora zoaz,
bidean beherantza?
—Misinoak dira ta,
banoa harantza.
—Arazo horreetan gaur
ez da zertan kantsa
—Zuk be hartu al dozu
jentilaren antza?

2

—Eleiza kontu horreek
alperriko lana.
—Gogoa zelangoa,
halangoa jana.
—Alkar maite ezkerro,
hortxe dago dana.
—“Ezkerro” dinostazu,
ai, ene laztana!

3

—Nahiko da ona izan
ta zintzo jokatu.
—Hori gutzat gatx dala
ezin lei ukatu.
—Ta egin ezin bada,
zertan arduratu?
—Egin ahal izateko
goi indarrak hartu.

4

—Horretarako, lagun,
ez daukat astirik,
—Ai! Gogozko lekuan
ez dago sasirik.
—Baina gauza horreetan
ez da irabazirik.
—Jan-edanak bakarrik
al zaukaz bizirik?

5

—Nahiko lanik daukat nik
ogia irabazten.
—Ogi hutsez gizona
ez da ondo hazten.
—Zertan hasiko gara
orain gauzak nahasten?
—Edo nahastuak zelan
zuzendu ikasten.

6

—Lehengo gure doktrinak
kontuak ei dira
—Guztionzat hobeto,
ai holan balira...
—Abadeak eurak be
zenbat jira-bira!
—Onerako ez egon
inori begira.

7

—Ez dago hori modan
gaur Euskal Herrian.
—Aspaldi modan gabilz
bide okerrian.
Gaurko aurrerapena
dago tailerrian.
—Holan burdindu gara
gizondu beharrian!

8

—Joan ziran betiko
meza ta misino.
—Fededun zintzorik be
badago oindino.
—Lehengora bihurtzeko
maisú askok dino.
—Orduan, gizon barik
gaitezán tximino.

9

—Jainkoa ona dala
danok dinoguna.
—Beraz, on izatea
gure erantzuna.
—Ondo dakigu Berak
parkatzen deuskuna.
—Ta pekatuan jarrai?
Nun dogu zentzuna?

10

—Aurten joatea, lagun
niretzat ezina.
—Beste gauza askotan lez
egin ahalegina.
—Zergaitik gaurko zure
ezten ta ekina?
—Entzun ondo: “ezina
ekinaz egina”.

11

—Bihar ez bada, etzi
joatekotan nago.
—Ta beti joatekotan,
untzia hor dago.
—Benetan gura neuke
hil baino lehenago.
—Orduan, bihar baino
gaur da zurrago.

12

—Amaitu daigun gaurkoz
onez eta bakez.
—Asmo txarrez, aixkide,
ez dot esan bapez.
—Esana hartu deusut
neuk be borondatez.
—Agur ta gero arte
ta etorri zaitetz.

GARIZUMAN ZEHAR

1

Kurutz gainetik deika
errukiz betea,
beso zabalik zagoz,
Jesus maitea.
Hauxe da zure gogo
ta borondatea:
Gu zoriontsu ta
santu izatea.
Gaur nahi dot hastea,
Zeugana joatea;
luze da bidea,
erruki zaitea!
Gaur da Garizumako
lehen domekea;
aukera barri bat da,
hau da suertea!

2

Garizuma erdian
agertzen da Tabor,
hortxe Jesus dizdizka
ta pozez borbor.
Zuzentasun bidea
sarri jaku gogor,
gainditu behar mila
traba eta soster.
Ez egin entzungor,
jagi, ekin bizkor;
ez gelditu inor,
hileta joten hor.
Txapel haundiak beti
izerdia zor;
Aste Santu ondoren
Pazkoa dator.

3

Horra gaur Jesus onak
zigorra astindu,
merkatu dan eleizan
bihotza mindu...
Kristok garbitu gaitu
eta graziz findu,
hainbat kostata gero
ezin da zikindu.
Makal ta ezindu,
gora ta zutindu,
gogoz ahalegindu;
Kristok dei egin du!
Horra geure aurrean
Hamar Agindu;
maite dogula hortxe
hazur mamindu.

4


Maite gaitu Jesusek,
nork dauka kexarik?
Ez jako geldituten
odol tantarik.
Ez deusku ukatuko
parkamen barbarik,
ezta maitéen dauan
Beraren Amarik...
Hau dakigularik,
ezer egin barik,
ez daukat kezkarik?
Ez daukat lotsarik?
Maite nozula, Jesus,
ez da dudarik;
Zu ez maitatzea da
nahiko faltarik!

5

“Jesus ikusi nahi dot”
 bilaka hasia,
 Garizumak eskeintzen
 deuskun grazia.
 Hasarre ta burrukak,
 negar garraxia,
 errronka asko, baina
 galtzeko trazia.
 Gu gara klasia,
 kristau errazia;
 ez galdu plazia,
 hartu arnasia!
 Kristok eskuratuta
 dauka bazia;
 Kurutzean guretzat
 irabazia.

6

Jesus asto gainean,
 hori da sasoia!
 Heriotzaren aurka,
 hau erraldoia!
 Munduko okerrari
 hartu deutso goia,
 eta deabruari
 ezarri arpoia.
 Mundu berekoia
 galduta dago ia;
 Jauna da morroia,
 nork dau errazoa?
 Kurutzan emon deutso
 a zer jipoia!
 Eta betiko jarri
 Aitak koroia!!!



GAUR GABON GABA!

1

Hau da egun alai!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Poztu zaitetz, anaia!
Gaur Gabon Gaba!
Jesus dator gūgana,
goazen gu Beragana.
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!!
Gaur Gabon Gaba!

2

Gaua da, baina argi
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Dana dago oskarbi.
Gaur Gabon Gaba!
Negu da, baina bero
Jesus jaio ezkerro.
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur Gabon Gaba!

3

Jainkoa geu lez gizon.
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gutzat ai zer zorion!
Gaur Gabon Gaba!
Eta gu, barriz, Jainko!
Ez al da zori nahiko?
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur dogu Gabon Gaba!
Gaur Gabon! Gaur Gabon!
Gaur Gabon Gaba!

"GOGOETA ASTEA"

1

Euskal Herriko jende ugari
alkartzen gara urtero,
abade, praile, monja ta laiko,
bada nahi beste bezero...
Otoitz ta jardun egin ondoren,
jartzen gara bero-bero;
gauza ederra, hogeita hiru urtez
alkartzen iraun ta gero!

2

Goizez isilik otoitz giroan,
gidari Jaunaren Hitza,
arratsaldetan azertu nahian
gure Herriko bizitza.
Aste betean fedez buztartuz
otoitza eta ekintza,
ze mesedea gure artean
holako asko balitza!

3

Bizkai, Gipuzku ta Napparroa,
Araba ta Iparralde,
urtero lekuz txanda aldatuz,
eusker a hutsez, bestalde.
Hau jakinda askok, txarraren susmoz,
ze arraio ete dan galde:
garbi esanda, gu gareala
"Gogoeta Asteko" talde.

6

Gure Eleiza eta Herria
jorratzen doguz batera,
bai Jaunarekin, bai alkarrekin
erabiliaz Euskera.
Jainko argitan aztertzen doguz
mila ta bat gorabehera,
Euskal Herria ezagutzeko,
ha zer-nolako aukera!

7

Hogeita urtez emon dau fruitu
gure esperientziak,
onuragarri izaten dala
dino danon eritziak.
Hor agertzen da ze etorkizun
daukan gure Eleiz biziak,
ze egoeran dagozan gure
Euskal Zazpi Probintziak.

8

Hor zer izan dan guk aurten Euban
egin dogun topaketa,
dana dala, guk urteten dogu
argiz ta gogoz beteta.
Datorren urtez Napparroan da,
bertan tokatzen da-eta;
gura badozu, zeutzat be bada
"Euskaldunon Gogoeta".



Berebilik ederrena ere geldi, ez badauka erregairik. Eleizea ez da berebila, "nekez bila" baino. Eta behar dan lez ibilteko, gasolina "super" behar. Gogoeta Astea asmo horregaz jarri eben martxan orain 23 urte, abadeentzat, praileentzat, monjentzat eta laikoentzat. Euskal Herri osoko ekintza bat da, hainbat urtez ospakizun hau zazpi probintzietan txanda aldatuz egiten izan da; baina jentea gehituz joan dalako, orain Loiolan ospatzen da, abuztuko azken astean. Martzel bera ere Bizkaitik batzordeko partaide da.

GORA EZKONBARRIAK!

1

Hemen gatorruz, Aita,
gaur zure aurrera,
guztiok batera,
eskari batzuk Zeuri
fedez egitera.
Ezkonbarriak lagun
gatoz altarera,
Zeu behar zaitugu-ta,
zatoz laguntzera:
bedeinkatu gägizuz
Aita on antzera.

2

Alfredo-Marijose,
maitezko buztarri,
hau egun pozgarri!
Zeu izan zaitez bien
zorion iturri.
Sendotu Zeuk maitezko
ezkontza lokarri,
beti iraun dagien
batuta alkarri;
pozez esan dagigun:
GORA EZKONBARRI!

3

Behin baten izan zinan
ezteguan Kanan,
zer gertatu zan han?
Ura bedeinkatuta
ardau ona edan...
Hona, senide barri,
zelan egin garan,
Zeu egon zaitez gügaz
ta laguntza eman;
bedeinkatu gägizuz
danok banan-banan.

4

Zeure aurrean gägoz
erreguka fedez
eztegu egunez:
Zeuk bete gaizuzala
osasun ta bakez.
Senide zahar ta barri,
alkartuta pozez,
eskatzen deutsugu gaur
danok maitasunez:
Alfredo-Marijose
bete ZORIONEZ!



Alfredo eta Maria Jose otxandiotarrak ezkontza egunez. Hainbat eleiz ekintzetan partaide izan dabaz aita Martzelek, Milak eta Maria Angelesek. Ezin huts egin holako ospakizun pozgarrian; eta ezin ospatu bertso barik.

JOXE MARIK ETA SIMONAK URREZKO EZTEGUETAN ZORIONAK

1

Egunsentia bai zoraigarri
txoriak kantu kantari!
Holantxe dagoz gure bihotzak
ospatzen dogun jaiari.
Txiruliruli ta txorrotxio
gure aitita-amamari:
Gora urrezko ezteguetan,
Simona ta Joxe Mari!

2

Berrogeita hamar urte badira
ziniela maitez alkartu,
urteak urte zuen bihotzak
ez dira ezelan zahartu.
Lehenago baietza, gaur be baietza,
benetan zinien buztartu;
jarri zenduen maitasunezko
lorea ez da igartu.

3

Zuok hain pozik gaur ikustean
bakez alkarren pozetan,
zuon ondoan gagoz geu ere
era batera gozetan.
Esker onak gaur gorde ezinik
doguz gure bihotzetan,
gainez eginda, borborka datoz
txalo ta kantu hotsetan.

4

Jaungoiko Jaunak grazi ugariz
zinduezan bedeinkatu,
berrogeita hamar urte luzetan
zintzo dozue jokatu.
Aita Jainkoa, entzun eiguzu
hona guk gaur hau eskatu:
aitak ta amak urte askotan
geugaz daiela jarraitu.

5

Lehenago ziran zidarrezkoak
eta gaur, barriz, urrezko,
umorez eta prest ei zagoze
beste hainbeste hartzeko.
Gora Simona ta Joxe Mari
ta izan zorioneko,
Lagun zintzoa hartu dozue
Jesukristo Orueko.



JOXE MARI eta SIMONAREN urrezko ezteguak.

JUBILEU HAUNDIA

1

Bi mila urte dira
Jesus jaio zala,
albistea hor dabil
nonahi bala-bala.
Fedez ospatu daigun
benetan ahal dala,
gugaitik jaio zanak
nahi dauan bezala.

2

Prest dagoz autobusak
eta hegazkinak,
nork baino nork hobeak
eta atseginak.
Ez daiguzala ahaztu
Jesusen doktrinak
eta lagun gaizala
Maria Birjinak.

3

Ez ei dago Erroman
libre dan hotelik,
erromerian ez da
erromes epelik.
Ez daigun egin behintzat
erromes papelik;
Bururik ez daukanak,
ez jantzi txapelik.

4

Jubileu Haundiak
ekarri dau lana,
nork baino nork gehiago,
hau da hau afana.
Ez daitela alperrik
izan, gero, dana!
Erroman ez bilatu
geugan dagoana.

5

Harrokeria eta
gorrotoa kendu,
sinismena gaurkotu
ta sendo mantendu.
Edozeinen bizitzan
bada zer zuzendu;
a zer Jubileua,
egino bagendu.

6

Bizitzan danok dogu
geure interesa,
noizbehinka zuzena ta
sarri aldrebesa.
Jubileua dala-ta,
zenbat esamesa!
Gogoko dan lekuan
bada erromesa?

7

Erromesak dabilta
nor joan urrunago,
baina Jubileua
horretan ez dago.
Geure bihotzera da,
oker ez banago;
horixe da onena
eta merkeago.

8


Jubileu santuak
danok jartzen gaitu:
Jesus eza gutu ta
ondoren jarraitu.
Holan nor ez barriztu
ta nor ez alaitu?
Jubileu Santuak
hauxe esan nahi du.

9

Jesus Jauna Bera da
Jubileu ardatza,
Aitaren parkamena
Berarengan datza.
Berak egin gaizala
argia ta gatzta,
mundua izan daiten
Aitaren baratza.

10

Pozez ospatu daigun
Jubileu urtea,
beti ez da izaten
holako suertea.
Nahi dauanak hor dauka
zabalik atea,
atarian zain dago
Aitatxo maitea.



ZIDARREZKO EZKONTZA OSPAKIZUNEAN

1

Egunsentian bai zora garri
txoriak kantu kantari!
Holantxe dagoz gure bihotzak
ospatzen dogun jaiari.
Txaloak jo aitari,
bardin gure amari.
Zorion txalo ugari;
gaur ZIDARREZKO EZTEGUETAN
daukagun bikoteari.

2

Gaur hogeita bost urte zinien
maite lokarriz alkartu,
urteak urte zuen bihotzak
ez dira ezertan zahartu.
Zuen lehengo baietza
gaur be ez da ezetza,
benetan zinen buztartu;
jarri zenduen maitasunezko
lorea ez da igartu.

3

Seme-alabok gaur ikustean
aita-amok alkar pozetan,
zeuon ondoan gagoz geu ere
era batera gozetan.
Gaur bihotzak beterik
poza ezin gorderik
zuen alde otoitzetan;
gainez eginda, borborka dagoz
txalo ta kantu hotsetan.

4

Gure Jainkoak grazi bereziz
zinduezan bedeinkatu,
hona hogeita bost urte handiz
zintzo dozue jokatu.
Zidar ezkontza jaian,
ospakizun alaian,
hona guk gaur zer eskatu:
aita ta ama maite doguz-ta,
beste hainbeste luzatu.



*Aita Martzelen arreba Lidia eta Pedro Azpitarte, zidarrezko ospakizunean pozik.
Seme-alaben poza, txistu, soinu, dantza eta abar, gurasoen eguna alaitu nahirik!*

ZORION PAZKO EGUNEZ!

1

Egunak joan-etorri,
hemen dogu udabarri;
Pazko egun zoragarri!
Anaitasuna ta bizi poza
opa deiogun alkarri.
Gose izan, nahiz egarri,
Kristo dogu asegarri;
gogora daigun hau sarri.

2


Ereiten dana batu nahi,
ereiten ez dana be bai;
onak hartzeko prest noiznahi.
Ikutzen eta gozatzen ez dan
mundu barri baten jarrai.
Hemen bizi behar ernai,
gerora begira alai;
orduak izango da jai!

3

Etenbako neke lorra
ta beti gainean zorra;
hori bai dala gogorra!
Mila iturri dastatu eta,
bata zein beste agorra.
Kristok iturria horra,
gozoa ta emonkorra;
freskatu bihotz lehorra.

4

Jesusek opa deuskunez,
izan bake osasunez
eta zoriontasunez.
Berak bedeinka gaizala danok
beti deuskun maitasunez.
Esan daigun poztasunez
alkarri esku emonez:
ZORION PAZKO EGUNEZ!!!



Andra Maria eta Santuak

Vatikano II. Kontzilioak egin ebazan bereak eta bost eleiz bizitzan gauza bakotxa bere lekuan ipinten. Santuak eta Ama Birjina bera ere lekuz kanpo aurkitu ebazan: norberaren zerbitzurako eta ez euren laguntzaz, euren antzera Jesusen jarraitzaile izateko. Kontuak atera: gorputz atal bakotxak dauka ezarrita bere santu jagolea, baita bizimodu eta beharleku bakotxak ere. Geu euren antzeko izaten ahalegindu beharrean, eurak zelan geuri laguntzera erakarriko gabilz... Paulo VI aita santuak idazki argi eta zehatz bategaz urten behar izan eban bidera —“Marialis cultus”—, Mariaren benetako haunditasuna zertan dagoan eta bere lekua zein dan erakutsiz. Jesus bakarrik dala kristau sinismenaren oinarri eta iturri; beste danok, Maria eta santuak barruan dirala, Haren jarraitzaile.

Hor dogu aita Martzel, Lourdestik zehar, ermitaz ermita, bertso kantuz santutubidea argitu nahirik. Andra Maria eta santuak eurak ere bertsoan jartzen ditu. Bertsoan esan edo eskatu ezkerro, entzun ere pozago entzuten dabe; eta emon, errezago. Dana dala, santuak ez dagoz ahaztuta gure artean; eskerak eurei, batzen da jentea gaupasak-eta egiteko ere...

AMA MAITE MARIA

1

Hementxe gágoz, Jauna,
kristau batzarrean,
egun ederrean,
gaur Andra Mariaren
maitasun garrean.
Hemen gabilz munduan
galdu beharrean
sarri noraezean
ilunabarrean;
Zeuk jarri gaizuz bide
zuzen bakarrean.

2

Zure Berbak, Jauna, gaur
barriro entzunez,
fedezko zentzunez,
barrua bete jaku
zure poztasunez.
Zeure egarriz gabilz
ondo dakizunez,
ez gágizuz zigortu
Zeuk isiltasunez!
Hitz egin, arren, Jauna,
guri maitasunez.

3

Izan nahi dogu, Jauna,
Amaren antzeko
zeure esaneko,
behar dan guztietan
gogoz zerbitzeko.
Berbearen hazia
ez bedi galtzeko
emon daiala gúgan
ehun garau bateko.
Zure esanak, Jesus,
zelan ez beteko?

4

Bizitzan ez da falta
pena ta nekerik,
ez dago kentzerik!
Hori barik ez dago
Zuri jarraitzerik.
Betor Zeuk nahi dozuna
eta ez besterik;
ez dalako guretzat
beste bat hoberik.
Zure nahia dedila
guregan beterik.

ARRATEKO AMARI BERTSOAK KANTARI

1

Eibar mendi gainean
daukaugu Arrate,
jendeak etorteko
badau borondate.
Hementxe dago deika
gure Ama maite,
zeure Ama be bada
ta etorri zaite.

2

Mendi goietan dago
Amaren kabia,
aukerakoa guri
kentzeko nagia.
Nahi badoguz gorputz ta
bihotza garbia,
ahal dan guztian gorantz
gaitezan abia.

3

Arratera begira
jartzen gara sarri.
batzuetan pozik gagoz,
gehiagotan larri.
Begiratuz bakarrik
Amak bai igarri!
Honezkeru badaki
Amak gure barri.

4

Arraten dogu deika
herri irratia,
goizetik gaueraino
bada zaratia.
Beti euskera hutsez
nahi dau egitia,
danon etxeko da-ta,
zabaldtu atia.

5

Jo ta jo dihardu
soinu eta dantza,
eginak egin arren,
inoiz ezin kantsa.
Seme-alaboi deika,
Ama dogu, antza,
poztu ta jaso nahirik
bihotzak gorantza.

6

Arraten zer dauka gun?
Bat: Ama Birjina.
Bigarrena be ona:
haize garbi fina.
Hemen garbitu ohi da
barru txar zikina,
hobe, haruntz gehiago
joango bagina!

7

Arraten zer dauka gun
galdetu Eibarren,
bake, poz, osasuna...
horra zer dakarren.
Beso zabalik Ama
daukaugu pozarren,
seme-alabok hantxe
besarkatzearren.

8

Gogo-gorputzak jota
nekez eta lanez,
danak arintzen dira
Amaren laztanez.
Maitasunez Berari
patxo bat eman ez,
menditik behera gatoz
"laster arte" esanez.

LOURDESEN BIZI IZAN DOGUNA

1

Hamabigarren urtean
etengabeko katean,
betiko talde bat izan gara
Lourdesko partean.
Luzaro batu gaitean,
ez da izango kaltean;
Lourdesko Amak zaindu gaizala
bien bitartean.

2

Ekainaren hasieran
guk beti ohi dogun eran,
Lurdeserako erromes deia
jatorku aukeran.
Zertan joaten ete garan?
Ezin esan gaur hizkeran;
etorri eta zuok ikusi,
gu gabiliz primeran.

3

Eskari edo promesa,
penitentzi ta erreza;
seme gaixoak bila dabilta
Amaren babesa.
Hango zotin ta inkesa,
gizonaren ezereza...
Han ez da errez nor dan igertzen
pobre ta markesa.

4

Gauetz errosarioa,
betiko usadioa;
mila hizkuntzaz Ave ta Agur,
zer murmurioa!
Amaren pozkarioa,
graziazko jarioa...
Plaza betean dator Amaren
bedeinkazinoa.

5

Ezin da ahaztu inola
Kalbarioko eskola:
han ikusten da kurutze gabe
inor ez dagola.
Negar, izerdi, odola
penitentziz dariola;
ez da bihotzik urtzen ez danik
ez bada marmola.

6

Hau da Lourdesko klasia
bada go zer ikasia:
eleiz ta kale, gaixoentzat da
lehenengo plazia.
Hau da kristau errazia,
gaixoentzat arnasia:
seme-alaben bitartez doa
Amaren grazia.

7

Ez deusku kendu gaixorik,
inor ez dago osorik;
ez dogu lortu mirari eta
beste holakorik.
Badauka ezer hoberik,
emon ta esatekorik!
Ez da izango munduan beste
Ama hain gozorik!

8

Hau leku zoragarria,
Amak guretzat jarria:
bere oinetan dauka nahi beste
polpol iturria.
Mama osasungarria,
asetzeko egarria;
gozatzen ditu batera bihotz
eta eztarria.

9

Lourdesen dagon pakea
eta hango borondatea!
Behar danean, alkar laguntza
dohain emotea...
Zorionaren atea,
gitxi da hau esatea:
Danentzako da mesedegarri
hara joatea.

10

Eskari bat azkenean,
Ama, danon izenean:
seme-alabok gorde gägizuz
bide zuzenean.
Batetik, sinismenean;
bestetik, osasunean;
zeure ondoan hartu gägizuz
horruntz goazenean.



Durangaldeko eta Gernikaldeko jentetz autobuskada bat edo bi 24 urtetan joan da aita Martzel Lourdesko Amarengana. Jentearentzat gogokoena bertako Kurutz bidea da, eta azken bazkalondoan Secours Saint Pierre mendi aldera ikustaldia. Handik dakarrezan onenak ez dira bertako oroigarriak, bihotz erdian gordeta Amaren esanak baino.

LOURDESEN IZAN GARA

1

Euskal Herriko jentea gara
euskaldun ta fededunak,
Lourdes aldera ekarri gaitu
gure Amatxo kutunak.
Hemen guztiok senide gara
etxe bateko lagunak,
guztiok pozez laztantzen gaitu
Amaren bihotz bigunak.

2

Baltz, zuri, gorri, beilegi, nabar,
hain ezbardinak azalez,
guztiok AMA deitzen deutsagu
geure hizkuntza maitalez.
Lourdesko harkaitz zuloan zagoz
irripar gozo zabalez,
seme-alabon ardura baten
mundu guztiko Ama lez.

3

Herren, elbarri, konkor ta makur
itxura bako gorputza,
ta beste asko estu ta larri
bakoitzak bere kurutza.
Ama onaren aurrean deika
zenbat kantu ta agurtza!
Lourdesko Ama dogun artean
inor ez da umezurtza.

4

Gogoan daukat goiz haretako
mendiko Kalbarioa,
eta burditan milaka gaixo
hartzen bedeinkazioa.
Ilunabarrez argi ta guzti
a zer errosarioa!
Lourdesen behintzat agiri dago
fedearen balioa.

5

Bata ahuspez ta bestea tente,
bakoitza bere moduan,
ume ta gazte, baita nagusi,
pilaka alkarren ondian.
Ez da inoren lotsarik hemen
errezatzeko orduan,
hau ikusita, pozez dinogu:
"bada fedea munduan!"

6

Lourdesko Ama eskeinka dago
ur garden sendagarria,
mundu guztira-mama goxoa
dariola iturria.
Gorputzak senda, arimak garbi,
oi harkaitz miragarria!
Zenbat miloikak jaritxi daben
Lourdesen bizi barria!

9

Lourdesko Amak erakutsita
gaixoak dabilta lehenen,
haundi nahiz txiki, zeinek lagundu,
inoiz ez da falta hemen.
Gaixorik eta errukarririk
ez da bakarrik Lourdesen;
Amarenean ikusten dan hau
jarraitu daigun beteten.

10

Mundu guztiko seme-alabok
deituten deusugu AMA,
zure ondora etorri eta
kontatzen deusugu dana.
Bihotz hondoan daroat neugaz
entzun-ikusi dodana,
ez dot ahaztuko Zuk isilean
neuri bakarrik esana.

11

Lourdesko harkaitz zuloan zagoz
dizdiz izar gidaria,
zure bideak ibil daiguzan
zaitez gure zaindaria.
Hor izten dogu maitasun beroz
biztuta argizaria,
ta geugaz dator akordagarri
“Lourdesko Ave Maria”.

12

Auñamendiko mendi artean
dozu, Ama, zure kabi,
mendiz lotuta beste aldean
daukazu gure Euskadi.
Jaunari esker, sendi bat gara
senidetan gara zazpi,
egizu, Ama, gure artean
bakez gaitezala kabi.



Lourdesen argia hartzen da. Hagaitik dinoe hango pastoraltzaren arduradunak: “Lourdesko Amaren urez begiak garbitzerakoan, hauxe eskatu: Ama, gehitu nire bihotzeko begietako argia”.

LOURDESKO AGUR MARIA

Agur, agur, agur, Maria!
Agur, agur, agur, Maria!

1

Euskal Herritik gátoz
pozez Lourdesera,
bihotzez maite dogun
Ama ikustera.

2

Arkaitz zuloan zagoz
zuri ta urdina,
Zu Ama ikustean,
hau poz atsegina!

3

Gaixo, makal ta larri
gátoz gaur Zugana,
erregu gure alde
Amatxo laztana.

4

Biderik bide goaz
gaur Amaren bila,
Berağaz alkartzea
pozgarri dedila.

5

Gogoratzen deutsuguz
senide ta lagun,
guztioi emon, Ama,
bake ta osasun.

6

Euskal Herrian bada
negar ta nekea,
lortu daigula, Ama,
poza ta bakea.

7

Gorde daiguzan ondo
Amaren esanak,
Berak onetsi daizan
gure otoitz, lanak.

8

Gure kristau Eleiza
bizi da Bizkaian,
lagundu beti, Ama,
sendo jarrai daian.

9

Hainbeste zahar ta gaixo
etxe ta auzoan,
zaindu gaizuz, Ama,
mantupe gozoan.

10

Zure aurrean gágoz
kantari Lourdesen,
egizu, Ama, danok
zerura gaitezen!

LOURDESTIK GATUZ

1

Etxera goaz Lourdes aldetik
bakez ta pozez beterik,
mundu guztian hain leku onik
ez da izango besterik.

2

Fedez eskatu deutsugu, Ama,
grazia ta osasuna,
komeni bada, gehitu eiguzu,
eta zaindu daukağuna.

3

Egun eder bi igaro doguz
famili baten antzera,
Lourdesko Amak bedeinkatuta
poz-pozik goaz etxera.

4

Kalbarioan, gora ta behera,
isilik eta pentsakor;
azken orduan, Jesus biztuta
geuri parkatzera dator.

5

Agur, Maria, Santa Maria
nunahi errosarioa,
zerutik Amak esku betean
graziazko jarioa.

6

Milaka dira gaixo ta zaharrei
lagunduten gogo onez,
munduan bertan hainbeste dira
aingeruak, zorionez.

7

Lourdestik gatzoz pozez gainezka,
bakez eta osasunez,
Lourdesko Amak osatu gaitu,
beti deuskun maitasunez.

8

Agur, anaiok, agur, arreboz;
laster amaitzen dogu hau,
ondo ibili ta laster arte,
Jaungoikoak gura badau.

9

Lagun zintzoak izan gara gu,
hau benetan da pozgarri,
ezer okerrik bada, parkatu,
eskerrik asko alkarri.

10

Eskerrik asko bihotz-bihotzez,
eutsi mosu bero bana,
agur datorren urtera arte,
Lourdesko Ama laztana!

MARIA, BIDE ERAKUSLE

1

Maria, batu gaituzu
danok zeure aurrean,
fedea bidean Zeugandik
ikasi beharrean.

2

Jaunaren deia entzunda:
“gertu al zagoz, Mari”?
“Jazo bekit nahi dozuna,
ni zeure Zerbitzari”.

3

Jose eta Jesusekin
zer poza Nazareten!
Otoitz eta lan katea
ez zan sekula eten.

4

Jose senarra hil eta
geratu zinan alargun,
“Gero arte, Jose” esanda,
zeure bidean jardun.

5

Ama-semeak batean
lan eta otoitzean,
hau da inbidi santua
beti hau oroitzean!

6

Aitaren ordu santua
noiz helduko ardura,
Ama ta dana itzita
jo dau basamortura.

7

Hasi dau Aitaren lana
ta zenbat gorabehera!
Gozo ta garratz nahastean
datoz amarenera.

8

Batzuk “Jainko seme” dala,
besteak “deabrudun”;
auzoak “burutik dago”,
ai, amak zenbat entzun!

9

Jesus zelan hondatuko
dabilz amorru finez,
hilgarriztat jo dabela
amak jakin dau minez.

10

Judasek salatu, saldu,
eta Pedrok ukatu;
amak bidera urtenda,
Semea animatu.

11

Kurutzean seme Jesus,
Ama bere ondoan;
Nork neurtu zer samintasun
bien bihotz hondoan.

12

“Agur, ene Ama maite,
horra zure semea!
Horra hor, Joan, nire Ama,
gaurtik dozu zeurea”.

13

Semearen gorpu hila
Amaren maġalean,
bai opari gozoa hartu
Aitak goi zabalean!

14

Azkenera arte, Maria
eutsi zeuntsan Jesusi,
lagun geuri be bidean
ta Jesus erakutsi.



*Hori da Amaren zeregina: umeari
oinez erakutsi eta bide onetik
zuzendutea. Horregaitik da Maria
gure biderakusle: Jesusi kurutzeraino
jarraitu eutsalako.*

MARIA, ESPIRITUAREN ARTELANA

1

EZ BILDURTU, MARIA!

Jaunaren asmoak
beti-betikoak,
eta danak dira
gu salbetakoak. (2)

Ez izan bildurrik
birjina Maria,
Neu naz zure indar
eta gidaria. (2)

2

AGUR, JAINKOAREN GOGOKO HORI! JAUNA ZUREKIN!

Jainkoak zaitu zu,
Maria, gogoko,
eta Berak zaitu
goraino jasoko. (2)

Zein ederra zaran
Jainkoak egina!
Zeugan dau, Maria,
Jaunak atsegina. (2)

3

ESPIRITU SANTUA JATSIKO DA ZUGANA

Espiritua da
Zugaz bat eginik,
Harentzat ez dago
ezertxo ezinik. (2)

Jainkoa begira
bere artelana:
zeu aukera zaitu
Semearen Ama. (2)

4

HONA HEMEN JAUNAREN MIRABEA

Zeu zaitut, Jainkoa,
Zu nire Jabea,
hemen naukazu prest
zure mirabea. (2)

Egin bedi nigan
Zuk nahi dozunez,
erantzuten deusut
baietz maitasunez. (2)

5

**ZORIONEKOA,
SINISTU DOZULAKO**

Jaunak egin zaitu
zorionekoa,
sinistu dozu-ta
Hark esandakoa. (2)

Ni hutsa izanik,
hau Berak egin dau,
maite naualako
hain haundi egin nau. (2)

6

**UMEA IZATEKO EGUNAK
BETE JAKOZAN**

Kabidu ezina
mundu zabalean,
gizaki egina
nire sabelean. (2)

Jaungoiko haundia
egin dot gizaki,
hau zelan ta zer dan
Jaunak Berak daki. (2)

7

**MARIA, JOSE ETA UMEA
ASKAN ETZUNDA**

Aingeruei kantuz,
artzainak entzunda,
Belenen aurkitu
sehaskan etzunda. (2)

“Aintza Jainkoari,
bake gizonari”,
Maria t’ aingeru
Belenen kantari. (2)

8

**MARIAK GOGOAN JASOTEN
EBAZAN GAUZA HONEEK**

Zapian batuta,
sehaska hotzean,
Mariak zer gorde
badau bihotzean. (2)

Jesus sortu eban
Mariak Belenen,
Gaur jaiobarritu
daigula guk hemen. (2)

MARIAREN ZAZPI EZPATAK

SEME-ALABOK GATUZ ZEUGANA,
KONTAU EIGUZU BIZITZA, AMA:
POZ, ATSEKABE, ARDURAK, DANA.

1

Ha bai ezpata zorrotza!
Zulatu eustan bihotza,
Simeon zaharrak iragarria.
Gozoa izan zan jaiotza,
baina bizitza-heriotza
gehien bat kezka mingotsa.

2

Hazten doala mutila,
Herodes Jesusen bila;
gu Egiptora goaz ihesi;
Hartu asto ta makila,
Jaunari otoitz umila
“Zuk zer nahi, bete dedila”.

3

Jesus gure mutikoa,
beti hain esanekoa,
gelditu jakun Jerusalem.
Nire bihotz hondokoa!
—Ume, zergaitik gaurkoa?
—Ama, Aitaren gogoa”.

4

Beste behin bazan negarra!
Jesus ikusi beharra
gurutzepetan jausi-jagika.
Handik birao zantarra,
hortik zigor ta abarra...
Ene Seme, Zu hain txarra!

5

Jesus hil zan Kurutzean,
mila zauri gorputzean;
eta nik ezin ezer be egin!
Itxaron fede hutsean,
eta jardun otoitzean.
Zer ezpata bihotzean!

6

Hil da hainbeste denpora,
eratsi eusten altzora:
dana zan malko, odol, izerdi.
Beti lez bihotza gora,
ta neure hitza gogora:
“Zeuk nahi badozu, ondo da”.

7

Bai gertaera tristea,
ama batek ikustea
Seme bakarra hilobiratzen!
Nire poza ta ustea
lur hotzean iztea.
Hau bai dala erbestea!

8

Gora ta gora, Zu, Ama!
Jaso dogu zuk esana.
Benetan Ama ona dauka!
Gure Zaindari zarana,
bedeinkatu gure lana,
emon zeru eder bana.

ZERURA DOAN AMARI

1

Herriko jaiak dira,
hau da poztasuna!
Izan daigula danok
bake osasuna.
Hau da seme-alabok
gaur zor deutasuna:
pozarren ospatzea
Amaren eguna.

2

Hemengo lanak egin
ta gorantza doa,
osoan bete eban
bere egitekoa.
Urtez aurrerago ta
graziz goragoa,
nork neurtu Mariaren
gorengo gradoa?

3

Amaren izatea
ekarriz gogora,
gure buru-bihotza
jaso daigun gora.
Zertarako bota gaur
honenbeste lora?
Fruitu bako lorekin
ez goaz inora.

4

Zer jantziko, zer jango,
badoğu ardura,
baina on egitean
alper ta loğura.
Barruak hutsik eta
ederra itxura,
ai, gure Amak ez dau
holangorik gura.

5

Bidean aurrera ta
beti be gorantza,
gauzak ondo egiten
ez egundo kantsa.
Semeok hartu daigun
Ama honen antza,
horixe da Jaunari
emotea aintza.

6

Holango Ama batek,
oi zenbat meritu!
Baina seme-alaba
onak behar ditu.
Bideak ikasteko
Amari begitu,
laguntza eskatzeko
uste osoz deitu.

7

Zeu behar zaitugu-ta,
eske gatoz, Ama,
zure begiok, arren,
bihurtu gūgana.
Ixuri eiguzu gaur
grazi eder bana,
zintzo bete ahal daigun
Zuri gaur esana.

8

Antzinatik zaitugu
Herriko Zaindari,
horregaitik gagoz gaur
Zuretzat kantari.
Orain ta beti lagun
gure Herriari,
pozez dinogu gaur:
"Gora Andra Mari!".

AGATE DEUNA

1

Hemen alkartu gaitu beste behin
Agate Deunaren jaiak,
hor agiri da maite dogula
kristau euskaldun anaiak.

2

Gure Agate jaio ta hazi zan
antzinako Sizilian,
Kataniako uhartetxoan
hirugarren gizaldian.

3

Txiki-txikitan bateatuta,
hezita sinismenean,
gurasoak hau esaten eutsen
Jainkoaren izenean:

4

“Entzun, Agate, asko daukaçu
ondasun eta dirutan,
kristautasuna ederrago da,
eukizu beti gomutan”.

5

Gazte liraina, kristau jatorra,
ha etorren landarea!
Zenbateraino zan aztertzeke
sortu jakon aukerea.

6

Hor Kintziano Agatarekin
egin jatzun maitemindu,
aldez ta moldez bereganatzen
benetan zan ahalegindu:

7

“Kintziano naz, ene Agate,
hemengo gobernadore,
neugaz ezkondu zaitetz ta beti
biziko zara dotore”.

8

“O, Kintziano, badakit zугaz
nintzakela erregina,
baina Jesusen emazte nozu
gorputz t’arimaz birjina”.

9

Ahaleginetan eraso eutsan
behin gozo eta behin gogor,
baina, berean tinko jarraituz,
Agatek beti entzungor.

10

“Burua galdu dozu, Agate,
zu eskeinita Jesusi?
Jesus hil zan ta, jakizu ondo,
hemen neu nozu nagusi”.

11

“Jesus hil zan, bai, gero berbiztu,
eta orain neugaz dago,
o, Kintziano, haundia zara,
baina Jesus haundiago”.

12

“Zuk ni, Agate, mezipreziatu
ta zuk adarra jo niri?
Jesus horregaz batu zaitzezan
galduko zaitut martiri”.

13

Eskuak lotu, jantziak kendu,
erre ta moztu bularrak,
baina gehiago al dau Jesusek
deutsan maitasun sugarrak?

14

Zenbat adore ta indar daukan
Jaungoikoaren graziak,
munduak baino gehiago ahal dau
martirien erraziak.

15

“Birjintasuna txotxakeria”,
gaurko askoren esanez,
horra Agatek argi ta garbi
odol ta guzti esan: EZ!

16

Agate Deuna, harrigarria
jaku zure martiritza,
hori bai dala ondo zaintzea
bateo santuko hitza!

17

Gogoan hartu dogu, Agate,
zure irakaskizuna:
bihotz lizunez ezin da lortu
egizko askatasuna.

18

Gaztediaren alde erreguz
gatorkizuz gaur, Agate,
argitu eizuz eta sendotu
euren gogo borondate.

19

Agur, Agate, hemen daukazu
Izurtza pozez kantari,
orain arte lez, gaur be dinogu:
Zeu Izurtzako Zaindari.



Aita Martzelek santu eguneko berbaldi asko bertsotan egin izan ditu, jenteezagaz koru bitara abestuz. Kintzianori eta beste askori ere ez jakez gogoko izango beharbada. Agate bera zeinegaz dagoan pozago jakin behar.

AITA KURTZEKO

1

Mañariatik Arratiara
bidean Aita Kurtzeko,
gizaldietan hemen dauka
alderdi biak zaintzeko.

2

AITA KURTZEKO izen gozoa
antzinatik ezaguna,
Berak kurutzan bizia emon
ta guk lortu osasuna.

3

Jainko haundia, gu salbatzeko,
gizon txikitxo egina,
ai, hau jakinda, gu Berarentzat
esker oneko bagina!

4

Arerioen gorrotoari
parkamenagaz erantzun,
kristau izena daroagunok
hau ondo ikasi daigun.

5

Alkarri lagun egitearren
sufritzen dogun kurutza,
mingarria da, baina ongarri,
ez da sufrimentu hutsa.

6

Gure pekatu danen ordainez
Kristok emon dau odola,
ondo ikasi beharra dogu
Kalbarioko eskola.

7

Gorputza untzez josita dauka,
baina bihotza zabalik,
guk haragia libre, bai, baina
bihotza preso makalik.

8

Kristok bizia emonaz deusku
erakutsi maitasuna,
batzuen ustez, bizia kenduz
agertzen da ontasuna.

9

Ahalguztiduna Kristo izanik,
beti da errukiorra,
Aita Kurtzekok kendu deiskula
gorrotoaren mozkorra.

10

Kurutz gainetik Aita Kurtzekok
emon deusku gaur doktrina:
kristau bagara, ondo beteten
egin daigun ahalegina.

11

Ezker-eskuman eukazan Kristok
lapur ona eta txarra,
bietatik zein garan bakotxak
dogu aztertu beharra.

12

Bide bakar bat dogu, zerua
nahi badogu irabazi,
ez da besterik, Aita Kurtzekok
deuskuna gaur irakatsi.

13

Aita Kurtzeko, benetan zara
guretzat maitagarria!
Zuk maitasunez bizia emon
eta guk lortu barria.

14

Hemen daukazuz zeure aurrean
Mañari ta Arratia,
orain arte lez, Zeuk gu zaintzea
da gure borondatia.

15

Zeuk lagundu ta zaintzen gaituzu
biziak ta hildakoak,
hareek eta gu Zeuk egin gaizuz
Zeugaz zorionekoak.

16

Agur bihotzez, Aita Kurtzeko,
gure gorengo zaindari.
Orain ta beti zaindu egizuz
Arratia ta Mañari.

BALENDIN BERRIOTXOA, BERTSOLARIEN ZAINDARI

1

Danok dakigu gure Balendin
elorriotarra zala,
dantzari trebe, pelotari ta
bertsotan be ez makala.
Jainkoaz baizen bere herriagaz
gizon zintzo ta leiala,
Bizkaian behar gendun santua,
euskalduna, naturala.

2

Noizbait heldu zan gure Balendin
gizon haundi izatera,
praile jakintsu, misiolari
eta gotzain jaun, gainera.
Baina ez eban galdu egundo
lehendik eukan izakera:
santuago ta maiteago zan
Balendinentzat euskera.

3

Bere amatxok erakutsia
harturik eukan gogotan:
“noranahi joan zaitez, baina zeu
euskaldun izatekotan”.
Euskeraz berba, euskeraz otoitz,
bardin idatzi askotan;
Indietatik bere amari
idazten eutsan bertsoan.

4

Buru-bihotzez euskadun danak
maitasun bi behar ditu:
Jaungoikoa ta Euskal Herria,
ez gero oker aditu.
Elorrioko Balendin honen
jokabidera begitu:
ez zan izango santu osoa
biak maite ez balitu.

5

Guztiok dogu geure santua,
sakristau ta zapatari,
bertsolariak be behar dabe
nork entzun euren eskari.
Horra Balendin Berriotxoa,
bertsolarien zaindari,
euren ahotik iraun dagian
Euskal Herriak kantari.

6

Goiko Jauna ta lurreko ama
maite ebazan batera,
biekaz bertsoz jarduten eban
seme on baten antzera.
Maitasun baten lotzen ebazan
sinismena ta euskera,
ez eban bata besteagaitik
zertan bota baztarrera.

7

Sarri askotan bertsolariak
estu ohi dabilz gaixoak,
puntu ta tema ezin eratuz
nahi baizen gozo bertsoak.
Besterik ezta, argitzen ditu
ardau txurruta gozoak,
gaurtik badabe zeinek lagundu:
Balendin Berriotxoak.

8

Lehendik daukazu irabazita,
Balendin, zuk zeru goia,
noiz etorriko ete da zuri
santu deitzeko sasoa?
Bertsolariak dauke horretan
sekulako grazi doia:
eurakaz ondo portatu zaita
ta laster dozu koroia.

9

Beti izan da bertsolaria
gure Herriaren maisu,
zeregin hori betetzea gaur
ez da erreza, kontizu.
Balendin, santu bertsolaria
hor gaurko gure abisu:
Euskal Herriko bertsolarien
ZAINDARITZA zeuk hartizu:

10

Aspaldi hontan bertsolariak
egiten dabe ahalegin,
berbaz ta kantuz herririk herri
euskeraz galdu ez dedin.
Milaka dira neke ta traba
ta ezin biderik egin;
BERTSOLARIAK ZAINDARITZAT ZEU
HARTZEN ZAITUE, BALENDIN.



*Zapatari eta kinkaileru gehienak daukie euren
zaindaria; zergaitik ez bertsolariak? Bertsolarien artean
santuzalerik ez dagoalako edo? Dana dala, San
Balendin bertsolari eta bertsozale zan; irakurri, bestela,
bere amari idatzitako kartak.*

ERREGEEN EGUNERAKO

1

Jesus ume eginda
amaren besotan,
berez ipinten gaitu
guztiok bertsoan.
Honexen zain gengozan
urterik askotan,
orain hartu daigula
maitasun berotan.

2

Gamelu gainean ta
aurrean izarra,
argiaren atzetik
ibili beharra.
Bihotzean daukanak
sua eta garra
beti dau biderako
gogo ta indarra.

3

Erregetan danok
erregaluen zain,
Jesus Berak dakarskuz
gu betetzeko lain.
Bihotzak zabaldu ta
jarri graziz apain,
laster izango doguz
dohaiez gainez gain.

4

Azal mazalak itxi
ta sartu barrura,
azalean zer dagon
zer deusku ardura!
Barruan Jesus dago
zer poz ta lilura!
Jesus euki ezkeru,
zer gehiago gura?

5

Urre, intsentsu, mirra
da Jesusentzako,
ume egin dan Jainko
bera dogulako.
Aitak Semea emon
erregalutzako,
gu gaitez an osorik
bere aintzarako.

6

Bide luzea da-ta,
joan alkarrekin,
bakarrak laster dino:
luze da-ta, ezin!
Lagun, merezi dau-ta,
egizu ahalegin,
Erregeen antzera
otoitz eta ekin!

7

Danok bidez, bai goaz
Jesus horren bila,
gaurkoz gure gogoa
sendotu dedila.
Danontzat da argia,
kristau nahiz jentila;
inoiz ilundu arren,
aurrera, mutila!



Erregeak ORUEn.

GORA GURE SAN ANTON!

1

Urtarrilaren hamazazpian
urteoro datorrena,
san Anton dogu guk, berriztarrok,
santu maite-maiteena.
Baina san Anton, batez be, dogu
gure baserritarrena,
urteoro ondo agertzen dabe
bihotzez maite dabena;
gaur alkarrekin egin deiogun
san Antoneri omena.

2

San Anton dala eta ez dala
badabil jente ugari,
guk berriztarrok: "ongi etorri"
honuntza datorrenari.
Oilar ta oilo, porru ta sagar,
mila mota ortuari,
zeinek hobeak erakutsiko
eupa! batak besteari:
santuak kontu hartuko deutso
guzurrez dabilenari.

3

Makila haundia esku batian
eta txarria onduan,
bizar luzedun santu galanta
hor aurrean nun daغان.
Baserritarren lagun haundia
zein dogun beti goguan;
etxe ta solo hark zaintzen deuskuz
errukiz behar orduan;
hain laguntzaile merke ta onik
ez da beste bat munduan.

4

Gure santua gaxtetatikan
joan zan basamortura,
Jaungoikoa ta Beraren gauzak
bestek ez eutsan ardura.
Bere grinak ta bere gogoak
jarriaz bere eskura,
gauza danetan jokatu eban
Jainkoaren agindura;
santuzaleok, begira daigun
san Antonen ixpilura.

5

Gaur jai haundia ospatzen dogu
Berrizen, Olakuetan,
gu nor garean agertzen dogu
ondoan holakuetan.
Txuleta haundi ta ardaۛ gozo
gorputzaren onuretan;
lagun arteko harrera ona,
inun bada sekuletan;
egun eder bat igaro daigun
san Antonen omenetan.

6

Entzun, san Anton, Euskal Herria
zure aurrean kantari,
agertu, arren, goiko zeruan
gure otoitz ta eskari.
Jaso makalak, senda gaixoak,
lagun behar dauanari.
Eutsi ta lagun, gure san Anton,
baserriko jenteari!
Pozez ta txaloz dinotsugu gaur:
gora san Anton zaindari!

GORA DEUSTUKO SAN PELITZISIMO

*Pelitzisimo dohatsu,
gure goiko zaindari,
esker omenez gatortzuz
gaur zugana kantari.*

1

Erroma aldetik honuntz
zaitugu etorria,
ordu oroigarria!
Aita santuak guretzat
emonda, ekarria.
Harrezkero Deustun zaġoz
egoki ezarria;
santu maitagarria,
pasiotarren ondotik
zaindu Euskal Herria!

2

Jesusen izenagaitik
emon zendun odola,
ez ahaztu hau inola!
Zeu zaitugu ġuk kristauok
maisuu eta eskola.
Begira ġure Herria
federik ezaz nola
kilimala dagola;
kristau bidean zakiguz
testiguu ta jagola.

3

Pelitzisimo izena
zoriontsuu esan nahi,
Jesusen pozetan blai;
laguntza onak emonaz
Deustura datozeanai.
Zenbat laguntza zerutik
ġaixuu ta minduai!
Mirari haundiz be bai;
“Deustuko zoriontsuak”
nor ez dau jarten alai?

4

Kontaezin bestekoak
dira zure laguntzak,
jasotako kurutzak;
bizi barriz bete dozuz
arimak ta ġorputzak.
Arnas barriz berbiztuaz
buru ta bihotz hutsak,
baretu harropuzak;
zenbat mosu hartzen ditun
Deustuko zure kutxak!

5

Pelitzisimo, guk behintzat
ez zaukaguz ahazteko,
bertanbehera izteko;
maitasunez egin zara
zu gurean etxeko.
Izan gaitezala, arren,
onez zure antzeko,
Jesusi jarraitzeko;
zerura heldu gaitezan
zakiguz bitarteko.

6

Gure artean luzaro
jarraitu on eginez,
asko gabiltza minez;
Pelitzisimo, zaindu zeuk
zeure laguntza finez.
Ez daigula inor mindu
geuk behintzat ahaleginez;
bai bete atseginez.
Mundua poztu daigula
zeuk lez zintzo ekinez.

7

Ospe ta gorespen Zuri,
Jaungoiko aintzagarri!
Kantuz gaituzu jarri;
Pelitzisimoren bidez
Zu gure poz-iturri.
Bere bitartez zaitugu
eusten deuskun oinarri,
eskerrak behin ta sarri;
bera dogu Zeuk emonda,
Zaindari maitagarri.



Deustuko San Pelitzisimo hamaika mosu bero hartu eta hamaika hamabiko bedeinkazino banandutako santua da.

GORA GURE SAN BALENDIN!

*AGUR, AGUR, AGUR, BALENDIN!
AGUR, AGUR, DANOK ZUREKIN!*

1

Bizkaiko Elorrion
jaio ta hazia,
ugari izan eban
Jaunaren grazia.

2

Isidro ta Monika
bere gurasoak,
ondo erakutsiaz
lehenengo pausoak.

3

Ondo ikasia zan
dantzan ta pelotan;
astirik eukanean,
ez egoan lotan.

4

Misinoetarako
eukan egarria,
pobreak ziran-eta,
ai, haren larria!

5

Aitarekin lan ta lan
gogor arotzian,
ordu luzeak ziran
haren bihotzean.

6

Hamazortzi urtetan
seminariora,
ontasunean laster
egin eban gora.

7

Baina ezin ordaindu
aitak hango zorrak;
“hator, mutil, etxera”,
bai berba gogorrak!

8

Azken batean horra
Balendin abade;
bere amets haundiak
egi urten dabe.

9

Misinoak dirala
beti ametsetan,
Okañan praile eginda
noiz joango pentsetan.

10

Sasoirik onenean
badoa itsasoz,
kartaz akordatzen da
herriz ta gurasoz.

11

Lantegira helduta
hasi da Tonkinen,
dana kristautu nahirik
ahal danik arinen.

12

Mila arrisku dirala
ohartu da arin,
bere atzetik dabilz
soldau ta mandarin.

13

Ugari isuri zan
kristauen odola,
Balendinek dinosku:
“beti prest dagola”

14

Balendin agertu zan
hain trebe ta bikain,
hogeita hamar urtetan
jarri dabe gotzain.

15

Jesukristoren alde
ekin gau ta egun,
Balendin ez da bildur,
Jauna dauka lagun.

16

Mandarinen eskutan
jausi zan Balendin,
danak harritu ziran
halako batekin.

17

Gure Balendin nor dan
hortxe da agiri,
herriak dino: “gora,
Balendin martiri!”

18

Indietara joan zan
santu egin nahian,
noizbaiten izan daiten
santu bat Bizkaian.

19

Balendin ikustean
santuen artean,
euskaldunok, bizkortu
gaitezana fedean!

20

Zure aurrean pozik
gaukazuz kantari:
zeu zaitugu, Balendin,
BIZKAIKO ZAINDARI.

GORA GURE LORENTZO MAITEA!

*Gora Lorentzo, santu maitea,
gure auzoko laguna!
hemen gaituzu zeure ondoan
ospatzen zeure eguna.*

1

Mila bederatzirehun eta
laurogeita hamargarrena,
abuztuaren hamabia gaur,
San Lorentzok dakarrena.

2

Ume ta gazte alkar pozetan
bardin guraso, nagusi...
ermita polit dotorean gaur
pozik zaitugu ikusi.

3

Agur, Lorentzo maitagarria,
ez al zagoz orain pozik?
Zure maitale zintzo garala
esaten ez dogu lotsik.

4

Batzuk ermitak apurtzen dabilz
gu, barriz, santuen alde,
guk zu, Lorentzo, ez zaukaguz ez
emotekotan debalde...

5

Antzina baten Euskal Herrian
jaio zinan, Lorentzo, zu;
eta gazterik Jesus Jaunari
jarraitu zeuntsan gogotsu.

6

Aita santuak bere laguntzat
hartu zinduzan Erroman,
eta arerioz inguraturik,
ez zinan ibili broman.

7

Gorputz ta arima eskeini zinan
eleizan Jainko Onari,
handik aurrera jardun zenduan
behartsuen zerbitzari.

8

Gogorrak ziran sortu jatzuzan
kontrako amenazuak,
baina zuk zintzo bete zenduzan
zure eleiz arazuak.

9

Azken batean jarri eutsuen
sugar gainean parrila,
zuk ez zenduan atzera egin,
hori dok hori mutila!!!

10

Zure gorputza sutan eutsuen
parrila baten kiskaldu,
baina, Lorentzo, zure gogoa
ezin ezelan makaldu...

11

Sugarra bero, beroago zu;
sutan zagoz gori-gori;
"beste aldera jira gorputza,
hortik ondo iaok hori!"

12

Gure Lorentzo, dudarik gabe,
zer gizon dan hor agiri:
hilda behingoan, kristau herriak
autortu eban martiri.

13

Esku batean parrila dozu
eta bestean abarra;
hortxe agertzen da martiritzan
izan zenduan paparra.

14

Hau da patroia! Hau da santua
hemen geugaz daukaguna!
Harro sentitzen da Aldagoiena,
ta Urkuleta auzuna.

15

Aspaldi baten izan da hemen
ardura ta lan nahikua,
izan zengian zeuk, deun Lorentzo,
merezi dozun lekua.

16

A zer teilatu! A zer barrua!
A zer horma ta inguru!
Zeruan baizen poz-pozik zagoz
hementxe geugaz seguru...

17

Egin deusugu ahalegintxo hau
gure maitasun seinale;
izan zaitez an leku hontatik
zaindari ta laguntzaile.

18

Uxatu eizuz gure artetik
gatx, arrisku eta kalte;
ta ugaritu auzo ta herri
behar dan osasun, bake.

19

Gogoan doguz Zure aurrean
gure gaixo ta behartsu;
egin gagizuz, zeure antzera,
euren laguntzaile gartsu.

20

Ene Lorentzo, auzo honegaz
izan zaitez eskuzabal;
euren zaindari apartekotzat
hartzen zaitu apal-apal.

21

Auzolanean jardun dabenak
zuri atontzen ermita,
esku biekaz onetsi eizuz
ondo dauke merezita.

22

Hona zer gauzak egiten diran
gogo onez alkarlanean;
holako giro gogoak begoz,
laguntza behar danean.

23

Mundu hontako sugar goritan
zakiguz zeu aingerua;
neke penazko parrilan zehar
irabaz daigun zerua.

24

Ez ahaztu gero, Lorentzo maite,
prestau deutsugun txokoa!
zeuk be guztioi lortu eiguazu
danoi betiko lekua.



Mañariko san Lorentzoren ermitea.

KURUTZEKO PAULO SANTUA

1

Aixkide bihotzekoa,
badot zutzat sekreto:
orain hirurehun urte dirala
gertatutakoa:
San Paulo Kurutzekoa,
semez Italiakoa,
pasiotarren anaiarte
eraikitakoa.

2


Kristau famili jatorra
fruituetan emonkorra,
hamasei seme-alaba sortu
zituan enborra.
Bizimodua gogorra,
baina ondorenak, horra:
zintzoarentzat kurutzbidea
ez dala zigorra.

3

Jaioterria Ovada,
zertan harrotu badauka:
on egiteko haundiki baino
santu bat hoba da.
Amak betiko aldaba:
"seme, ikasi ahal bada,
baina lehenengo on-ona izan;
nahi bada, hau ahal da.

4

Ama zan jainkozalia
kurutzaren maitalia;
santu eskola onena sarri
ohi da familia.
Neke, barau, bijilia,
gorde galduz ibilia...
Kurutz ondoan dator bakarrik
holako alia!



Kurutzeko san Paulo pasiotarren sortzailea da. Italiako Ovada herrian jaio zan 1694. urtean. Misiolari gartsua izan zan, Jesukristo Kurutzekoaren maitasun garrez baztarrak berotuz. 1775ean hil zan, Pasiotarren Anaidia indarrean ipini ondoren.

OSPEA KURUTZEKO SAN PAULORI!

*Ospa dagigun pozez
San Pauloren jaia,
Jaunaren izenean
kanta: Aleluia!*

1

Agur Kurutzeko Paulo,
zeru goiko izarra,
bitarteko azkarra!
Entzun, arren, dagitsugun
aintzazko deadarra.
Kalbarioan aurkitu
zendun bizi indarra,
ondoren su ta garra!
Jesusek maite gaitula
danei esan beharra.

2

Kurutzearen oinetan
maitasunez gainezka,
Jesus Beraren kezka:
pekatariak ontzeko
zer egingo galdezka.
Batxo bat salbatzearren
neke haundirik ez da;
lortu ondoren, festa;
euren alde sufrituaz,
Jesus nahi dau ordezka.

3

Jesus hil ta berbiztua
dau bakarrik nagusi,
behin zan kontuan jausi;
Jesus irabaztearren
dana galdutzat itzi.
Egin ahal danak eginda,
uste dau dala gitxi
ta garbi erakutsi:
Jesus Paulori emona
eta Paulo Jesusi.

4

Aintza, ospe ta omena
Kurutzeko Paulori!
Merezi dau, bai hori!
Galdetu osatutako
hainbat mila gaixori.
Batzuk mirariz osatuz,
poza emon askori,
badira mila histori:
haundiak egin zituan
eta ez bat edo bi.

5

Pasiotarron sendia
sortu dau azkenean,
Jesusen izenean;
gizakia berotzeko
Haren maitasunean.
Pauloren seme-alabok
batu kurutz oinean,
hor nor dagon gainean!
Beti gogora dagigun
zertarako garean.

6

Aintza ta esker on, Zuri,
Hirutan Bat zarana!
Zeurea dozu dana:
Zeuk hornidu zendun graziz
gure Paulo laztana.
Bedeinka egizu, arren,
hark hasitako lana,
beteaz Zeuk esana:
"Neuk sarituko dot eurrez
jarrai datorkidana".

PADUAKO SAN ANTONIOREN VIII. MENDEURRENA

1

San Antonio dala-ta,
dabilz ahaleginean
gehiago ezinean,
jaio ta zortzirehun urte
dirala jakinean.
Antoniozale asko
dabilz gogo finean,
atontzen ekinean,
ospakizun eder batzuk
Urkiola gainean.

2

Kristau familia baten
etorri zan mundura,
ta lehenengo ardura:
eleizara eroanda
hartu bateo ura.
Gurasoak erakutsiz
kristaubide t'ohitura,
orduaz zan modura;
txikitatik hartu eban
santu baten itxura.

3

Hasiera Lisboan ta
amaiera Paduan,
bitartean munduan
zenbat joan ta etorri
apostolu moduan.
Martiri izan gura-ta,
Afrika akorduan,
Marokoko portuan
misiolari sartzen da;
ha bai pozik, orduan!

4

Jo ta ke lanean hasi
ta ez beste askorik,
hor jausten da gaixorik;
Afrikak ez eutsan emon
luzaroko gozorik.
Antoniok ez dau galtzen
apostolu gogorik,
ez dau galduko lorik;
Jaunaren esku onetan
jarriko da osorik.

5

Italiako Paduan
bizimodu barria,
betiko egarria:
zelan ezagutuazo
Jesus maitagarria.
Maisu ta misiolari
harek bai ekarria!
Santu harriagarria;
gazterik urratu jakon
bizitza lokarria.

6

Euskaldunok badeutsugu
maitasuna oindio,
egizko debozio;
zortzigarren mendeurrena
ospatuz ondorio.
Ondo dakigu alkarri
deutsagun amodio,
ez dau gitxi balio;
pozez dinotsugu beti:
GORA SAN ANTONIO!

PADUAKO SAN ANTONIO

1

O, Antonio maitia,
gure santu zaindaria!
Gure artian jarria
dozu aspaldi kabia.
Zugana dator herria
itxaropenez betia.
Entzun gure eskaria,
o, bitarteko haundia!

2

Jesus Umea besoan,
askoz gehiago gogoan;
zelango poza dagoan
Jesus badago ondoan!
Jesus bihotz ta ahoan,
ta bardin lanerakoan;
bakoitzak geure arloan
Jesus daigula eroan.

3

Paduako Antonio,
ez dozu gitxi balio!
Zure poz ta amodio
Jesusen Ebanjelio.
Bada mila arerio,
mundua guzur jario...
Zu zaitugula medio,
izan daigun pozkario.

4


Zenbat mesede, mirari,
neke minez dagonari!
Zu gaixoen zerbitzari
Jesusen misiolari.
Otoi gugaitik Jaunari
jarrai daiogun Berari;
eutsi daiogun onari
eta eraso txarrari.

5

Zuk gaituzu kantuz jarri
Antonio maitagarri!
Zuregana gatoz sarri
behin bakez, behin estu larri.
Osatu itsu, elbarri,
ase gure gose-egarri;
fede zintzoa ezarri,
on mesedeak ekarri.

6

Kendu gorroto iluna,
zaindu alkar maitasuna.
Hau da zuk egin zenduna,
egizko santutasuna.
Gaur eskatzen deutsuguna:
emon bake, osasuna,
jagon etxe ta auzuna,
gure zeruko Laguna!



Urkiolako ikuspegia udazkeneko arratsalde baten.

SAN JOAN EGUNIAN

1

San Joan egunez alkartu gara
Garaitorre inguruan,
danok bihotzez hain maite dogun
gure san Joanen onduan.

2

Pozez beterik etorri gara
gaur san Joan bisitatzera,
bere grazi ta irakatsiak
gogo beroz jasotera.

3

Zakarias ta Elisabete
ziran san Joanen guraso,
mirari haundiz ume eder hau
Jaunak eutsen sortuazo.

4

Basamortuko penitentzian
zenbat grazi, indar hartu!
Su ta gar baten hasi zan eta
herriko bizitzan sartu.

5

“Harroak jatsi zaiteze eta
gogorzaleok bigundu,
bide okerrak zuzendu eta
herriko bizitzan sartu”.

6

O, zu, Herodes, oker zabilz-ta,
arren, bizitza zuzendu!
Jaungoikoarren, agintzen deusut
eskandalu hori kendu!

7

Errege eta oker guztiak
danak gogor alkartuta,
hor nun gelditzen dan Joan zintzoa
kartzela baten sartuta.

8

Kartzelan sartuarren be ezin
kendu hari errazoia,
kate artetik botaten eutsen
berebiziko sermoia.

9

Entzunak entzun, nahi ez nork bere
bide okerrak zuzendu,
errezena da, isilduteko
ezpataz burua kendu.

10

Joan isildu da, ta Jesus dator
esanaz bere atzetik:
“haundiagorik ez da inor jaio
ama baten sabeletik”.

11

Ondo gogoan hartu daigula
danok san Joanen eskola:
danen gainetik egia zaindu
nahiz emon behar odola.

12

Zertarako da sama gainean
haizetarako burua,
guzur ta nahaste galtzeko bada
norbera ta ingurua?

13

Argi ta garbi gure san Joanek
emon eban aurpegia,
okerkeriak gogor salatuz
eta aldeztuz egia.

14

“Damu zaiteze, —dinosku Jaunak—,
eta harrokeriak bota,
bide onera bihur zaiteze
Erreinua hur dago-ta”.

15

Hemen alkartu jatzu gaur, san Joan
zeure aurrean Mañari,
lagun eiguzu, jarrai deiozun
zintzo zure bideari.

16

Entzun eiguzu gaur zer dinotsun
hain maite zaitun auzoak:
ume ta nausi zaindu gägizuz,
batez be gure gaixoak.

17

Zeuk erakutsi euskuzun nor dan
Jaungoikoaren Bildotsa,
Bera zeruan ikusi daigun,
lagundu gure otoitza.

18

Aldagoiena altuan dago
Urkiolako bidean,
Garaitorreko san Joanek gorde
gaizala zorionean.

20

Gora San Joan Garaitorreko,
gure Zaindari maitea,
zure laguntza behar dogu ta
gutaz erruki zaitea.

19

Egun on danoi, Jainkoa lagun,
gaur dogu SAN JOAN eguna,
izan daigula bere bitartez
bakea ta osasuna.

SAN MARTIN

1

Untzilaitzeko koba ondoan
dago san Martin ermita,
antzina gure asaba zaharrak
maitasun haundiz jarrita.

2

Hemen alkartzen ziran antzina
euskal jentilak kultura,
haren lekuan dago san Martin
orain hainbeste denpora.

3

Erroma aldetik etorri zana
honuntz gudari antzian,
orduano jaso eban Martinek
Jesusen barri Frantzian.

4

Jesusen barri jakin orduko
edegi eutsan bihotza,
eta kristau lez agertuteko
Martin ez zan izan lotsa.

5

Jentilkeriak baztatu eta
ohitura txarrak erantzi,
Espirituak lagundu eta
Jesuskristoz jakun jantzi.

6

Denpora baten jarraitu eban
argitzen kristau zentzunez,
kristau taldean bateatu zan
gure Martin poztasunez.

7

Bere birtute txorta haunditik
bakar bat daigun ekarri:
behartsuekin dana banandu,
hau da bere ezaugarri.

8

Zaldi ganean bidez doala
erdi biluzik gizon bat,
kapa erdia ebagi eta:
“eutsi erdia zeuretzat”.

9

Kapa erdiaz Jesus jantzita,
Martinen ikuskizuna:
“Jesus naz, Martin, zeure kapeaz
ondo berotu nozuna”.

10

Gotzaina hil zan, eta ordeko
ez jakin nor aukeratu,
herriak Martin gura eban ta
gotzain eben izendatu.

11

Apostolutzan jorratu eban
Frantzia eta inguru,
haren jardunak azalduteko
beharko mila liburu.

12

Laurehun eleiza dira Frantzian
ehunen bat Euskal Herrian,
Mañarian bat hementxe dogu
Untzilaizpe bazterrian.

13

Alkar laguntzen izan nahi geunke,
oi, Martin, zure antzeko,
geure artean ahal dan guztia
gogoz alkar banatzeko.

14

Geure indarrez ezin dogula
geuk be ondo badakigu,
zeure bitartez izan gaitzean
Jesukristoren testigu.

15

Gazte denporan bateatuta
lehenago zinan jentila;
bateatuak gagoz geu be ta,
halan agertu dedila.

16

Eleiza amak Martin zintzoa
eredu deusku ipini,
bizitzan sarri otoi eginda
begiratu san Martini.

17

Zure aurrean pozaren pozez
ume, gazte, zaharrak bardin,
bihotz betean dinotsugu gaur:
GORA TA GORA, SAN MARTIN!!!



Untzilaizpeko san Martin, leku zoragarria. Ondoan dago koba sakon famatua, antxinako jentil lekua. Jose Miel Barandiaran jakintsua ibili zan hemengo aztarrenen bila.

SANTO TOMAS

1

Santo Tomasen ermitan gágoz,
ermita txiki polita.
Zelango poza hartu ete dau
gaur gu hemen ikusita!

2

Mutil gaztea zan gure Tomas
deia jaso ebanean,
dana itzita, pozik jarri zan
Jesusen jarraipenean.

3

Jesus haundia zan bitartean
nork ez Berari jarraitu?
Baina beherantza hasi zanean,
laster jakozan gogaitu.

4

“Goazen Beragaz” (dino Tomasek),
beharbada kurutzera”,
ez eban uste berak egingo
ebanik gero atzera.

5

“Entzun, lagunok, ordua dator,
eta laster hilgo nabe,
baina hirugarren egunerako
biztuko naz ostera be”.

6

Apostoluak kontu hau sarri
Jesusi eutsen entzuna,
baina oraindik hau ulertzeko
ilun eukien zentzuna.

7

Bereak ta bost jasan ondoren,
Jesus hil zan kurutzean,
a zer porrota eroan eben
Jesusen heriotzean!

8

Artzaina jota, ardi gaixoak
hara ta hona igesi,
Jesusen hori ametsa zan ta
ez dau gehiago merezi.

9

Batean batek, bestean bestek:
“Jesus ikusi dabela”;
esanak esan, Tomasek ez dau
errez erantzi txapela.

10

“Dana kontua, dana ametsa,
orain, barriz, dala biztu?
Nik neure begiz ikusi barik,
ezin dot ori sinistu”.

11

Halako egun baten egozan
apostoluak batera,
ustekabeen agertu jaken
erdian Jesus berbera.

12

Harri eta zurtz eginda Tomas,
Jesus bertan ikusirik,
egia zala autortu eban
belaun gorritan jarririk:

13

“Ene Jaun eta ene Jaungoiko!”
Hor Tomasen autorpena,
ikusirik ezin sinistu...
hori da Tomasen pena!

14

Jesus zerura igon ondoren,
“Zabal zaitze” esanda,
Espirituak bultzata Tomas
India aldera joan da.

15

Biztuta eukan gure Tomasek
martiritzako sugarra,
zer maitasun eutsan Jesusi
zinez agertu beharra!

16

Agur Tomasen eskua eta
agur Jesusen sahietsa!
Zuek sendotzen dozue gure
sinismenaren baietza.

17

Ikusi barik sinistu dogu,
zorionekoak gara;
orain benetan bizi gaitazan
Santo Tomasen erara.

18

Hemen gaukazuz zure aurrean
Tomas, zeure egunean,
gorde gägizuz fede bidean,
bakez ta osasunean.

19

Argitu gure bihotz-begiak,
Jesus Jauna ikusteko;
eta zuhurtu gure entzumena,
testigüei sinisteko.

20

Zaindu gägizuz, santu maitea,
geuk be zainduko zaitugu,
alkar lagunduz konpontzen gara
beti ondo zu eta gu.

SANTUEN ALDE, AUZOLANEAN

1

Gaur guk hemen zer ospatzen dogun
danok gágoz jakinean:
Mañariako gizon talde bat
hasi zan auzolanean,
gure ermitak zelan zainduko;
hain egoera txarrean.
Hamarkada bat bete dalako,
gágoz ospakizunean.

2

Txalogarria da herri baten
holango gizon kuadrila,
gaur egunean alperrik joan
hobeago baten bila.
Santuok hemen seguru dagoz,
zer bizimodu trankila!
Gaurko egun hau ospatutzeko
gozoa izan dedila.

3

Alde batetik, herria dogu
maitatu behar doguna,
eta bestetik, gure eleiza
guztion eginkizuna.
Benetan maite dauanarentzat
ezer ez da lan astuna,
horregaitik da hain pozgarria
ospatzen dogun eguna.

4

Ikusten danez, eleiza batzuk
dira eder harrizkoak,
ta beste batzuk ederragoak
fedez espirituzkoak.
Zenbat ahalegin ipinten dogun
zaintzen era batekoak!
Besteak ere bizibarritzen
lagun deiskula Jainkoak.

5

Gauza ederra auzolanean
alkartzea auzotarrak;
danen onari begiratuta,
zelan konpondu baztarrak!
Geureak dira, ta beste barik,
egin ditugu beharrak,
ondo gogoan izango dabez
gure lagun zerutarrak.

6

Batzuk teilatu, besteak horma,
harek harri ta porlana,
Mañarin, behintzat, probetxuzkoa
izan jaku auzolana.
Jesusek dinon alarguntxoak
emon eban eukan dana,
dirua baino ederrago da
agertu daben afana.

7

Hainbeste gogo eta denpora,
hainbeste izerdi neke,
santuakaitik dala esanda,
dana musutruk debalde.
Arotz, hargin ta fontaneruak,
peoi eta abar nahi beste...
Gure kasuan izan ditugu
pintore eta alkate.

8

Beti umorez ta irribarrez,
nahiz gerri mokorrak kantsa;
santuak eta mama gozoak
indar asko dauke, antza.
Zuek herrian emon dozue
sekulako testigantza,
holango batzuk diran artean
beti daگو esperantza.

9

Santuak gaurtik ondo dakie
nora jo preminorduan,
ez da bildurrik boluntario
jentea dagon lekuan.
Seguru nago hain leku ona
prestau deutesnei munduan,
ederragoa prestauko deutse
euren ondoan, zeruan.

10

Eskaritxo bat, oi, san Lorentzo
ta zuri, aita Kurtzeko:
Osasun bakez zaindu gaizue,
gero geuk zuok zaintzeko.
Lagundu, arren, izan gaitzean
guztioak zuon antzeko,
gero gaitzean zuok eta gu
Aita Beraren etxeko.



Kristau jenteak maiteago ditu eta hobeto zaintzen auzoetako baseleizak, herriko parrokia eleizea baino. Zergaitik ete? Honeek geureak dira, eta geu zaintzeko. Alkar zaintzea ez dator desegoki. Holako bihotz eraginen bat izan dabe Mañariko gizon talde honek, hasi san Lorentzo, san Joan eta Aita Kurutzeko hain gogotsu erabarritu eta urteroko begiratu bat emoteko.

SANTUEN PROTESTAK

SANTU TA SANTARIK EZ DA
EZ DAUKANIK BERE FESTA,
GEURE LEPOTIK JOKATZEN DA-TA,
EGITEN DOGU PROTESTA.

1

“Badatoz santu ta santak”,
jendearen poz ta kantik...
Gu ez gaitue asko poztutzen
faltsukeriazko plantak.

2

Mendi, baserri ta kale
danak dira santuzale,
gure kontura ta gure kontra
gau ta egun jo ta dale.

3

“Negua negu” esanda,
santu-santa barik joan da;
gure errukiz izaten ei da.
Zelan egin propaġanda!

4

Hor gabilz haizetan sarri
bazterren parregarri;
gure kontura, euren probetxuz
jendea zelan ekarri...

5

Adi gure ingurura,
dana atso-agura;
gukin ġaupasa eginda ġero,
ġazteak dira logura.

6

Luzia eta Xixili,
hobe da egon ixili...
Kale ta plaza jai egin eta
eleizarako bijili!

7

San Nikolas ta Bixente
nor ete da inuxente?
Gure atxakiz juerga eginda
ġu barik dabilz dexente.

8

San Fermin eta San Anton,
zezen ta txerrien Patron;
ġizonik ez dan ġanau artetik
ġu bagoaz ta hor konpon!

9

San Blas ta san Antonio,
ez dogu ġitxi balio;
mezan ez, baina dantzaz plazetan
zenbat kristau ta indio!

10

Ez daukaġu atrakorik,
ez manifestaziorik;
bakoitza bere orduan dator,
ez da behar sekuestrorik.

11

Badira maitale finak,
maiordomo atseginak;
zaintzen ditue gure ermitak
ta konpontzen itoginak.



12

Ondo ospatu gure jaiak,
igaro ordu alaiak;
eta ez ahaztu gu garala
zuen zeruko anaiak.



ZORO ALA SANTU?

1

Aurtengo urtarrilak
hogeita hirua,
inguruan ez dago
lotako girua.
EGIN albistariak
bota dau tirua:
“aita Patxi ei zala
benetan zorua”.

2

Aita Patxiri emon
plaza edo kale,
ni neu ez naz agertzen
gauza horreen zale.
Baina zergaitik ekin
jo ta tiro, dale?
Mila askoren ustez
santu zan ta, bale!

3

Egunero barau ta
gorputza zigortu,
horregaitik gizon bat
zorotzat autortu?
Hor esanda nor garan,
sasi ala ortu...
Hemen zer izateko
ete ginan sortu?

4

Aita Patxi ei gendun
praile limosnari,
zer ez eutsan lagundu
gaixo, pobreak!
Atrakorik ez eukan,
on egin ugari;
barriketak itzita,
jarraitu berari.

5

Beti ibili ei zan
autostop eginaz,
beti errosario
ta Ama Birjinaz.
Stop askok dakie,
zelango doktrinaz!
Errosario ordeztu
zerari ekinaz.

6

Bakoitzak ditu bere
santu, martiriak,
eurak goratu nahirik
a zer intziriak
Besteenak gora ta
nun dira niriak?
Atxaki asko ditu
gure inbiriak.

7

Eginak egin eta
esan asmau ahalak,
bartzarrak nahastuteko
ez gaituk makalak!
Batzuei on egin ta
besteei tripalak;
nahiko zeregin dauka
Bilboko Udalak!

8

Euskadin mila dira
kale eta plaza,
noren izena jarri,
ezin emon traza.
Gizonen baloreei
zeinek jarri taza?
Gizonak neurtu ezin,
hauxe da demasa!

9

Ez dauka edozeinek
zentzun ta gánora,
behar dan lez neurtzeko
santuen balora.
Pentsamentu bat zapla
sortu jat gógora:
ze alde ete dago
santutik zorora?

10

Munduaren erdia
dago erdi jota,
bada beste erdia
nork zorotzat bota.
Eguraldi txakurra
aspaldi dago-ta,
ondo zaindu daigula
gáineko kaskota.

11

Kristauok Jesus dogu
bakarrik maixua,
zorotzat bota eben
Bera be, gaixua!
Badaezpadan, emonda
dago abixua:
Prest daukala san Pedrok
atean pixua.

12


Berean zintzo dana
beti dabil bero,
alperrentzat beti da
zoro edo ero.
Batzuentzat mila da,
besteentzat zero;
beti besteak zoro?
ia geu garan gero!

13

Aita Patxi izan da
zoro edo santu,
bakoitzak bizi dauan
giroa esan du.
Geurea ágertzeko
gaur ez da berandu:
ona izan zinalako
zuri bertso kantu.

14

Ez da bat txaloak jo
ta txaloak emon.
Aita Patxi, gaur biak
dozuz hemen bertan.
Kale, plazak baino zuk
gorago dozu igon,
gaur zeruan zaóoz-ta,
bihotzez, ZORION!



Bizian Gora

Izen hau aspaldion dabil bala-bala eta lau haizetara zabaldu da, batez be, Bizkaia aldean. Jente nagusiarentzat eleiz mogimentua da. 1952. urtean sortu zan Frantzian eta orain 15 urte sartu zan Bilboko Eleizbarrutian. Hasieratik, hizkuntza bietara banandu zan: Vida Ascendente erdeldunentzat eta Bizian Gora euskaldunentzat. Aita Martzel da hasieratik bere arduradun eta eragile; "berak euskeratu eta euskaldundu dau Bizian Gora", Karmelo Etxenagusia gotzainak dinoanez. Egin ahalak egin ditu Bizian Gora herri txikietan eta auzoetan ere zabaltzeko, aitita-amama askoren bizigarritzat.

Hiru helburu ditu Mogimentuak: sinismen biritza gaurkotzea, adiskidetasunez girotzea eta apostolutza. Bederatzi liburu sortu eta argitaratu ditu aita Martzelek, hiru arlo honeek jorratuz, bizkaieraz eta euskera batuan. Liburu dantetan bertso pila bat tartekatu ditu, laburbatu eta kantagai bihurtuz gai guztiak. Aparte "Aitita-amamen Jakituria" liburua argitaratu eban, osorik bertsoetan eta kantuz zinta bitan ezarriz. Gipuzkoan eta Nafarroan ere badira berak martxan jarritako hainbat alkarte. Jakina, Mogimentu honek sortuazo deutoz bertsoz bertsoz ugarienak eta mardulenak.

BIZIAN GORA

ADISKIDETASUNA

1

Mundu haundia, mundu barria
baina norkeriz betea,
alkar laguntzen bizi izateko
nun dago borondatea?
Ez gazte ta ez zaharrik,
ezin bizi bakarrik...
Hau da gure izatea.
Bizian Goran, jubilatuoak,
zabalik dago atea.

2

Bizian Gora mogimenduan
hemen danok gara anai,
beti izaten da nork onartu
eta nork lagundu be bai.
Anai-arreben antza,
zelango konfiantza!
Jesusen bideak jarrai.
Ez jake behin be damu izango
hemen sartuten diranai.

FEDE BIZITZA

1

Gure artean esaten zan lehen
“euskaldun eta fededun”,
hemengo martxa gaur ikusita
ez dakit zer jazo jakun.
Dana ez da amaitu,
guk nahi dogu jarraitu;
a zer aukera daukagun!
Bizian Gora deika jatorku,
gogoz erantzun deiogun.

2

Jainkoa lehengo lekuan dago,
egiak ere lehengoan,
fedea iparra galduta gabilz
noraezean zuloan.
Jauna, argi eiguzu,
gaur Zeuk deitu gaituzu,
baietz dinotsut behingoan;
badakit neutzat Bizian Goran
zein leku ona dagoan.

JESUSEN LEKUKO

1

Uste neban nik jubilatuoak
ez eukala zereginik,
ezertarako ez dala gauza,
danetarako ezinik.
Uxa bildur ta kezka,
hori egia ez da;
eukizu ondo jakinik:
Bizian Gora dogu tailerra,
ez da beste bat bardinik.

2

Bizi dan arte beti dau batek
on egiteko aukera,
ona izan ta on egin leike
urte batzuk, gorabehera.
Gure Bizian Gora
dator zure ondora,
gaur zeuri dei egitera:
jubilatuoak, geuretzat da-ta,
goazen guztiok batera!

BIZIAN GORAKO DOKTRINAK

1

Bizian Goran nabil
zazpi urte kasi,
hona garbi esanda
zer dodan ikasi:
hau ezin da, aixkide,
diruz irabazi,
"Aitearen" eginda
behar dozu hasi.

2

Hemen ikasten dana
da bizi izateko,
eta egin behar da
umeen antzeko.
Inor ez gara gauza
ezer egiteko,
bakarrik Jaunaren zain
adi egoteko.

3

Hau da beste gauza bat
ikasi dodana:
oso laburra dala
bakarreko lana.
Berez zabaltzen gara
bat besteagana,
gogoz jasoz alkarri
entzun ta esana.

4

Hirugarrena hauxe da
eta ez da gitxi:
beti behar dogula
eten barik bizi.
Beherantza egin arren,
bizitzari eutsi;
hainbeste aukera on
galduten ez itzi.

5

Munduak jartzen deusku
hainbeste barrera,
baina, Jainkoa lagun,
jo beti aurrera.
Pentsamendu ilunak
bota bazterrera,
ez da inoiz amaitzen
zintzoen karrera.

6

Beti da gauza gitxi
pertsone bakarra,
ta askoz gitxiago
baldin bada zaharra.
Horregaitik dauka
alkarren beharra,
danok alkartu eta
hor dago indarra.

7

Gauzarik ederrena
ikasitakoa:
"Aitarik onena da
gure Jaungoikoa".
Horrek aldatzen deusku
bizitza osoa,
lehen garratz astun zana
gaur bigun gozoa.

8

Beti bizi gura ta
ezin disimula,
betiko bizi hori
egarri dogula.
Jainkoak maitez zaindu
ta eutsi deiskula,
erdu, ez jatzu damu
izango sekula.

BIZIAN GORAKOEN EZAUGARRIAK

1

Bizian Gora hau, hori dala
zabaltzen doaz barriak,
hobeto jakin gura badozu
horra hor ezaugarriak:
gizaseme ta emakumeak
adinez ondo jarriak,
bilaka gabilz, ase ezinik
bihotzeko egarriak,
maitasun beroz liluraturik
Jaungoiko maitagarriak.

2

Fede bizitza bizitzeko da
ta ez euki komenentziz,
Bizian Goran landuten dogu
arduraz ta kontzientziz.
Fedea ez da egi moltzo bat
jasotakoa herentziz,
gure Jainkoa "Aitatxo" dala
dakigu esperientziz,
ta bizi pozez betetzen gaitu
Jainkoak bere presentziz.

3

Kristau eskolan ez da besterik
Jesus da maisu bakarra,
Ha eza gutu, maitatu eta
Hari jarraitu beharra.
Bere bizia emoteraino,
oi, Jesusen maite garra!
Desegin eban heriotzea
gure arerio zaharra,
eta Berari jarraituteko
egin deusku deiadarra.

4

"Espiritua bada goala
eta badiharduala",
egi eder hau gure bizitzan
ez dot jakin berehala.
Berak argitzen dau itsua ta
graziz sendotzen makala;
harroak bota ta gora jaso
zabaltzen jakon apala,
nik behintzat pozik ikusten dot gaur
Berak barriztu nauala.

5

Errezuzale amorratuak
bizitzan zehar izanak,
gaur Jainkoari "Aitatxo" deitzen
pozik ausartzen garanak.
Fedez jasorik Jesus maisuak
eginak eta esanak,
ondoren datoz fede argitan
bihotz errotako lanak.
Zer adore ta bizi poz daukan
Jaunak emondako manak!

6

Orain arte gu bizi izan gara
abade-prailen doktrinez,
Biblia ezin irakurri ta
entzundakoa latinez.
Orain etxean dauka gu eta
euskera errez ta finez,
gure bizitza haren argira
daroagu ahaleginez;
Jainkoarekin tratatzen dogu
zu ta nika atseginez.

7

Eleiza beti ikusi doğu
 gūgandik zerbait aparte,
 orain dakıgu gōrputz horretan
 geu ere gārala parte.
 Bizian Goran bizi izan doğu
 zer dan kristau senitarte;
 harrezkero gūk zabalik doğuz
 buru, bihotz ta besarte,
 alkarlanean jokatzeko prest
 zerbait egin ahal dan arte.

8

Izan doğu, bai, bizitzan nahiko
 errezu ta debozino!
 Baina ez doğu jakin gaur arte
 zer dan kristau bokazino.
 “Zoaz zu ere nire mahastira”
 mahastizainak garbi dino;
 gūretzat ere bada Eleizan
 zerbitzu edo misino;
 deia gaur bada, gaur erantzuna,
 ezta belu oraindino.

9

Gorputzez motel, bihotzez sendo,
 umoretsu eta baikor,
 gōrputzez zahar ta bihotzez gāzte,
 hau Jaunari deutađu zor,
 lehen errez izten genduzan lanei
 orain erasoaz gōgor.
 Guġan mirari hau biziarren,
 ez gāra harrotzen inor;
 Bizian Gora bitarte dala,
 dana Jaunaġandik dator.

10

Ez gāra lotsa hau autortzeko:
 bagoazala beherantza;
 Jauna, Zeuk jarri dozu lege hau
 danagaitik Zuri aintza.
 Gehiago emon nahi badozu be
 gu hartzen ez gāra kantsa,
 hartu nahi doğu gure bizitzan
 Jesus maisuaren antza;
 Zeuk dakizu noiz egoki dagon
 gu bakotxaren balantza.

11

Etxe ta jantzi, paper ta ontzi
 lehen hondaturik egonak,
 birziklatuta baliozkoak
 daukağuz lehen baizen onak.
 Ez al dirau gaur be indarrean
 Jesus maisuak dinonak:
 “Espirituak lortu ahal ditu
 birjaiotako pertsonak”
 Bizian Goran birziklaturik
 hor dozuz aitona-amonak.

12

Nor dan zaharra ta nor dan gāztea
 ez da errez esaterik,
 badira zaharrak gāzte eginak ta
 badira zaharrak gāzterik...
 Jubiladutza ez da gūretzat
 denpora-pasa besterik;
 soldata baino ederragorik
 nahi doğu irabazterik:
 ez doğu joan gūra mundutik
 bakarrik urtez beterik.

BIZIAN GORARI ESKERRAK!

1

Gizona berez makala bada,
zahartzaroan makalago,
gauza askotan gazte-zaharretan
diferentzirik ez dago.
Espiriturik bako gazteak
errez dinoe: akabo!
Eta amamak Espirituaz
gogor joten dau ordago.

2

Dana nekian, dana nengian,
lehenago gazte nintzala,
orain badakit, egia esan,
gehiena itxura zala.
Espirituak harroa itzi
ta jasoten dau apala,
eskuak hutsik dituenakaz
Bera da eskuzabala.

3

Hau da bakea, hau bizi poza,
zahartzaroan daukadana!
Neure buruaz bakean eta
zabalik hurkoagana.
Noiznahi naukazu gora begira
deika: "Aitatxo laztana!"
Ziur nago ni: hau danau dala
Espirituaren lana.

4

Aintza ta gora, esker ta kantu
Espiritu Santuari,
goiko dohaiez, eskuzabalez
betetzen gaituanari!
Bizian Gora izan da nire
jubilazinoko sari,
honenbeste on egin deutsana
bai nire zahartzaroari.



Norbera bizitzan beherantza doala, Bizian Gora bai dala goragailu indartsua! Aprobata egizul!

BIZIAN GORA

Batzarretarako hasiera-amaierak

JAUNAK ONARTZEN GAITU

1

Ondo etorri, anai-arrebok,
bakez ta osasunean,
hauxe da poza gaur daukaguna
gure batzar egunean!
*Aita Jainkoa, bedeinka gaizuz
Jesusen maitasunean.*

2

Hamabostero alkartzen gara
kristau alkartasunean,
eta biziro anaiartean
hasten gara jardunean.
*Aita Jainkoa, bedeinka gaizuz
Jesusen maitasunean.*

3

Gure erdian Jesus daukagu,
hau da bere esanean:
"Zuekin nago, Ni nazala ta
alkartzen zarienean".
*Aita Jainkoa, bedeinka gaizuz
Jesusen maitasunean.*

4

Bizian Gorak alkartu gaitu
danok anaitasunean,
Espiritua lagun dogula
hasi gaitезan lanean.
*Aita Jainkoa, bedeinka gaizuz
Jesusen maitasunean.*

JAUNAK BIALTZEN GAITU

1

Basahuntza dabil bila ta bila:
nun ete da iturria?
Zugan guk, Jauna, aurkitu dogu
iturri asegarria.
*Eskerrak Zuri, bihotz-bihotzez,
ene Jaun maitagarria!*

2

Gure bizitzan noiznahi sortzen da
mina ta estu larria,
zure ondoan arintzen jaku
bizitzako buztarria.
*Eskerrak Zuri, bihotz-bihotzez,
ene Jaun maitagarria!*

3

Batzar honetan emon deuskuzu
zure Hitzaren argia,
lagun eiguзу, jarraitu daigun
bide zuzen ta garbia.
*Eskerrak Zuri, bihotz-bihotzez,
ene Jaun maitagarria!*

4

Orain bialtzen gaituzu, Jauna,
mundura zure lekuko;
bai, pozik goaz, ziur gagoz-ta,
ez gaituzula ahaztuko.
*Eskerrak Zuri, bihotz-bihotzez,
ene Jaun maitagarria!*

BIZITZAKO KARRERAN

*Aupa ta aurrera!
Karrerarik onena
da bizitza bera.*

1

Uste baino gehiago
bizitzan aurrera,
baina oraindik ezin
amaitu karrera.

2

Nahiz ta munduan bizi
ehundik gora urte,
karreran bizi behar
azkenera arte.

3

Bizitzako karrera
berez da eskola,
san Pedrok dauka mugan
jarrita kontrola.

4

Hemen ez daگو buruz
ikasi beharrik,
dana irabazten da
biziaz bakarrik.

5

BIZIAN GORA doگو
gure ikastola,
bertan dabilenari
on egin daiola!

6

Sasi eskola zer dan
ez dakigu hemen,
bizitzako karreran
ezin leike eten.

7

Gehiena da bizitzan
bertan ikasia,
horrez gainera doگو
Jaunaren grazia.

8

Aprobatuta doگو
guk aurtengo nota,
kalabazak ez dauka
nun susterrik bota.

9

Kopiatzeak ez dau
guretzat balio,
bakoitzak egin behar,
bestelan adio!

10

Hitz hutsak putzak dira
gure esaminetan,
Jainkoak neurtzen gaitu
gure eginetan.

11

Laster gara helmugan
jo daigun esprina,
han daukagu zain Jesus
sari emoile fina.

12

Zenbat gorabehera ta
batzar ugariak,
danen ordez on egin
gaurko bazkariak!

13

Anai-arreba danok
hartu zorionak!
Izan merezitako
oporraldi onak!

14

Betoz urte asko ta
birtutez beteak,
karrera hontan ez dau
balio suerteak.

15

Karreraren sartu behar
behin jaio ezkerro,
bitarterik ez dago,
hamar edo zero...

16

Onak gogoan jaso
eta txarrak parka,
ea nork jartzen dauan
han gorengo marka!



Urtero, maiatzaren erdi aldera, Bizian Gorak Angoston eratzten dau aste beteko jardunaldia. Bakardade gozoan familia giroa nabarmentzen da. Azken egunean, gizonezkoak egiten dabe zerbitzari jatorduetan amantal eta guzti.

BIZITZAN BEHERA, BIZIAN GORA

1

- Joxepa, zertan zabilz atzera-aurrera?
—Patxi, Bizian Goran hasi dot karrera.
—Amaitzeko orduan zuk egin sarrera?
—Oraindik ez dau jaitsi san Pedrok barrera.

2

- Beti da gauza ona neurri ta zentzuna.
—Maite dauan batentzat ez da erantzuna.
—Ez al dogu guk betetzen geuk behar doguna?
—Inoiz ez da betetzen ple-plen maitasuna.

3

- Ni mezara banoa ahal dan gehienetan.
—Fedea ez da neurtzen tenpluko atetan.
—Beti zintzoro nabil ni aginduetan
—Ai, Patxi, Jauna maite bagendu benetan!

4

- Sartu behar al dogu danok komentura?
—Komentura ez baina nahi neuke zerura.
—Onak izan gaitezcan gu geure modura.
—Heldu al gara, Patxi, gu geure puntura?

5

- Joxepa, horrek dira prailien kontuak.
—Patxi, geuk be badoguz geure talentuak.
—Lehen lez dana hartzeko ez gara tontuak...
—Zer? Besteak txarrak ta beti geu santuak?

6

- Gaur dana libre dago, lehen dana pekatu.
—Egin dogun apurra ez daigun ukatu.
—Nik ez dot egin txarririk, ez dot zer parkatu.
—Ordua baino lehen ez burua juzgatu.

7

- Joxepa, gaur ez dago holako konturik.
 —Patxi, ez daigun galdu geuk behintzat bururik.
 —Inguruan ez dago nork emon eskurik.
 —Bai, jokutzen badogu danok alkarturik.

8

- Joxepa, biok gara lege zaharrekoak.
 —Baina izan nahi dogu kristau legekoak.
 —Ez dira danak hemen gaur esatekoak.
 —Ez gaizala eskutik itzi Jaungoikoak.

9

- Joxepa, zer barri bat sartu jat gogora.
 —Jainkoak bialdu nau gaur zure ondora.
 —Hasi nahi neuke, baina nondik eta nora?
 —Patxi, gure lekua da Bizian Gora.

10

- Jubilatuta gero guriak egin dau.
 —Jaunaren aurrerako ezin da esan hau.
 —Non eta zertarako gaur ni nork behar nau?
 —Maitatzen jarraitzeko oraindik ez da gau.

11

- Andrazkoentzat dira holako batzarrak.
 —Gizonentzat hobeto taberna baztarrak.
 —Ez nau asko poztuten hau entzun beharrak.
 —Maitasunez dinotsuz gaur Joxepa zaharrak.

12

- Danak ez dira guzur gaur entzunak hemen.
 —Patxi, mobidu zaitez berandu baino lehen.
 —Joxepa izango da bai, halako baten.
 —Baina entzun orduko: requiem pace. Amen.

BIZIAN GORA DOGU GURE OLINPIADA

*BIZIAN GORA DOGU
GURE OLINPIADA,
ORAINTXE HASTEN DOGU
GUK ABIADA.*

1

Jaunak deitu eta
gu martxan jarri,
Bera dogu lagun,
hau bai pozgarri!

2

Bizitza bera da
gure karrera,
gu bizian gora
beti aurrera.

3

Jesus laguntzeko
beti prest dago,
horra zaharra go ta
gu bizkorrago.

4

Nork irabaziko
Sydney dominak,
guk Bizian Goran
ezin bardinak.

5

Honetan ez doguz
guk merituak,
bai laguntzen deuskun
Espirituak.

6

Zain doguz Jesus ta
Ama Birjina,
gitxi falta jaku
ta jo esprina.

7

Gero da atsegin
eta atsedena,
Bizian Gora da
bide onena.

8

Bizian Gora da
gure ekipoa!
Alkar lagunduz
joka tipoa.

9

Orain hasten dogu
kurtso barria,
hau da aukera
zoragarria!

10

Nor hobea izan
bada bilatzen,
hau ez da amaitzen,
ez jubilatzen.

11

Merezi dau eta
hartu denpora,
karrera ona da
Bizian Gora.

12

Geure ordua da
ta hasi daigun,
baietz irabazi,
Jainkoa lagun!

GORA BIZIAN GORA!

1

Herri txiki bateko
taldea gara gu,
hemen Bizian Gora
jarrita dauka.
Pozik alkartzen gara
hainbat jubiladu,
gauza ederra dala
ezin da ukatu.

2

Gure artean bada
nahiko jente zaharra,
disimulatu arren
autortu beharra...
Gorputzez makaltzean,
arimaz indarra,
gure Bizian Gora
ez da bide txarra.

3

Ingurura begira
penaz nago sarri,
gazte ala zahar nor dan
ezin da igarri:
joko ta janerako
beti gose-egarri,
fedea gauzetan jangar
ta ezin ekarri.

4

Bizian Gora dogu
aukerako plana,
hemen zaharbarritzen da
zahar sentitzen dana.
Guk bardin maite dogu
otoitza ta jana,
probetxugarri jaku
bizi dogun dana.

5

Hemen argitzen jakuz
bihotz eta begi,
aztertuz zer dan guzur
eta zer dan egi.
Jesusi begiratu
aurpegiz aurpegi,
Bera lagun dogula,
bildur barik segi.

6

Bizian Goragaitik
eskerrak Jaunari,
zenbat on egin deutsan
gure bizitzari!
On egiteko ustez
batak besteari,
dei egiten deutsagu
ez dakianari.

7

Bizian Gora doa
gero ta gorago,
hobeto hasi banitz
askoz be lehenago!
Laster da azkena ta
jo daigun ordago;
etorri ta ikusi,
lekua badao.

8

Gure Euskal Herriko
eleizbarrutia
bizkortu nahirik dabil
kristau bildurtia.
Zaharrok agertu daigun
geure birtutia:
zuk ez alperrik galdu
aurtengo urtia!

9

Beste asko bagabiltz
suertea izan da,
nahi badozu etorri,
zeurea da txanda.
Hau bizi barria da,
ez da propaganda;
ez jatzu damutuko,
bihotzez esanda.

GURE BIZIAN GORA DATOR ZUEN ONDORA

1

Gure bizitza aurrera doa
erreka uren antzera
nire egintzak burutu arte
itxaron, Jaun bihozbera.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora,
zuek ez egin atzera.
Geure burua lantzen joateko
hau sekulako aukera.

2

Jubilatuok geugan ditugu
hainbeste grazi ta dohai,
penagarria da guk iztea
alperrik galduten deslai.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora;
erantzun daiogun alai.
Jaunaren deia dogu geuretzat
gaur erantzun deiogun: BAI!

3

Mila baserri eta etxetan
aitita-amamak bakarrik,
zelan ikusten gaituen sarri
ez dago esan beharrik.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora
eta ez egin negarrik.
Ingurukoak poztu daiгуzan,
ez emon irudi txarrik.

4

Seme-alabak eta ilobak
aitita-amamei begira,
poz-pozik dagoz gu ikustean
ez garala erretira.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora,
urten zokotik argira!
Barrero martxan jarri geintekoz,
honeik amesak ez dira.

5

Urteak edo gaixoak jota,
dator jubilau beharra,
“ni gazte-zaharra ez naz, baina bai
gazte sentitzen dan zaharra”.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora,
entzun bere deiadarra:
gure eleizak eta herriak
behar dau gure indarra.

6

Bizitzan asko eginak gara,
baina ez dago betea,
azken urtetan emon deiogun
txapeldun errematea.
Gure Bizian Gora
dator zuen ondora,
zabalik dago atea.
Horra gauza bat falta jatzuna:
erantzuna emotea.

7

Jubilatu bat zelan ez poztu
 honelako barri onak?
 Gaur zorionez hor dabilz martxan
 luzaro geldi egonak.
 Gure Bizian Gora
 dator zure ondora,
 entzun, aitona-amonak:
 Konbidatuak zagoze danok
 ta bihotzez: zorionak!

8

Heldu jatzue aukera ona
 jubilatu euskaldunak!
 Anaitasunez hartu ta gorde
 hemen esan ditugunak.
 Gure Bizian Gora
 dator zure ondora,
 betoz zuen erantzunak.
 Besarkada bat bihotzez danoi
 gaur Martzel zuen lagunak!



Berrogei parrokiatan egiten dau Bizian Gorak hamabosteroko batzarra. Horrez gainera, Oruen (Euba), Angoston, Benidormen, Gaurdamar de Seguran... alkarraldi luzeagoak. Eta beti egitarau antzekoa: otoitzaldia, gogoeta eta ospakizuna... eta atsedenaldi luzeak eta atseginak.

BIZIAN GORA gorazarrea

1

Bizian Gorak batuta,
ondo bizi gara.
Fede batek alkartuta,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

2

Jesus Jaunari jarraituz,
ondo bizi gara.
Eta hurkoa maitatuz,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

3

Bizian Gora bidean,
ondo bizi gara.
Jesus dogula aurrean,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

4

Danok gara adiskide,
ondo bizi gara.
Jesukristogan senide,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

5

Jesusekin topo egin,
ondo bizi gara.
Lagun gara alkarrekin,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

6

Zer egin ondo dakigu,
ondo bizi gara.
Izan Jesusen testigu,
ondo bizi gara.
Ondo bizi, on eginez,
zoriontsu gara.

NOR GARA GU?

NOR GARA GU? ZER GARA GU?

BIZIAN GORA GARA GU.

NOR GARA GU? ZER GARA GU?

BIZIAN GORA, GU.

1

Badira gaurko munduan
gauz onak zaharrentzako. (2)
Ez da, ez,
hobeagorik, ez da, ez, (2)
hobeagorik, EZ!
Bizian Gora baino.

2

Edadetua izan ta
gainera fededuna. (2)
Hau bai hau,
holakoentzat hau bai hau, (2)
holakoentzat, BAI!
Hau zoriontasuna!

3

Lehenengo lortzen doguna
adiskidetasuna. (2)
Ez da, ez,
handi-txikirik, ez da, ez, (2)
handi-txikirik, EZ!
Hau da anaitasuna!

4

Fede bizitza gaurkotzen,
zelako ahaleginak! (2)
Hau bai hau,
Jainkoa lagun, hau bai hau. (2)
Jainkoa lagun, BAI!
Zer poz ta atseginak!

5

Geuk pozik bizi doguna
besteei emon nahia. (2)
Ez da, ez,
geuk gordetzeko, ez da, ez, (2)
geuk gordetzeko, EZ!
Hartu dogun dohaia.

6

Herrenak dabilz ibilten
ta itsuak ikusten. (2)
Hau bai hau,
hau miraria, hau bai hau, (2)
hau miraria, BAI!
Zaharrak gazte sentitzen!

7

Bakarrik bizi nintzana,
gaur ditut mila lagun. (2)
Ez da, ez,
lagunarterik, ez da, ez, (2)
lagunarterik, EZ!
Hau baino hoberik inun.

8

Aberastu zaitez, lagun,
Jaunaren aurrerako. (2)
Hau bai hau,
altxor ederra, hau bai hau, (2)
altxor ederra, BAI!
eta dana zentzako.

7

Kristau lez jubilatzea
ez da, ez, lotarako. (2)
Ez da, ez,
beste txandarik ez da ez, (2)
beste txandarik, EZ!
Ez itzi gerorako!

8

Ondo amaitzeak dakar
irabazle koroia. (2)
Hau bai hau,
aukera ona, hau bai hau, (2)
aukera ona, BAI!
Txapeldun izateko!

ZORIONEKOA JUBILATU NINTZAN EGUNA

1

Berrogeita hamar urte badira
hasi nintzala lanera,
eguneroko nekez ta lorrez
bizimodua atera.

Sasoi onean nengoen ustez,
bota ninduen kalera,
tresna zahar baten antzera!
Ohera joanda, ezin lo egin
jira batetik bestera:
“amaitu ete nire munduko
bizitzaldiko karrera?”.

2

Lanean gogor jarduten neban
hamabost urte baino lehen,
lan asko eta eskola gitxi,
horixe egoan hemen.
Etxe ta kanpo, gau eta egun,
lan katea ezin eten,
igandez legez atsedeen...
“Jubilatuta, a zer bakea”
sarritan neban esaten;
Jubilau nintzan eguna ez dot
nik ahaztuko zati baten!

3

Etxe giroa, lagunartea,
hori zan martxa barria,
nire moduko motorrarentzat
bai martxa aspergarria!
Zorioneko egun batean
etorri jatan barria,
niretzat zoragarria:
“Baegoala mogimendu bat
nagusiontzat jarria”;
handik aurrera beste bat naz ni
aurkitu dot iturria.

4

Badot lagun bat, hau bai laguna,
lehenago jubilatua,
pozaren pozez agertu eustan
BIZIAN GORA kontua.
Deia jasota, bertan sartzeko
hartu neban akordua,
zorioneko ordua!
Askoz hobea suertatu jat
aurkitu dodan mundua:
dana amaitu zalakoan ta
hau da hau bizimodua!

5

Zenbat eta lan gehiago egin
 orduan ta gizonago,
 hori zan giza maila ta neurri
 hori uste zan lehenago.
 BIZIAN GORAK erakutsi deust
 badala zerbait gehiago,
 ikasten hasita nago:
 norbera landu, norbera ondu,
 falta jat hainbatxo grado...
 Lehengoaren ta honen artean
 alde ederra badago!

6

Gure bizitzan lan egitea
 ez da zeregin bakarra,
 lan, jan eta lo, hau nahiko al da,
 pizti bizitza baldarra?
 Etxebizitza, lagunartea,
 fedean heldu beharra,
 ez da hau eskola txarra.
 Gaur gimnasia, bihar ibiltzen,
 BIZIAN GORA batzarra...
 Jubilatzeak gazte egin nau,
 urtez izan arren zaharra!

7

Prixaren prixaz hor ibili naz
 lanpean arnas estuka,
 atsedentxo bat hartzeko ere
 astirik gabe burruka.
 Jubiladutza zer dan jakinda,
 ona dala ezin uka,
 nik behintzat ez dot nahi truka...
 Gaur nire poza ta esker ona
 ezin ezelan ezkuta,
 Jaunak emonda, grazi eder hau
 urte batzutan baneuka!

8

Neuk ikusia ta ikasia
 izan da gaurko jarduna,
 ez badakizu, aproba eizu
 lagun on bati entzuna.
 Beranduegi, baina aurkitu
 dot bizitzaren zentzuna,
 benetako ondasuna.
 Zer eta zelan erakusteko
 gertu daukazu laguna,
 ZORIONEKO EGUN HAUNDIA
 JUBILAU NINTZAN EGUNA!

OSPATU DAIGUN BIZITZAKO MONTXORRA

1

Jaungoiko Jaunak behin sortu eban
gizona bere antzeko,
eta ahalmenak emon eutsazan
gauza danak edertzeko.
Zenbat ahalegin egiten ditun
Aitaren antza hartzeko,
eta halan agertzeko!
Artista onak izango dira
“gines” horretan sartzeko;
ez da inor be kristau on baten
ondoan parez jartzeko.

2

Gure bizitzan suertatu jaku
etenbako neke lorra,
kurutze danak batu ezker,
ene, zelango txondorra!
Gitxien uste genduanean
dator azukre koxkorra:
jubilazinoa, horra...
Gozatu daigun urte batzutan
pilatu dogun altxorra;
ospatu daigun irabazita
daukagun bizi montxorra!

3

Antzina baten jarri genduan
bizitzako oinarria,
gure etxegintza burututzea
ez da berez etorria.
Alde batetik, neke ta lana;
bestetik, egonarria;
izan da gozagarria!
Orain etxea jasota dago,
beterik kabi barria;
jubiladutzan ospatu daigun
montxor estimagarria.

4

Gazte denporan, amets eginda,
hasi gintxatzun lanean,
su ta gar baten jokatu dogu
handik honako danean.
Jubiladutza etorri jaku,
heldu da zorionean,
oraindik sasoi onean!
Azkenaldi hau igaro daigun
bakez ta atsedenean,
bizi montxorrak on dagiskula
Jainkoaren izenean

5

Bizi beharrak ekarri deusku
nahiko neke lan gogorrik,
gure bizitzan ez dogu izan
luzarorako oporrik.
Seme-alabak martxan dagoz ta
ez dogu inun be zorrik,
nun da holango montxorrik!
Esku lanetan gustura jardun,
baina ez da derrigorrik;
lo, jan ta jolas da gure martxa,
kontxo! Ez hartu mozkorrik!

6

Jainko maitea, zure eskutik
natortzu aldapan gora,
Zure ondoan egoteko gaur
badot nahi beste denpora.
Jardun gozoan bizi gaitezun
Zu eta biok gustora,
sari alkarren ondora!
Jubiladutzan eroan naizu
zure besarte gozora,
gero zeruan a zer montxorra
jaustean zure altzora!

BIZIAN GORA GURE BOLIBARREN

A, a, a...

Bolibarko herria
lehen zaharra, gaur barria,
beti maitagarria. A, a, a...

A, a, a...

Goian dago Ziortza,
Bolibarren bihotza,
gau ta egun otoitza. A, a, a...

E, e, e...

Praile, monja ta beste,
hortik bada nahi beste,
baietz herri bat bete. E, e, e...

E, e, e...

Luzaro jo ta dale,
gaur Bolibar da aske,
kostata, baina bale! E, e, e...

I, i, i...

Inoiz badabil larri,
dei Simon Bolibarri,
baietz laster igarri. I, i, i...

I, i, i...

Fededun lez nahi bizi,
lege zaharrak ez itzi,
guk geureari eutsi. I, i, i...

O, o, o...

Herri bat, mila auzo,
behin hasarre, behin mantso,
baba ezik, garbantzo. O, o, o...

O, o, o...


Bizian Gora dago,
gaur zuri laguntzeko,
uste baino gehiago. O, o, o...

U, u, u...

Markinak katigatu,
jo ta ke burrukatu,
azkenean askatu. U, u, u...

U, u, u...

Bolibar, zer deritxazu?
lagun bat badaukazu:
Bizian Gora ta zu. U, u, u...



Bolibar, aita Martzelen jaioterra.

BIZIAN GORA ALTZUSTEN

1

Zeanuritik gora
Barazar gainera,
biderdi inguruan
ezkerreko aldera.
A zer ikuskizuna
begien aurrera!
Horixe dozu, lagun,
Altzusta berbera.

2

Etxe txuri politez
airoso jaso,
Gorbeiatik begira
dirudi usoa.
Hau da guk maite dogun
Altzusta auzoa,
munduan bizitzeko
bai txoko gozoa!

3

Kanpoz zoragarria
daukazun itxura,
barruz barrizatzeak
ez deutsu ardura?
Hor daukazu san Migel
zaindari modura,
zuzen ibili zaitez
haren agindura.

4

Gorbeiako kurutza
aurrez aurre dago,
Bera da gure jabe,
holan zan lehenago.
Bera behar dogu-ta,
gero ta gehiago,
guztiok bere alde
jo daigun ordago.

5

Bizia dan guztia
egiten da zahartu,
holan gure fedea
itxura dau hartu.
Bizian Gora dator,
ez gero bazartu!
Bizirik irauteko
guztiok alkartu.

6

Bizigarri baten zain
hainbeste denpora,
nahi bai, baina ez jakin
nundik eta nora.
Ordu onean dator
gaur Bizian Gora,
ondo etorri bedi
Altzusta auzora!

BIZIAN GORA GERNIKAKO ERRETERIN

1

Bizian Gora batera,
 Bizian Gora bestera,
 heldu da Gernikaldera.
 Bizia bada ta gora bada,
 hori da gure aukera.
 Ez da inoren kaltera,
 zergaitik egin atzera?
 Zatoz bizi barrizera.

2

Lehen hiru talde badira,
 gaur laugarrena bizira;
 nora ta, Erreterira.
 Jubilatua bazara ere
 honetan ez erretira.
 Hau geuretzako jarri da,
 ez egon geldi begira;
 zatoz bizi iturrira.

3

Ez hartu gauzak zatika
 ta ez ibili tatika,
 hemen behar da praktika.
 Kristau izan nahi, ikutu barik
 ez bihotz ta ez patrika.
 Nahiz min emon ta nahiz pika,
 gaixoak behar botika;
 zelan bizi da Gernika?

4

Oi, Gernikako Arbola,
 zein eder zinan behinola!
 Agortu jatzun odola.
 Zeure ezkurrez jarraitzen dozu
 bizi barri dariola.
 Ez daigun ahaztu inola
 Arbolearen eskola;
 halan bada, on deiola!

5

Janari batzuk ahora
 ta beste batzuk gogora;
 ta huskeriak zokora.
 Guk nahi ta nahi ez, aurrera doa
 gure munduko denpora.
 Ez begiratu albora,
 etorri jaku ondora
 geuretzat Bizian Gora.

6

Zenbat batzar ta ahalegin
 guk Bizian Gorarekin!
 Ona dala eta ekin.
 Atxaki danak atxaki dira,
 errez esaten da "ezin".
 Lagun, bazatoz, on egin!
 Nuñ dan nahi badozu jakin:
 Gernikako Erreterin.

BIZIAN GORA LEKEITION

1

Munduan ez da beste bat,
beste bat. (3)
Lekeittio da guretzat, (2)
Lekeittio, Lekeittio,
ene zenbat guretzat
dozun balio! (2)

2

Lekeittio da polita, polita, (3)
zeuk ikusi, etorrita! (2)
Egia da, egia da,
lagun, zeuk be, bazatoz,
zaindu garbia. (2)

3

Lekeitio da euskaldun,
euskaldun. (3)
Halan beti zaindu daigun. (2)
Jo batera, jo bestera,
lagun, hemen egizu
beti euskera.

4

Alde batetik, euskaldun,
euskaldun. (3)
Eta bestetik, fededun. (2)
Antiguan, Antiguan
nork ez daki geu zaintzen
han nor daiguan? (2)

5

Etxe ta auzo alkartu,
alkartu. (3)
Eta geurea indartu. (2)
Ondasuna, ondasuna,
hau da hemen geuk zaindu
behar doguna. (2)

6

Bizian Gora hor dago,
hor dago. (3)
Hemen sartu zan lehenago. (2)
Sinismena, sinismena
ta euskera zaintzeko
hau da onena. (2)

7

Aitita-amamok, hau entzun (3)
eta ganoraz erantzun. (2)
Hau geuretzat, hau geuretzat,
hau geuretzat dogu-ta,
ez da beste bat. (2)

8

Bizian Gora heldu da,
heldu da. (3)
Lagun, zatoz ta ez duda. (2)
Lagun zaharra, lagun zaharra,
danok dogu alkarraz
batu beharra. (2)

BIZIAN GORA NATXITUN

1

Herri bakotzak bere
maitaleak ditu,
gureak, behintzat, badau
hainbeste meritu...
Ea politagorik
beste bat aurkitu,
lurreko zerutxoa, ai, ai, ai...
hori da NATXITU!

2

Badau baserria ta
badau itsasoa,
bietatik nahastuta,
ze haize gozoa!
Danak hemen bizi nahi,
hau da arazoa!
Itsu ez danak dino: ai, ai, ai...
hau paradisoa!

3

Etxe txuri politak,
dotore itxura,
bizia jarri nahirik
behar dan modura.
Betor BIZIAN GORA,
zer besterik gura!
Bizi egarri dana ai, ai, ai...
betor Natxitura!

4

Bihotzez maite doguz
Eleiz eta Herri,
guztiok garalako
bien osogarri.
"Aupa BIZIAN GORA"
esanaz alkarri,
hau da hau bizi poza ai, ai, ai...
deuskuna ekarri.



Natxituko eleizaldea.

AGUR, LAUKIZ!

1

Zer poza lehengo batean,
hartu neban bihotzean:
sartu nintzala pozik Laukizko
lagunen artean!
Guk alkar besarkatzean
lehengo maitasun berean,
barriz biztu zan maitasun garra
gure alkartean.

2

Guztia garbi esanda,
Bizian Gora izan da
Laukiz aldean sortu dauana
hau bigarren txanda.
Ez da gero propaganda,
ez zaldi, idi demanda;
eta hoberik bada Laukizen,
ikusi joanda.

3

Hogeikoren bat bezero
batzen da hamabostero,
eta alkarte giroan danok
jarten gara bero.
Atzo, bihar eta gero,
banan danok gara zero;
baina nork eutsi guri benetan
alkartu ezkeru?

4

Bizirik dago jentea,
badauka borondatea;
ez da gitxi gaur bide barriei
baietz esatea!
Asko da ondo hastea,
hoba ondo jarraitzea;
Bizian Goran gora bizia,
oi, Laukiz maitea!



Laukiz, "Lauaxeta" idazle argiaren jaioterria. Antxinatik da aita Martzel Laukizen etxeko.
Bizian Gora jartzera hurreratu zanean, bai jentea pilatu! Hemen dozuz Laukizko
alkartekideak, Jesukristo Oruekoren oinetan.

ALMIKEKO AMAREN DEIA

1

Andra Mari Almikeko
gure Ama bihotzeko!
Bermiotarrok zaitugu beti
gure bitarteko.
Hauxe dogu esateko,
zure bihotza pozteko:
"seme-alabok izan nahi dogu
Amaren antzeko".

2

Bide garbi zuzenean
ta kristau sinismenean,
guk beti bizi nahi dogu, Ama,
zure esanean.
Ordu txar eta onean,
Jesusen jarraipenean,
Berak lagundu gaizala beti
zure izenean.

3

Badogu laguntasuna
oraintsu heldu jakuna:
nagusiontzat Bizian Gora
geuk behar doguna.
Zain dogu Ama kutuna,
emon gure erantzuna;
Amaren deira batu gaitezana,
kristau euskalduna.

4

Badator Bizian Gora
guretzat eta bertora,
holako baten zain gengoan, bai,
hainbeste denpora.
Batu gaitezana gustora,
danok alkarren ondora;
ondo etorri Bizian Gora
gure Bermiora!



Almikeko Andra Mari Bermioko Ama eta erregina da. Aita Martzelek hemen jo eban Bizian Gorako pregoia, eta Amaren deira Bizian Gorako alkarte bizia sortu zan Bermion, bigarrenaren zain.

BIZIAN GORA NAFARROAN

1

Hau da egun pozgarria,
Jaunak geuretzat jarria!
Elkar ikusiz ase baitzaigu
gure egarria.
Aska kantuz eztarria
ta goza bihotz larria;
egun alai bat emaguzu gaur,
Jaun maitagarria!

2

Nafarroa aldeko Baztan
ezaGUN du bere kastan...
Hor, Malerreka; han Bortziriak;
bestalde, Leitzaran.
Zugarramurdi, patxaran;
ta Irun beste bailaran;
ezetz antzeman ze jende modu
hemen bildu garan!

3

Kristau jende nagusia,
aunitz gerra ikusia;
halere, kristau fedea ez du
galduta utzia.
Nahiz hanka bana hautsia,
irabazi nahi auzia:
horra zein maite duen Jesus ta
bere erakutsia!

4

Oharrizerako deiak,
Martinen ezkil kanpaiak:
"bildu gaitezen fede bereko
arriba-anaiak".
Jaso nire ongi nahiak,
igaro ordu alaiak;
gorputz-arimaz bejondeizuela
Oharrizko jaiak!

5

Gu gara sinestedunak,
 baita ere euskaldunak;
 hauexek dira, denen gainetik,
 gure ondasunak.
 Dei egin digu Lagunak,
 bizi berri nahi gaitunak;
 Jesus bai pozik jarriko zuen
 gaurko erantzunak!

6

Goiztik etxetik kanpora,
 Oharriko txokora,
 bai pozik bildu garela denok
 elkarren ondora!
 Kemen baikaude gustora,
 hauxe da "Bizian Gora";
 mogimendu hau sartu dedila
 aise Nafarrora.

7

Jesusen maitasunean,
 Elizaren izenean:
 jubilatuok, bildu gaitezen
 anaitasunean.
 Joka bide zuzenean,
 ta kristau sinesmenean;
 Jainkoa lagun, iraun dezagun
 itxaropenean.

8

Aunitz herritxotakoak,
 denok fede berekoak;
 honexek denok egiten gaitu
 sendi batekoak.
 Guztiok adinekoak,
 napar mendialdekoak;
 elkarren lagun zaitu gaitzala
 gure Jaungoikoak.

ARRATIAK BIZI NAHI

1

Arratiako zekorra
txikerra baina gogorra.
Bere izatez bizia da-ta,
zereginean bizkorra;
orain artian beti izan da
fruituetan emonkorra.

2

Arratiako errazak
badaukaz onaren trazak.
Onean onak dira benetan
alkar laguntzen demasak;
baina txarrean, alkar hartuta,
sekulako barrabasak!

3

Euskaldun eta fededun
Arratian ez bada, nun?
Bere euskera, bere ohiturak,
edonun dira ezagun;
galduak galdu, oraindik ere
Arratian zer daukaun!

4

Trikitolari, alboka,
bardin kantuz ta zantzoka.
Euskal kulturaz aberatsa da
Arratiako azoka;
joko bardinez, ezetz gelditu
azkenak norgehiagoka.

5

Praile, monja ta abade,
ez da etxerik ha gabe.
Eleiz, ermita, errogatiba,
holakotan zer ez dabe...
Han Gorbeiaiko kurutze deuna
guztien jaun eta jabe.

6

Arratiako ibarra,
badozu zaindu beharra.
Zeinek erein dau zure solan
kaltezko txominbedarra?
Zaindu egizu Arratia zeuk,
oi, Domingo dimostarra!

7

Ba da hainbeste denpora
sartu zan Bizian Gora.
Adinekook, geuretzat dala
ekarri daigun goğora;
belu baino lehen, batu gaitezan
danok alkarren ondora.

8

Igorren ta Zeanurin
luzaro dabilz martxan fin.
Areatza ta zu, Arantzazu,
Lemoa ta Dima bardin,
Artea eta Bedia batu
gaitezan geu alkarrekin!

9

Sinismena ta euskera
Bizian Goran batera.
Gure eskola Barri Ona da,
geuk dakiguna, gainera;
beste guztia Espirituak
emoten dau jakitera.

10

Hau zuei gaur esatia
zan gure borondatia.
Guk zaharrok behintzat ipini daigun
tokatzen jakun partia;
kristau euskaldun orain ta beti
izan daiten Arratia.



Arratia beti izan da eleiz bidekoa. Bizian Gorak ere lur gozatsua aurkitu dau. Ardi zuriak ezeze,
“zekorrak” ere famatuak dira Arratian.

MUNGIAN ZER BARRI?

1

Penagarria da aspaldion
hemengo ikuskizuna:
ustekabeen hondatu dogu
gure lehengo ondasuna.
“Euskaldun ta fededun”
holan ginan ezagun,
barru-kanpoz txapelduna.
Hau ikusita, esan leiteke
galdu dogula zentzuna.

2

Mungialdeko jubilatua
ez dagoz guztiak lotan,
eupada sendo bat bota dabe,
lagunak hartuz gogotan:
Geu alkartu gaitezana,
lagunei ere esan
behin, barriz ta gehiagotan.
Ezin geintez kez begira egon
bizirik irautekotan.

3

Uste baino lehen etorri jaku
egundoko aukerea:
eleizbideko mogimendua;
gainera, geure-geurea.
Bizian Gora, lagun,
pozik gaurkotu daigun
kristinau siniskerea,
geure artean erabiliaz,
maite dogun euskerea.

4

Bizian Gora martxan dauka
gure eleizbide barria,
ardura haundiz gaur eta hemen
nagusiontzat jarria.
Etorri ta ekarri
geuk lagundu alkarri;
fedea da oinarria.
Holako baten preminan dago
Mungia gure herria.

ZAINDU DAIGUN ONDARRU

1

Hau da gure Ondarru,
bihotz betekoa,
dan modukoa dala,
geure gustukoa.
Ea nun dan beste bat
bere parekoa...
halako Ama dauka:
ANTIGUAKOA.

2

Gu beti izan gara
euskaldun fededun,
biak bananduz gero,
laster da ezagun.
Geure nortasunari
geuk eutsi deiogun,
horretan beti dogu
Jaungoikoa lagun.

3

Hau da zuzenbidea:
bakotxak berea,
besteak onak dira,
onena geurea.
Etsaiak asko dira,
izan adorea!
Erantzun nahi dauanak
badau aukerea!

4

Dana aldatu jaku
eleiz ta inguru,
noraezean gabilz
ez hanka, ez buru.
Alperrikoak dira
hileta zizpuru,
laguntza barik inor
ez dago seguru.

5

Adineko lagunok,
hau gure aukera:
BIZIAN GORA sartu
da gure artera.
Hamabostero pozik
hainbat batzen gera,
Jesusen izenean
familia antzera.

6

BIZIAN GORAn gabilz
hainbat andra-gizon,
zenbat on egin deuskun
ezetz hurrik emon.
Zuretzat be bada-ta,
ez begira egon,
bazatoz, guztiontzat
bake ta zorion!

BERRITTU BERRITTU DA

1

Berrittu da Berrittu,
zatoz ta begitu:
hau hauxe da-ta, nahi ez badozu,
ez hemen gelditu.

2

Ni ere naz nazena,
Berrittu izena;
eta gehiago jakin nahi dozu?
“Eperdi gizona”.

3

Batean, zan burruka;
bestean, mosuka;
ta gaur Berrittu herri bat danik
inork ezin uka.

4

Nor jarri alkate?
Bat jarri ta bale;
danon artean bat aukeratu
ta betiko bake.

5

Berrittun zaharra nausi,
barriari ausi;
badaezpadan inoren mende
ez dabe nahi jausi.

6

Behingoz Bizian Gora
heldu zan bertora;
zaharrentzat izan, hemen zaharrik ez,
danak pitxilora.

7

Zaharrak ezetz esanda,
sasoikoak txanda,
zaharrak gaztetu, gazteak zahartu...
suertea izan da!

8



Oi, Berrittu, Berrittu,
hil edo berritu!
Gauza biziak bizigarriak
beharrezko ditu.

9

Zahar dala nahiz sasoiko,
nahi izan ta, nahiko;
kontuak kontu, zeuretzat da-ta,
zer zahar ta zer jainko!

10

Bizian Gora lagun,
hau autortu daigun:
gaur gabilzanok, garanok gara,
zer poza daukagun!



Ondarru, Berrittu, Mungia, Zeanuri...

BIZIAN GORA ANGOSTORA

1

- Maritxu, hartu eizu bihotzez egun on!
- Patxi, halan ekarri hartu ahala emon.
- Kurtsoaren azkena dogu gaur Angoston.
- Aprobatu ei dogu ta alkarri zorion!

2

- Fika ta Mungia, bardin Zamudio,
- Larrabetzu, Usansolo, aupa Elorrio!
- Busturi ta Gernika, pozetan jario.
- Anaitasun honek gaur asko dau balio.

3

- Zornotza ta Durango, Izurtza, Mañari,
- Besarkada bat danoi, baita Markinari.
- Holako egun onak betorkuz ugari.
- Behingoan jartzen gara zaharrok be kantari.

4

- Meza, errosario, gero dantza, zantzo,
- Jubilaturik gagoz, baina ez hain mantso.
- Danetik jaten dogu, porru ta garbantzo.
- Kanpoan jolas eta etxean deskantso.

5

- Maritxu, pozik gatoz alkarren ondora.
- Ai, Patxi, ez al zagoz gaur gugaz gustora?
- Igarri barik doa hainbeste denpora.
- Ondo asmauta dago hau Bizian Gora.

6

- Bai izan dogula gaur egun bat betea.
- Bihar balitz beste bat a zer suertea!
- Horra praktikan zer dan kristau izatea.
- Alkarri lagunduaz, ondo ibiltea.

7

- Maritxu, aprobatu al dozu urtea?
- Patxi, jarri dot behintzat nik neure partea.
- Aprobatu ezean, bigarren bueltea...
- Ahalegindu ezkerro, beti da suertea.

8

- Aurrera goaz behintzat trikilu-trakulu.
- Alkarren laguntza da guretzat akulu.
- Ta beti dago norbait laguntzat makulu.
- Alkarri laguntzea da nahiko titulu.

9

- Maritxu, zu al zara taldeko gidari?
- Laguntzeko prest nago behar dauanari.
- Jaunak emon deizula laguntza ugari
- Laguntzeko ahalmena bada nahiko sari.

10

- Eginak egin eta hau errematia.
- Azkenean aurrera plast txokolatia.
- Maritxu, ez ete da prailien tranpia?
- Praile-monja ederrak gu lango jentia!



Ez da leku txarra zaharrak gaztetzeko, edo ez gastatzeko, behintzat.

MERTXE AZKONIZAGA EREDU

*Mertxeri ohorea
kantu ta umorea.
Oi pitxi dotorea,
gure lorea.*

1

Artzain onak deitu
ta zuk jarraitu,
maitasun lokarriz
beretu zaitu.

2

Jesusez beterik
buru ta bihotz,
hautsi dozu gaixo
eta heriotz.

3

Bakez eta pozik
gaixo ta guzti,
Jesus izan dozu
zure eguzki.

4

Lan ta lan urduri,
ez dala ona,
besteak poztea
da zoriona.

5

Jesusek emonda
zer pozkario!
Bihotz iturritik
polpol dario.

6

Pozik txastau dozu
zeruko mana,
apal txikientzat
bakarrik dana.

7

Zuretzat Kristo da
bizi betea,
eta heriotza
irabaztea.

8

Ez da behar asko
zuk dinozunez,
dana ondo egin
ta maitasunez.

9

Hau zein pozgarria
dan guretzako!
Danagaitik, Mertxe,
eskerrik asko!

10

Agur, laster arte,
ez gúgaz eten;
Jesusen ondoan
hartu atsedén!

Izurtzako alaba, aita Martzelegaz, Milagaz eta Maria Angelesegaz barru barruko adiskide eta lanetan partaide. Azkenaldian Bizian Gorako laguntzaz, santutasun usain gozoz ingurukoak lurrundu dituan lore zoragarria.

PATXI ETA MERTZEDES

1

Kontu kontari nator
askoren mesedez,
kontu lagun dirala
Patxi ta Mertzedes.
Neuk asmatutakorik
ez dago ezer ez,
bizi dabena da-ta,
hartu eizu fedez.

2

Berrogeita hamar urte
ezkondu ginala,
alkarri beti gordez
maitasun leiala.
Horra seme-alabak
Jaunak emon ahala,
bereak dira eta
bedeinka daizala.

3

Ezagutu ditugu
semeen semeak,
danak onak dirala,
gero ta hobeak.
Lurreko ondasunez
nahikoa pobreak,
baina aberastuak
Jesusen fedeak.

4

Gurasoen ardurak
ez dauka azkenik,
ez dago zertan hartu
Jaungoikoarenik.
Laguntzeko beti prest
badago ahalmenik,
gurata ez da behar
inoren baimenik.

5

Bete dogu munduan
geure egitekoa,
orain dogu ordua
geu bizitekoa.
Biok alkar maite ta
biok Jaungoikoa,
hona bertan munduan
baten hirukoa.

6

Bizian Goran gabilz
biok zorionez,
Jesus Jaunari leku
gehiago emonez.
Horrexek bete gaitu
bakez eta onez,
pozaren pozez gagoz,
kantuz, esker onez.

7

Buruz gauza askorik
ez dogu ikasi,
Espiritu Santuak
deusku irakatsi.
Hauxe izan da gure
zahartzaroko grazi,
hona gaur zoriontsu
Mertzedes ta Patxi.

8

Hona apal esanda,
geuk bizi doguna,
geuri Jaunaren graziz
gertatu jakuna.
Horra nundik jatorkun
zoriontasuna:
Jesus egin jakula
etxeko Laguna.

TXIKI HAUNDIAK

1

Haundietan haundiena
Jaungoikoa dau izena.
Zeru-lurretan garan guztion
hasiera ta azkena;
garan guztia zor deusaġu-ta,
Berari esker, omena.

2

Jainkoa gizon eġina,
txikienekin bardina;
"Haundiena" da ta "Txikiena",
hauxe ulertu ezina!
Zer Jaungoikoġan sinisten dogun
eġin daigun esamina.

3

Trumoi arteko Jainkoa,
ala Kalbariokoa?
Guri bizia emotearren
bizia emondakoa...
Jesukristoren ta gure Aita
da "Ebanjeliokoa".

4

"Haundienari", txalo hotsa,
"Txikienari", bihotza.
Biok batera zaituġu, Jesus,
Erreġea ta Bildotsa:
Zeureak dira eta hartu gure
bizia ta heriotza.

5

Jainko nahiz gizon bardin da,
biak dagoz bat eġinda.
Jainkoa gizon, gizona Jainko,
hau eġi dala jakinda:
"Gora Jainkoa, behera gizona",
hori ezelan be ezin da!

6

Jainko, hau da maitasuna,
dohain guri deuskuzuna!
Bihotz-bihotzez Zu maitatzea
da gure eġinkizuna;
behar bestean ezin dogu-ta,
bete Zeuk gure hutsuna.

7

Hau da haundi izan nahia!
Nor ez da honetan saia?
Jainko Semea gizon eġina
jarri da zerbitzen "mahaia"...
Morroi zintzoa eġiten danak
dau "haundi" izateko gaia.

8

O, adiskide maitea,
hontaz kontura zaitea:
Estu txikia dala esanda,
dago zeruko atea;
horrela bada, "haundia" barik,
hobe "txikia" izatea.

OTOIZLARIEN KATEA

1

Gu nor garan esatea
ona da hau jakitea:
BIZIAN GORA taldea.
Zahar ta kristau lez gu alkartzea
ez da izango kaltea
eta bai grazi betea:
alkarrekin egitea
otoizlarien katea.

2

Batzen gaitun lokarria
da Jesus Biztu barria,
Bitartekotzat jarria.
Bere ondoan gure otoitza
eta neke-min larria,
—aldarean ezarria—
askorentzat ongarria;
guretzat, poz iturria.

3

Honegaz zer dogun gura:
biztu antzinako ohitura,
eguerdi ingurura:
Ama Birjina lagun hartuta,
Angelusa errezura;
gozatu gure tristura,
nasaitu mila estura,
hartu Zeuk gure ardura.

4

Kandela baten argira
sinismenaren dizdira,
Ama dogula begira.
Otoizlarien kate gozoak
zer poza bihotz erdira!
Zatoz zeu be iturrira,
Bizian Gora kabira;
honeik ametsak ez dira!

5

Gizonentzat gauzeztana,
Jesusek maite dauana:
hauxe da gu gareana.
Otoizlarien katean, lagun,
baliogarri da dana.
Honexek dauka, laztana,
banku onenaren fama;
giltzari da bera, Ama.

6

Geuk hartu ezkerro alkar
eta Jesusi deiadar,
inoiz be ez gagoz bakar.
Leku danetan eta batera
erdian dago su ta gar,
emonaz argi ta indar;
izan bihotz, gaixo ta zahar,
ekin otoitzari barbar!

JUBILATUEN KURUTZ BIDEA

1

Jesus maitea, banatorkizu
bihotz zabalik aurrera,
Kalbarioko Kurutz bidean
Zurekin bat egitera.
Maisu zintzoa, urten zakidaz
Zuk ere errukiz bidera,
Zuk lagunduta, egin dagidan
Zuk eginaren antzera.

2

Jainkoa gizon egin zinan ta
ez al da nahiko berori?
Pobre ta gaixo lagun hartuta,
zenbat mesede askori!
Danen ordainez hau entzun behar:
"bota kurutzera Hori!"
Nire bizitzan ta inguruan
zenbat holako histori!

3

Kurutze astun bat bizkarrean ta
astunagoa barruan,
itxura danez, gaiztoagorik
ez zan izango munduan...
Baina gaur, Jesus, hemen naukazu
minez ni zure lekuan;
hau niretzako astunegi da,
za goz Zeu nire onduan.

4

Kurutzepean haustuta za goz
eta ja gi ezinean,
a gi danez, gizon koxkor bat
ni gaitik egin zinean.
Jesus lastana, begira niri
egoera bardinean,
Zu ikusteak bizkortzen nau gaur
nire oinaze minean.

5

Semea holan ikusi behar:
jausi-jagika tatarrez,
bere atzetik zoaz Zu, Ama,
samintasunez negarrez.
Beste seme bat hemen naukazu
Zuri "ama" deidiarrez,
bakarrik ezin; lagundu, Ama,
zure grazi zerutarrez.

6

Odol-izerdi ta hauts artean,
Jesus, hori da itxura!
Aurpegi hori txukuntzea da
Beronikaren ardura.
Tximur ta tximaz, ai ta oi baten
etortzen jat negargura,
eskerrak, lagun onak dirala
Beronikaren modura.

7

Hau biraoka, hori burlaka
ez dozu inor lagunik,
lurretik gora jagiten, Jesus,
nork lagunduko deuntsunik.
Nik be ez daukat bakardadean
poz ta bakezko egunik,
Zu barik ezin eroan, Jesus,
honen Kurutze astunik.

8

"Jerusalemgo ama-alabok,
ez niri egin negarrik,
zuon etxean dozue nahiko
negarbide eta abarrik".
Ez dozu, Jauna, zure onduan
hileta soinu beharrik,
konpromisoan sartzen dana bai
onartzen dozu bakarrik.

9

Hainbeste neke hartuta gero,
 hau al da irabazia!
 Gogo ta bihotz zehatz etenda,
 beheraino zaġoz jausia.
 Dana emon nahi, gogo ta bihotz
 eta azken arnasia;
 ni be osorik Zuretzat nadin
 Jesus, eidazu grazia!

10

Goitik beheraino biluzik zaġoz
 danen aurrean, zer lotsa!
 Egarriz hiltzen zaġozala-ta
 eskeini ozpin mingotsa...
 Zuri begira isilduten jat
 nire barruko aihotsa,
 Zu isilik ta ni aienaka?
 Hau bai dala gauza motza!

11

Hemen naukazu Zuri begira
 ġaur kurutzaren oinetan,
 nire kurutzan nagoalarik
 Zugaz oinaze minetan.
 Zuri begira bizi nahi dot nik
 nire ordu saminetan,
 Ama, laġundu ondo urteten
 kurutze esaminetan.

12

Lapur onari zerua eta
 beste danei parkamena,
 eta Aitaren esku onetan
 emoten dozu azkena.
 Eskerrik asko, orain ta beti,
 o, Salbatzaile onena!
 Gora Kurutze Bedeinkatua,
 gora Jesusen Izena!

13

Hartu egizu, Ama, besotan
 Zure Seme Jesus zana,
 baina ez ahaztu Zuretzat ni be
 beste seme bat nazana.
 Bete daġigun Jesusek bioi
 azken orduan esana:
 "Ama, hor dozu zure semea,
 seme, horra zure Ama".

14

Lurpean sartu zaitue, Jesus,
 zeru-lurren Jaun ta Jabe,
 Zuk esan eta egindakoak
 hau merezi izan dabe...
 Kaliza edan dozu osorik
 garratzena izanda be,
 ez bizitzan ta ez heriotzan
 ez nago laġunik gabe.

15

Sekula santan ez da ġertatu
 holakorik lur ġainean,
 "Hilen artetik biztu zarala
 hirugarren egunean".
 Kurutz bidean aurrera nator
 zure bide zuzenean,
 orain kurutzan Zurekin eta
 ġero be bai azkenean.

16

Jarraitu deusat, Aita Jainkoa,
 Jesus zure Semeari,
 hemen naukazu orain Beragaz
 batera ni be opari.
 Azkenera arte zintzo ta zuzen
 jarrai nahi deusat Berari,
 zure ondoan lortu daġidan
 zeruan betiko sari.

KRISTAU BATEN JUBILAZINOA

1

Norbait lanetik jubilatzea
 bai gauza ederra dala!
 Erlojupetik libre dalarik
 gaurtik gozatu daiala.
 Jubilatu lanetik
 ta ez beste danetik;
 Jaunak argitu gaizala!
 Ekin ta jarrai, jaritxi arte
 betiko sari jornala.

2

Kristau bezala jubilatzeak
 ez dau esan nahi azkena,
 hor hasten dala beste martxa bat
 bizitzakorik onena.
 Bota gaineko zama
 eta egin programa,
 ez da berez datorrena.
 Ez zaitetz bizi denpora-pasa,
 hori litzake txarrena.

3

Eguneroko bizi beharrak
 euki zaitu ekinean,
 zeure gogoko ziran lan asko
 egin nahi ta ezinean.
 Zeure burua landu,
 inoiz ez da berandu;
 eukizu hau jakinean:
 Danera jota, haundiak gara
 helduak garan heinean.

4

Danen gainetik *euki* ta *egin*,
 ezin ase egarria,
 hau da gizonak harrapatzeko
 sare engainagarria.
 Gizonaren bizitzan
 lehenengoa da *izan*,
 helburu ta oinarria.
 Orain arte zan *euki* ta *egin*,
 hasi da martxa barria.

5

Esango deusut jubilatzean
 zer behar dozun bilatu:
 zeure-zeureak izango diran
 ondasun asko pilatu.
 Ez bizi jo ta pasa,
 erdi lo, zeure kasa;
 lehenbailehen espabilatu:
 on egin eta on izatean
 ezin da bat jubilatu.

6

Azken batean etorri jatzu
 jubilatzeke sasoia,
 baina oraindik ez dozu hartu
 bizitzako mendi goia.
 Bizi zaitetz luzaro,
 ez erdi lo igaro!
 Horra zer dan errazoa:
 azkenera arte jo behar dala
 irabazteko koroia.

KRISTAU JUBILATUA

BELENGO JESUS UMEAREN AURREAN

1

Belengo Jesus laztana,
nigaitik jaio zinana!
Ondo dakizu ni zahartzaroan
zure preminan nazana;
uste osoz gaur laguntza eske
natorkizu Zuregana.

2

Belengo Jaun Ahalguztiduna,
gaur ezer ezin dozuna!
Lehendik beherantza datoz hutsera
nire indar ta zentzuna;
Belengo Jesus, Zu zaitut indar
ta nire etorkizuna.

3

Zeru-lurren Jaun ta Jabe
Belenen ostatu gabe.
Ni be lehen jaun ta mahaiburu nintzan
gaur nago danen mirabe;
Zu ikusita, buru-bihotzak
bake poza hartzen dabe.

4

Diran guztien sortzaile
Belenen danen eskale.
Ondasun danak emonda gero,
gaur hartzen dogunaz, bale;
Zeu danak baino gehiago zara;
zatoz, ene Salbatzaile!

5

Belengo Jose ta Mari
Jainkoaren zerbitzari!
Geuk be jarraitu gura deutsagu
zuen erakutsiari;
apal ta sendo baietz emonaz
bizitzak dakarrenari.

6

Aingeruen esanera
artzain onak Belenera;
jubilatuok, geu be bagatoz
pozik zuekin batera;
geu lez txikia egin danari
pa bero bat emotera.

NAHI BAI... BAINA EZIN!

1

Laurogeita bi urte lepuan, lepuan, (3)
baina ni neure lekuan.
Pepantoni, Pepantoni,
Jaunak emondakoaz
pozik nago ni. (2)

2

Moldau ezin buruko moinue, moinue, (3)
baina maite dot soinue.
Estibalitz, Estibalitz,
zu bai ondo, hau dana
eztia balitz.

3

Benidorren badaġo aukera, aukera, (3)
baina kaxkajo norbera.
Joxtomingo, Joxtomingo,
zer zabalitz ez zuringo
ta ez gorringo. (2)

4

Hemen zerua, han be zerua, zerua, (2)
ez da ġauza seġurua.
Ai, Pantxike, ai, Pantxike,
zeuretzat da-ta, kontuz
ibili zaitte. (2)

5

Gizon ġuztiok ġara eġarri, eġarri, (3)
baina nun da aseġarri?
Gergorio, Gergorio,
hemen mundu osoak
ez dau balio. (2)

6

Bizian Gora dago jarria, jarria, (3)
hau da ġure iturria.
Isidora, Isidora,
ġure iturria da
Bizian Gora. (2)

NIREAK EZ DAU EGIN!

1

Bizitzak zer dakarren
ez dakit doktrinez,
neure narrutik naço
ondotxo jakinez.
Alperrik harro bizi,
ametsak eginez,
hona uste baino lehen (ai, ai, ai, ai)
deus egin ezinez.

2

Hemen naukazu, morroi,
lehen jabe nintzan hau,
ustez sasoi betean
eta egin jat gau.
Norbait nintzalakoan
bizitzak zahartu nau;
hau ikusita dinot: (ai, ai, ai, ai)
“Nireak egin dau”.

3

Lagun on bat etorri
jatan behin ondora,
amets barriak sartuz,
zast! bihotz hondora.
Sorgin mamuak jaurti
nituan kanpora,
ni askatu nauana (ai, ai, ai, ai)
da Bizian Gora.

4

Sinistu gaur, aititak,
bihotzez dinona,
bera bizibarritu
dauan barri ona:
Jaunak zahartzarorako
opariz emona,
berba baten esanda: (ai, ai, ai, ai)
Hau da zoriona!

5

Neure kautan itxita
nenbilen makalik,
orain Jainkoagana
nabiltzu zabalik.
Lagunik onena dot,
dinotsut apalik;
ez da zahartzarorako (ai, ai, ai, ai)
holango magalik.

6

Asti barik nabil gaur
jardun eta ekin,
Bizian Gorak hauxe
egin dau nirekin.
Zeuk aprobatu eizu
nahi badozu jakin;
oraindik “nireak ez, (ai, ai, ai, ai)
nireak ez dau egin!”.

ALKAR LAGUNTZA

1

“Alkar laguntza” eguna
 guztiok batzen gaituna,
 txarri ta txorro ospatzen dogu
 geure batasuna.
 Txarriboda ezaguna,
 hau dok hau txarri lurruna!
 On egin daiskun, bedeinkatu zeuk,
 Balendin laguna!

2

Bildots, katu edo txarri
 ta beste mila ongarri,
 jan-edanean alkartzan gara
 jubilauok sarri.
 Apatx, buztan nahiz belarri,
 bada nahiko betegarri...
 Nor dagon sano eta nor gaixo
 guri nork igarri!

3

Odoloste ta buzkantza
 buru, tripa eta gantza,
 hain gozo dago, jan-edanean
 ezin gara kantsa.
 Hasi behar etxerantza
 ta ezin zaindu balantza;
 bihamonean medikuak be
 ezin emon antza.

4

Dana ez da jan-edana,
 kontuz, ai, ene laztana!
 Txarri ta beste, egiten dogu
 dana erdi bana.
 Gure diru eta lana
 ta bakotxak ahal dauana,
 alkar laguntzan bialtzen dogu
 ume pobreengana.

5

Batean da Amerika
 eta bestean Afrika,
 alkarlaguntzan erdi hustuten
 da gure patrika.
 Diru, jantzi ta botika,
 hemen ez gabilz tatika;
 ahal doguntxoa, alkarlaguntzen
 badogu praktika.

6

Milaka ume dagola
 ez liburu, ez eskola,
 hori jakinda, gu ezin bizi
 hemen edonola.
 Errifa edo tonbola,
 ekin hala edo hola;
 bestelan galtzen dago alperrik
 Kristoren Odola.

7

Geuk ez genduan ikasi,
bada hau nahiko desgrazi;
beste batzuek izan daiela
ikasteko grazi.
Jaunak euskun irakatsi:
behar dala pixkat jatsi,
alkar lagunduz, behar dogula
danok irabazi.

8

Peru eta Guatemala
ta bardin Venezuela,
eskola bako ume ta gazte
milaka dirala.
Ez da arazo makala,
egin daigun egin ahala;
Bizian Gora beti izan da
hain eskuzabala!

9

Badago borondatea,
bihotza ondo betea,
egun hau ondo prestatzen askok
hartu dau partea.
Honek porru-patatea,
hark ardau, ogi, tartea;
hauxe bai dala, garbi esanda,
kristau alkartea!

10

Neska ta andra ugari
izan doguz zerbitzari;
eskerrik asko guztioi eta
sukaldariari.
Eutsi alkar laguntzari,
jarraitu Jesus Jaunari;
Berak isuri beizuez danoi
bihotz bete sari.

11

Behartsuen izenean
eta lege zuzenean,
eskerrik asko, bakean bizi
ta osasunean.
Jarraitu sinismenean
ta gaur lez alkar lanean,
Jaunak saritu zagiezala
orain ta azkenean.

12

Hauxe da Bizian Gora,
ekarri sarri gogora:
bizia bizi eta zabaldu
aurrez edonora.
Badoa gaurko denpora,
igaro dogu gustora;
zorionean alkartu gara
gaur Elorriora!

ALKAR LAGUNTZA JAIAN ELORRIOKO ZERBITZARIEI

*Kanta dagigun danok
hau da egun alaia!
Aupa, Bizian Gora!
Kanta: Aleluia!*

1

Hau da giroa,
hau da bazkaria!
Ondo egina
eta ugaria.

2

Hemen daukaguz
Jose ta lagunak,
ez dagoz nunahi
holango egunak.

3

Mahaia zerbitzen
aingeru alaiak,
zeruko antza
dauka gaurko jaiak.

4

Irriparrez ta
kantuz ta umorez,
bai pozik neska
ta andra dotorez!

5

Eskerrik asko
bihotzez esanda,
gaur zuoi esker
goaz ondo janda.

6

Berriotxo
gure San Balendin,
bedeinka eizuz
gaur esku biekin.

7

Hogei "maria",
buru dala Jose,
ez gara inor
egarri ez gose.

8

Gu ondo, baina
gaua ez da aparte,
ondo ibili
ta ikusi arte.



Bizian Gorako Bizkaiko alkarte danak Elorrion ospatzen dabe urteroko ikaskurte amaiera: Lagunarteko Eukaristia ospakizuna, Berriotxo Balendin santuari ikustaldia eta bazkaria. Bazkalondo zoragarria!



Elorrioko zerbitzari taldea. Txistada bat nahiko izaten da, nahi beste gazte eta heldu alkartu eta "Alkarlaguntza" egunean 300 lagunoi bazkaria prestatzeko eta zerbitzeko, herriko eskola nagusian. Dana dohain, umorez eta kariñoz, Jose Agirre buru dabela. Eurak ere parte handia daukie egun honetan aurreratzen dan diru kopuruaz —aurretik zozketa bat egiten da— Hirugarren Munduko behartsuen aldeko proiektu bati laguntzeko.

Horra "lepotino" gatxez jaioten diran batzuk osatuta, igaz bialdutako diru laguntzaz.

AITITA-AMAMAK BELENGO KUMEARI ERAGITEN

1

—Ondo etorri, Jesus,
zerutik lurrera!
—Aitarengandik nator
zuok salbatzera.
—Zer Salbatzaile zara
jaitsirik hain behera?
—Danetan izan nahi dot
nik zuon antzera.

2

—Hain haundi zaran hori,
hain txiki egina!
—Gizon izatea da
nire atsegina.
—Hau, sinistu nahi eta
sinistu ezina!
—Bai, nire maitasunez
beteko bazina.

3

—Zure zain egon gara
hainbeste denpora,
—Aitak esanda nator
gaur zuen ondora.
—Inork hartu nahi ezta,
herritik kanpora.
—Gaixo, zaharren artean
hain nago gustora!

4

—Aitita-amamak gara
gaixo ta alargun
—Zuek danok eta Nik
zer antza dauka gun!
—Zahartzaroan Zurekin
egin gara lagun.
—Alkar behar dogu ta
alkar maite daigun!

5

—Zorionak, bihotzez,
Belengo mutiko!
—Ez al nozue zuek
bakarrik itziko!
—Zeuk batu gaituzu ta
jarri Zeu erdiko.
—Halan izan dedila
orain ta betiko.

6

—Zoriona itzita
zatoz arriskura.
—Horra munduak
zer deustan ardura.
—Lagunduko deutsugu
nahi dozun modura.
—Sartu poza negarra
dagoan lekura.

7

—Jesus, jaio zinan Zu
antzina Belenen.
—Nonahi jaio nahi neuke,
han izan zan lehenen.
—Graziz jaio zaitez
prest gaukazuz hemen.
—Bake poza zabaldu
ta kateak eten.

8

—Gurean deutsugu gaur
jaiotza prestatu.
—Zuen artean pozik
hartzen dot ostatu.
—Jesus, senitarte hau,
arren, bedeinkatu!
—Bakez ta pozez danok
daigula ospatu.

AITITA-AMAMAK KANTARI

1

A, a, a...

Aitita ta amama,
lehenago ginan dana,
eta orain ahal dana!
A, a, a, eta orain ahal dana!

2

E, e, e...

Astegun ta igande
gu erromerizale,
hor gabiltz jo ta dale!
E, e, e, hor gabiltz jo ta dale.

3

I, i, i...

Lan ta ardurak itzi
jubilatzen ikasi,
ahal dan ondoen bizi
I, i, i, ahal dan ondoen bizi.

4

O, o, o...

Atxurrari adio,
jaiari amodio,
ez dogula balio?
O, o, o, ez dogula balio?

5

U, u, u...

Urte batzuk pilatu,
ta nintzan jubilatatu,
baita espabilatu.
U, u, u, baita espabilatu.

6

A, a, a...

Atso eta agura,
hartu arren itxura,
ez joan ispilura.
A, a, a, ez joan ispilura.

7

E, e, e...

Umea da promesa
ta gaztea amesa,
zaharra, inork nahi eza.
E, e, e, zaharra, inork nahi eza.

8

I, i, i...

Ikusi ta ikasi
kurtsilo ta jimnasi,
orain karreran hasi...
I, i, i, orain karreran hasi.

9

O, o, o...

Gitxi, baina sarri lo
ta bizi naz trankilo,
ni naz ni petrikilo.
O, o, o, ni naz ni petrikilo.

10

U, u, u...

Zahartu eta tximurtu
eta haizea samurtu,
beste danak laburtu.
U, u, u, beste danak laburtu.

11

A, a, a...

Danak nahi daukaguna,
inork ez, dakiguna,
hau komeri astuna!
A, a, a, hau komeri astuna!

12

E, e, e...

Mosutxo baten truke
hor datoz txanpon eske,
gero: ikusi arte!
E, e, e, gero, ikusi arte!

13

I, i, i...

Dana ez da zientzi,
hobe da pazientzi,
onena kontzientzi.
I, i, i, onena kontzientzi.

14

O, o, o...

Zahartuta, kilikolo,
baina ez nok kokolo;
argi jabilk Martolo.
O, o, o, argi jabilk Martolo.

15

U, u, u...

Hau nire testamentu:
izen ona mantendu,
daukagunaz kontentu.
U, u, u, daukagunaz kontentu.

16

A, a, a...

a, e, i, o, u ta a.
Beti holan izan da,
ez atera demanda.
A, a, a, ez atera demanda.

17

E, e, e...

e, i, o, u, a ta e.
Ekin gogor jo ta ke,
eutsi behea jota be.
E, e, e, eutsi behea jota be.

18

I, i, i...

i, o, u, a, e ta i.
Guk geureari eutsi,
nahiz hanka bana hautsi.
I, i, i, nahiz hanka bana hautsi.

19

O, o, o...

o, u, a, e, i ta o.
Gaur atzo baino hobeto,
ta bihar ikusteko.
O, o, o, ta bihar ikusteko.

20

U, u, u...

u, a, e, i, o ta u.
Txarto esanak barkatu,
atostean sakatu.
U, u, u, atostean sakatu.

AITITA-AMAMAK KURUTZEAREN AURREAN

1

Hemen gaukazuz, Jesus maitea,
zure aurrean apalik,
Zeu zaitugula hor kurutzean
gure zain beso zabalik.
Aitak bialdu zinduzan, Seme,
gu ikusita makalik,
Errukarri dan batentzat ez da
inun holako magalik.

2

Urte askotan izan zaiataz
kontu hartzeko jueza,
Bizian Gorak eragin eustan
zorioneko amesa:
Aitatxo ona zaitugula-ta,
hasarretuten nekeza,
hauxe da pena, egi eder hau
lehenagotik jakin eza!

3

Aitarengandik etorri zinan,
oi, Jesus, gu salbatzera,
bizira deika ibili zinan
eskeiniz mila aukera.
Azken batean osorik emon
zure bizia berbera:
gu bizitzeko, Zuk hil beharra,
ama on baten antzera...

4

Seme bakar bat izanda, Bera
gu salbatzera bialdu,
eta Zuk, Jesus, kurutze baten
biziaren truk salbatu.
Hau jakiteak begi-bihotzak
batera deustaz zabaldu:
Zuk horrenbeste eginda gero,
zelan leiteken bat galdu!

5

Horrenbestean maite ginduzun,
hortik zure hil beharra;
egiten danaz erakusten da
maitasunaren indarra.
Jesus maitea, biztu niregan
Zureganako sugarra,
gaurtik aurrera izan zaitezan
Zeu nire bizi bakarra.

6

Hor kurutzean gora igonda
maisu on baten antzera,
zenbat kostata salbatu nozun
benetan erakustera.
Zeu zaitut lagun zahartzarorako,
zatoz laster laguntzera;
kurutz ondoan alkartzen gara
Zu eta biok batera.

7

Poz ta adorez betetzen nozu
kurutzearen oinetan,
ez naz bakarrik sentitzen orain
bideko neke-minetan.
Zeugaz batera iraun gura dot
kondizino bardinetan,
gero zeruan Zeugaz batzeko
betiko atseginetan.

8

Gaur bedeinkatzen zaitut, oi, Jesus,
nahizta ukatu behinola,
pekatariok Zugan daukaçu
salbazinoko kaiola.
Aitari deika gutzat parkeske,
borbor odol dariola...
Zu kurutzean zaitugu egiz:
gure Maisu ta Eskola.

AUPA ZAHAR GAZTEAK!

1

Jubilatuak gara,
ez da gauza motza;
burua argi dogu
ta gazte bihotza. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

2

Ordu onean dator
jubilazinoa,
Jaunaren ta gizonen
bedeinkazinoa! (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

3

Jubilazinoa da
sasoirik onena:
ondo ibili eta
hartu atsedena. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

4

Kristau jubilatua
pertsone noblia:
hemen eta zeruan
pentsino dobla. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

5

Jubilatuta gero,
egin naz formala;
hainbeste ikusita,
hau ez da normala. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

6

Gehienak egin dogu
karrera laburra,
ez daukagu galtzeko
dakigun apurra. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

7

Esku artean zenbat
paper ta liburu,
lehen hau izan bagendu
gu maisu seguru. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

8

Ez dago denporarik
alperrik galtzeko,
ahal dan ona egin ta
ondo pasatzeko. (bir)
Aire tun txikitun,
aire tun laire. (4)
Ole!

9

Baditut hainbat urte,
baina ez naz zaharra;
badot umoria ta
badaukat indarra. (bir)
Aire tun txikitu,
aire tun laire. (4)
Ole!

ZORIONAK, ANGEL ETA PILAR

1

Gorbei gainean Kurutza tente
ta beso biak zabalik,
ba ete dago bat jaioteko
ederrago dan magalik?
Goitik biak begira,
zenbat jira ta bira!
Gaur belauniko apalik:
“indartsu gūgan agertu zara,
gu egonda hain makalik!”.

2

Gorbeia aldean jaio ta bizi
esan behar da egia,
euskaldun zintzo eta kristau on
askotxoren mintegia.
Hona Angel ta Pilar,
bat gitxi ta bi lar,
ez da ona gehiegia.
Zabaldu, Jauna, bien gainera
zure zoriontegia.

3

Berrogeita hamar urte beteak
orain ezkondu zinela,
hainbeste urte baietz esaten
ez da maitasun epela.
Irabazi dozue
ta bioi zor jatzue
urre gorrizko txapela.
Angel ta Pilar, Jainkoak eurrez
bedeinkatu zaiezela!

5

Orain berrogeita hamar urte
bide barri baten hasi,
alkar maitasun garbi beroan
familia on bat hazi.
Zer dan Bizian Gora
zuen fruitu ta lora,
emon ahala irabazi...
Bihotza lagun hartzen ez bada,
buruz ezin da ikasi.

6

Berrogeita hamar urte maitatzen
hausi barik batasuna,
hau da bizitzan izan leiteken
urrezko ospakizuna.
Txalo ta zorionak
gaur bihotzez emonak,
izan bake osasuna!
Bizi garean arte ez dogu
ahaztuko gaurko eguna.



Gero eta gehiago dira, bizitzako aldapa luzea alkarregaz
igonda gero, Jesukristo Oruekoren eleizan Ezkontzako
Urrezko Ezteguak ospatzen dabean bikoteak. Angel eta
Pilar ipiñaburutarrak ondo ezagun dira Orue aldean, Bizian
Gorari esker.

AITITA-AMAMAK JAUNARI ESKERRAK EMOTEN

*DANOK BATEAN ESKERRAK EMAN
ZERUAN ETA LURREAN.*

*DANOK BATEAN ESKERRAK EMAN
ZERUAN ETA LURREAN.*

1

Lan asko egin dogu gaur arte,
oraindik bada zer landu:
geure burua landu nahi dogu,
inoiz be ez da berandu.

2

Urte askotan bizi izan naz
eta gehiago bizi nahi,
lehengoagatik eskerrak, Jauna,
barriagatik ere bai.

3

Gora ta behera, gozo ta garratz,
badakit zer dan bizitza,
etorkizuna Zugan jarten dot,
Jauna, Zeuk daukazu giltza.

4

Nekez landu dot zure soloa
eta erein dot hazia,
nire lanaren gainera betor
laguntzen zure grazia.

5

Urteak urte, eginak egin,
bihotzez, eskerrik asko!
Zeuk holan nahita, gaur zahartzaroan
pozik bizi nazalako!

6

Nork ez dau maite bere bizia?
Nork ez dau nahi bete urtez?
Nik bete nahi dot bizia urtez
eta urteak birtutez.

7

Bizi zentzunik barik bizitzan
ibili naz luzaroan,
hau loteria jausi jatana
uste barik zahartzaroan!

8

Bizian Gora izan da nitzat
eskola baten antzeko:
jubilatuta, kristau bezela
zahartzen ondo ikasteko.

9

Urtez zaharrak ta gazte izan nahi,
hau ez al dago itsusi?
Ez izan bildur! Ez izan lotsa!
Zabal atea Jesusi!

10

Helmugara arte zaindu nagizu,
ez da izango aparte;
Bizian Gora jarraitu nahi dot
Zuregana heldu arte!.

ZAHARBARRITUAK

1

Hemen gara barriro
kristau euskaldunak,
lehendik ere bagara
nahiko ezagunak.
Zenbat poztuten gaitun
alkarte egunak!
Bizian Gorak egin
gaitu-ta lagunak.

2

Urteak urte dira,
ezin da ukatu,
handik edo hemendik
gaitue markatu.
Gaur ondo gozau eta
gehiago eskatu,
Jaunak nahi baldin badau,
daiala luzatu.

3

Oraintxe sortu jaku
bigarren lorea,
nondik bestela gure
gaurko umorea?
Jubilazinoa da
martxa dotorea,
ez da errez aurkitzen
beste bat hobe.

4

Jubilatuta gero,
hainbeste denpora,
egi haundi hau sarri
ekarri gogora:
Bakarrik dabilena
ez doa inora,
danok batu gaitzean
alkarren ondora.

5

Hazur ta mamiz, makal;
espirituz, bizkor;
gorputzez beheruntz goaz;
gogoz gabiltz jator.
Jaunak laguntzen gaitu
beti errukior,
hortarako daukagu
Bizian Gora hor.

6

Jainkoari eskerrak
egin gara zaharrak,
ez gaitu lotsatuten
hau esan beharrak.
Bizian Goran hartzen
ditugu indarrak,
gogoz egiten doguz
geure eginbeharrak.

7

Lagunok, alkarregaz
baturik barriro,
hemen berotzen dogu
alkar maitekiro.
Bide onean gabiltz
nahiz izan astiro,
atxakiz ibilteko
hemen ez da giro.

8

Orain bi mila urte
Jesus jaio zala,
guk gaur maite doguna
aixkide bezala.
Bere atzetik goaz
danok egin ahala,
urte on izatea
Berak nahi daiala!

ZAHARTZARO TRISTEA

1

Bai dala gauza tristea,
siniste barik zahartzea!
Nahitaez danok goaz aurrera,
hauxe da danon legea.
Ez da, ez bardin zeruan edo
sastegi baten sartzea.

2

Nik argi daukat gogoia,
zahartzarorako asmoa:
gaur arte baino, gaurtik aurrera
hobea izatekoa.
Nire fede ta zentzuna zaindu,
arren, ene Jaungoikoa!

3

Bizitza daigun gozatu,
eta ahal bada, luzatu.
Behar danean behar egin ta
txanda danean, dantzatu.
Tokatzen dana tokatzen dala,
egin beharra gauzatu.

4

Zein urte asko zein gitxi,
ahal diranak ondo bizi.
Urte asko ta gehienak hutsik,
hau benetan da itsusi;
hobe gitxi ta danak beterik,
alperrik galtzen ez itxi.

5

Ume, gazte zein agura,
honek zer deutso ardura?
Saso bakoitzak dakar beragaz
neke ta lan zenbat-gura;
bakoitzarena da betetzea
gaur daukaguna eskura.

6

Antzinako lege zaharra:
hil arte bizi beharra.
Bizidun danon Aita Jainkoa,
entzun gure deiadarra:
eroan gaizuz Jesusen jarrai,
Bera gure Jaun bakarra.

GORA AITITA-AMAMAK ETA GAI XOAK!

1 Ilobak

Mañariako umeak gara,
danoi bihotzez egun on!
Batez be, gaixo zagozen danoi,
gure aiton eta amon.
Jaso iloben laztan beroak,
izan bake ta zorion!
Zuen ondoan lagun egiten
nahi geunke apur bat egon.

2 Aititak

Bai pozgarria, ilobatxoak,
zuen goizeko agurra!
Pozez beterik jartzen dozue
gaixoen bihotz samurra.
Zuek uxatzen dozue gure
bakardadeko bildurra,
zuen laztanez egun luzea
egiten jaku laburra.

3 Ilobak

Hortxe zagoze ohe gainean
edo sukaldean penaz,
jardun ta jardun, fedez nahastatuz
aienak "Aitearenaz".
Kurutz astuna aldapan gora
daroazue kemenaz;
arindu gura deutsuegu gaur
abestirik politenaz.

4 Aititak

Bizitza bera da, umetxoak,
liburu eta eskola,
zuen aita-amen guraso gara,
ez ahaztu gero inola.
Pozik ikusten dogu zuengan
gaztetzen gure odola,
gure negarra zuengan dago
irriparra dariola.

5 Ilobak

Gora aititak, gora amamak
ta gaixo maitagarriak;
ezti tanta bat gozatutzeko
gaur zuen bihotz larriak.
Negu latzari jarraitzen deutso
loratsu udabarriak;
ahaleginduko gara betetzen
zuen gogo egarriak.

6 Aititak

Eskerrik asko, iloba maite,
mosu bat danoi batera,
nahi gendukena, zuen bitartez,
beti jarraitu aurrera.
Zaindu eizuez aitita-amamen
sinismena ta euskera;
orain ta beti zintzo jokatzuz
Jaungoikoaren legera.

7 Ilobak

Zuen ondoan jaso ditugu
makina bat ikastaro,
zer ikasirik asko dogu-ta,
egon hementxe luzaro.
Gure Jainkoak emon beizue
poz eta grazi oparo,
aitita-amamak, bihar arte ta
egun eder bat igaro!!!



1985. urtean, Mañariako "Kirikiño" ume abesbatzak Arrate irratirako deia jaso eban, handik Bizkaiko eta Gipuzkoako aitita-amamak eta gaixoak agurtzeko astean zehar, egun onak eta zorionak opatuz. Oraindik entzuten jarraitzen ei dabez aita Martzelen bertsook.

ZAHARRAGO ETA TXARRAGO?

1

—Bertsotan egin nahi ta jo daigun puntura.

—Gaurkoan aititen ta amamen kontura.

—Euren alderdi onak dakarguz kantura.

—Hain onak ete diran nire arrenkurak.

2

—Dinoenez, zaharraġo eta okerrago.

—Ardoa zaharraġo ta hainbat gozoaġo.

—Baina ez da gizona, koxka hortxe dago.

—Ondu edo umildu, ni hobeto nago.

3

—Zenbat balio dauan zaharraren zentzunak!

—Zer zentzun euki leike txotxatu jatzunak!

—Zaharren artean izan dira jakitunak.

—Baina askoz ġehiago edan ta jatunak.

4

—Zaharren seinalea da kaskagorra.

—Gogorraġoa dozu gaur ume koxkorra.

—Aititaren leġea orru ta zigorra.

—Gurean, behintzat, bera da errukiorra.

5

—Urteak dakarrena da jakituria.

—Eskolarako dago gure aguria...

—Txintxin asko baleġo, harrapau ġuria.

—Ez dago hain ġalduta aitita ġuria!

6

—Ez da errez jakiten ġaztien konturik.

—ġazteak ez dabe nahi gure kontsejurik.

—Hortarako inoiz be ez da berandurik.

—Zer mosu-ta, aititak baleuka dirurik!

7

—Gure semeak dira
gaur zuen guraso.
—Gauzarik ederrena
hauxe da akaso.
—Gure fede, ohiturak
gogo onez jaso.
—Zertan jarri aurrean
hainbat enbarazo!

8


—Otoitz, meza ta zeru...
hau da herentzia?
—Ez da horraino heltzen
zuen zientzia.
—Jaunak gugaz beharko
dau pazientzia.
—Falta jatzuena da
esperientzia.

9

—Gorputzez zaharrak, baina
arimaz bizirik.
—Ume, gazte, zaharretan
badago guztirik.
—Guk behintzat ez dauka
galtzeko astirik.
—Zahartzeko pozik nago
zuek ikusirik.

10

—Amaitu behar da-ta,
ba al da besterik?
—Zaharrak hartu egizuz
errukiz beterik.
—Ez neban sortu nahi nik
holako nahasterik.
—Zeu be zahartuko zara,
hil ezik gazterik.



GORA AITITA-AMAMAK

1

Gora aitita-amamak!
 Hori dok! Hori dok!
 Hain maite doguzanak!
 Hori dok-eta!
 Gure txalo, laztanak,
 eurentzat dira danak.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

2

Aitita irribarrez!
 Hori dok! Hori dok!
 Amama deiadarrez!
 Hori dok-eta!
 Sarri dabilz hasarrez,
 alkar ondu beharrez.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

3

Aititak ezkutatu!
 Hori dok! Hori dok!
 Amamak bai usmatu!
 Hori dok-eta!
 Birtute nahiz pekatu,
 bada nork konfesatu.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

4

Jainko Jaunak igarri!
 Hori dok! Hori dok!
 Adan bakarrik larri!
 Hori dok-eta!
 Eba lagun ezarri,
 oi, zelango buztarri!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

5

Sarri alkarri muxin!
 Hori dok! Hori dok!
 Eztabai gogor ekin!
 Hori dok-eta!
 Baina beti alkarrekin,
 bakarrik bizi ezin.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

6

Zidarrezko eztaiak!
 Hori dok! Hori dok!
 Bailitzaz ezkongaiak!
 Hori dok-eta!
 Laster barriz kanpaiak,
 urregorritzko jaiak.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

7

Gauean ta goizean!
 Hori dok! Hori dok!
 Zer giro otoitzean!
 Hori dok-eta!
 Zer poza bihotzean,
 holako bakoitzean.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

8

Batean, dabilz goxo!
 Hori dok! Hori dok!
 Bestean, txorropotxo!
 Hori dok-eta!
 Baina alkar poderoso,
 zein maite diran, kontxo!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

9

Zenbat gau eta egun!
 Hori dok! Hori dok!
 Alkarren bizilagun!
 Hori dok-eta!
 Alkarri zer maitasun,
 itzi nahi ez alargun!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

10

Nork dau nor maiteago?
 Hori dok! Hori dok!
 Hau neurtzerik ez dago!
 Hori dok-eta!
 Gero eta gehiago,
 zeruan betirako.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

11

Alkar zerbitzen dabe!
 Hori dok! Hori dok!
 Inork agindu gabe!
 Hori dok-eta!
 Biak alkarren jabe,
 morroi eta mirabe.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

12

Maite izanak munduan!
 Hori dok! Hori dok!
 Alkarrekin onduan!
 Hori dok-eta!
 Jauna, azken orduan,
 hartu biak zeruan.
 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok-eta hori!

 Hori dok! Hori dok!
 Hori dok eta!

ZATOK ETA BIZI ZAITEZ!

1

Urte gehiago bizi nahi dogu,
nor ez da horren egarri?
Sekretotxo bat badogu, baina
ezetz behingoan igarri!
Betoz urte gehiago,
bai eta beteago;
zelan leiken zaharra barri...
Horra, zelako laguntza ona
BIZIAN GORAK ekarri.

2

Bizibidean danok nahi dogu
bizi hartuemonian,
are gehiago bat zahartzaroan
bakar xamar dagonian.
Hona BIZIAN GORA
datorkizu ondora,
gaur borondate onian.
Lagunartean biziko zara
daiteken zorionian.

3

Jubilatu bat, kristau bizitzan
ez leiteke jubilatu,
argi gorritan ez gelditzeko
ez zimendu, ez teilatu.
BIZIAN GORAn sartu,
talde baten alkartu
eta laguntza bilatu.
Eta Jesusek aitatzen ditun
ondasun onak pilatu.

4

Ni jubilate bat nazala-ta,
daana ete jat amaitu?
Bizitz atal hau zertarako da:
hausnar egin ta gogaitu?
Zer da erretirua,
buruari tirua?
Honek harritu al zaitu?
BIZIAN GORAn martxan sartuta,
azkenera arte jarraitu.

5

Sasoi batera heldu ezkeru,
gatx danak datoz batera,
gorputzezkoak asko dirala,
arimazkoak, gainera...
Nahi badozu osatu
ta barrua gozatu,
BIZIAN GORA aukera:
gatxik gatxena osatzekorik
bakarrik bat: JESUS BERA.

6

Mundu barrian noraezean
hortxe bazterrean jota,
aitita-amamak sentitzen dabe
egundainoko porrota.
Ene adiskidea,
hartu salbabidea
eta bildur horreik bota;
BIZIAN GORAn salbatu baietz
gutzat jarrita dago-ta.

SIMEON ETA ANA SANTUAK

1

Simeon eta Ana
jatortaz burura,
laurogeitik gorako
atso ta agura.
Biok jokatzen eben
profeta modura,
herriaren erdian
Jainkozko aingura;
hil baino lehen Mesias
eza gutu gura.

2

Tenpluan ebiltzala
otoi eta barau,
umetxoen artean
Jesus aurkitzen dau.
Besoetan hartuta:
"Ikusten Ume hau?
Mesias bialduta,
Jaunak gaitu salbau;
honegaz ni Jainkoak
ase ta bete nau".

3

Herriak bizi ditu
bere interesak,
beste guztiak dira
zahartxoen amesak.
Baina zaharren gogoan
Jaunaren promesak:
nahiz gizonen urratsak
izan aldrebesak,
orduan ere Jaunak
berek artezak.

4

Elizak behar ditu
ta berdin herriak
aitona ta amona
beneragarriak.
Haiek baitituzte ongi
lotzen zahar-herriak,
eta zaintzen bizirik
gure oinarriak;
beharrezko zaituzte
gaur Euskal Herriak.

5

Betoz aitona-amonak
argi ta leialak,
Espirituz beterik
ta bihotz zabalak.
Beude zabalik beren
beso ta magalak,
zer mesede dakarren
gaur zuen itzalak!
gure aitona-amonak
dira mundialak.

6

Eskaritxo bat Zuri,
oi, Jainko laztana,
lagun gure Zaindari
Simeon ta Ana:
gurasoen guraso
guretzat zarana,
haien bitartez, Jauna,
damaiguzu dana,
bedeinka gure orde
aitita t'amama.

GURE HERRIKO NAGUSIAK

1

Jubilatuak gara gu,
esan beharra daukagu.
Hirurogeita urtetik gora
lepora pilatu jaku;
“hau hirugarren edadea” da,
bai izen polita asmatu!

2

Mendian jaio ta hazi,
han ogia irabazi;
gazte denporan maiteminduta
alkarraz bizitzen hasi;
seme-alabak hazi doguz ta
ez al da nahikoa grazi?

3

Ez dogu asko zientzirik,
baina bai esperientzirik;
urteak barik, ez da erreza
eukitea pazientzirik;
bizitzak berak erakusten dau,
ez da behar lizentzirik.

4

Badakigu zer dan eza,
inor ez gara markesa.
Beti izan dogu ahoa bete
arto ez bada, tremesa.
Halan be eutsi! Hau ez da, gero,
ahuntzen gaueko amesa!

5

Bizitza ez da samurra,
hau bai egia ziurra!
Baina ogia irabazteko
dantzatu dogu atxurra;
hainbeste urtez ez dogu ukatu
ahal izan dogun apurra.

6

Zaharraren tranpak nork jakin?
Ezetz harrapau hain arin!
Testamentua egin arren be
notarioen firmakin,
danak aurkitu nahi dituanak
bajeukak nahiko zeregin!

7

Asaben lege zaharrian,
 halan da Euskal Herrian;
 Jesukristoren doktrinaz gabilz
 bere lege ederrian;
 orain ta beti hau izango da
 lege gure baserrian.

8

Adinez goaz aurrera
 ta ezin egin atzera!
 Herri guztiko adinekook
 alkarren preminan gera;
 zergaitik gu be ez gara alkartzen
 beste guztien antzera?

9

Umeak jaio ezinik
 ta gu zaharrok pot eginik...
 Gaurko munduak ez dau egingo
 gugaitik negar zotirik;
 ez da txarrena, beteko balitz
 Jesukristoren doktrinik!

10

Senar-emazte lagunak
 eta bardin alargunak:
 urte askoren mende gañoz ta
 ondo igaro egunak;
 osasunak huts eginarren be
 lagun deiskula zentzunak.

11

Guk emon dogu geunkana:
 osasun, bizi ta dana.
 Gure Jainkoak bedeinka begi
 hemen egin dogun lana;
 eta saritzat emon deiskula
 danoi zero eder bana.

12

Gazteentzat aholkua,
 guk zaharrok emondakua:
 Zuek zarena gu lehen ginan ta
 alkarri emon eskua;
 gu gaur garana laster zarie,
 hau da txandako lekua.

ZERGAITIK NEGAR EGIN?

ZERGAITIK? ZERGAITIK?
ZERGAITIK? ZERGAITIK?
ZERGAITIK NEGAR EGIN?
MAITE-MAITE GAITUAN AITA
DAUKAGU GUREKIN. (bir)

1

Aita geugan daukagu
bihotz barrenean,
geugaz bizi gurarik
alkartasunean.

2

Geure bihotz erdian
geuk noiz entzungo zain,
pozik hitz egin nahirik
maitasunaren gain.

3

Negarrez negarretan
ta pozetan pozik,
ez dau bakarrik izten
semeen bihotzik.

4

Gaixo ta behartsuak
minez ikustean,
Aita dogu barruan
deika ezustean.

5

Itsaso, zeru, lurrak
gau ta egun dizdiz,
Aita geugan dogula
esan ta esan dabilz.

6

Jesus beso zabalik
hilda kurutzean,
entzun ondo zer dinon
Aitak bihotzean.

7

Noiznahi otoitz egiten
sartzen banaz gelan,
Aitak berba ta berba
Berak daki zelan.

8

Aitatxo zain egon da
isil luzaroan,
lagun egin gura dau
neugaz zahartzaroan.

9

Entzun nahi deutsut, Aita,
otoitz isilean,
entzunaz jarri naiten
pozez pil-pilean.

10

Bizi gaitezán, Aita,
alkarraz munduan,
gero izan gaitezán
alkarraz zeruan.

11

Zu nigan zagozala
banago hain ziur,
ez naz ezeren kezka,
ez inoren bildur.

12

Emoidazu ahalmena,
Aita Jaungoikoa,
beti Zeu nigan entzun
ta sentitzekoa.

13

Nahiz argitan ibili,
ilunetan bardin,
bakez jarraituko dot
bazagoz nirekin.

14

Eskerrik asko, Aita,
gugan zagozana,
Zeugan egon gaitzezan
emon grazi bana.



Aita Martzel.

AGUR, BENIDORM!

1

Benidormen egonak
hamahiru bat egun
ta jakin nahi badozu
han zer egin dogun:
geuri begiratuta
ez al da ezagun?
Ikus zer umore ta
kolore daukagun.

2

Berrogeita hamar lagun
Bizkaia aldekoak,
buruz eta bihotzez
euskaldun petoak.
Adinekoak, baina
bihotz gaztekoak,
oraindik juergarako
sasoi onekoak.

3

Familia askotako
jente nagusia,
bizimoduan zehar
asko ikusia.
Gorputzez, makal; baina
bizirik zuzia,
jente honek badauka
zer erakutsia.

4

Ez da errez asetzen
gure apetitu,
janak janda gero be,
gehiago kabitua.
Eztul danean eztul,
noiznahi domistiku,
haize epelik bada
bota eta kittu!

5

Ondo astindu doguz
plater ta katilu,
garbantzu, arrain, okel,
goxo ta menbrilu...
Traidore jarri jakuz
pixu ta ispilu:
prakak lotu ezinik,
ai zenbat istilu!

6

Hemen esandakoa
ez da barriketa,
lagun, hau dinotsunak
ondo daki-eta.
Ahaztuta euki dogu
etxeko dieta,
ondo merezi dogu
jatun etiketa.

7

Ez da hau Benidormen
egin dogun dana,
onena esateko
daukaġu, laztana.
Kristau bizitza lantzen
ai, ġure afana!
Nun eta Benidormen
egundoko lana.

8

Eġuneroko meza
san Jaime eleizan,
ġauza ederraġorik
nekez al da izan.
Hortik zeuok iġarri
ġu zelan ġabilzan,
ġorputz t'arimaz sano
tokatzen dan ġisan.

9

Aitatu behar dogu
arratsaldekoa,
a zer jardunaldia
ordu t'erdikoa!
Aztertuz ta ospatuz
"Aita Jaungoikoa";
sekulan ezer bada,
bihotz betekoa.

10

Ondo lo eġin eta
ahal dana ahora,
paseo, jimnasia
nahi beste denpora...
Askok esango dabe:
hori dok ġanora!
Programatuta ġagoz
ġu Bizian Gora.

11

Gogorra izaten da
briska txapelketa,
batzuk eskuak hutsik,
besteak beteta.
Azkenean haxe da
danen barriketa:
"irabazten dabenak
kartak dituk-eta".

12

Aurpegi edo txanka
hartu nahi kolore,
Benidormetik ġatoz
ġorri edo more.
Holako leku baten
nork emon amore?
Benidormen ibili
gara txit dotore.

AGUR, GUARDAMAR!

*Danok batean
eskerrak eman
zeruan eta lurrean. (bir)*

1

Hamar eguntxo emon ditugu
euskaldunok Guardamarren,
osasun eta bakez beterik
etxera gatoz pozarren.

2

Jakin dagien gu nortzuk garan
berrogeita bost euskaldun;
Bizian Gora koadrila gara,
zer umore daukañun!

3

Janari gozo ta ugaria,
hori nahi dau euskaldunak;
a zer mesede egin deuskuna
jan eta edan dogunak!

4

Gure zurrutzak gauez entzunda
oilaskoak kikiriki:
"Ze etorri da gure artera,
asto, idi ala txarriki?"

5

Gure aititen eta amamen
lagunik onenak kartak,
mantsuenak be karta jokoan
a zelango zalapartak!

6

Itxura baten, gehienak dagoz
erdi itsu eta gorrak,
keinu guzurak harrapatzeko
danak juekezak bizkorrak...

7

Gorputzak findu eta bizkortzen,
sekulako jimnasia!
Ondo etorri jaku danontzat
Pilarrek daukan grazia.

8

Entzutekoak gure kantua,
honetan gara artistak;
guri entzunda harritu dira
Guardamarreko maristak.

9

Lagun haundia egin jakuna
marista anaia Joakin,
hain gitxigaitik galdu dau, baina
musean badaki, jakin.

10

Bakarrean ta taldean bardin,
zenbat otoitz ta platika!
Gaurtik aurrera, Jainkoa lagun,
jarri daigula praktika.

11

Ikasi dogu badoguzala
hainbat karisma berezi,
gaurtik alkarren alde jartzea,
jaunak, ez al dau merezi?

12

Onak jaso ta txarrak parkatu,
amaitzera noa hemen;
agur danoi ta ondo ibili
santa seculorum. Amen.

BAT, BI, HIRU, LAU

Bat, bi, hiru, lau, (bir)
bost, sei, zazpi. (bir)
Euskaldunak irabazi
irabazi, aurrera!

1

Badogu kolko bete
kontu eta kantu,
ez atzo eta ez gaur
dana ez da santu.

2

Lehendik nago hartuta
ni atentzinoa:
pentsinoa behera ta
gora tentsinoa.

3

Izan dogu bizitzan
hainbeste histori,
ez dauka edozeinek
gure kategori.

4

Lehen lana sobre eta
jan-edana pobre;
orain lanik ez eta
danetatik sobre.

5

Oker suertatu jaku
munduko karrera:
hortzak jausita gero,
txuletak aurrera.

6

Gogoan hartzekoak
zaharraren kontuak:
eskola gitxikoak,
baina ez tontuak.

7

Oheratuta itzarrik,
jagita logura;
kilikili gitxi ta
edonun hazkura.

8

Errez egiten dogu
plast plast estropezu,
orduan alperrik da
santuei errezu.

9

Hustu barruko gatxa,
kendu amorrua,
eta bete goraino
geroko zorrua.

10

Ez dago kontu danak
aitatzerik hemen;
esan daigun: "secula
seculorum. Amen".

BENIDORMEN ZER BARRI?

1

Haizeak jota, hastera goaz
umore onez bertsoan,
espabilatu gaitzean danok
inortxo balego lotan.

2

Lehendik dakigu eskola ona
Benidormen dauka gula,
gurekin honuntz datorren batek
seguru dau matrikula.

3

Gure Kaxintok behin atera dau
sobresaliente nota,
han Benidormen izanda gero,
bete-beterik dagota.

4

Jakin nahi neuke zelakoa dan
Benidormeko eskola;
jakizu, lagun, hori entzunda
kezka betarik nagola.

5

Herri askotan jaiotakoak
hainbeste andra ta gizon,
ez neban uste honelakorik
inon leitekenik egon.

6

Otoitz ta dantza, jolas ta kantu,
irrintzi ta iskanbila,
hotel Canfalin osotzen dogu
Jesukristoren koadrila.

7

Jan-edanean ontziak bete
jarri beharrez kartolak,
hemen bai errez galtzen dirala
medikuaren kontrolak.

8

Hainbeste jangai gozo aurrean
aukeran ikusi eta,
aupa, Kattalin, gaur jan ta edan,
bihar egizu dieta.

9

Goiz-arratsaldez lanik ez eta
paseatu kalez kale,
zahar eta barri, kontu-kontari
eten barik jo ta dale.

10

“Angelus” esan ondoren, batek:
“hartuko al dogu pintxo”?
Gure txakurra Pintxo bezala,
danak doaz txintxo-txintxo.

11

Giputz, bizkaitar, danetik gara
 etxe bateko eginik,
 lehengo batean gure gizonak
 alkar ulertu ezinik.

12

Batak babarrun eltze dino ta
 besteak baba lapiko,
 kale erdian makur eginda,
 ia barrez ziran ito.

13

Lehengo batean alkarren aurka
 Reala eta Athletic,
 babarrun baba hartu daiela
 aurretik edo atzetik.

14

Jakina danez, gure artean
 lehenengo lekuan kartak,
 txintxo ta mantxo ibili arren,
 agertzen dira txinpartak.

15

Hemen egunak beterik doaz,
 gauak ere ekinean;
 hemendik zurrut, handikan purrut,
 ezin egon isilean.

16

Guk Benidormen daukağun zera,
 beste inork ez daukana:
 goiz eta arrats meza otoitzez
 ospatzen dogula dana.

17

Hor eta hemen Bizian Gora
 dogu Jaunaren aldaba;
 ondo dakigu Jauna ez dala
 ondo bizitzeko traba.

18

Horra Benidorm guretzat zer dan
 bertso barriz kontatua;
 zuretzat da-ta, gogoan hartu,
 euskaldun jubilatua.

19

Kontatu dogu ahal dan ondoen
 zer dagoan Benidormen;
 Bizian Goraz joaten dana
 handik zein pozik datorren.

20

Esperientzia hau zer izan dan
 gaur esaterik ez dago,
 zeu joan zaitetz eta ikusi
 berandu baino lehenago.



Guardamar de Segura. Marista Anaaien etxean "sano dotore".



Benidorm. Nork esango euskun hau orain urte batzuk.



Benidorm. Atzeko "artoso urdin" horretan ere partedun gara.



Benidorm. Bizitza ez da lan eta lan egiteko.
Hori egin bakoak ez dira "neska-mutiko" honeik.

GORA JUBILATUEN ERREBOLUZIOA

1

Urte batzuk badira
jubilau nintzala,
eta bizimodu hau
ez dok, ez, makala!
Juergarako beti da
prest materiala,
ni pozik bizi naz ta
hau dok printzipala.

2

Etxetik urteteko
gertu gagoz beti,
lehen bizi izan gara
lotuta gehiegi...
Tokatzen jakun martxan
bide ondo segi;
eta Jainkoa lagun,
hala izan bedi.

3

Oraindik badaukagu
nahiko apetitu,
errez kargatzen dogu
busti edo siku.
Ondoren dator eztul
edo domistiku;
ez da errez egiten
gure pronostiku!

4

Batean, Agate da;
bestean, Luzia;
guk zaharrok maite dogu
santuen grazia...
Orduan osatzen da
gatxen desgrazia;
dantzarako ez dago
edade pasia!

5

Ez da bakarrik meza
ta debozinoa,
lehendik dogu Jaunaren
bedeinkazinoa.
Nahiz ta kaxkarra izan
dogun pentsinoa,
gora jubilatuen
reboluzinoa.

6

Sarri egiten dogu
noranahi balantza,
baina hara ta hona
ezin gara kantsa.
Urte batzutan behintzat
bada esperantza...
Artajorra ona da,
hobe da dantza!

7

Martxan jarri gaituna
da BIZIAN GORA,
ondo bizi nahi badok
ekarrik gogora:
lehen ere galdu dogu
nahikoa denpora,
batu gaitzan danok
alkarren ondora.

8

Gu gara BIZIAN GORAKo
Jubilau koadrila,
gehienok antzinako
neska ta mutila...
Lagun, bazabilz giro
gozo baten bila,
gure tartean dozu
zuretzako sila.

HAU DA BIZIMODUA!

1

“Hartu maletak eta
goazen Benidorra”,
hantxe barrizatzen dau
aititak motorra...
Eta amamak zelan
bizkortu mokorra!
Hau behar genduan ta
hau dok artajorra!

2

Jan, lo eta ibilli,
kantu ta kontua,
kafia hartuta gero
kartetako ordua.
Guk ez genkian zanik
hain ona mundua;
dana joan zalakuan,
hau bizimodua!

3

Lagunak onduan ta
eskuan Biblia,
aspaldian egin naz
Jaungoiko zalia.
BIZIAN GORA dogu
gure familia,
jubilaziorako
hau erregalia!

4

Canfali hotelean
hirurogei lagun,
hau bizimodu ona
hamahiru bat egun!
Hotelean eleiza
ez dago edonun;
gu edonun gara ta
euskaldun fededun.

5

“Benidormera ez da
sartu holakorik”,
guretarik ez ei da
burutik sanorik;
Gu baizen ondo ez da
munduan askorik;
gu zoriontsu gara,
nahiz egon zororik.

6

Anaiarte gozoan
ez da gauza txarrik,
hemen ez dot sentitzen
pastila beharrik
Gu baino hobeto nor,
ez gazte, ez zaharrik?
Munduan, behintzat, ez;
zeruan bakarrik.

7

Osasunez beterik
gorputz ta arima,
bizitzen jarraitzeko
zelan ez anima?
Gure BIZIAN GORA
dagigun estima,
askok ez dakie ta,
hauxe da lastima!

8

Gauza bat da esana,
beste bat izana,
erditxo bat ere ez da
esan ahala dana...
Ikusten dozu pozik
pil-pil gabilzana,
ez dakizu hau zer dan,
ai, ene lastana!

9

Hementxe betetzen da
Jesusek dinona:
“ogiz bakarrik ez da
asetzen gizona”.
Benidormeko zer hau
hain da gauza ona,
hementxe txastatzen da
zer dan zoriona.

10

Ondo ibilli gara
Benidorm partian,
denok umore onez
eta anaiartian.
Osasun, bakez bizi
bien bitartian,
Jaunak alkartu arte
datorren urtian.



Benidormen.

HAU DOK GANORIA!

*HAU DOK! HAU DOK! HAU DOK GANORIA!
ERREGE ASKOK GURA LEUKIEK
GURE UMORIA!*

1

Euskaldunak gara-ta,
euskaldun nahi bizi,
beste guztiak onak dirala,
geuria nagusi.

2

Baserritarrak gara,
ezin da ukatu,
jende euskaldun ta fededuna
horixe gara gu.

3

Badakigu lanian
ta ondo bizitzen,
karrera barik ikasi dogu
munduan ibiltzen.

4

Famili bat hazita
orain gozau daigun,
Jubiladuok, ondo ibili,
Jaungoikoa lagun.

5

Ondo ibili eta
baztarrak ikusi,
hainbeste urtez lan egin eta
ez daگو itsusi.

6

Azken batian ona
jubilazinoa;
Aupa, mutilak! Hauxe bai dala
bedeinkazinoa!

7

Ondorengoentzat da
gure herentzia;
gure ondosun, fede, ohitura,
esperientzia.

8

Indarrak beherantza ta
gogoia bizirik,
BIZIAN GORA jokatu daigun,
badoگو astirik.

9

Hartu genduan dana
hor dogu emona,
seme-alabak ondo ikustea,
gure zoriona.

10

Urte asko ta onak
bota bizitzari,
eta urteei bota gogotik
bizitza ugari.

11

Asko bizi ondoren,
gehiago bizi nahi,
neke lan asko izan dogu-ta,
gaur egin daigun jai.

12

Mundu barria ei da
etorri jakuna,
barri nahiz zaharra, gizon izan ta
ez galdu zentzuna.

13

Gazteak gazte dira
eta gu nagusi,
guk be badoگuz eskubideak,
eta ez galtzen itzi.

14

Agur ta ondo bizi,
jubilatuta maite!
Alkarren lagun behar dogu-ta,
hurreratu zaitte!

HAU DOK HAU BIZIMODUA!

1

Inork entzun nahi ez ta
hau entzun beharra:
lehen sasoikoa zana
orain dago zaharra.
Bizi danak zahartzea
dau bide bakarra,
askok zahartu baino lehen,
jo dabe baztarra;
jubiladutzan ere
ez da dana txarra.

2

Gorputzaren aldetik
egin naz baldartu,
inork esan barik naz
ni hortaz ohartu.
Gorputzez galdu ahala
zentzunez indartu,
bide bakar bat dozu:
umorez onartu,
ezinak zuzentzen ez
burua behartu.

3

Jaiotzez euskalduna
gure izaera,
ta kristau fededuna
horregaz batera.
Ez bat eta ez beste,
ez goaz galtzera;
BIZIAN GORA dogu
gaur gure aukera;
hau da gure bidea
eta jo aurrera!

4

Jakin nahi dozu, lagun,
gu zelan gabilzen?
Bizitzan egindako
hondarrak garbitzen.
Anaiak gara eta
senide sentitzen,
kontu kontari ez da
inortxo isiltzen;
ez da errez gu baino
hobeto ibiltzen.

5

Ez da emakumerik,
ez eta gizonik,
gu baizen zoriontsu
munduan dagonik!
Jainkoa falta bada,
ez da gauza onik;
eta Jaungikoagaz
bada zorionik,
ez dot uste Jesusek
guzurra dinonik!

6

Hortxe gelditzen dira
esanak esanda,
orain heldu jaku-ta,
egiteko txanda.
Hau ez da izan, lagun,
geure propaganda;
zeu jakitun jartzeko
bakarrik izan da;
zer dan zeuk aprobatu
bertara joanda.

ESTU TA LARRI SAN PEDROREN AURREAN

1

Igarri barik goaz
bizitzan aurrera,
hauxe da aprobatu
behar dan karrera.
Bizian Gora dogu
guk zaharrok aukera,
san Pedrok daki zelan
kontuak atera.

2

Aitearen eginda
banan hasi dira,
besteak baztarrean
ikaraz begira.
Zelan izan dan ondo
baneki sikira...
Baina ziur ez dala
izan kalejira.

3

Katxini: Ene aita san Pedro,
neu nozu lehenengo,
badakizu gorputzez
ez nago hain sendo.
Aprobatutxoren bat
nahiko da aurtengo,
ikusiko zenduke
indartsu banengo!

4

Pedro: Atxakiak asmatzen
hartu deutsut traza,
batzar egunez sarri
porru edo aza...
Katxin, sasi eskolak
ondo errepara;
igaz juxtu-juxtu ta
aurten kalabaza.

5

Braulio: Hemen dator Braulio
gaur zure aurrera,
san Pedro, izan zaitez
nitaz bihozbera.
Beti sortzen da kartak
ta zereko zera;
zuzenduko naz eta
ez bota atzera.

6

Pedro: Zer da zereko zera,
ai, ene Braulio?
Hemen asmakizunak
ez dabe balio.
Hor zabilz ez batzar ta
ez ebanjelio...
Atxakiak atxaki,
kurtsoak adio.

7

Fidela: Hirugarren lekuan
neu nator zugana,
izenez lez izatez
Fidela nazana.
Bizian Gora, Pedro,
niretzat da dana;
ilunetik argira
atera nauana.

8

Pedro: Orain aztertzen dogu
Maria Fidela,
bera Bizian Goran
zintzo dabilela.
Baina sarri joaten da
etorri bezela:
gehienetan dakarzu
igazko papela.

9

Txomin: Kanpo aldetik nago
makal ta herrena,
zuk ezagutzen dozu
Txominen barrena.
Hauxe da zahartzaroak
berez dakarrena:
Izan zakidaz, Pedro,
aita samurrena.

10

Pedro: Bata makal dagola
ta bestea herren,
baina ikusi dabe
Txomin Guardamarren...
San Pedro ona da-ta,
esaidazu, arren:
zer egin neike danoi
aprobatzearren?

11

Guztiak: Hara zer otu jakun,
berton momentuan:
Zeri zer jazo jatzun
Jesusen onduan?
Portatu zaitetz gugaz
Jesusen moduan,
zeu lez izango gara
geu be hurrenguan.

12

Pedro: Gogoz beroak, baina
hara gíz makalak;
ni lez zuek be Adan
zaharraren ospalak...
Damutu gaitetzala
ta izan apalak,
parkatu, baietz, Jesus
Jaun bihotz zabalak.

13

Pedrok eta guztiak: Ez dau asko balio / gaurko esaminak,
askoz gehiago dira / zuen bihotz minak.
Zuen alde egin dau / Maria Birjinak,
ta datorren urtean / egin ahaleginak.

GEURIA DA-TA

Geuria da-ta, geuria da (2)
geuria da-ta, geuria (3)
geuria da-ta, da-ta... Euskal Herria.

1

Euskal Herria
 maite-maite dogu,
 gu beti izan
 gara euskaldun;
 eta gure
 Lege Zaharra danez,
 euskaldun gara
 eta fededun.

2

Gure asaben
 ohitura garbiak
 beti nahi doguz
 zintzo jarraitu;
 bizi garan
 birtartean behintzat
 ez daigun letra
 zaharrik ukatu!

3

Gizaldietan
 hemen izan gara
 gure herriaren
 jaun eta jabe;
 hil nahiz bizi,
 guk aitita-amamok
 jokatu daigun
 huts egin gabe.

4

Zaharrak garala
 guk ezin ukatu,
 zahar izatea
 al da pekatu?
 Askoz hobe
 zaharrak garalako
 Jauna eskertu
 ta bedeinkatu.

5

Eskola gitxi
 ikasi genduan,
 baina argirik
 bada buruan.
 Urte asko
 bizi izan gara ta
 badakigu zer
 dagon munduan.

6

Bizian Goran
 ikasi doguna
 hortxe argitu
 jaku zentzuna.
 Zahartzaroan
 eskola horregaz
 hau loteria
 jausi jakuna!

ALELUIA!

1

Gu zure Herri garana
gatoz pozez Zuregana,
onartu gágizuz, Jauna. Aleluia!

2

Zein pozik batu garean
Jesusen maitasunean,
guztiok Aitarenean. Aleluia!

3

Seme-alabok, batera
gatoz Aitaren Etxera,
Berarekin egotera. Aleluia!

4

BIZIAN GORA gara gu
gauza haunditzat daukagu
alkarren lagun, Zu ta gu. Aleluia

5

Eskerrak Zuri emonez
ta bihotzak zorionez,
Aitari dagokionez. Aleluia!

6


BIZIAN GORA bidetik
goakizuz erbestetik,
Jesus Onaren atzetik. Aleluia!

7

Gaur kurtsoaren azkena,
eskerrak, Aita onena!
Gora Aitaren izena. Aleluia!

8

Kurtso bat dogu amaitu,
baina nahi dogu jarraitu;
Jaunak zainduko al gaitu? ALELUIA!



Joxe Mari Beldarrain Martzeli Urrezko Eztegetan —Elorrión Alkarlaguntza ospakizunean— txapela buruan ezartzen.

Gizatasunez

*Jainkoaren Seme maitea
gizatasunez da jantzten,
oi, ontasun egiazkoa
Jainkoa gurekin egoten.*

Hau abesten dogu "Angelus" euskal abesti jakinean. Eta hauxe sinisten dogu: Jainko Semea gizatasunez jantzi zala, giza seme jainkotasunez hornidu nahirik. Gizatasuna noraino jaso izan dan! Holan dalarik, gizatasunak emoten dau kristautasunaren mailea, grazia..., lagun! Egon ere, basakristau askotxo dago. Bizi dinamika horren harian datoz txorta honetako bertsoak: barrez zein negarrez, igurtzika nahiz harrika, benetan edo txantxetan, baina beti gizatasuna orraztu eta liraindu nahirik. Baleiteke aita Martzelen piper hautsak eraginda, domestikun batzuk egin beharra izatea.

ADINEKOA ETA DENPOREA

1

Behin jaio nintzan mundu hontara
orain hainbeste denpora,
uste baino lehen urterik asko
pilatu jataz lepora.

Nahitaez martxan sartu nintzan ta
ezin aldendu inora.

Albo lokarri danak etenda
sartu nintzan itsasora,
zenbat olatu, hainbat arrisku,
ez-bai joango hondora.

Baina argi bat gogora
eta lagun bat ondora;
geroztik biok alkar hartuta
aurrera goaz gustora.

Zuri eskerrak, ezagutu dot
Jesus, hau Bizian gora.

2

Gure munduko bizi denpora
heldu da azken aldera,
sortu gaituan Jainkoak Berak
ezarri deuskun legera.

Jubilatuta, hartu dot deia
Jaunaren mahaian jartera,
bion artean zer hartuemon,
adiskideen antzera.

Hau da bizitza! Hau da jarduna!
Dana Jaunağaz batera.

Oi, Jaungoiko bihozbera!

Nire Aita-Ama zera!

Pozik natortzu Zeuk maitasunez
egindako konbitera;

ğaurtik maite dot Bizian Gora,
hauxe da nire aukera.

3

Bizitza bera eskola bat da,
irakatsiez betea,
geure lana da ġauza bakoitza
zer zelan dan ikastea.

Guk badakigu zer dan bakea
eta zer dan ġerratea;
ez dala bardin sabela hutsik
ta beterik eukitea.

Guk bietara jokatuteko
badogu borondatea.

Ez da bardin esatea
eta bizi izatea!

Hau zoriona, orain hemen ta
gero eternitatea!

Nagusiontzat Bizian Gora
da unibertsitatea.



"Denporeak urre gorriak baino gehiago balio dau" entzuten da sarri. Horra jubilatua inor baino aberatsago. Hau hondamendia, hainbeste ondasun aldean euki eta gehiena alperrik galtzea!

ATZO, GAUR, BIHAR, ETZI

1

Urte bat joan da, joan da betiko,
hasi dogu urte barri;
bat hil jaku ta, beste bat jaio,
bitartian gu bai larri!
Bitartian gu bai larri!

2

Egun bakoitzak beragaz dakar
behar dauan hainbat karga,
atzo, gaur, bihar nahastu ezker
gizontxo batentzat lar da.
Gizontxo batentzat lar da.

3

Atzoko atzo, atzo joan zan ta
gaur zergaitik bizi atzo?
Gure Jainkoak ondo daki-ta,
nori zer ardura deutso?
Nori zer ardura deutso?

4

Gaur bizi gara, hau bizi poza!
Egin daigun gaur gaurkoa;
Gaur eta hemen bizi gaitez
hortxe bai dago joko.
Hortxe bai dago joko.

5

Nork daki bihar zer izango dan?
Bihar itzi, ba, biharko;
Jaunak bakarrik daki hori-ta,
Berari itzi beharko.
Berari itzi beharko.

6

Atzo ta bihar gizon batentzat
biak dira misterio;
biak ondoen konpontzen dira
gaurkoz jardunaz serio.

7

Bizimodua ez da izaten
gehienbat modu bizia,
geure aldetik ahalegin eta
Jauna, Zeuk emon grazia.
Jauna, Zeuk emon grazia.

8

“Atzo” ta “bihar” onak dituzu,
baina “gaur” dozu onena,
ondo igaro daizula, lagun,
baleiteke “gaur” azkena.

BAI TA EZ, EZ TA BAI

*BAI TA EZ, EZ TA BAI
EZTABAIDAKO AUZIA;
EZ TA BAI, BAI TA EZ
BADAENZPADA KO GAUZIA.*

1

Lagun, munduan zer barri?
Zer dagon begira jarri:
itxura onak bai sarri,
baina barrutik zer larri!

2

Zenbat burruka ta auzi,
ta ezin kontuan jausi:
danok nahi dogula nausi,
bestela muturrak jo t'hausi.

3

Norbera beti da maixo,
danak burumakur: kaixo;
kontra dagonaren gaixo,
jo ta haustu, zer arraixo!

4

Gazteak zaharrari irri,
zaharrak gazteari zirri;
azkenean, kakapirri,
alkarri deutsola tirri.

5

Batak dino: zuri dala,
besteak baltz edo hala;
ez dala eta badala,
ai, zelango astrapala!

6

Nirea neretzat dana,
ta zurea erdi bana,
berbetan dogun emana...
Baina besteentzat lana!

7

“Gizon danok gara anai”,
horreek dira hitzak ja-jai!
Ezpainez dinogu: bai, bai,
baina egitez... tralarai!

8

Gaur dana da: “alkar maite”,
baina kontuz ibil zaite,
mila promesa ta koipe
eurena iritsi arte.

9

Nahiz ta ilargira ixon,
gixona beti da gixon;
nahiz aita santu, nahiz Nixon,
hil ezkeru, kirieleison.

10

Esanak esanda gero,
jokatu daigun bero,
zuzen ibili ezkeru,
errukituko da Pedro.

BAKEAK BAKEA DAKAR

1

Bada gauza bat pozgarri,
nor ez da bere egarri?
Bera barik gabiliz larri.
Bakea dala, zeinek ez deutso
honenbestegaz igarri?
Galtzen da errez ta sarri,
zelan lehenera ekarri?
Ezin da legez ezarri.

2

Zein sakon dan ta iluna
gizakiaren barruna!
Zerk bete haren hutsuna?
Gauza ederrak dira batera
dirua ta osasuna...
Baina dana da lizuna
ai, ez badauka, laguna,
bakeak jabetasuna.

3

Bakea nahi dau umeak,
bardin bakea gazteak
eta guraso jendeak.
Eta nun dauka asebetea
bake onaren eskeak?
Alperrik dira legeak,
edo buztarri edeak...
Bakea dakar bakeak.

4

Makina bat zalaparta,
bake bila zirti-zarta,
inor ezin da aparta.
Politikoeak hor dihardue
ostikoz edo adarka;
oker al nabil marmarka?
Bakerik ez bada, parka:
faltsua da bere marka!

5

Zer da hoberik munduan,
ez da besterik zeruan,
ez dagona inpernuan:
bake gozoa, bake betea,
barruan eta inguruan.
Dana dago seguruan,
bihotzean ta buruan,
bakea dagon lekuan.

6

Ez dago ezer lortzerik,
ez bake, ez besterik,
ez bada hartzen nekerik.
Munduan ezer ederrik bada
ez da beste bat hoberik:
ez uka zure parterik
eta ez itxi aterik,
gura badozu bakerik.

7

Gaur joten dogu batera;
bihar itsuan, bestera;
noraezean antzera...
Ene Jainkoa, ekarri gaizuz
gizasemeok senera!
Begira gure artera,
zeure beharrean gera;
zuzendu gaizuz bakera!

8

Entzun, oi, Jainko maitea,
seme-alabon eskea:
arindu gure nekea!
Biztu eiguzu bake gogoa,
argitu borondatea;
zuzendu gure bidea,
baketu euskal jendea,
Zeuk emoi guzu **BAKEA!**

BATZARRETIK BATZARRERA

1

Batzarretik batzarrera,
 hauxe da gaurko karrera.
 Jo batetik bestera,
 atzera ta aurrera...
 Azkenean zer, Patxiko?
 Ia dana alperriko!

2

“Aitaren eginaz hasi:
 Jauna, emoiguzu grazi”.
 Laster orru, garraxi,
 Peru ta Mariñaxi!
 Agur, Ebanjelioak;
 orde, patrifilioak...

3

Behar da alkarrizketa,
 baina nork daukan kisketa.
 Goñor bada kasketa,
 ha zelango nahasketa!
 Dana dala, “geu nagusi”,
 bestela “musturrak hausi”!

4


Aixkide, hau komeria,
 hau dok hau batzarkeria!
 Laster da aberia,
 nagusi azeria...
 Heldu da amaitu beharra:
 “noiz da hurrengo batzarra”?

5

Esanak esanda gero,
 jartzen gara bero-bero.
 Handik aurrera zero,
 ez gagoz on espero...
 Ia alperrik gagoz hemen,
 orduak jo dau-ta: amen!

6

Lege barri edo zaharra,
 dagona bete beharra.
 Gaurkoa da bakarra
 “batzarraren batzarra”.
 Alkarbizitzen ikasi,
 hauxe dok, ba, demokrazi!



Munduari bihotz handiz eta begi argiz begiratzen eutsan Joan XXIII. aita santuak. "Bakea lurrean" izenburuz argitaratu eban enziklikak arrakasta itzela izan eban gizartean. Benetako bakerako lau osagai eskatzen ebazan: egia, askatasuna, justizia eta karidadea.



Urtero Arantzazura bake eske. Bide luzea eta aldapa latza Arantzazura; areago bidez bide bake bila. Bake Eguzkiak xurgatuko al ditu lehenbailehen inguruko laino moltzoak?

ITXAROPEN ERAGINKORRA ETA ALAIA

1

Gaurko moduak antza
dau barriarena,
halan dau izena;
nik badodaz zalantzak
ete dan zuzena.
Bada harrokeria
ta aurrerapena,
baina ezin dau lortu
gauzarik onena:
falta dau bizi poza
ta itxaropena.

2

Antzekoa izan zan
Adanen amesa,
Satanen promesa:
zerua aginduta,
inpernuko leza.
Lurraz jabetzea da
bere interesa,
baina Jainko barik da
joko aldrebasa;
beragaz jabetu da
neke ta estresa.

3

Lehenago ta gaurkoa
zer dan badakigu,
geu gara testigu;
aprobaturik gagoz
busti eta siku.
Jabe izatearren
ez jausi katigu,
saria dalakoan
litzake kastigu.
Mendi dana inoiz be
ez da perretxiku.

4

Gauzak hartu nahiz itzi
behar da neurrira,
sarritan erdira;
gizonago izaten
laguntzeko dira.
Ahalegindu bizitzen
sinismen argira,
itzi Jaunari sartzen
zor jakon tokira.
A zer Jainko, egiak
guzurak balira!

5

Badogu bizitzaren
esperientzia,
ez da zientzia;
ondorengoentzako
gure herentzia.
Txandaka datoz poza
ta penitentzia,
kalte da batagaitik
bestea kentzia;
ezina ezina da
ta pazientzia.

6

Gauzak holantxe dira
gaur eta lehenago,
ni horretan nago;
hau ikasten dauana
biziko da bapo.
Itxaropenez bizi,
ez esan *akabo*,
atxo joan zan ta *bihar*
etorteko dago;
gaur hau dozu bakarrik
eta jo ordago!

ONDORENGOENTZAT ARGIA

1

Umetatik izan dot
kristau sinismena,
neure aitak ta amak
emon eustena.
Gazte denporan sarri
izan zan etena,
baina gure Jainkoak
ez nindun kondena.
Gero ondorena
da zati onena;
nire salbamena,
jubiltzearena.
Lehenago hasi eza,
hauxe da pena!
Bizian Gora nire
bedeinkapena.

2

Liburu kontuetan
ez naz jakituna,
baina gaur argi daukat
kristau zentzuna.
Onean ta txarrean
hau da erantzuna:
"Egizu nigaz, Jauna,
Zeuk gura dozuna".
Hau da ondasuna!
Hau da osasuna!
Argituz iluna,
bete jat hutsuna.
Hau da, Jauna, Zuk nigan
egin dozuna;
lehengo ezezaguna
gaur dot laguna.

3

Urte askori esker
egin naz nagusi,
gaur badaukat gazteei
zer erakutsi.
Alperrik da egiak
bertan behera itzi,
hor agertuko dira
bihar edo etzi.
Txarrera ez jausi,
kate txarrak hausi;
eta libre bizi,
hori da lehenbizi.
Aukera badozu ta
gaur bertan hasi,
deika daukazu eta,
jarrai Jesusi.

4

Nire kristau bizitza
ez gatz, ez ganora,
erdi hutsik joan da
hainbat denpora.
Zorionez heldu naz
jubilazinora,
ta orduan sartu naz
egizko jokora.
Ez lotu lehengora,
ez sartu zokora,
ez ihes kanpora,
jo neban hondora!
Eta han heldu jatan
Jesus ondora.
Zein bide ederra dan
Bizian Gora!

EZ INDARKERIARIK!

*EZ DAGO LEHENGORIK, EZ DAGO GAURKORIK,
EZ DAGO KRISTO LANGORIK! (bir)*

1

Munduan beti izan dira
alkarren aurka indar bi:
ezpata edo zentzun bihotza;
honetan nor dago garbi?

2

Gizon askoren jokoa da gaur:
“ahal dauanak nahi dauana”,
txandaka, baina hor jausten gara;
hori dan harri labana!

3

Piztiak ez dau zentzunik eta
jo behar adar ostikoz,
gizonok sarri, zentzun ta guzti,
piztiagoak gara gaiztoz.

4

Okerrak zuzen jarri behar ta
zelan edo halan ekin;
bide okerrez azken zuzena?
horrela ez goaz urrin!

5

Zigor, espetxe ta metrailetak,
petardo ta goma dos,
kostako jakuk bide hortatik
ezertan jartzea ados.

6

Zigorrez joka edo tiroka,
lagun zintzorik ez dago,
ezti tantoaz euli gehiago
upel bete ozpinez baino.

7

Inor epaitzen jartzen bazara,
jokatu neurri zabalez,
biolentzia zeugan ikusi
ea ona dan ala ez!

8

“Gordeaz galdu, emonaz gehitu”
hau da Jesusen doktrina,
jaunak, bestelan gengokez hemen
Bera langoak bagina!

9

“Etsaiak maite, lapurrak salbau,
hiltzaileen alde erreğu...”
Gizon haundia nor dan neurtzeko
aukera ona hor dogu.

10

Giza hiltzaile bat hil ezkeru,
biak bardin egin dabe;
bakotxak ditu bere errazoiak,
baina biak parez pare.

11

“Herri maite, neuk salbauko zaitut
jartzen banozu alkate”.
Salbatzaileak morroi izanak
zeren zain zagoz gaur arte?

12

Diktadore bat hiltzen da, baina
hor geratzen da hazia,
legezko edo sasiko dira
baina “aitaren” errazia.

13

Ez errezena, bai zuzenena,
Jesusen jokabidea,
otoi Berari, ez da, ba, hori
berez abilidadea.

14

Gora gizona, gizon dalako,
eta behera gorrotoa!
Orain ta beti emon deiogun
maitasunari botoa.

15

Errazoi danak dira alperrik
ez badago sinismenik,
hau ezina da, onartu ezik
Jainko Aitaren izenik!

16

Bat edo beste zeuk aukeratu:
“Maitasunaren indarra;
edo bestelan gorrotoaren
amorru eta sugarra”.

GEURE BURUARI BARREZ

*IKUSI-MAKUSI,
KONFORME BIZI DANA,
BERA DA NAGUSI!*

1

Batzuetan negar zotin
ta besteetan barre,
ni konforme bizi naz,
iso edo arre. (bir)

2

Ohetik jaiki baizen
laster ispilura,
neu hantxe ikustean
jatort barregura.

3

Zelan alaitzen dodan
aurpegi tristea?
Neuk neure buruari
kontatuz txistea.

4

Inoiz etortzen bajat
umore larria,
kili-kili eginaz,
blast irribarria.

5

Gauzak ahaztu ta galdu,
ta zer egin hari?
Onena barre egin
zeure buruari.

6

Eztul eta gorroa,
sarri domistikun;
"Aitearen" eginaz:
dominus vobiscum.

7

Begiak lausotu ta
belarriak gortu,
disimulatu barik
hobe da autortu.

8

Ibili nahi ta ezin,
eskuan makila;
hauxe dot bidelagun,
zintzo ta isila.

9

Edonoiz ta edonun
urteten deust tarrat,
zer egingo jakok, ba?
Agur, Matxin parrat!

10

Lo egon beharrean,
ekin errezetan;
mezatara joanda,
sarri amesetan.

11

Gauzak gorde ezinda
dana dariola,
alboan dagoanak
igarri daiola.

12

Jainkoak egin gaitu
atso ta agura,
geu konforme bagara,
zer deutso ardura?

13

Holantxe egin gaitu
gure Jaungoikoak,
atso-agura gara
lehengo mutikoak.

14

Zoritxarrez hil ezik
lehenago gatzetan,
apurka joan behar
gastetan, gatzetan.

15

Prest gagoz betetzeko
Jaunaren esana,
ez jaku inoiz damu
hain zaharrak izana.

16


Onartzen dogu pozik
gure edadia,
Jaunak emon deiskula
konformidadia

17

Ditugunak ditugu,
ez kendu urterik;
danak ez dabe izan
holango suerterik.

18

Orain arte holan da
ta izango beti,
Jauna, Zeuk nahi dozu-ta,
halan izan bedi.



IKASI ONDO SUFRITZEN

1

Atzo, gaur eta bihar,
beti neke-mina,
ume, gazte ta zaharrak
hileta bardina.
Lehen, orain eta gero
betiko doktrina:
neke-minak geugandik
aldendu ezina.

2

Nork ete dau errua,
Jaungoikoak Berak?
Batzuetan inork eta
besteetan noberak.
Oker egin ezkeru
munduko aukerak,
hortik datoz minezko
mila gorabeherak.

3

Asmo txarrez etorri,
ta nahiz berez sortu,
eraz hartu ezkeru,
onik asko lortu.
Jaunaren deia dozu,
ez bihotzez gortu;
holakoan hamaika
ohi dira bizkortu.

4

Dana da neke-mina,
ez al da Jainkorik?
Bai, hortxe dagoz
alkarren ondorik.
Hobe dozu fedean
iruntsi osorik:
zelan leiteken izan
nigaz holangorik?

5

Jaunak ez eban sortu
gure neke-mina,
Jesusek lez onartzen
egin ahalegina.
Izan gura badozu
askatzaile fina,
bide bakarra dala
eukizu jakina.

6

Zigorrak ta zauriak
iseka ta txistu...
nor ta zenbat zarean
zuk hortxe egiztu.
Alai ta sendo iraun,
maitasunez biztu:
"Tomas" askok zügan
baietz gaur sinistu!

7

Zenbat maitatzen dozun
 nahi badozu jakin,
 hainbat sufritzen dozu
 neurria da bardin.
 Maitatzean sufridu,
 beti ez da atsegin,
 sufritzean maitatzen
 egizu ahalegin!

8

Bizi penitentzia
 badao nahikoa,
 gizona onduteko
 da sekulakoa.
 Baina kontuz ibili:
 ez mindu hurkoa;
 on eginaz bentzidu
 zeure kontrakoa.

9

Nahi badozu, aixkide,
 egiz zoriona,
 jakin egizu ondo
 hau zeugan dagona.
 Neke-minen aurrean
 zaindu gogo ona,
 jokatu bildur barik,
 hori da gizona!

10

Ikusiak ikusi,
 hau ezin ukatu
 eta bizitzan zehar
 sarri gogoratu:
 hau dala "gau txar baten
 penazko ostatu";
 ez emon leiken baino
 gehiago eskatu.

IRRIBARRE EGIZU

1

Zelan urte barruan
dan udabarria,
halan gure bizitzan
da irribarria.
Jaunaren irudia
gugan ezarria,
Jainko- seme garala
da ezaugarria.

2

Bihotzetik darion
maitasun pilpila,
besteengan sartzen dan
lapur on isila.
Badaki edegiten
giltz ta maratila,
askatuz katibua
ta berbirtuz hila.

3

Irribarreak daukan
grazizko indarra,
berak gozatzen daki
samin ta negarra.
Gaurko munduak badau
horrexen beharra;
irribarre egizu,
gaztea nahiz zaharra.

4

Ume jaiobarriak
oinei eraginez,
danok txoratzen gaitu
irribarre eginez.
Irri ta irri dago,
besterik jakin ez;
gehiago esan al da
hitz eder ta finez?

5

Irribarrea baino
 zer merkeagorik?
 Eta ezerk ez dauka
 bere baliorik.
 Ez ukatu inori
 hain gauza gozorik;
 gustatzen ez jakonak
 ez dauka gustorik!

6

Ez abere, ez pizti,
 ez beste izaki,
 irribarre egiten
 geu bestek ez daki.
 Itzi maina ta plantak
 ta beste atxaki,
 irribarre dagigun,
 gu gara gizaki!

7

Jaunak eginak gara,
 hau da albistea!
 Ez al da pozgarria
 guk hau sinistea?
 "Tristea dan santua
 da santu tristea"...
 Sarri, otoitza baino
 hobe da txistea.

8

Irribarrearena,
 hori bai saria!
 Gehien balio dauan
 maite oparia.
 Oi, irribarrearen
 birjina Maria,
 izan nadila Zeu lez
 irriparlaria.

ITSU AURREKO

1

Aixkide batzuk alkartu ginan
aurtengo udazkenian,
astetxo bete igaro nahirik
Gorbeia mendi gainian.
Gure Nikola itsua han zan
ta Peli aldamenian,
harrezkero nik hamaika bider
dinot neure barrenian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

2

Eder pozgarri da eguzkia
Gorbeian egunsentian,
zuhaitz ta txori, ardi ta pizti
bada ederrik mendian.
Itsua dauka ikusi-nahia
bere barru sakonian,
Peli laguna ondoan dauka
esan ahala esanian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

3

Hamaika bider egon izan da
Nikola Gorbeia aldian,
lehengo ederrik gaur ez ikusten
bere begien aurrian.
Berbaz ta kantuz hor dauka Peli
eten bako jardunian;
horra argia nundik sortzen dan
bien alkartasunian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

4

Gailur ta troka, harkaitz ta lupetz,
mila arrisku bidian,
baina Nikola ibili dabil
mendian zehar, Gorbeian.
Esku-makila esku batian,
Peli laguna bestian.
Zer pentsamentu etorri jatan
mirari hau ikustian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

5

Gorbeian zehar argirik eza
bebingoan datorrenian,
zelango poza lagun zintzo bat
laino lodien erdian!
Bizitzan zehar argi ilunak
gitxien uste danian,
orduak daki batek zer dan hau
norberetik jakinean:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

6

Gizon itsua gauza hutsa da
baso mendi zabalian,
hara ta hona dabil gaixoa
galduta noraezian.
Mendian eta bizitzan bardin
gertatzen dan bakoitzian,
zer zoriona esan ahal badau
itsuak bakardadian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

7

Nikola-Peli, hau bikotea
alkar anaitasunian!
Itsua argi, zantzo, irrintzi,
beti alaitasunian.
Bihotz zabalik Peli laguna
inguratzen jakonian,
bizi poza ta argi betea
sortzen jakoz ilunian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

8

Aldamiñapen gora ta gora,
gailurrera azkenian,
itsu ta guzti laster gengoan
Gorbeiko Kurutz oinian.
Danon Amari mosu bero bat
emonaz sinismenian,
otoitz bihurtu genduan hauxe
federik onenian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

9

Zenbat nahaste ta bide galdu dan
aspaldion gizartian!
burruka asko, erruki gitxi,
poza inoren kaltian...
Ahal dan neurrian alkar laguntzen
guztiok hasi gaitian,
esaera hau egi izan dedin
lehenbailehen gure artian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

10

Gabon aurreko abendua da
aurtengoz bete-betian,
argiaren zain gagoz guztiok
kristau itxaropenian.
Jaunaren bila dabilen batek
gogoz ta iraupenian,
Belen aldeko izar argitan,
esango dau bihotzian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

11

Munduko argi dan Jesus Jauna
jaio zan Belen aldian,
Haren argia hartu genduan
guk guztiok aspaldian.
Ilunaldia sartu bajaku
guregan ustekabian,
alkarrekin jo daigula bila
egi hau goza artian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.

12

Gabon jaietan mila zorion
Jainkoaren izenian,
batez be zuoi, Nikola-Peli
“Argiaren Egunian”.
Bere argiak argi gaizala
bide garbi zuzenian,
egunen baten esan ahal daigun
betiko zorionian:
“lagun zintzo bat bai dala maite
argirik ez dagonian”.



IZAN BIHOTZ

1

Anai-arrebok, hau da sugarra
danok kiskaltzen gaituna:
euskaldunaren kontra jarri da
bere anai euskalduna!
Arrazoi nahiz atxaki,
hori norberak daki...
Nun galdu dogu zentzuna?
Etxea sutan dagola jakin
eta hauspoaren jarduna?

2

Ez dira bardin eztabaida ta
patxadaz alkarrizketa,
batetik dator bizi poza ta
bestetik, barriz, hilketa.
Zuzen nahiz aldrebesa,
nunahi dago jueza
ta nork berotu kasketa.
Alkar onartu daigun guztiok,
beste dana barriketa.

3

Askoren ustez, gizon haundiak
behar dau bihotz gogorra,
baina bakeak egitekotan
behar da tolerakorra.
Harri, tiro ta kate,
gogorrena alkate...
Holakoa da zekorra.
Alkar onartu ezkerro dator
bake onaren altxorra.

4

Bakea egin leiken gizona
da bakean bizi dana,
lege zaharra da: ezin da emon
nork beretzat ez daukana.
Bakearen usoa
pozgarri ta gozoa,
betor lehenbailéhen gugana;
Oi, euskaldunok, merezi dau-ta,
egun daigun apur bana!

URTE BARRI, BIZI BARRI

1

Itsuak be igarri
noiz dan Urte Barri,
aurtengoa bekigu
guztioi pozgarri.
Hau ospatu daigula
ondo eta sarri,
ta bien bitartian
lagundu alkarri.

2

Urte barri batean
gaurkoz sartu gera,
fedez gatortzuz, Ama,
otoitz egitera:
gure ardura hartu,
amaren antzera;
eta zuzendu gaizuz
urtean aurrera.

3

Gaurkoz zabaltzen dogu
urteko atea,
zer izango ete dan
gura jakitea.
Izango da poza ta
izango nekea,
baina, danen gainetik
daigula bakea.

4

Urte Barri eguna
"Ama Mari" jaia,
seme ta alabontzat
bai egun alaia!
Bakean bizitzeko
gaitezala saia,
hauze bai da Amaren
agindu ta nahia.

5

Bakea izan daigun
lehenen bihotzean,
hortik sortuko bai da
etxe bakoitzean.
Ama Mariarekin
maitez oroitzean,
bakez aurki gaizala
gauzez nahiz goizean.

6

Aingeruak abestean:
"Aintza Jainkoari
eta bakea gogo
oneko danari"
Gogo ona behar da
ona ta ugari,
horri emongo deutso
Jaunak bake sari.

7

Bakearentzat bedi
gure abegia,
bere alde emonaz
beti aurpegia.
Eta danen gainetik
aldeztu egia;
hil edo bizi zaindu
bakezko legia.

8

Urterik ez daukazu
Jainko betikoa,
urte barriz beterik
zahartu naz nahikoa,
Zeuk emoidazu ura
goi iturrikoa:
beti gazte zaintzeko
berebizikoa.

KRISTAU ALAITASUNA

1

Aspaldi baten gure artean
bada odol ta negarra!
Gorrotozko sugarretan dago
Euskal Herriko baztarra.
Oi, anai euskaldunak,
honeik dira egunak,
izan adore indarra!
Oraintxe dogu Kristo Jaunagan
danok alkartu beharra.

2

Jakituria, aurrerapena,
harrigarritzko teknika,
gehienak dira giza zentzuna
lotartzeko botika.
Beterik, baina hutsik,
Barrez, baina ez pozik...
Hau aldrebezko praktika!
Alaitasunez bizi izateko
Ez da behar Amerika.

3

Munduak ezin leike asetu
gizonaren egarria,
edanago ta egarriago,
hau da gaurko gatx larria.
Jesusek daukan ura
edanaz zenbat gura,
sortzen da bizi barria;
ikasi daigun nun jaioten dan
alaitasun iturria.

4

Gizon guztiok anaiak gara
hauxe da gure oinarri,
anai-arreba lez maitatzea
Ez al jaku hau pozgarri?
Alkargana zabaldu,
ez gero inor saldu!
Zintzo lagundu alkarri.
Alkar laguntzan dauka gu poza,
gaitezen honen egarri.

5

Eguneroko bizitzan doguz
alaitasunezko tantak,
eguraldi ona ta osasuna
ume jolas, gazte kantak...
Tantaka da ezitia,
ametsa da bestia;
uxa guzurrezko plantak!
Neurriz biziko bagina, agur
gure arteko demandak.

6

Pobretasunez bizi izan dira
mila martiri, birjinak,
penitentzian neurri bakoak
lanean ezin bardinak.
Baina pozik ta alai,
dabilz astegun ta jai,
zer dira euron doktrinak!
Jaunak bakarrik bete leikiguz
gure barruko ozinak.

7

Gizon lurkoiak ezin ulertu
jokera honen zentzuna,
gauzez ta lurrez ezin dau bete
Jaungoikoaren hutsuna.
Jainko etxe leikena
da gauzen almazena,
gizon dana barik, duna;
eukiago ta pobreaño da
gizakiaren barruna.

8

Gizon guztiok berez daukañu
pekatuaren emoia,
barrutik ondo garbitu ezik
gizona da berekoia.
Maite daigun Jainkoa
ta bardin hurkoa;
bota garraztasun lohia;
eta Jainkoak emongo deusku
alaitasunaren dohia.

9

Nazareteko Jesus gizona,
haxe bai gizon alaia!
Esker onez ta kantuz bihotza,
gizon guztien anaia.
Berbaz ta egitetan
bete eban benetan
zeruko Aitaren nahia;
alaitasunez bizi nahi daunak
Berari jarraitzen saia.

10

Jesus Jaunaren jarraitzailea
bizi da itxaropenez,
berbiztu danak betetzen dau-ta,
Berañandiko ahalmenez.
Santu triste ta larri
da santu barregarri,
lehendik esaten danez;
Jesus gurekin egon dago-ta,
zelan gu bizi aienez?

11

Zigor, espetxe, neke ta minak...
holakorik etortzean,
kristau bagara, ez itzi Jauna,
iraun sendo otoitzean.
Ez bihotzak gogortu,
sinismena autortu
larrialdi bakoitzean;
alaitasuna ez dau faltako
holakoak bihotzean.

12

Munduan zehar zabaldu daigun
zorionaren hazia,
alde onetik erakutsiaz
dana dalako gauzia.
Erein alaitasuna,
hori da osasuna,
bizteko gizon jausia;
holan jokutzen dabenentzat da
Jaungoikoaren grazia.

13

Neke lorretan fedez jokatu
 Jesus Jaunari begira,
 Haren bideak fededunentzat
 jarraibide onak dira.
 Zergaitik itzi Meza?
 Bai protesta erreza!
 Ordez egin kalejira...
 Behar orduan joan behar da
 indarraren iturrira.

14

Negar hiletaz eta gorrotoz
 zaharkildutako mundua,
 gatzediak gaur ezin onartu,
 hain ikusten dau galdua!
 Kontra eginaz dear,
 kabi barri bat behar,
 bakezko bizilekua;
 egin daigula mundu barri bat
 poz-pezik bizitzekua.

15

Aita Jainkoak seme-alabok
 pozik ikusi nahi gaitu,
 bere Semea bialdu euskun
 eta gizonak alaitu.
 Ahaleginak ahalegin,
 alkar alaitzen ekin,
 ez gero inoiz gogaitu!
 Zorionezko zerura arte
 danok ekin eta jarraitu!

ZORIONAK!

1

Urte Barri atean
bihotza betean:
hartu guztiok Urte Barri On
ta bizi bakean!

2

Atzo zan Urte Barri
gaur txari belarri:
urte "barria" izango bada,
lagundu alkarri.

3

Zer moduz Erregenak?
Eutsiz ederrenak:
osasun bakez bete zaizala
goitik datorrenak.

4

Hau dok hau aukeria,
bakotxak beria!
Behar dan beste badaukagu-ta,
hau dok loteria!

5

Askoz ere txarrago,
gaur baino lehenago;
konforme bizi dana baino nor
zoriontsuago?

6

Urte Barri ta onak
bihotzez emonak!
Euskal Herriko pasiotarrok
danoi: ZORIONAK!

ABERETASUNETIK GIZATASUNERA

1

Kaixo! danoi esanda
 osasun bakian,
 azalduko deusuet
 euskera garbian.
 Hor lehengo batian
 kankan jo atian:
 sartu gura al dozu
 gure alkartian?
 Xaguxaharren aldera
 erruki gaitian.

2

Izadia guretzat
 Jaunak emon euskun,
 zentzunez eta neurriz
 erabili daigun.
 Ez xaguxaharrei mun,
 ta gizonen pin-pun...
 Lehenen gizakia da
 beti ta edonun;
 ta piztia bigarren,
 gizonaren lagun.

3

Jakizu, adiskide,
 albiste bat txarra:
 galdu zorian dago
 gure xaguxaharra...
 Zertako negarra?
 Gure eginbeharra
 bera zaintzeko lortu
 legezko indarra;
 gaur zortzi izango dogu
 hortako batzarra.

4

Berba bitan esanda,
 batzarraren guna:
 Eusko Jaurlaritzari
 bialdu gutuna.
 Ai, ene laguna,
 xaguxahar kutuna!
 Zuk zeurea jarraitu,
 ez gure zentzuna.
 Gurean bada zutzat
 sabai bat iluna.

5

Harrezkero sarritan
 neure kautan galdez:
 zergaitik jartzen garan
 xaguxaharren alde?
 Piztientzat babes
 gizonentzat bapez...
 Ez ete gabiliz, lagun,
 honetan aldrebes?
 Gizonentzat diranak
 hareik jaten dabez!

6

Adan paradisuan,
 Jauna, zendun jarri,
 zeure antzeko eta
 piztien lokarri:
 mendera ekarri,
 izena ezarri.
 Gauzak zuzen jartzeko
 emoiguzu argi;
 piztiak pizti dira,
 gizonak gurgarri.

AHAL DAUANAK BAINO NAHI DAUANAK GEHIAGO

1

Bata da borondatea,
bestea ahal izatea.
Itxuraz, behintzat, danok nahi dogu
gauza onak egitea,
eta zergaitik ete da sarri
egin barik egotea?

2

Jaungoikoaren antzeko,
nor gizonaren pareko?
Gizon gehienok gagoz oraindik
geure maila emoteko;
Jainkoa lagun, zer ezin dogu
berba baten esateko?

3

Ezinak bekar ekina,
ekinak dakar egina.
Gaur, bihar, etzi norberak gogoz
egin behar ahalegina,
uste genduan baino gehiago
jaso baietz etekina!

4

Baietza atseginetan,
ezetza neke-minetan.
Eskutan baino indar gehiago
jartzen dogu mihingainetan;
hamabi maila baino gehiago
ei dagoz ahaleginetan.

5

Hau ez dago ametsetan,
ezta bide errezetan.
Ezin da jaso sendagile eta
abadeen errezetan;
lehenengo jardun lanean gogoz,
gero ekin errezetan.

6

Burrukarako indarrak
onera jarri beharrak.
Txukunagoak legokez gure
Euskal Herriko baztarrak;
laster egingo leuskiğu dizdiz
bakearen artizarrak.

7

Izan bihotz ta kemena,
oraindik ez da azkena.
Geuk uste dogun baino gehiago
da guk daukağun ahalmena;
bizi dan batek, Jainkoa lagun,
beti dau itxaropena.

8

Ez dakit zer dan porrota,
Jauna gurekin dago-ta.
Gure ametsak huts emon arren,
horrek zer deutso inporta?
Ez daigun ahaztu gure azkena
ez dala behin be Golgota.

9

Guk erein daigun hazia,
Jaunarena da grazia.
Guk ahal doguna eginda gero,
hartu sakon arnasia;
bere orduan emongo deusku
Jainkoak irabazia.

10

Ahalegin danak ahalegin,
neuk bakarrik, Jauna, ezin!
Zeuk sortutako umea naz ta,
ezin deustazu huts egin;
dana ahal dogu, hartu ezkerro
ondo biok alkarrekin.

BAKEZALE IZAN!

1

Seme-alabok, laster
jatorku joatea,
Jaungoikoaren nahia
dedila betea.
Entzun gaur gure gogo
ta borondatea:
danen gainetik zaindu
etxeko bakea.

2

Ez eiozu inori
izan gorrotorik,
ez kalterik opatu,
ezta antzekorik.
Ez hartu asmo txarrik
kalte egitekorik,
ez da, ez, zerurako
inor holakorik.

3

Ez sortu burrukarik,
ez galdu bakerik,
jakinaren gainera
ez egin kalterik.
Kristo gugaitik hil zan
errukiz beterik;
hori barik ez dago
kristau izaterik.

4

Edozein gizon dogu
onzale ta ona,
berez on egiteko
asmotan dagona.
Uste ona zor jako
eta hartuemona;
hortik sortu leiteke
danon zoriona.

5

Gizon guztiok gara
arreba ta anai,
eskubide bardinak
bizitza ere bai.
Hau da gure fedea
ta gure onginahi:
danok bizi gaitezen
bakez eta alai.

6

Danen gainetik zaindu
bide on zuzena,
egizko bakea da
hortik datorrena.
Oker eta guzurrak
dakarre azkena:
bake plantak eginda;
gero, hondamena.

7

Herri bakoitzak dauka
bere nortasuna,
bere eskubideak,
bere etorkizuna.
Zaindu buru-bihotzez
danen jauntasuna,
danon kalterako da
baten hustasuna.

8

Alkar maitatzen jardun
hori da lehenbizi,
dana alkarbanatuz
ondasun ta bizi.
Norberekoikeriak
alde baten itzi,
jauntxokeriak kenduz,
bakeari eutsi.

9

Egin beharrak bete,
ez izan bildurrik!
Okerra salatuta,
ez esan guzurrik.
Jokatu beti zuzen,
ez uka agurrik;
burukatik ez dator
gauza on apurrik.

10

Nonahi ta beti jarri
bakearen alde,
mundua zatitzeko
bideetatik alde.
Armaz ta militarrez
zer datorren galde:
hobe bakea karu,
ez gerra debalde.

11

Jaso, seme-alabok,
gure herentzia,
batez be, bizitzako
esperientzia:
bakean bizitzea
da penitentzia,
hazi ona zabaldu
ta txarra kentzia.

12

Bada gaur zereginik
Jesusen Elizan,
beti zintzo agertuz
kristau onen gisan.
Argi ta zoli jardun
gure herrigintzan;
horra danak batera:
BAKEZALE IZAN.

BORONDATEZ

1

Txarra ta ona beti nahastean
 izaten doguz munduan,
 beti alkarren burrukan eta
 beti alkarren onduan.
 Onak beti isilean,
 ta txarra pil-pilean...
 Bakotxa bere moduan.
 Beste kontu bat dator fruitua
 batu behar dan orduan.

2

Gaur agirian jarri nahi neuke
 onaren borondatea,
 ugari dago zeinek zabaldu
 txarren kalamidadea.
 Zenbat haruntz-honuntza,
 mesede ta laguntza;
 hori da karidadea!
 Jainkoa lagun egin leike hau,
 ez da abilidadea.

3

Alkarren ona bilatzea da
 benetako maitasuna,
 eta batez be hurkoa bada
 ordaindu ezin deuskuna.
 Ez dauka interesik,
 on egitea ezik...
 Hortxe dago ontasuna.
 Hau da dirua bahino gehiago
 behar dogun ondasuna.

4

Zenbat maitasun etxebizitzan,
 auzo ta lagunartean!
 Alkar laguntza ugari dago
 hemen eta apartean.
 Milaka dira Afrikan,
 milioika Amerikan,
 han, behartsuen artean.
 Guk uste dogun baino on gehiago
 dago gaur be gizartean.

5

Gaur zoritxarrez txalotuten da
jokabide txar ustela,
gure irrati ta telebistari
begira jarri bestela.
Borondatezkoari
jo txaloak ugari
eta gehitu daitezela.
Sartu gaitezen euren artean
Kristok agindu bezela.

6

Gizona ez da nahitaez txarra,
gaizkilea derrigorrez,
norberak ondu behar burua
onez ez bada, zigorrez...
Itxaropencz jardun,
gure Jainkoa lagun
ta borondate baikorrez;
hobe da izan oncz betea,
nahiz ta diruz egon zorrez.

7

Gauza ona da asko jakin ta
diru asko eukitea,
askoz hobea on egin eta
gizon ona izatea
Herrian gizon izan,
eta kristau Elizan;
hau barik zer da bestea?
Jaunak sendotu deiskula graziz
gogo ta borondatea.

8

Zeure antzeko egin gaituzu
seme-alaba izatez,
alkar maitatzen bizi gaitezen
gogo eta bihotz batez.
Maite gaituzu, Aita,
maite zaitugu baita;
gutaz errukitu zaitetz.
Alkar lagunduz bizi gaitezen
maitasun ta borondatez.

BAKEA

1

Badator gure Salbatzailea,
bake zuzena opatuz;
aukera daigun bake bidea,
bake egiten jokatuz.

2

Aleluiaka dabilz zeruan
milaka aingeru kantari:
“aintza Jaunari eta bakea
gogo oneko gizonari”.

3

Kantuz ta txistuz, salto ta brinko,
artzainak Belen aldera:
“ondo etorri, Jainko Txikia,
gure lagun izatera!”.

4

Ederto, lasto gainean,
Jesus Umea lo ta lo;
Aita San Jose arduraz dabil,
Ama Maria zain dago.

5

Agur bihotzez, adiskideoi,
danon partez, ZORIONAK!
Bakez igaro Gabon jaiak ta
Urte Zahar ta Barri onak!

EUKI ALA IZAN?

1

Urte zahar bat azkenetan,
hain zaharra dago benetan!
Baina ez goaz, zaharra dala-ta,
hastera txantxetan.
Nahiz pozik ta nahiz minetan,
lotan nahiz arineketan,
tik-tak hotsean sartuko gara
gu Gabon Zaharretan.

2

Bateko edo besteko
gauza asko egiteko,
arrapastaka gabiltza danok
jantzi ta jateko.
Esku bete hogەرleko,
eta gehiago baneuko...
Hainbeste gauza behar ete da
gizon izateko?

3

Herri ta Eleiz arduraz
biak gaur barriztu guraz,
ekin ta ekin, azkenean, zer?
dinoгу tristuraz.
Ez al ditugu menturaz
hormak egiten hauts-uraz?
Gogo zintzoa ahaleginagaz
nahiko da, itxuraz.

4

Oi, Belengo ikastola,
ez daigun ahaztu inola!
Halango maisu gitxi dago gaur,
ta isilik dagola.
Zelangoa dan arbola,
fruitua be hala-hola;
fintzen bagara, orduan bai hau
pozezko kaiola!

GIZA HELDUTASUN BILA

1 HAUNDI IZAN NAHI

Haundi izan nahia berezkoa da
Jaunak gúgan ezarria,
gorputz ta gógoz gorantza goaz
hau da gure egarria.
Jesus deritxon gailurra dogu
heldutasun muáarria,
Aitak danontzat jarria.
Gelditu barik, hazten joatea,
karrera txalogarria;
horretarako izan dedila
hasten dan kurtso barria.

2 ALKARTEKO KIDE

Gu gizakiok sortuak gara
alkarrekin bizitzeko,
alkar maitatuz, alkar lagunduz,
famili baten antzeko.
Lan egiteko ta izateko
alkar dogu beharrezko,
danok alkarren kideko.
Hartuemona izan dedila
gure artean legeko,
ni, zu ta hori, ahal dan guztian,
gaitezen zorioneko.

3 NI NEU NAZ

Guztiok gara alkar antzeko,
baina bakoitza da bera,
ez dago ondo gu ibiltzea
artalde baten antzera.
Lanik onena, ezagutzea
norberaren izaera
ta ondo landu gainera.
Geure burua hornidu daigun,
oraintxe dogu aukera,
gu geu izaten ez badakigu
zertarako da karrera?

4 ALKAR ZERBITZEKO

Bakoitzak doguz Jaunak emonda
sortzetik dohai ahalmenak,
batak hau eta besteak hori,
inork be ez daukaz denak.
Eleizan eta herrian bardin,
non dira gazte lerdinak,
arduratzen dakienak?
Oraintxe hasi ardurak hartzen,
ta emon zeuon izenak,
beste batzuen lanak ziran lehen,
gainean datoz zuenak.

5 SARTU JOKOAN!

Gazte sasoian milaka dira
amets gozo atseginak,
baina bizitza ametsak barik,
gehiago dira ahaleginak.
Urteak urte, itzi ametsak,
kendu ustel ta zikinak,
ez izan buru arinak!
Ustez ezinak ziran lan asko
ekinaz dira eginak;
Gure Eleizak eta Herriak
behar dabez gazte finak.

6 ASKATASUN BILA

Askatasuna beti izan da
gizakiaren zutabe,
ez da gizonik, ezta andrarik,
ez, askatasunik gabe.
Barru ta kanpo, katigutatik
aske izan behar dabe
ta ez inoren mirabe.
Aske izaten ikasi ondo
benetan, baina xuabe;
gero handitan izan zaitezen
zeuen buruaren jabe.

GU NAGUSIOK

1

Nagusiak ditugu
gaurko bertso gaia,
hauxe eginkizuna
eder ta alaia.
Nor dan gazte ta nor zahar,
nork jarri arraia?
Ez da errez neurtzen
hitzen esanahia.

2

Gehien bizi izan dana
hori da nagusi,
bizitzak zer dakarren
berak dau ikusi.
Dana jakin behar da
eder ta itsusi;
ta lur jo barik, danak
zutunik iruntsi.

3

Seme-alabak baino
geu gara lehenago,
iloba ta enparau
datoz geroago.
Askotxo hartu dogu
ta emon gehiago...
Hor nagusitasuna
agirian dago.

4

Guk zer dakigun eta
guk zer egin dogun?
Ondorengo guztiak
geuri jakuz zordun.
Liburu gitxi, baina
zer bihotz ta zentzun...
Hemen nagusia nor dan
hortik da ezagun.

5

Hartu dogun guztia
gagoz emotera,
eta hartutakoa
hobetuz, gainera.
Inor handiagotzen
txikitu norbera...
Nahikoa da hartzeko
nagusi tankera.

6

Emon geunkan dana ta
genkian onena:
bizia, euskera ta
kristau sinismena.
Emonak emonda be
ezin jo azkena;
ez ahal dogu merezi
"nagusi" izena?

7

Bizitzan bertan gara
berez nagusitu,
karrera aprobatu
ta ezin gelditu.
Unibersidadeak
berek baditu,
baina bizitzan dago
nahi beste meritu.

8

Egoki jatorkuna
da "nagusi" hitza,
gure gehiengoari
zuzena deritza.
Erakutsi dagigun
zor dogun bizitza,
zintzo ta garbi gordez
gure nagusitza!

GURASOAK SEME HONDATZAILE?

1

Nork umea maiteago,
bere gurasoak baino?
Baina maitasun arlo horretan
arriskua dago.
Zenbat aiko eta maiko,
moda, modu ta holako!
Ondo beharrez, baina sarritan
bere kalterako.

2

Umeak sortu nahiz galdu,
bardin erosi ta saldu...
Oi, guraso! Zure barruak
argirik ez al du?
Moda barrira zabaldu,
nahiz ta burua zapaldu;
haurra gauzatzat erabili ta
norbera goraldtu.

3

Senar-emazteak jardun
eztabaidaka gau t'egun,
seme-alaben aurrean ekin
beti ta edonun.
Bere etxean zer entzun,
hau da umearen zentzun;
"Gure aita-amak egindakoa,
guk be egin daigun".

4

Jainkoa ta ingururik
erlijiozko konturik,
seme-alabei aitatu be ez!
Ez emon susturik!
Euren sasoiari sarturik,
eta badabe gusturik,
euren kontura hartuko dabe
badauke bururik.

5

Botatzen daben txistia
edo birao listia,
zuk irribarrez hartu egizu,
ez kendu bistia!
Ustez da maisu-maistria,
edo ume artistia...
"Gure umea aurrera dator"
Hau gauza tristia!

6

Gaur umeak dakiana,
labur da gure esana;
jakin ta egin daiala berak
gura dauan dana.
Gero oker dagoana
itziko dozu, laztana;
esperientzia da gaur munduan
agintzen dauana.

7

Bat itzi, bestea hartu,
 zuk ezer be ez eskatu;
 gauzak zeuk jaso ta zeuk garbitu,
 umeei parkatu.
 Ez gero umeak nekatu,
 hori litzake pekatu;
 hor gurasoak umeen mende,
 etxean esklabu.

8

Egin arren mila atrako,
 ez esan: "hau txarto dago";
 pekatu kezka galduko da-ta,
 orduan, akabo!
 Kirten eta lotsa bako,
 holangoak bai lehenago;
 eginak egin, dana da libre,
 bizi bedi bapo!

9

Lehenago bazan jipoia,
 goian egoan listoia;
 gaur ez ikutu, ez hitz gogorrik,
 geldirik bastoia.
 Agur maisuen orroia,
 agur abadeen sermoia!
 Danen gainetik, umeak dauke
 beti errazoa.

10

Nahiz diru asko ez egon,
 zuk eskatu ahala emon;
 negar muxinka aterako dau
 esku bete txanpon.
 Bardin guraso ta amon:
 "Ea umeak zer dinon?"
 Emonak emon, dana da gitxi,
 ezin da bete Jon.

11

Umearen nahikeriak
 txiki baina ugariak,
 muxin ta maina lortuko ditu
 umeak beriak.
 Kalte asko mixeriak,
 gehiago mizkinkeriak;
 ondo beharrez, umeak galtzen
 ditu aukeriak.

12

Arrisku asko dagola
 ezin ukatu inola;
 umearoan landatzen dala
 geroko arbola.
 Zaindu umearen odola,
 karrera onak antola;
 baina lehenengo ondo prestau
 etxeko eskola.

HAU ALDAKETA ITZELA

1

Mendiko baserrian
jaio ta hazia,
orain bost urte nago
kalera jaitsia.
Estu ta larri doa
gaur nire bizia,
ezin harturik nabil
kaleko martxia.

2

Baserriko atea
beti edegia,
hemen itxita dago,
hau presondegia!
Atearen erdian
kristalez begia,
hantxe naukazu, lagun,
egunik erdia.

3

Zer poza etortzean
nor bait atarira!
Etxekoak han ginan
"Pintxoren" ausira.
Gaur txirrina entzunda,
"nortzuk ete dira?"
Dardar ate ostean
begitik begira.

4

Seguru euki nahirik
etxeko atea,
tranpaz jarrita dago
atzean katea.
Katearen neurrira
itxiaz tartea;
neure kautan badinot:
hau dok gizartea!

5


Lehengo zantzo ta txistu
auzotik auzora,
auzo lanean sarri
genbilzan gustora.
Gaur aszensorean nabil
gora eta behera;
noiz sartuko igesi
etxeko zulora.

6

Baserrian etxea,
kalean erbeste,
ez deutsut opa, lagun,
zuri horrenbeste.
Baserrian badozu
bizitzeko beste,
ez etorri kalera,
hor gera zaitzte.



1979. urteko Aste Santu osoa Lourdesen 75 gazteekaz Securs
Catoique mendialdean: batzar, ospakizun eta denpora pasa gozoetan.



Jabi Etxebarria, aita Martzel eta beste gazte lagun
batzuekaz, Baztango Lamiñarrietako aterpetxean.



Bitoriano Arrien eta aita Martzel Sebe lagunaren
xelebrekeriak entzuten.



Juan Maria Alberdi, Izurtzako alkatea, jubilatuen egunean zaharrenei
oroigarri bana emoten, aita Martzelek bertsoaren batzuk eskeiniz.



Angostoko alkarraldian zerbitzariak prest, Austin txistulari eta Salba konpaseru dirala, andrazkoak lore, txalo eta guzti onartuz.

AGUR, DENPORA JAUNA!

1

Gure Jainkoa handia dala
gagoz fedez sinisturik,
zein handia dan neurtzen ez daigun
alperrik galdu bururik.
Handi-mandiak erronka baten
dabilta harropuzturik,
baina urteak joan eta etorri
hortxe dakusguz hausturik;
tente Jainkoa bakarrik eta
beste danak ahuspezturik.

2

Indartsuena Jaungoikoa da
ta bigarren denporea,
berak emoten eta kentzen dau
bizia ta umorea.
Denpora jaunak zahartzen dau haurra
ta zimeltzen dotorea;
berak makala sendo bihurtzen
eta kentzen adorea,
Jainkoa Jainko da ta denpora,
bere enperadorea.

3

Denpora baten sortu nintzan ni
amatxoren sabelean,
denpora jaunak argira nindun
eta hartu magalean.
Bizitzan zehar ondoan daukat
gau ta egun isilean;
eta aurrera naroa berez
minutuak jo ahalean,
eta sartuko nau maitekiro
goiko itsas zabalean.

4

Denpora jaunak eskeintzen deuskuz
danoi mila bat aukera,
askatasunez jokatu daigun
batera edo bestera.
Batzuk haruntz ta besteak honuntz,
bakoitzak bere jokera;
denpora lagun, kontu emoten
Jaungoikoaren aurrera,
testigu zorrotz izango dogu
denpora jauna berbera.

5

Lege barrien gáinetik dauka
denporak lege zaharra,
berak biztu ta amatatzen dau
eguzkiaren sugarra.
Bere denporan ágertzen jaku
zeru goian artizarra,
berak darabil gora ta behera
itsasoko zirriparra,
denpora jauna da Jainkoaren
morroi zintzo ta azkarra.

6

Denporak zenbat balio dauan
antzina esanda dago.
Kontuak ondo atera, eta
urreak baino gehiago.
Denporan jaio, bizi eta hil,
beti beraren esklabo;
denpora danak amaitu eta
orduak geu be akabo?
Jainkoa eta gu Jainkoagan
ni jarraitzekotan nago.

7

Izan diranak eta izango
denporaz dira jausiko,
ez goikorik, ez behekorik ez dau
bere lekuan itziko;
Zerurik bada, diruz ta tranpaz
ez dau inork erosiko;
ona izatea, on egitea
dira bakarrik betiko,
hau sinistuta, ona ez banaz,
ni nazan tonto lapiko!

8


Denpora jaunak beti martxa bat
ez dau aldatzen pausoa,
gau eta egun, ilun ta argi,
garratz izan, nahiz gozoa...
Luze ta labur, geure kontu da,
orduen pasadisoa;
denporaz kanpo gozatzen iraun,
hori da paradisoa;
denpora danak joan orduko
jaso gaurko abisoa.

9

Jesus danetan gure antzeko
gizon egin zan ezkerro,
denpora jauna bihurtu jakon
nagusi eta borrero.
Denporaz kanpo etorri zan ta
denporan jokatu bero;
denpora danak haustu zituan
heriotza hilda gero;
denpora bako bizi barri bat
Beraġandik dot espero.

10

Heriotzeak botako gaitu
denpora t'abar zulora,
baina Jesusek egindakoa
ekarri daigun gogora:
heriotza ta denpora, biak
jaurti ditu hankaz gora;
Denporan jarrai deioġun zintzo
ta baietz esan gustora:
“zorionera ekarri nauan
zorioneko denpora!”.



AHALEGINAK AHALEGIN

1

Jentearen jakin-minak
zenbat diran ahaleginak;
horra hamar bat jakinak.
Lehenengoa da entzun ta jakin
ta hanka biak arinak...
Laster joten dau ezinak,
baina badihardu mihinak;
pot lehenengo esaminak.

2

Bigarrenak mila kezka
ez da agertzen nahiezta;
baina laster da igeska.
Nahi leuke baina, ez deutse izten,
atxaki zuriz gainezka;
Noizean behingoz protesta,
txandako sasi profeta;
ta gehiagora ez da.

3

Hirugarren mailakoak
zerbait egin gurakoak,
ahalegin egitekoak.
Batzarrik batzar agertzen dira
erakutsi onekoak.
Handik gora eskekoak,
beti daukez hartzekoak;
gordeta emotekoak.

4

Hemen datoz laugarrenak
asmoz ez dira txarrenak,
zer galdurik ez daukenak.
Gitxi jokatu, asko eskatu,
erdi bana ondorenak.
Parte hartzean laurenak,
gero erdiak eurenak;
irabazten dakienak.

5

Bosgarrenak dauka txanda
"neu be banoa" esanda,
zerbait egiten joan da.
Izerdi barik jardun deutso ta
aurrez zenbat propaganda!
Mesede haina demanda,
ustekabean joan da
hamaiketakoa janda.

6

Seigarrenaren doktrinak
eta bere ahaleginak:
zelan egin lagun finak.
Alkarlanean denpora baten
lan onik asko eginak;
baina danak ezbardinak,
alkar ulertu ezinak
galdu ditu etekinak.

7

Zazpigarrena gorago,
 igon ditu hainbat grado;
 itzartu balitz lehenago!
 Hari ta honi laguntzarren
 edan ditu hainbat trago.
 Dana iztekotan dago,
 besteak hor dabilz bapo;
 ezin dau bota ordago!

8

Zortzigarrenaren grazi
 badaukaġu zer ikasi,
 goraino igon dau kasi.
 Guraso bako ume koxkor bat
 beretzat hartu ta hazi;
 antzinatik jatzun hasi
 lagunduten Caritasi;
 ea zeinek irabazi!

9

Hau bederatzigarrena
 izan leiteken onena,
 Goi Espirituarena.
 Behin betirako baldintza barik
 baietz emon dabenena;
 inoiz be ez da azkena,
 horixe da santuena;
 eurei txalo ta omena!

10

Hamarretik hamarrera
 bizi osoko karrera,
 nork jo gorengo barrera?
 Jainko Semeak, gizon eginak
 dauka bakarrik sarrera;
 hartu Jesusen jarrera,
 jo kristau lege zaharrera:
 azkenera arte aurrera!

ASTOAK MAIXU

1

Euskal Herriko hileta,
gorrotoa ta hilketa,
gure artean gertatzen dana
ez da barriketa.
Danok errazoiz beteta,
bihotzak sutan erreta;
gaur edo bihar, bide bakarra
da alkarrizketa.

2



Behinola ziran asto bi,
kontuan ziran erori:
bakotzak berak berez eukala
jauntxo kategori.
"Kontuz zapaltzaile hori,
itzi bakean inori...".
Euskal Herrian bada holako
hamaika histori!


3

Bakotzak nahikoa dauka
bere aldera tiraka;
"traidore, lapur, zipaio, fatxa...".
alkarri botaka.
Buztana gogor jiraka,
hainbeste neke ta... kaka!
jo ta apurtu, astoen pare
badira milaka.

4

Arrantza eta ostiko,
astoa asto betiko;
asto ez diran milaka neukez
parean jarriko.
Batzuk dozuz agnostiko,
beste batzuk katoliko;
etxe ta auzo hondatu arte
jo gogor, Periko!





5

Eginak eginda, parra,
bientzako zoritxarra,
ostikoz ezin, alkarrizketaz
konpondu beharra.
Itzi itzaltzen sugarra
ta egin daigun batzarra;
a zer maixu dan askorentzat gaur
hor goiko astarra!

7

Astoak dirala maisu,
horra hiru-lau abisu:
bide okerrak zuzentzekotan,
ordua da, aizu.
Ez izan temati, keixu,
asto biena egizu;
txarrenean be, astoak haina
bagara, kontizu!

6

Urtenbide baten bila
horra bikote abila:
alkar hartuta, biak jan dabe
bien bedar pila.
Itzi pistola, makila,
hartu mahai inguruko sila;
alkarrizketaz konpontzen dana,
hori dok mutila!

8

Asto zentzundun antzera,
egin buruei galdera:
jokabide hau ez ete dator
bitxuon kaltera?
Ikusiz gure jarrera,
heldu beitez esatera:
"Asto mailara heldu zituan
gitxi gorabehera!"



DIRUZ EROSI EZIN DIRANAK GURETZAT BEHARREZKOENAK

1

Dirua ala Jainkoa,
zein nagusi mundukoa?
Biok batera ezin zerbidu,
zeuk erabagi jokoia;
gizon bazara, argi ibili,
ez izan zentzun bakoa!

2

Dirua dozu sorgina,
berak dakar atsegina.
Atsegina, bai; ez, maitasuna,
diruz erosi ezina;
eta zer, diruz baizen aberats
ai, maitasunez bagina?

3

Diru jaunaren emoia:
esklabua ta morroia.
Adiskide bat diruz erosi?
Hemen hutsa da milioia;
adiskide bat ez da erosten,
hau ez da, gero, sermoia!

4

Etxea eta txaleta,
diruz zenbat erosketa!
Ezin erosi familia bat
maitasun berroz beteta;
diruz aberats, familiz pobre
hau ez da, ez, barriketa!

5

Diruz nahi beste botika
ta lasaitzeko praktika.
Bakea diruz ezin erosi,
nahizta izan Amerika...
Bihotza bakez betetzen da-ta,
ez da nahikoa patrika.

6

Dirutsu edo lapurra,
eskuratu leike lurra.
Baina zerua ez dago salgai,
nahiz izan aberats zuhurra;
azken orduan hau da baleko:
zeuk daroazun apurra.

7

Diruz bada errezorik,
mezak eta antzekorik.
Baina munduko dirutan ere
ez dago salgai Jainkorik;
Dirua jainko bada, ez jaku
faltako Judas faltzorik.

8

Zer dan ondo izatea?
Bizitzan kalitatea.
Hori da diruz erostekoa,
baina nun da poz betea?
Inungo diruz ezin erosi
zoriontsu izatea.

9

Diruz erosten dira armak,
laster txistuka alarmak...
Hamaika euli harrapatzen dau
diru sarez armiarmak;
baina bakea bakarrik dakar
bihotzeko poz ta xarmak.

10

Dirua da ijitua,
baina badau meritua.
Diruz erosten da jan-edana,
baina ez apetitua;
ez da dirurik bete leikenik
barruko zirrikitua.

11

Diruz bedeinkazinoa,
jolas ta dibertsinoa.
Alaitasuna dohangoa da,
hori da kondizinoa;
zenbat milioitan erosi leike
bihotzeko kariñoa?

12


Diruak hotsa demasa,
noiznahi soinu ta gau-pasa...
Askoz hobe da konforme bizi,
zoriontsu neure kasa;
Diru guztiak baino hobe da
zorionaren arnasa.

13

Diruz dagoz tituluak
ta mila edergailuak.
Dirua dala eta ez dala
sortzen dira istiluak;
gauza hoberik eskeintzen deusku
zintzoaren ispiluak!

14

Handia txiki egina,
Belengo Haur atsegina.
Kurutze baten gūgaitik hila,
hain garbi ta hain zikina...
Zergaitik egin eban Jesusek
hainbesteko ahalegina?



ESKERRIK ASKO, VASI!!!

1

Aurtengo udan guk euki dogu
ume bat errusiarra,
aita nor dauan ez daki eta
ama bai, baina zantarra.
Plantxa goriaz beso errea
bere gomuta bakarra,
hau esan eta negarra...
Ume gaixoak harrapau ahala
haren iruntsi beharra!
Baina gatxago zan asetzea
bihotzeko zoritxarra.

2

Siberiako orfanatotik
lau egunez Mañarira,
gure arteko hartuemonak
ahaztutekoak ez dira.
Zenbat kosta zan irribarrea
azaltzea aurpegira!
Laino arteko dizdira.
Zuk biztu dozu mañariarron
bihotz hondoko pilpira;
zorionean etorri zinan
Mañariako herrira!

3

Zentzun guztiak erne ta adi
alkar ulertu ezinik,
maitasun beroz ulertzen ginan
berbaz ta keinuz ekinik.
Guk ez zurea, baina gurea
zuk lehenago jakinik,
zu lango zaparro finik!
Hemen ez dogu egiten, Vasi,
zuk besteko ahaleginik;
txarto edo ondo, euskeraz egin,
ez dago holako doktrinik.

4

Bai amarengan, bai inguruan,
zurea mundu iluna!
Orain artean ez dozu gozau
umeen askatasuna.
Ez dozu inoiz, dastatu, Vasi,
aita-amen maitasuna,
nork bete zure hutsuna?
Gaur badakizu zer dan musua,
zer dan besarte biguna.
Gaur badakizu zein ederra dan
maite zaituan laguna!

5

Esan behar da Vasi izan dala
herriko seme maitea,
noiznahi agurra, nornahik laztandu,
nonahi zabalik atea.
Zenbat jostailu, zenbat soineko,
dana kariñoz betea,
hau da hau borondatea!
Zeuk agirian ipini dozu
Mañariako jentea:
eskerrik asko gaur zuri, Vasi,
pena da zu joatea!

6

Vasi txikia, hau zer izan dan
zuk ez dakizu gaur egun,
bai badakizu maite zaituen
leku on bat non daukazu.
Ondo ibili, izan daizula
behar dan beste osasun,
kariño eta maitasun.
Zeu zoriontsu izan zaitez
horra zer opa deusugun,
beste bat arte, Vasi maitea,
agur Jaungoikoa lagun!

Hortxe dogu Vasi lussi errusiatar mutikoa ere: hiru urtekoa zala udaldietan hartzen hasi ziran eta, munduan beste seniderik ez dauan umeak, euron etxea dau etxe eta eurok bere eusgarri; aita Martzel dau aitaren kerizpe. Gaur egun 13 urte ditu, eta euskera hutsean alkar ulertzen dira. Domekero izaten dabe beragaz hartuemon, eta euskeraz. Ezin dala ikasi? Horra Vasi...

EZ JO HILETA KANPAIRIK

1

Bada hileta nahikua,
hau da betiko kontua,
beterik dago mundua.
Baina, anaiok, entzun guztiok
gaur barri pozgarrizkua:
gaur ospatzen da Pazkua,
hasi da kantuz kukua,
BIZTU DA JESUS JAINKUA!

2

Ereiten dana batu nahi,
erein ez dana ere bai,
onak hartzeko prest noiznahi...
Ikutzen eta gozatzen ez dan
mundu barri baten jarrai;
Hortxe bizi behar ernai,
gerora begira alai.
Orduan izango da jai!

3

Eten bako neke lorra
ta beti gainean zorra,
hori bai dala gogorra!
Mila iturri dastatu eta
bata zein beste agorra;
Kristok iturria, horra,
gozoa ta emonkorra,
freskatu bihotz lehorra.

4

“Jaunaka” gora begira
edo puzka jirabira
ze hileta kanpai dira?
Otoitz eta lan diharduenak
nekez jatzuz erretira.
Itxaropenez distira,
atxaki danak azpira,
holako asko balira!

5

Egunak joan-etorri,
hemen dogu udabarri
Pazko egun zoraigarri!
Anaitasuna ta bizi poza
opa deiogun alkarrri,
gose izan nahiz egarri,
Kristo dogu asegarri,
biderako lagungarri.

6

Jesusek opa deuskunez,
izan bake osasunez
eta zoriontasunez.
Jaunak bedeinka gaizala danok
beti deuskun maitasunez,
esan daigun poztasunez
alkarri esku emonez:
ZORION PAZKO EGUNEZ!

FRIASKO KOADRILA

A, a, a...

Goazen bertso kantura,
gure poz ta estura
ekarriaz burura.

E, e, e...

Bost erroko errape,
bat ebagita ere
oraindikan lau sobre.

I, i, i...

Frontoia erakutsi
ta jokutzen ez utzi,
ez dok malizi gutxi!

O, o, o...

Osaba edo tio
edozeinegaz ez fio,
bestelan gau on, Pio!

U, u, u...

Ez santa ta ez santu
jokua beti joku,
hor amorratzen jaku.

A, a, a...

Ezker ta eskumara
gehienok joango gara
"erregularretara".

E, e, e...

Nor dogun teniente,
igarri derrepente:
ule txortia tente.

I, i, i...

Jan-edanda, ijiji,
eta gero, pitxitxi,
lo gozoan, ixixi.

O, o, o...

Ez motel, ez kaxkajo,
ibili gara majo,
euliak ere zapla jo.

U, u, u...

Hau ezin lei zabaldu,
baina poltsia galdu,
bestelan nork makaldu?

A, a, a...

Hau bai dala demasa,
azkenian, Tomasa,
jan behar kalabaza.

E, e, e...

Jan-edan bete-bete,
dan-dana merke-merke,
holan bizi leiteke.

I, i, i...

Ez txiki, ez nagusi,
inor ere ez itsusi,
gu lango talde gixi.

O, o, o...

Etxe ta errekondo,
hobaik ez da egongo,
gu, behintzat, oso ondo.

U, u, u...

Amaitu da: tururu!
Hemendik urte buru,
hemen gara seguru.



Burgosko Frias udalekuan ume jolas eta sariketak.



Bideko zaurituen zainketa ekintza.

FRIASKO UDALEKUAK

*GURE UDALEKUA
DAUKAGU FRIASEN.
HONELAKORIK
EZ DA ERROMAN,
EZ ETA PARISEN.*

1

Goian zeru ederra
gau ta egun urdin,
hemendik zeru hori
ez dago hain urrin.
Egunez eguzkia
beroago ezin,
gaueko izarpean
zer poz ta atsegin!

2

Alkartasuna dauka
izena jarria,
alkartasunerako
kabi pozgarria.
Alkar ezagutzea
dala oinarria,
alkar behar dogu-ta,
ondo etorria!

3

Udalekuan bada
jan eta edari,
jolas ta umoria
danetik ugari.
Txori, sagu ta koko
salto ta kantari,
ondo bizi nahi badok
honuntz etor hadi!

4

Udalekuan gagoz
jentil ta judio,
andra, gizon ta praile,
hau da ebanjelio.
Silbestra ta Jesusa,
baita Gregorio,
Txingili ta mingili,
din-daun Eulojio.

5

Txirtxir, txori ta sagu
doguz bezeruak,
egun argitan danok
gara aingeruak.
Gaua ezkerro datoz
beste jeneruak:
jo ta ke gabiliz ta
betoz bonberuak!

6

Begoña bi daukaguz
guztion pozgarri,
Rafael eta Pilar,
alkarren buztarri.
Marije ta Kristina,
ez gose, ez egarri...
Mila eta Jeroni,
zirrika alkarri.

7

Maria Anjeles uretan,
kartetan Andresa,
Karmen gizona zaintzen
ez da gauz erreza.
Jaunak, hau da koadrila,
jolas, jan te erreza;
aita Martzelek dauka
komando aldrebasa.

8

Gaztetxo bi daukaguz
 Jasone, Itxaso,
 zaharren artian pozik
 zenbat kontu jaso!
 Andra-gizon handiak
 eginik pailazo;
 Nun komedi hoberik?
 Zirkuan, akaso?

9

Koadrilan sartu jakuz
 Rebeka ta Patxi,
 Leku onak badira,
 Frias lako gitxi.
 Zer dok jente modu hau
 txotxo eta txitxi?
 Honuntz etorri danak
 hau ezin dau itxi!

10

Begoña Jaio dogu
 azken etorrira,
 badau bidelagun bat,
 Berrizko Benita.
 Serapiña erdian,
 halako artista,
 eltxoak uxatzeko
 orkesta polita.

11

Elorrioko Kristi
 ez da ibili motx,
 bete-bete eginda
 gero zelan ein kox?
 Tararin-tararin jo,
 azken batean, txox;
 holako medikurik
 ez dago, kaguen xotx.

12

Begoña ta Juani
 badatoz honuntza,
 ondo dakie Frias
 ez dala hazur hutsa.
 Espiritua biztu
 ta poztu gorputza,
 hementxe gizentzen da
 san Pedroren ahuntza.

13

Komandoko jentea
 edadez maiorra,
 baina oindino dauka
 sendoa motorra.
 Baba gorria janda
 nork hezi zekorra?
 Etxe osoa dardar
 hauxe neke lorra!

14

Gure bizimodua
 hor garbi esanda:
 danok hobeto gabilz
 ume lez izanda.
 Goiz ta gauez otoitza
 meza bat emanda,
 Friasen hartzen dogu
 zerurako txanda.

15

Eztul, zintz eta uzker
 dana da lizentzi,
 hemengo jan-edanak
 hauxe dau herentzi.
 Gauean zurrutzadak;
 bakez, kontzientzi;
 jakin nahi badok zer dan
 eik esperientzi.

GAURKO BABELGO TORREA

1

Ingurura begira
bada zer esanik
ta egiteko lanik...
Balego kontutxo hau
entzun nahi dauanik.
Gaur gizon argiak,
askotxo izanik,
Babelko torre hori
zer zan dakianik.
Asmau ezinik nabil
ni aspaldidanik.

2

Ibili ta ibili,
emon deusatz antza,
ta ez naz zalantza:
Euskakiko torreak
egin dau balantza.
Batzuk honantz bultzaka,
besteak harantza,
lur joaz amaitzen da
honelako dantza...
Dana galduta gero,
egiok arrantza!

3

“Jainkoak ta Eleizak
gaitue zapaldu,
zeharo makaldu...”
Honelako doktrinak
bai jakuz zabaldu.
Buru jabe izan nahirik
buru-bihotz galdu,
eta eusko torrea
harrak arrakaldu.
Herriak bizitzeko
gerra behar al du?

4

Badira liburuak,
kantu ta doktrinak,
milaka mitinak;
lanik asko egin dau
aspaldion mihinak.
Hitzak bardinak eta
zentzun ezbardinak,
errezagoak ziran
prailien maitinak...
Hau ulertu daiala
auzoko mitxinak!

5

Batuaren atxakiz
banatzeko txanda,
"herriak" esanda;
euskeraz aitu ezin
euskaldun izanda...
Euskadiko torrea
gorantza joan da,
baina hor nun sortu dan
etxeko demanda:
batzuek eginahala,
besteak eztanda...

6

Torre apurtzaileak
bada nork txalotu,
besteak lelotu:
onartzen ez dabena
kendu edo lotu...
Dana erre, apurtu,
ezer be ez osotu;
ta etxeko dirala
esan behar dogu.
Etxea apurtzeko
geu gara nahiko gu!

7

Batzuk noraezean
besteak igesi,
ez al dau merezi?
Baztarren baten behintzat
gaitezela bizi...
Euskadiko torrea
hondatzen ikusi,
ta asmau ezinik gabilz
zelan zutik eutsi.
Batu danon indarrak,
ez dakigun jausi!

8

Horra zer gertatu zan
Babelko torrean,
zaharren autorrean;
nik uste bardin dala
gure alorrean.
Ezin gara gelditu
nasai oporrean,
hobe jardun ta ekin
soinu baikorrean:
"irrintzi bat entzun da
goiko tontorrean...".

GAURKO FARISEO BARRIAK

1

Gizona beti ahalegindu da
dan baino hobea agertzen,
itxura onak egin ondoren,
badaki bereak zertzen.
Aurrez berbaz itano,
atzez erpez jitano...
Ez da erreza igartzen.
Holako santuz erreza dok, bai
zerua plen-plen betetzen!

2

Atzo, gaur, bihar, beti da bardin,
gizona ez da aldatu;
norbera beti dago santutzat,
besteak beti pekatu.
Norberarekin kontu,
ta besteak konpondu;
ta ez inori parkatu!
Nork bere gatzak ondo gorde ta
norenak arakatu.

3

Faiseo ta publikanoak
ez dira beti bardinak,
atzoko onak gaur txarrak dira,
gaur garbi lehengo zikinak...
Lehen Jainko ta bateo,
gaur hobe da ateo;
aldatu jakuz doktrinak!
Lehengora bizi diranak dozuz
atzeratu ezjakinak.

4

Batzuk onak ta besteak txarrak,
alderdi bitan mundua,
batak besteak zehatz juzgatzen
horretan bada modua!
Ona geure aldetik,
eta txarra bestetik,
horra betiko kontua:
joko hau ondo ez dakiana,
a zer gixajo tontua!

5

Publikanoak bihotz-bihotzez
 dinoe: "ni pekatari",
 pariseoak garbi dira ta
 jartzen dira salatari.
 Gaur ba al da pekaturik
 ta holako konturik?
 Entzun fariseoari:
 "egongo ez da, ba, pekaturik?
 Begira auzokoari!"

6

Gaur fariseo barriak dagoz
 errez harritzen diranak,
 besteak oker dabilzalako,
 zelango jardun esanak!
 Kritika ta protestak
 kontzientzizko kezkak,
 hau da justizia, jaunak!
 Santutasun hau aztertzeoan
 Jainkoak daukazan lanak!

7

Harrokeriak baztar itzita
 izan gaitez anpalak,
 ez daigun ahaztu sarri askotan
 danok garean makalak.
 Jainkoaren aurrean
 aztertu bakarrean,
 honetan izan leialak;
 orduan danok izango gara
 alkarraz bihotz zabalak.

GIXONKILOAK

1

Bertso soinuan nator gaurkoan
 adar joka ta lotsariz,
 jakin daizuen jaiotzatik naz
 Andrinua eta Lariz.
 Paper batzuk astinduz,
 beste batzuk zikinduz,
 lagun batzuen eskariz.
 Ondo zein txarto, zuek ordaindu
 zigorrez ez bada, sariz.

2

Gixonkilo bat, gizon pilo bi
 Madriletik Gasteizera,
 arma ta guzti etorri dira
 kazariak lez heizera.
 “Ai, kakati alua,
 eutsok erregalua!”
 Ume mokuen antzera.
 “Eta komuneko paperagaz
 zertu eik zereko zera”.

3

Madriletik Euskal Herrira
 badatoz “transferentziak”,
 papera haruntz, papera honuntz,
 hor dabilz dilijentziak.
 Honuntz komunekoak,
 eta haruntz milakoak;
 zelango diferentziak!
 Esku onetan jagozak, mutil,
 euskaldunon herentziak!

4

Gizon handi ta kulturadunak
 —besapeko kulturaria—
 danen aurrean zehatz galduta
 gizon baten itxuria.
 Mahaian jarri orduko,
 besteei zelan kenduko...
 Hor gehiennen arduria.
 Alperrik mila atxaki asmau,
 zelan kenduko geuria.

5

Itxura baten, gizon galantak;
 egiz, a zelako txori!
 Gure artean jazoten da, bai,
 holako mila histori.
 Ez dago antzik, baina
 hau dok santu usaina...
 Nunahi sumatzen da hori.
 Bakoitzak berak egin kontuak,
 ez begiratu inori.

6

Aspaldi baten gure artean
 gizonak gizona hiltzen,
 eta erabat, gizonak hilaz,
 gizatasuna amiltzen.
 Tiroz kendu narrua,
 dardar jarri barrua;
 eta egiak isiltzen.
 Giza bizitza eta zentzuna
 zer preziotan dabilzen!

7

Ume ta gazte oker ei datoz
 hau da nausion hileta,
 eta gero geuk galtzen ditugu
 haizez eta putzez beteta.
 Droga, zine ta sexu
 alkohol eta pertretxu...
 Puztu goraino kasketa.
 Mundu modu hau geuk sortu dogu,
 bestea da barriketa.

8

Zine, irrati ta telebista,
 izparringi ta liburu,
 zegaz ase ta betetzen doguz
 gazteen bihotz ta buru?
 Gero hor batzarretan
 eta paper zaharretan,
 lotsariz egin zizpuru.
 Ume, gazteok nundik datozan?
 Geuk sortu doguz, seguru!

URKIOLA, ARNAS LEKU

1

Anboto mendi bizkar gainean
dago gure Urkiola,
Euskal Herriak hamar gizaldiz
hauxe dau bere jagola.
San Antoniok zintzotasunez
beti laguntzen deutsola,
hantxe garbitzen ta barrizten da
euskaldunaren odola.

2

Troka zulotik ihesi goaz
Urkiolara askotan
arnas garbia, bizi barria
nasai hartzeko gogotan.
Buru ta bihotz zorabiatuz
urietako lainotan,
garbitzen jakuz Urkiolako
eguzki eder gozotan.

3

Bide aldatza eta luzea
Urkiolara doana,
hor barrenean gelditu beite
nasai bizi nahi dauana.
Gorputza sendo, gogo zindo
nahi badituzu, laztana,
Urkiolako bidean gora
laster zara Jaunañana.

4

Burdin artetik atsedean bila
txoritxo lez ihesi,
Urkiolako pagadietan
hantxe naz barriri bizi.
San Antoniok bakardadean
bai ondo be erakusi:
Gizona bere jabe danean
orduan dala nagusi.

5

Mendira igon, atxean jarri,
egon ta egon begira,
Bai dala handigura Jainkoa
Sinismenaren argira!
Gizona etxe ta gauza danak
hain txiki geratzen dira,
harrokeria kentzeko, zoaz
Urkiolako mendira.

6

Turuta, txistu, zarata, hotsa
dardaraz gau ta eguna,
Urkiolara orduko, barriz,
argitzen jaku zentzuna.
San Antoniogan bete ondoren
Jainkozko eginkizuna,
han inguruko bakardadean,
jaunak, zer askatasuna!

7

Hasarre minez erreta dagoz
gizon gehienon erraiak,
Urkiolara heldu orduko
guztiok gara anaiak.
Eleiz ta mendi, zer bakeleku!
Hoberik ez dau Bizkaiak;
Anai gaitezana, deika dauka
Urkiolako kanpaiak.

8


Urte Santua dala-ta dago
Urkiolan gaur jarria,
Bizkai herriko fededunontzat
parkazinozko iturria.
Urkiolako mama goxoak
asetzen dau egarria,
fede indarrez joan ezker
hartzen da bizi barria.

9

“Gora Jainkoa zeru-lurretan,
gora, bai, bere izena!”
Urkiolara joan-etorriak
indartzen dau sinismena.
Urte Santuan geugandu daigun
kristau adore, kemena,
Urkiola da horretarako
leiteken leku onena.

10

Jaungoikoagaz adiskide ta
gizon guztiakaz lagun,
hau egiteko hor Urkiolan
zer leku ona dauka!
Urkiolatik izan dan batek
aurpegiari dau ezagun:
farmaziarik onena dozu.
Zoaz ta izan osasun!



Durangaldeko abadeak, pastoral batzarraren ondoren.

JAI ETA JAI

1

—Ijiji ta ujuju,
oihu eta zantzo.
—Eginak egin eta
hurrengoan mantso.
—Sarri baba baltza ta
noizipein garbantzo.
—Hobe egun bat jai ta
bestean deskantso.

2

—Hi, bota txapliguak,
jo txistu ta kanpai!
—Santu-santak dinoe
egin daigula jai.
—Herrikoak lehenen ta
auzokoak be bai.
—Atzo jai ta gaur be jai,
eta bihar be nahi.

3

—Jaiak joanda gero:
“hau dok enpatxua!”
—Luze ta garratza dok
haren despatxua.
—Ona izan dedila
jaien saltsatxua.
—Holan horniduko da
zati eskastxua.

ZAINDU ETXEKO PARKEA

1

Nunahi jarri deuskue
parke naturala
luze ta zabala;
txori, pizti, zuhaitzen
izadi magala.
Gizakia ikusirik
galtzera doala,
burura etorri jat
hauxe berehala:
“parkerik ederrena
FAMILIA dala!”.

2

Bada mila arrisku
barru eta kanpo,
sare ta atrako;
arduraz zaindu ezik,
sendia akabo.
Irrati, telebista
eta gainerako...
Moda dala esanda,
motza ere guapo!
Nora goazen ez, baina
bagabilz ta bapo!

3

Familia gozoa
guztion amesa,
ez da aldrebesa;
giza landarearen
berezko babes. Egoki dira beti
otoitz ta promesa,
baina ardura barik
hau da ezin eza:
gizakia ontzea,
nahiz izan markesa.

4

Agintari, guraso,
maisu ta enparau,
gogoan hartu hau:
sendi barik ez da go
ez gizon, ez kristau.
Familia ahaztuta,
izadia salbau?
Zer norentzat ete da?
Honek harritzen nau.
Sendia galtzen bada,
gureak egin dau.

GIZONA BETI GIZON

1

Kantatzera goaz gaur
kopla zahar barriak,
euskaldunentzat dira
kontsolagarriak.

2

Hau dok bizimodua,
hau modu bizia,
eskuratu baino lehen
galtzen dan gauzia.

3

Urteak joan eta
urteak etorri,
ez dago dantzarako,
Mari, gona gorri.

4

Aiene eta oiene,
hau bizimodua!
Urteak badoaz eta
neu ere banoa...

5

Atzo nintzan iloba,
eta gaur osaba,
etziko aitita naz
lurpean ez bada.

6

Baneuko eta banitz,
balitz eta bazan,
alperraren etxean
arratoiak dantzan.

7

Zaharrak gamelu eta
gazteak gaztelu,
gehienetan gabiltza
prisaz baina belu.

8

Oiloak kukurruku,
oilarrak karkaxo,
holakorik jazo ohi dan
etxearen gaixo.

9

Kolkotik botatzean,
plast altzora jausi;
jokatzen dakiana,
horixe da nagusi.

10

Behin baten Erromara
joan zan astoa,
handik etorri ta be
ha beti lehengoa.

11

Besteari esana
geuk egin bagendu,
honezkero guztiok
egin ginan santu.

12

Danok ondo dakigu
besteentzat mediku,
baina norberak egin
behar domestiku.

13

Ahal danean ahal dana,
ene gizontxo,
Garizuman barau ta
Pazkutan artxoa.

14

Ez daukanak baleuka,
ta daukanak dauka,
Daukanak mauka-mauka,
ez daukanak zaunka.

15

Pozutik urten eta
itsasora jausi;
berez, herren danari
bigarrena hausi.

16

Alkarren parekoak
ni, zu eta bera,
bataz beste hor gabilz
gitxi gorabehera.

17

Bururik ez daukanak
txapel haundia nahi,
txapelak buru hutsik
ezin bete, ja-jai!

18

Modu barriak eta
mainak beti lehenak,
zer diferentzi dauka
kaxkamotz melenak?

19

Asto txiki izanda
mando haundi bizi,
Logurea kentzeko
ez dok maina gitxi!

20

Beti dauka hazurrak
inontzat koipia,
baina eurentzat beti
mamina hobia.

21

Ez daigula jokatu
batekoz besteko,
jan daigun bizitzeko,
ez bizi jateko.

22

Bat irabazi eta
halako lau galdu,
martxa hortan laster dok
etxea be saldu.

23

Herren baten lepotik
barre egin baino lehen,
ikusi ea norbera
zelantsu dabilen.

24

Haizea buruan ta
ibili munduan,
santuei erregutu
premina orduan.

25

Hainbeste ikasita
ezin kendu mina;
bista ona eukita,
ikusi ezina.

26

Astoak astoari
egin behar hazka,
Bestea "peste" da ta
emoten dau nazka.

27

Betiko legea da
"gogorrena alkate",
besteak zuzentzeko,
bada borondate.

28

Eleizarako ez da
sarri izaten giro,
baina bai plazarako
astiro-astiro.

29

Mesedeak hautsetan,
kalteak harrian,
kontuz ibili, lagun,
horreen hurrian!

30

Gizona beti gizon
lehen, orain ta beti;
holan beharko da-ta,
holan izan bedi!

GURE ARTEKO SUPERGIZONAK

1

Euskadi barri eder bat
 dogu jaso beharra,
 lehengoa dago zaharra;
 hainbeste jainkoz ta legez
 dago txepel samarra.
 Agertu jaku behingoan
 supergizon azkarra:
 legetzat dau indarra,
 hil edo bizi, agindu;
 bestelan, su ta garra.

2

Agindu nagusiena:
 “nik neure atsegina”,
 besteei hondakina.
 Inor izorratu eta
 norberak etekina.
 Neurritz gain hartzeak dakar
 mozkor ta irakina.
 Ondorena jakina:
 supergizon izan nahita,
 giza pizti erkina.

3

“Nirea neuretzat eta
 zurea da biontzat”,
 hau bai gero, batik bat!
 Nahi dodana irabazteko
 eskubidea daukat.
 Lapur txikiak kartzelan,
 handiak libre jauntzat,
 eurak egina ontzat;
 supergizon asko dabil
 harrapatzen eurentzat.

4

Gure herriak baditu
 milaka zerbitzari:
 ez boto ta ez sari,
 herriaren izenean
 errespetu berari...
 Horretarako behar da
 neu jarri agintari,
 jipoia besteari;
 supergizon horreengandik
 librau zaitez, Euskadi!

5

Jakitun asko agertu
 jaku Euskal Herrira,
 jakitunak balira!
 Ez ei dogu egon behar
 lehengoari begira.
 Lehengoak danak apurtu,
 kaltegarriak dira,
 barriak plazerdira;
 supergizonak dakarre
 bakea Euskadira!

6

Dana oker dago eta
 egin nahi dogu barri,
 martxa onean jarri;
 Jainkorik ez dala behar
 esan deuskue sarri.
 Baztatu dogun HARRIA
 Bera dogu giltzarri,
 Aitak deusku ezarri;
 supergizon bakar: KRISTO;
 Bera da sinisgarri.

GURE KOMERIAK

1

Gure kontuak zabaldu nahirik
hartu dogu lizentzia,
eskola asko ez dogu baina,
bada esperientzia.
Eskola ederrena
urteak dakarrena,
bizitzako zientzia.
Bizi bazara, lortuko dozu
hartuizu pazientzia.

2

Urte askotan bizi dan batek
daki bizitzako barri,
neurri danetan probatua da,
behin lasai eta behin larri.
Lehen dana zan pekatu,
ta gaur dana askatu...
Zer dan ona nork igarri?
Sasoia joanda, bozala kendu
eta pentsua ekarri...

3

Gure kontuak kontu ei dira
sarritan dogu entzuna,
zelan ukatu geure bizitzan
geuri gertatu jakuna?
“Ekatzu daukazuna,
zuretzat dakizuna...”.
Hau da gaurko erantzuna.
“Errepartuan gomutau nitaz,
ene amama kuttuna!”.

4

Gure eskola gehiena dogu
geuk narrutik ikasia,
baina sinistu ta entzun nahi ez,
hau bai dala desgrazia!
Euskaldun ta fededun
geurean iraun daigun,
zaindu geure arrazia;
beti bezela, izan dagigun
Jaungoikoaren grazia.

5

Ondo jan ta lo, hartu atsedean,
 eta bazterrak ikusi,
 hauxe da gure bizi guztiko
 sasoi eder ta nagusi.
 Ez itzi inun zorrik,
 ta ez hartu mozkorrik;
 buruari goian eutsi!
 Lehen gatzaroan zer izan ginan
 zahartzaroan erakutsi.

6

Luzaro bizi izan garenok
 pobre edo miserian,
 ez gara neurritz ondo moldatzen
 orain dogun gulerian.
 Infernuko hauspoa,
 gaur da aingeruzkoa,
 hau suerte txarra ferian...
 Txanda pasata, sartu gara gu
 bizitzako komerian.

7

Jubilatuok askotxo gara
 eta gero ta gehiago,
 guztiok alkar hartu ezkerero,
 joko genduke ordago.
 Ahal doguna geuk egin,
 jokatu alkarrekin;
 gure indarra hor dago.
 Hainbeste diru eta aukera
 ez zan izaten lehenago.

8

Kontu kontari hasi ezkerero,
 ezin egundo amaitu,
 Hauxe esanda, nahikoa dogu
 inor ez dedin gogaitu.
 Gaurko gure esanak
 egiak dira danak,
 nahi badozue jarraitu.
 Nahi genduzanak esan ditugu
 horrek kontsolatzen gaitu.

GURE KONTUAK

1

Gaur, ixo; ta bihar, arre;
zergaitik gabilz hasarre?
Hoba da geure buruari geuk
adarra jo eta barre.

2

Berez dogu gor haizia,
atso-aguren trazia;
hau be batzuetan ez dator txarto:
entzungor baten grazia.

3

Hanka bietan herrena,
zahartzaroak dakarrena;
nahi dan hankatik herren jartzea
ez da bakarrik zaharrena.

4

Tente jarrita balantza,
lanean hasita kantsa;
herren, erreumak kentzeko onenak:
juerga, soinu eta dantza.

5

Eztul eta domestiku
ahal dana egin ta kittu...
Errezetak nik baditut, baina
neu naz gaixo ta mediku.

6

Jimnasia ta praktikak,
bazzarrak bete botikak;
martxa honetan ehunen bat urte
kunplittu baietz, Monikak.

7

Nire indarrak beherago,
jenio txarrak gorago;
zahartuta gero gure defentsa
esperientzian dago.

8

Zaharren abilidadia
ez da titulu haundia;
solo, mendi ta etxea izan da
gure unibersidadia.

9

Jokuan hasi ezkeru,
mantsoenak ere bero;
santu ta santa dirudienak
hemen dira injeniero.

10

Egun handia da eta
ekarri urdai, txuleta;
bihar hasita, tokatzen dan lez,
egingo dogu dieta.

11

Gorputza ajez beterik,
baina bihotza gazterik;
maitemintzeko kapaz gara ta
zergaitik bizi tristerik?

12


Ez gara santuak, baina
hain txarrak bez, alajaina!
Hainbeste urtez egingo gendun
zeruan sartzeko aina.

13

Kristau eta katoliko
danok gara gu betiko;
san Pedrok dino: zerua danok
dogula irabaziko.

14

Danak agertu baino lehen,
isiltzera goaz hemen;
hau holan da ta holan izango
beti seculorum. Amen.



HAU DA KOMERIA!

*Hau da komeria!
Nirea neuria da,
zuria geuria. (bir)*

1

Mundu berean bizi
behar alkarrekin,
danok nahi dogu, baina
bakez bizi ezin.

2

Hamarretatik zortzik
alperrik esan: bai,
zortzi galduak dira,
bik ez badabe nahi.

3

Danok dogu gustuko
gaur demokrazia,
ez da errez hezitzen
gure errazia.

4

Antxinatik esana:
“geu beti nagusi,
kontra jarten danari
musturrak jo t’ausi”.

5

Eskoin eta ezkerak
beti alkar etsai;
ta beti alkar behar,
bakarrik dauke jai.

6

Ez da inoiz ikusten
egia osorik,
Goikoa baino ez da
beste Jaungoikorik.

7

Idiak bi begitzar,
sei saguk hamabi;
inguruan zer dagon
hobeto nork daki?

8

Betikorik ez dago
Jainkoaz aparte,
dana osotuz doa
azkenera arte.

9

Dana dago nahastean
zuzen eta oker,
Jaunak banandu arte
ardi eta aker.

10

Alkarri entzun eta
jo alkar lanean,
prest egon aldatzeko
orduak danean.

11

Hamar hamarren aurka
hutsa eta parra,
bost gehi bost hamar dira,
hor dago indarra!

12

Egi eta on hutsa
ez da ezer hemen,
patrifilio ondoren
esaten da: amen!

HAU DOK HAU DEMOKRAZIA!

1

“Heldu da demokrazia”,
itxaro dogun grazia,
ondoren hau desgrazia!
Berrogei urtez asko zabaldu
da diktadore hazia!
Ez da galdu errazia,
bada nun hartu trazia:
eurena dabe plazia.

2

Han ta hemengo pregoia,
bota mitin ta sermoia:
“Geuk daukaugu errazioa”.
“Geuretzat dira kale ta plaza,
besteentzat espaloia”.
Bildurtuta nago ia,
noiznahi prest dago pistoia;
bada nork emon jipoia.

3

Herria jarri nahiean,
herri izateko heinean,
esaera bikainean.
Biraoak ta hitz potoloak
nahas-mahasean mihingainea...
Egon danok jakinean
zergaitik dan azkenean:
“herriaren izenean”.

4

Demokrazia barria
goitik behera ezarria,
batzuentzat ongarrria.
Herriak botoz aukeratzen dau
bere bizi oinarria;
beste batzuk buztarria.
Hortik galdera larria:
“nork daki nor dan HERRIA?”.

5

Demokrazia zabalik,
herri bizitza makalik;
ez da bakezko itzalik.
Geu gara nahiko, ez dogu behar
"salbatzaileen magalik".
Hasi lanean apalik,
hemen ez da behar balik;
ez ETarik, ezta GALik.

6

"Ez dogu behar Jainkorik,
ezta beste holakorik";
bada jainkotxo nahikorik!
Jainkoa bego bere lekuan
ta ez jarri ordezkorik.
Ez galdu errespetorik,
eta ez mindu hurkorik.
Demokrazia osorik!

7

Ikusiz zelan gabiltzen,
euskaldunok alkar hiltzen;
ez dago errez umiltzen.
Alkarri entzun ahal izateko
ikasi daigun isiltzen:
alkarregana hurbiltzen,
alkar lanean ibiltzen;
demokrazian bizitzen.

8

"Hilda gero, kapitana,
konponduko dogu dana",
hau zan uste genduana.
Anai burrukak behingoz itzita
batu gaiten alkargana,
egin daigun apur bana,
Demokrazia, laztana,
da eguneroko lana.

KARNABALETAN

1

Hemen dira karnabalak
horretan gaituk makalak!
Txiki ta haundi egiten doguz
beti egin ahalak.
Kontsumo giro petralak
astintzen deuskuz hegalak,
orduan datoz santu bezero
askoren tripalak.

2

Mozolo eta tximino,
danetik dago oindino;
Gotzain ta monja nahastean dabilz,
bardin demonino...
Akelarre, erlijino
ta mila burutazino,
gure artean ze pizti dagon
horrek berak dino.

3

Santu egunak gitxitu,
jan-edanekoak gehitu,
debozino onak ze indar daukan
ezin dot sinistu.
Gero baztarrak txikitu,
inun ezinik kabitu;
narru betean ibiltzeak ere
bere lanak ditu.

4

Garizumako atean
hainbeste jan-edatean,
barau bijili egin leiteke
Pazkoak artean...
Jan-edan aska betean,
giza legeen kaltean,
gehiago ezin hartuta, ixo!
halako batean..

5

Hor emakumea, gizon;
 gizona emakume don;
 kristaua, jentil; jentila, kristau;
 Marijai, Zeledon.
 Ezkongaiia dago ezkon,
 ezkondua dabil txintxon;
 zu konpontzerik ez dago eta
 amen, kirieleison!

6

“Paroak galdu deusku hau”,
 zenbat holako alarau!
 Karnabaletan ez da parorik,
 horrek harritzen nau.
 Bardin gentil eta kristau,
 agindu ta lege triskau;
 bide hortatik aurrera laster
 gureak egin dau!

7

Inauteriak urtero
 ospatzen ditugu bero,
 gaitzerdi, beste holako asko
 ez bada espero.
 Beti jai egin ezkerro,
 ea zer datorren gero?
 Santu bezeru asko dituzu
 giza legez zero.

8

Jai egin Karnabaletan
 behar dan giza legetan,
 ta Garizuman sartu gaitezan
 fedez ta benetan.
 Jokabide zuzenetan
 onerako dan ustetan,
 aspaldi baten guztiok gagoz
 beharrizanetan.

MIHINA SALTSAN

1

Askoren gogokoa
ohi da mihina saltsan,
ze mihin eta ze saltsa
hor nago zalantzan.
Mihin gaiztoak hamaika
ipinten dau dantzan!
“Nor nor dan mihinak dino”
antzina esan zan.

2

Ez da gauza handia
mihin edo mingaina,
giza gorputzean dan
txikien tamaina.
Indar handia dauka
txikia da baina;
mundu osoa errez
hondatzeko haina.

3

Ezjakina nahiz gaixo,
pobre nahiz gixajo,
kapaz da aita santua
narrutzeko majo.
Kaxkajoak santutuz,
santuak kaxkajo;
ezetz hainbeste kalte
mailuaz jo ta jo.

4

Aurretik mosuka ta
atzetik aginka,
sasi artetik sasta
sugea bardin da.
Saltsa-maltsa askotan
marmarka ekinda,
jaunartzeaz bakarrik
garbitu ezin da.

5

Mihinez egiten dogu
Jainkoa goraldtu,
hurrengoan beragaz
hurkoa zapaldu.
Gauzarik ederrenak
mihinak baietz galdu;
edozer egiten dau,
erosi nahiz saldu.

6

Geuk buru-bihotzetan
zer dogun pentsatzen,
horixe da guk mihinez
doguna zabaltzen.
Zahartu arren, ai mihina
ez jaku makaltzen,
mihin lanetatik ez da
inoiz jubilatzen.

7

Mihin gaiztoak ezin dau
 prestau saltsa ona,
 edozer hondatzen dau
 ikutzen deutsona.
 Mihinez garbia dana
 hori bai gizona,
 nonahi sortuten dau-ta
 bake zoriona!

8


Jesusek esandakoa
 ekarri gogora:
 “gatx dana datorrela
 barrutik kanpora”.
 Saltsa txarreko mihina
 moztu ta zokora,
 ta saltsa onekoa
 guztion ahora.

9

Mihinez zenbat zoritxar
 ta negar dan sortu!
 Nahi diranak esanda,
 ondoren autortu...
 Saltsa txarraren gatxa
 ezin da agortu,
 orain ez bada gero
 bada nork zigortu.

10

Gehientsuenok gagoz
 mihinetik gaixorik,
 ikusi nork ez daukan
 hontan arazorik.
 Jaunak gorde gaizala
 bihotzez osorik
 eta mihizko lanetan
 garbi ta gozorik.



ARDAUAREN LAU INDARRAK

1

Fede kontuan larri
dabil gure Praisku,
ardauak jarten deutso
mila bat arrisku.
Jaunak sortu dauanik
ezin dau sinistu:
biziak hilten ditu
ta hilak berbiztu.

2

Entzun gaur zelan dan
Praiskuren eskola:
ardaua deabruak
jarrita dagola.
Lau piztien odolez
indarra daukola:
loro, tximino, otso
ta txarri odola.

3

Loritoen odolez
erne zan ta kito,
asko edan arren be
inor ez da ito.
Horra tabernan zenbat
kantari lorito!
Frantses be egiten da,
latin be polito...

4

Ai, tximino odolak
zer indar dakarren!
Horrek indartu eban
ardaua bigarren.
Asko dira etxean
gixajo ta herren,
baina tabernan dantzan
herren egon arren.

5

Hirugarren odola
 emon dau otsoak,
 horrek atera deutsoz
 mahatsari moltzoak.
 Ardauaz otso dira
 bigun ta mantsoak,
 horrek berotzen ditu
 agure t'atsoak.

6

Txarri odoletik dau
 laugarren indarra,
 botika beroa dok
 ai, arda naparra!
 Laster prakak galduta
 zabalik paparra,
 lau hankan loka dabilz
 tirri eta tarra.

7

Ardauaren kontua
 ez ahaztu, Periko,
 pizti gaiztoa da ta
 aldendu betiko.
 Bardin da komunista,
 bardin katoliko,
 arda asko edanda
 ez danik jausiko.

8

Ardauagan batuta
 horra lau piztiak,
 nornahi hondatzen dabe
 bat edo bestiak.
 Buru zentzunak galdu
 ta nahastu eztiak,
 ardauak sarri ditu
 ondoren tristiak.

IKUSI MAKUSI

*IKUSI MAKUSI!
KONFORME BIZI DANA
BERA DA NAGUSI!*

1

Batzuetan negar zotin
ta besteetan barre,
ni konforme bizi naz,
iso edo arre. (bir)

2

Ohetik jaiki baizen
laster ispilura,
neu hantxe ikustean
jatort barregura.

3

Zelan alaitzen dodan
aurpegi tristea?
Neuk neure burari
kontatuz txistea.

4

Inoiz etortzen bajat
umore larria,
kili-kili eginaz,
blast!, irribarria.

5

Gauzak ahaztu ta galdu,
ta zer egin hari?
Onena barre egin
zeure buruari.

6

Eztul eta gorroa,
sarri domistikun;
“Aitearen” eginaz:
dominus vobiscum.

7

Begiak lausotu ta
belarriak gortu,
disimulatu barik
hobe da autortu.

8

Ibili nahi ta ezin,
eskuan makila;
hauxe dot bidelagun,
zintzo ta isila.

9

Edonoiz ta edonun
urteten deust tarrat,
zer egingo jakok, ba?
Agur, Matxin parrat!

10

Lo egon beharrea
ekin errezetan,
mezatara joanda
sarri amesetan.

11

Gauzak gorde ezinda
dana dariola,
alboan dagoanak
igarri daiola.

12

Jainkoak egin gaitu
atso ta agura;
geu konforme bagara,
zer deutso ardura?

13

Holantxe egin gaitu
gure Jaungoikoak,
atso-agura gara
lehengo mutikoak.

14

Zoritxarrez hil ezik
lehenago gatzetan,
apurka joan behar
gatzetan, gatzetan.

15

Prest gágoz betetzeko
Jaunaren esana,
ez jaku inoiz damu
hain zaharrak izana.

16


Onartzen dogu pozik
gure edadia,
Jaunak emon deiskula
konformidadia.

17

Ditugunak ditugu,
ez kendu urterik;
danak ez dabe izan
holango suerterik.

18

Orain arte holan da
ta izango beti,
Jauna, Zeuk nahi dozu-ta,
halan izan bedi.



MENDIKO JAIALDIA

1

Arratsaldero mendian zehar
 zer ibilaldi gozoa!
 Zoragarria iruditzen jat
 gure izadi osoa.
 Arran ta dunbaz behi, zaldi t'ardi,
 bizi pilpilka basoa.
 Hau ikusita berez sortzen da
 errezua ta bertsoa,
 besteak beste, hauxe bai dala
 munduko paradisoa.

2

Kaletik urrun mendi aldean
 hau bakardade isila!
 Joan-etorri gozoan dantzut
 hots, kantu ta doinu mila...
 Goiko basoan haizeak txistu,
 ondoan txirtxir kirkila;
 txoriak txortxor, ibaiak murmur,
 egundoko iskanbila.
 Soinugailu hau jotzen dauana
 bai soinu-jole abila!

3

Goian zerua ta behean lurra
 bitarte luze zabala,
 bero samurra zabalduen jat
 ama lurraren magala!
 Janaritzen ta gozatzen gaitu
 amak haurtxoa bezala.
 Hemen biguntzen da gogorra ta
 lasaitzen ziztrin petrala;
 holako ama emon deuskun HA
 ez da ez makala!

4

Izar, ilargi ta eguzkia
 goitik argi egiteko,
 lurra, aidea ta itsasoa
 behetik jaten emoteko...
 Bizileku hau emon euskunak
 zoriontsu izateko,
 ez dau onartzen batzuek mahaian,
 beste batzuek mahaiepeko...
 Alkarri jaten emon deiogun
 eta ez alkar jateko.

5

Gure egarri barrukoenak:
 bakea ta osasuna,
 eurok ezean, alperrikoa
 gainerako ondasuna.
 Ama lurra da osagile bat
 guztiz argi ta biguna:
 haizez ta beroz barrizten gaitu,
 argiz birbizten barruna.
 Berez igertzen da berarengan
 igaro dogun eguna.

6

Mendian, a zer zine polita!
 Bada hemen zer ikusi:
 bakoitzak bere ahalmen dohaiak
 besteei nahi erakutsi...
 Handi ta txiki apain jantzita,
 biluzik be ez itsusi!
 Eskola hontan Maisu dogu-ta
 entzun deiogun Jesusi:
 guztiak onak dirala, baina
 gizona dala nagusi.

7

Hau da bakea! Hau atsedena!
 Mendian beti dago jai...
 Jaialdi hontan parte hartzeko
 bihotz garbiak dira gai.
 Jainkozalea mendizale da,
 han sentitzen da Jainkoz blai.
 Mendiko jaia dastatuz gero,
 barrero noiz joango zai;
 hemen gorputza gozatutzen da,
 buru ta bihotza be bai.

8

Izadiaren eliz handira
 behar da fedez hurbildu,
 eta "Aitearen" eginaz bertan
 barreneraino murgildu.
 Ardurak, kezkak eten ta bota,
 kanpo ta barru isildu.
 Aita-Amaren bihotz hondora
 ume txikia lez bildu;
 maitasunezko itsas hontara,
 ai, nor leiteken amildu!

NORK DAKI ZIUR ZER DAN?

1

Badot lagun bat, Txanton izenez,
nunahi oso ezaguna,
bizitzan zehar jasota dauka
jakiturizko zentzuna:
“nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Hau Txantonen erantzuna.
Bizitzen ondo ikasia da
Txanton maisu jakituna.

2

Zaldiak ihes egin eutsan behin
bere ondasun bakarra,
bere lagunak penaz beterik:
“Txanton, hau da zoritxara!”.
“Nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Zagoze bakez, lagun zaharra.
bere ondoan ez eban gura
inoren zotin negarra.

3

Urte betera bere zaldia
moxal ta guzti etxera,
jakin orduko zorion kantuz
lagunak Txantonenera.
“Nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Txanton berean aurrera.
Bake umorez agertzen jatzun
beti gitxi gorabehera.

4

Zaldi gainetik semea jausi
eta apurtu sorbalda,
eta lagunak Txanton poztuten:
“besterik ez jatzun falta!”.
“Nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Dana bardintsu ez al da?
Txantonen ustez ta esperientziz
bizitza da porru-salda.

5

Soldautzarako deia mutilei,
Txantonen semea aske,
Txanton bihotzez zoriontzera
herriko zahar eta gazte.
“Nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Ala bietatik nahaste?
Gozo ta garratz gure bizitza
berez da nahaste-borraste

6

Ondo gogoan hartzekoa da
gure Txantonen eskola,
gure bizitza horrela bada,
ez jarri aurka inola.
“Nork daki ziur zer dan,
zuzen ala oker dan?”.
Betor dagona dagola.
Danon partetik zorionak ta
Txantoni bejondeiola!

OPORRALDIA

1

Bizitzan zehar bada
hainbat neke, guda.
hau ezin da duda;
Beti holan ezin da,
beharko da muda.
Hemen dator urtero
maite dogun uda,
indarrak barrizteko
puntuan heldu da:
zatoz, uda maitea,
behar zaitugu-ta.

2

Hona oporraldia
pozezko denpora,
nor ez da gustora?
Hegoak zabaldua
ez al zoaz inora?
Senideak hor dira,
ez bota zokora;
jaiak be datoz ta
alkartu auzora.
Bizibarritu zaitze
ta gero arlorra.

3

Zatoz, oporraldia,
guztion pozgarri,
danok zure egarri?
Zugaz noiz alkartuko
gagoz estu, larri.
Praka motzak jantzita,
koipeak ezarri;
hegoak astinduta,
nora nok igarri?
Frantses nahiz ingles izan,
kaixoka alkarri.

4

Bizitzako burpilak
garratz txirria
ta amorrazioa.
Oporraldian bota
behar orioa.
Hartuemonak zaindu
ta amodioa,
alkar konbidatzea
da usadioa;
ondo jatorku danoi
udako sasioa.

ORAINDIK EZ DA AZKENA

Gure artean askotxo dira
denporaren igarleak,
aspaldi baten, beti dinoe:
“badatoz denporaleak”.
Benetan edo plantan,
beti hileta kantan...
Enei, zelango aleak!
Eskailutxo bat ikusi orduko,
mundu beteko baleak.

Orbela jausi, hazia erein,
horixe da zemendia,
orain usteltzen diran haziak
laster lorez hemen dira.
Hau, hori ta bestia,
dana ez da pestia!
Ez ikaratu jentia.
Ez da zelaia, hau da adorez
igon behar dan mendia.

Sekula santan ez da gertatu
gaur ikusten dan konturik,
baina besterik ez da inoiz izan
gaur bezelako mundurik.
Negarrak eta pozak,
Txo! txandaka jatozak...
Ez jakin egun ta ordurik.
Ez lehen ta ez gaur, inun ez dago
bedar txar bako orturik.

Gorengo Jauna, Ahalguztiduna
estalpetxo baten dardar,
gogoz ikasi nahi dabenentzat
zer ikasia badakar.
Jainkoa izan arren,
gizon kanpo ta barren...
“Nik ezin dot” esan behar.
Berak egin ta esan ebanez:
danok hartu daigun alkar.

PASADIZUAK

1

Mediku jauna, nire andrea
zein azkar dozun osatu!
—Atsotu dala esan deusat ta
ez da gehiago kexatu.

2

Zu al zaitugu herri honetan
txakurren pelukerua?
—Bai, neu naz, Txanton, hau azkena da
ta zeu zara hurrengua.

3

Esaminetan maisuak Joni:
—Esaizu: guk zenbat begi?
—Lau, maisu jauna, berorrenak bi
eta nireak beste bi.

4

Zuen etxean danak al dauke
errezatzeko ohitura?
—Txakurak eta asto-txarriak
ondo jan eta logura.

5

Hau soldautzako suerte galanta:
—Tú, director de fabrica.
—Bai zera, Lontxo! Hauxe esan deuk:
“Tú, directo a África”.

6

Dozenatxo bat arrautza, Joxpa,
nahi neukez egunekoak.
—Arrautzarik ez dabe egiten
gauetz gurean oiloak.

7

Aitak ta amak ume polit bat
Parisen erosi dabe.
—Pobrea danak dana etxean,
ume txikia bada be.

8

Nik urtean behin harrapatzen dot
sekulako bronkitisa.
—Nik egunero hiru-lau bider,
ez dok ezautzen Felisa.

9

Autortu eta zelan leiteke
atera umore txarra?
—Hau komedia! Kredo bat jakin
ta hiru esan beharra!

10

Gure mutila eskolan zelan,
Ama Birjina Karmengo?
—Sartzerakoan, azkenengo; ta
urteerakoan, lehenengo.

PENTSAMENTU TXARREN INDARRA

1

Laguntza eske nator
Jainko zerutarra,
emoidazula buru
ta bihotz azkarra.
Gauza bat daukat danei
azaldu beharra:
pentsamentu tristeak
dadukan indarra.

2

Pentsamentu tristea
badozu buruan,
sentimentu tristea
sortzen dau barruan.
Eta nahigabe iluna
pozaren lekuan,
tristura aurpegian
eta inguruan.

3

Aiene ta oiene,
noiz zer etorriko,
gehienetan egualdi
txarra pronostiko.
Pentsamentu tristea
da berebiziko:
laster zaparradea
deutsu ekarriko.

4

Pentsamentu tristeak
jartzen gaitu ilun,
bihotza ahultzen deusku,
orduan dana astun.
Lapur hori kanpora
azkar bota daigun,
eta eutsi goiari
Jaungoikoa lagun.

5

Pentsamentu tristea:
“gaixo ete dago?”.
Egon ez da be, gaixo
jartzen da lehenago.
Pentsamentu tristeak
atxurra ei dauko:
enterradorea da;
orduan akabo!

6

Pentsamentu tristeak
indarra dauko-ta,
urduri jartzen gaitu
ta azpira bota.
Kezkaz larri bagabilz
laster gagoz jota,
ondoren dator, lagun,
seguru porrota.

7

Pentsamentu tristea
 daukanak beti gau,
 besterik ez dau joten:
 zotin ta alarau.
 Gixajo agertzen da:
 "nireak egin dau".
 Geure buru ta bihotz
 apurtzea da hau.

8

Pentsamentu tristetak
 erabiliz sarri,
 lagun, hori bai dala
 zeutzat kaltegarri.
 Zeuk dakaruz zeugana
 ta nagusi jarri;
 eurak bihurtzen jatzuz
 kate ta buztarri.

9

Geugan sortzen bajakuz
 pentsamentu onak,
 zer zoriona daukan
 holako gizonak!
 Zorionez bizi dan
 aiton ta amonak
 nunahi sortuko ditu
 poz ta zorionak.

10

Zeure burua zaindu
 eta izan gizon,
 eta bizitza ona
 dala ziur egon.
 Zeure aldetik, lagun,
 ahal dan-dana emon;
 eta izango dozu
 munduan zorion.

11

Badituğu bizitzan
 mila ezusteko,
 baina beti Zeu, Jauna,
 zaituğu aldeko.
 Izan nahi doğu, Jesus,
 Amaren antzeko:
 onean ta txarrean
 Zeuri jarraitzeko.

12

Alde batetik, Jauna,
 Zeu behar zaituğu;
 bestetik, ahaleginak
 egingo dituğu.
 Ez da pentsamenturik,
 sorgin, ez deabru,
 bentziduko gaitunik
 batera Zu ta gu!

«PRESTIGE» SALATARI

1

Itsasoan galipota,
isuria ala bota?
Egia jakin gura dauanak
jaso begi nota:
errege ez bada sota,
hemen dagona dago-ta,
bitartean hor arrantzaleak
dagoz lurra jota.

2

Arrantzaleak hasarrez,
Madrilera deiadarrez;
erantzun ordez, promesa onak
lagundu beharrez.
Aspertu dira Aznarrez,
hitz gozoz ta irribarrez;
gogo oneko alkar lanean
tonalak dakarrez.

3

Holan bazan ta ez bazan,
ni banoa hortik kasan;
ai, galipota zurituko dok
haren esperantzan.
Milaka tonal balantzan,
olatu gainean dantzan;
ez dira gauza danak konpontzen
Maruriko plazan.

4

«Prestige» itsas hondoan,
badakigu zer dagoan;
ez da bizirik ezer gelditzen
haren jarioan.
Galipotaren jokoan
hartu hau ondo gogoan:
hamaika «Prestige» badozak,
jaunak, gizonen kokoa!

5

Itsas hondoan emoia,
biziarentzat pozoia;
errudun danak irabazi dau
kristoren jipoia.
Alperrik da errazoia,
zertarako da sermoia?
Egi-guzurak konponduteko
nahiko da lehoia.

6

Ez bada atrebentzia,
nun dago kontzientzia?
Fuel jarioz galdezka dago
«Prestige» ontzia.
Emona da sententzia,
zuk izan pazientzia;
fuela baino errezaño da
lotsea kentzia.

TESTIGUA HUTSIK!

1

Ez al dituzu ikusi
ume, gazte ta nagusi:
testigua argi zuzi,
mezu eder ta guzi?
Azkenerako zer lotsa:
testigua, paper hutsa!

2

Euskal Herria korrika,
milaka joan-etorrika;
zelai, mendi, karrika,
"Euskera" aldarrika.
Testigua dala buru,
salbatu gara, seguru!

3

Laztanka eta besarka
ezker, erdi eta karka;
Euskera, arren, parka,
zu zara Noen arka.
Gero, gogorrena, horra:
testigua lotsaz borra!

4

Testigua hutsik dago,
jakin bagendu lehenago...
Hainbeste ozpin trago
ez genduan edango!
Nork hustu dau testigua?
Merezi dau kastigua.

5

Zer jazo dan nork igarri?
Susmoz begira alkarri.
Batekoz beste jarri,
ez al da lotsagarri?
Eta danak dagoz lasai,
aixkide, egiok usai!

6

Milaka euskaldun finak
korrika asko eginak,
mezu baten doktrinak
gordetzen ahaleginak;
azkenarako lapurrak
itzi deuskuez hazurrak!

TXARRIBODAKO KANTAK

1

Egun on bihotzetik
andra ta gizonak!
Jakin daiala zer dan
begira dagonak:
Txarriboda dogu-ta,
gutzat zorionak;
eta txarriarentzat
kirieleisonak!

2

Holango bat urtean
noizean behin zor da,
denpora joanda gero
alperrik akorda...
Ondo jan ta edanda
kanta "sursun korda".
Jauna, bedeinka eizu
gaurko txarriboda!

3

Bizitzan sarri gabilz
estu eta larri,
orduan ondo dator
artxo edo txarri.
Zorionak, eskuak
emonaz alkarri!
Gaurkoa da, eskerrak
Anjel ta Pilarri.

4

Txarriak txarra dauka
bakarrik izena,
osorik jatekotan
bera da onena.
Antza, ona izan da
hemen hil dabena;
txaloz egin deiogun
berari omena.

5

Dinoenez, txarria
hain ona izan da,
danetarik jan eta
edonun etzanda.
Dana ez da amaitzen
zati bana janda,
baita bere antzera
on-onak izanda.

6

Gogoan ondo gorde
gaur hemen esanak,
eta danoi on egin
gaurko txarri janak!
Zenbat balio eban
gure txarri zanak!
Ez dira holangoak
beste txarri danak!

UDALDIAN ATSEDEN BILA

1

Gizona ez da, jaunak,
tresna ta makina,
eten bako lan ta lan
ta etekina.
Lehortu ez dakion
barruko ozina,
noizik behin bota behar
“super” gasolina.
Ase ikusmina,
hartu atsegina,
itsas haize fina,
beteko bagina...
Guzti hori hor dago
geutzat egina;
berez etorriko da
eza, ezina.

2

Udaldiko oporrak
Nork ez ditu gura?
Txiki nahiz handi hartzen
doguz gustura.
Itzi alde batera
prika ta estura,
ez dauka gu bildurrik
heltzeko ordura.
Batean olgura,
bestean logura,
librua eskura,
begira zerura...
Zenbat kontu datozen
gure burura!
Eguzkia sartu da
ta ze ardura!

3

Udan sartu gara ta
badatoz oporrak,
pixka bat arintzeko
neke ta lorrak.
Lehenen jarri patxadaz
kotxe ta motorrak,
gero gainean lotu
trasteri montorrak.
Astindu mokorrak,
martxan hanjorrak,
Salou, Benidorrak,
horreik bai altxorrak!
Ondo izan nausi ta
ume koxkorak!
Kontuz, ez dira onak
uda mozkorrak!



Udaldian atsedeen bila.

ZER DALA ETA ZER DALA?

1

Zer da gauza bat gehiago kendu ta handiagoa dana?

—Gaztatu ahala, poltsan egiten jatzun hutsuna, laztana.

2

Samea badau ta bururik ez, zulorik ez eperdian;

—Begiratu ta boteila dozu, ez ibili pikardian.

3

Sasian sartu ta urratu ez ta uretan ezin busti.

—Zuri ezağun jatzuz izenak: ilargi eta eguzki.

4

Bada fruta bat kanpokaldean daukana bere hazia.

—Ez da besterik, baina hauxe da malukiaren grazia.

5

Upela zegaz bete behar da gitxiena pixatzeko?

—Zuloz beteizu ta zeuk ikusi, neu ez banaz fiatzeko.

6

Aita-amak bina, alabak hiru, semeak ez daukana da.

—Astoak ere ondo daki ta, ez al dakizu zer dan A?

7

Loretan zuri, txikitan berde, neska-mutikotan gorri.

Atso-ağure sasoian baltza?

—Masusta deitzen jako horri.

8

Hemen badago ta han ez dago, ez dago hor, ezta han be.

—Nik esan barik, igerri baietz, badakizu ta esan: E.

9

Hilero dago jaiobarria ta jan barik bete-bete.

—Badakizu ta ezin igarri? Ilargia dok, arlote.

10

Jaungoikoak bat bakarra dauka eta bi bai ijituak.

—Hi lango batek, I dala esan eta ha zer merituak!

11

Beso luzeak ta eskurik ez
ta saman burua falta.
—Zeu ez bazara, zer dan igarri;
alkondarea ez al da?

12

Geure kolkoan bi daukaguz ta
gorputzean bat bakarra.
—Aldrebeskeri hutsa dirudi,
ez al da O, lagun zaharra?

13

Atzean zulo ederra dauka
ta aurreko puntan punta.
—Zu ez inori begira jarri,
hartu jostorratz arrunta.

14

Oilarrak kanta, kukuak lata,
idi sama luzeak: muuu!
—Ez badakizu, adarra joaz,
mozoluak dinotsu: UUU.

15

Langile bat da luze bizkorra,
bestea alper, kojua.
Martxan hamabi geltoki daukaz.
—Hau ez al da erlojua?

16


Mendian jaio, mendian hazi,
etxean sartuta, dantza.
—Lagun eiozu, zain daukazu-ta,
ate ostean erratza.

17

Nork ez dau entzun edo sentidu
mendi arteko trumoia?
—Ez da ikusten, bai da sumatzen,
zer dan esaten ez noia.

18

Bada zertxobait kentzen jakonaz
egiten da haundiago.
—Egingo neuke zuloa dala,
hori begibistan dago.



ZUK ISO ETA NIK ARRE

*ZUK ISO ETA NIK ARRE,
NEGAR EZ DENEAN, PARRE,
KONTU TA KANTU, TXISTE TA MISTE,
UMORE ONA DAKARRE.*

1

Santu-santak akorduan,
premina dogun orduan;
gure gustura gabilzanean
nork behar ditu onduan?

2

Hartzeko guztiok pronto,
emoteko, barriz, tonto;
zorri bizturik askotxo dabil
inoren lepotik ondo.

3

Don "balitz" ta doña "bazan",
biak alkarrekin dantzan;
haragi gitxi ta salda asko
hoiek egindako saltsan.

4

Gizonak lanean ekin,
Jaunak burutu ta egin;
bizi ezinik ez da, badoaz
biak ondo alkarrekin.

5

Ibaiak ez dira haunditzen
ez badira lohiz zikintzen;
diru poltsa bat ez da astuntzen
mila ez badira arintzen.

6

Dagonean dagontxoa
ai ene ba, gixontxoa!
Urtean zehar porru-salda ta
Pazkoz, ahal bada, artxoa.

7

Hilda gero, salda bero,
hoberik ezin espero;
zertan sareak bota, arrainak
urak eroanda gero?

8

Jan-edanaren goxua,
kontu emonaren gaixua!
Bizi beharra bera da nahiko
gu hezitzeko maixua.

9

Esana bat, emona bi,
esanaz kontenta adi;
Sardinaz doan katu baltzari
atzetik esaiok "xapi".

10

Jantzi txapela buruan
eta ibili munduan;
kontu asko ta probetxu gitxi
horrelakuen onduan.

11

Jan behar da biziteko
eta ez bizi jateko;
hamaika bizi dok lur gainean
lau hankakoen pareko!

12

Kalera urtenda uso,
etxean sartuta otso;
holako baten etxe ingurua
ez dok ibiliko gozo.

13

Non dagon nire gogoia,
han dago nire zangoa;
alperrik amets, ezin eskura
hemengoa ta hangoa.

14

Nirea nirezat dana
ta zurea erdi bana;
karidadea ete da nigan
hasi eta amaitzen dana?

15

Zozoak beleari: ipurbeltz,
inorena danean, latz;
auzoa auzo, dana sastraka,
gurean dana da baratz.

16

Gixona beti da gixon
eta katu baltza mixon;
hatzgura ba haz, hirea don ta
nahi badon, hatzgura eixon.

17

Zaharra beti da ganbelu,
gaztea, barriz, gaztelu;
alkar lanean bizi izateko
inoiz ez baino hobe belu.

18

Gaizki esanak parkatu,
ate ostean sakatu;
lege hoberik ez da sortuko
herria nahi bada askatu.

19

Hobe txori bat eskuan
eta ez asko zeruan;
dagona dago, diranak dira
lehen, orain eta geruan.

20

On eginaren pagua,
ate ostean palua;
leku askotan banatzen da gaur
holako erregalua.

ZEREKO ZERA ZERTZEN

*Alkarren lagun onak
Patxi eta Martin,
bertso kantuan dabilz
sarri alkarrekin.
Lehengo batean biak
ekin eta ekin:
zereko zera zer dan
ea zeinek jakin.*

1

- P. Zereko zera zer dan
zuk ezetz igarri.
M. Halako zer ederra
deustazu ezarri.
P. Zera zertu ezker
ibilten da larri.
M. A bai, zereko zera
Patxi barregarri.

2

- P. Zenbat zer ete dago
zeretik zerera?
M. Honenbesteko zer bat
gitxi gorabehera.
P. Gaurko munduan behintzat
ez goaz zertzera.
M. Lehen baino zerago gaur?
a zelako zera!

3

- P. Zereko zera gabilz
ta ez dago zerik.
M. Zer zer dan gaur nork jakin
zera zertu barik.
P. Geure zerak zertzeko
ez dago besterik.
M. Zerak zertu ezean
ez dago zertzerik.

4

- P. Hainbeste zertu barik
esaizu zeozer.
M. Honenbeste zertuta
hau ez da edozer.
P. Alperrik zerak zertu
zertzen al da ezer?
M. Zerak zertu ezker
zuri ta niri zer?



Lourdesko laku ertzean, Karlos Amantegi eta lagunak.



Mañariko adiskideekin: Justo, Miren, Kandido eta Maria Agelesekin.



Txomin Intxausti, Angeles Mallukiza eta Angel Bernaola, Pilar Bengoetxea eta Maria Angeles Angoitia aita Martzelekin.



Mañariko eleizpean, 2002. urteko urrian, Gerediaga alkarteak Mañariko dantzari helduen omenez antolatutako jaialdian. Jabier Arteaga alkatea, Gerediagako ordezkariekin, dantzari bandera barriari eusten, aita Martzelek bedeinkatzen dauan artean. Mankomunidadean 6 udala dira "dantzari bandera" berezia dabenak; bat, Mañaria. Lehengo zaharra bitrinan gordeta daukie udaletxean.



Komentukale

Komentukale ala kalekomentu? Lehen, Oruen praile eta prailekia baino besterik ez egoan. Gaur egun, nun bizi diranik ere ez. Eta goi eta behe, —Lauaxeta ikastola, Orue egoitza, Ibaizabal argitaletxea, erlijioso alkartea eta guzti— 1500tik gora bazkaltzen dabe bertan. Deitu ere, gaur egun, ORUE AUZOA deitzen deusagu. Jakina, “auzolanaren” eragile eta lepazur pasiotarren alkartea da. Hor dozuz oraintsuko alkarteko kideak, ezkerretik eskumara: Felix Zubiaga, Gregorio Arrien, Resti Aldamiz, Andres Arginzoniz, Pablo Zubizarreta, Fermin Iraolagoitia, Sabin Barrueta (†), Martzel Andrinua, Jose Larruskain, Jose Antonio Garro eta Jabier Jaio. Nahi beste zer ikusi, zer ikasi eta zer egin dago. Hobeto ikusi nahi badozu, zatoz, bideak eta atearak zabalik dozuz.

AGUR, LUIS ANTXIA!

1

Gorputzez haundi, buruz argia,
bihotzez ase ezina,
gure Jainkoak maitasun haundiz
bere antzeko egina.
Hauxe zan Luis Antxia
dohaiz ondo jantzia,
euskaldun fededun fina.
Bizi hazia erein dauana
dana ez da lur buztina.

2

Euskal odola, kristau fedea,
bietan sakon sustarra,
Oiz barreneko lur mardulean
jaio zan Mallabitarra.
Mallabiko Geria;
hau zan bere-beria;
munduan ei da bakarra.
On asko dira, baina onena
han hartutako bularra.

3

Porrot guztien gainerik beti
agertu zan ameslari,
aurpegi argiz ta gogo beroz
begiratuz bizitzari.
Bizitzari baietza,
dana ez da ametsa;
bidez bide aurrelari.
Gure Eleiz ta gure Herriak
behar ditu Luis ugari.

4

Holako gizon bat ezin dogu
bertan behera galtzen itzi,
zuhaitz landarak ugari dira,
tantaiak, ostera, gitxi.
Bizi nahiaren garrez,
heriotzari barrez,
betiko bizirik bizi:
Bizien Aita, bizi betea
emoiozu gure Luisi!



Aita Luis Antxia lurrun gozoa eskeintzen Orueko eleiza barrian; bera izan da luzaro bertako eleiz arduradun. Apartekoa zan, ebilen lekuan ebilela, bizi lurruna zabaltzen. Bernagoitiarrak holan ezagutzen dabe: "aita Luis Bernagoitiko baserri guztietan etxeko izan dogu".

AITA KAMILO HIL JAKU

1

Laurogeita hamaika,
 hori urte pila!
 Orain gelditu jatzu
 bizitza burpila.
 Beti ibili zinan
 Jainkoaren bila,
 Berak eroan zaitu,
 zu ez zagoz hila;
 agur, aita Kamilo,
 hala izan dedila!

2

Zein zora garria dan
 lorea zelaian,
 txoratzen gaituala
 kolore usaian!
 Maite lorea zinan
 danon onginahian:
 Isil, bakez ta apal
 umore alaian,
 orain gozau daizula
 betiko eztaian.

3

Zenbat ordu pozgarri
 txorien kontura,
 otoitzean jardunaz
 kantuen soinura!
 Zeu zinan, oi Kamilo,
 txorien modura:
 gu pozik eukitea
 zan zure ardura,
 zoriontsu izan zaitez
 santuen kantura!

4

Errekastoa polpol,
 txiki, baina garden,
 doa itsasorantza
 nonahi on egiten.
 Zeu zarala, Kamilo,
 zenbatek dakien!
 Txikian haundi zinan
 nor্ক neurtu leiken!
 Jaunak egin zaizala
 zorionez plen-plen.

5

Ahal dan ona eginda,
 min danik ez emon;
 gaixorik egoanak
 zuregan lagun on.
 Zure ondoan beti
 bake ta zorion;
 danagaitik, Kamilo,
 bihotzez esker on;
 Jainkoaren ondoan
 daizula egun on!

6

Danentzat errukia
 eta parkamena,
 beti zeunkan ahoan
 Jesusen izena.
 Orain opa deusugu
 saririk onena:
 ondo merezi dozun
 maitezko omena
 eta Jainkoarekin
 hartu atsedena!

AITA KAMILOREN JAIOTEGUNEZ

1

Euban alkartu gara
anaitasunean,
gaur Aita Kamiloren
jaiotegunean.
Laurogeita hamar urte
ta osasunean...
Zuretzat ZORIONAK
danon izenean!

2

Laurogeita hamar urte
bete dituzula,
ta ondo zaġozala
ezin disimula.
Sano egiten dozu
oraindik eztula,
luzaroan egiten
jarraitu daizula!

3

Ahal dana onartu ta
txarra baztarrera,
jan-edanari ondo
jarriaz barrera.
Ondo ikasi dozu
munduko karrera,
martxa honetan baietz
ehunetik aurrera!

4

Jaungoikoak daki noiz,
mutiko ġinala,
ezaġutu genduan
kaxkar ta makala.
Orain ġeu ġaġoz ia
tipili-tapala,
ġeu aurretik bagoaz
bedeinka ġaizala.

5

Aspaldion ġengozan
kontuan jausita,
txori eskola dauka
ondo ikasita...
Txoriekin etzun ta
eurekin jaġita,
haġaitik daġola ġaur
hain kurloi polita.

6

Badaki ondo zaintzen
ate ta leihoak,
hori eġin behar dau
jaun bikarioak...
Baekian nor jarri
Naġusi iaioak,
biak ere ez dira
aldrebes jaioak!

7

Ondo jakin behar da
noiz egin dieta,
eta noiz jan oilasko
edota txuleta...
Bakoitzean behar dan
neurritz beteta,
danak baino hobea
bere hausnarketa.

8


Laurogeita hamar urte
ez dago dudarik,
baina oraindik ere
ez dago prixarik.
Zu lako batek ez dau
egiten trabarik,
ez joan ordezko bat
hemen itzi barik.

9

Eskaritxo bat, Jauna,
fedez eta umil,
Eubako alkartea
poz bitsetan dabil.
Emoiozu grazi ta
osasuna pil-pil,
bedeinka eizu aurrez,
gure Aita Kamil!

10

Zu zaitugu nagusi
goiko borondatez,
txalo ta zorionak
gaur guztion partez!
Jaunak zaindu zaizala
Pauloren bitartez,
Berak nahi dauan arte
pozik bizi zaitetz!



*Natxituarra zan aita Kamilo. Isila eta apala, irripartsua eta askoren "sekretu kutxa".
Txorizale amorratua, ondo ekian txorien eta antzekoen joan-etorrien barri.
Atsekabe negarra egoan lekuan, inork baino hobeto ekian amarenak egiten.*

AITA PATXIREN BIZI OINARRIAK

1

Haizeak norantz, buruak harantz,
horixe da kainabera,
gizon gehienok horrelakoak
gara, gitxi gorabehera.
Zuk, aita Patxi, jaso zenduan
kurutzeko heziera,
jaiotzez zinan euskalduna ta
pasiotarra, gainera;
zure lagunen esanetara:
“zirudian Jesus Bera”.

2

Zorionean zure ametsak
gaur dira egi pozgarri,
aldare mahaian, zu, aita Patxi,
egin zara Kristo Barri.
Meza emoten, meza entzuten
ta meza laguntzen sarri,
aldarean zer gozotasuna
bizi dozun nork igarri,
gorputz t'arima maitez emonaz
Jesus ta biok alkarri!

3

Indar iturri ziran zuretzat
Jesusen Odol-Gorputza,
horren ondoan ezebeza da
mundu guztiko dirutza.
Zeure aldetik sentitzen zinan,
zu, aita Patxi, hain hutsa!
Zure indarren iturria da
Jesuskistoren kurutza;
non dira zure indar guztiak,
esan, mundu harroputza?

4

Laba gorian sutu ondoren,
dariola su ta garra,
harrigarriak aita Patxiren
kemena eta indarra.
Gorputza ziztrin, buruz normala,
baina bihotzez azkarra,
hau ikusita, anai-arrebok,
dago autortu beharra:
kurutz ondoan eukala bere
indar iturri bakarra.



Aita Patxiren burdinezko irudiaren aurrean, “Revelión de la Sal”
batailoiko kaperau lez gerratean ezagutu eben gudari lagunak,
bere santutasun testigutza emoteko egunean.

AMATAU JAKU IZARRA!

1

Gaurkoan hartu dodan asmoa
ez da arazo kaxkarra:
gizon haundi bat lau zortzikotan
argitan jarri beharra.
Hil jaku aita Ramon,
Gizon argi, apal, on,
izatez pasiotarra;
laurogei eta hamabost urtez
amatau jakun izarra.

2

Kalbarioko kurutz ondoan
hezia eta hazia,
buruz argia, gogoz beroa,
lagun Jaunaren grazia.
Gerratean gidari,
kaperau ta gidari;
askorentzat arnasia.
Euskal Herriko plazan badauka
txapel bat irabazia.

3

Bihotz hondoan errukia ta
irriparra azalean,
emonak emon, hara ta hona
jokabide apalean.
Ehundaka mutikoak,
berak landutakoak
komentuan ta kalean.
Opa deutsagu gerta dedila
goiko zeru zabalean.

4

Autorlekuan ta baztarretan
zenbat jardun eta ordu!
Ondo ekian nori zer esan,
zelan poztu ta bizkortu.
Eskerrik asko, Ramon!
Izan bake, zorion!
Hau bai pozik guk autortu:
gure artean ez zinduzala
Jainkoak alperrik sortu!



Aita Ramon Ormaetxea, bere anaia Benito lagun dauala. Izan ebazan beste erlijioso anaia bi ere eta klausurako monja bat.

AMA, NI PASIONISTA NOA!

1

—Patxi, zergaitik zabilz hain pozez beterik?
 —Ama, zertxobait daukat barruan gorderik.
 —Ez dozu gura, seme, neuri esaterik?
 —Ama, pasionista joan gura dot nik.

2

—Nora joango zara etxetik kanpora?
 —Gabiriara, ama, Jesusen ondora.
 —Umegorri zara-ta, zu kolejiora?
 —Neu langoxeak bertan ei dagoz gustora.

3

—Hortarako oindino hain zara gatzia!
 —Arin amaitzeko hobe denporaz hastia.
 —Ondo deritxazu gu hain arin itzia?
 —Lehenago izango naz Pasionistia.

4

—Komentuan sartzeko ez zaġoz txarra zu!
 —Jesusek gura dau ta, ama, itzidazu.
 —Deabru kume hori, zu nork behar zaitu?
 —Okerrenak ei dira onenak, amatu.

5

—Zuk ezin zeinke, ume, hainbeste ikasi.
 —Jesusek emongo deust behar dodan grazi.
 —Praille motz geratzeko hobe da ez hasi.
 —Ondino ikusi baietz zuk altaran Patxi.

6

—Zu ortozik ibili, zuk ohol gainean lo?
 —Hori baino ez bada, gaurtik gertu nago
 —Prailiak txarto janda, penitentzi asko
 —Baina gehienak dagoz gizen ta morrosko.

7

—Dirurik be ez dogu
gure etxe zaharrean.
—Hiru txahal dagoz, ama,
korta baztarrean.
—Horreik zeuk iruntzita,
gu modu txarrean?
—Ezin dozuna, bota
praileen bizkarrean.

8

—Zelan izten gaituzu
zuk ama ta aita?
—Pasionista noa
Jaungoikoak nahita.
—Zeure guraso zaharrak
zuk ez dozuz maita
—Gurasoak baino lehen
Jaungoikoa baita.

9

—Ez eidazu aitatu,
ume, holangorik!
—Joan arte ezin dot,
ama, egin lorik.
—Ez dozu inoiz euki
zuk bokazinorik
—Bai, ama, Jaungoikoak
gura nau osorik.

10

—Jesusek gura badau,
seme, joan zaitez!
—Eskerrik asko, ama,
bete nozu pozez.
—Jaunak lagun deizula
buruz ta bihotzez.
—Ama, zenbat apustu:
praile urten baietz!



Aita Martzel urte asko ibili zan Bizkaia aldean seminariorako mutiko bila. Asko dira gaur egun, berak eroandakoen artetik, batzuk pasiotar eginak eta beste asko euskal kulturearen munduan ezagunak, hemen hartutako abiadureari esker. Ume artean ere bertso kilikilia erabilten eban.

EUBA... EUBA... EUBA...

I

E uba aldetik nator
zerbait esan nahian,
jakin gura dauanak
zuzen jakin daian:
pasiotarrok gabiliz
patxada alaian,
laguntza bat eskeiniz
gogo onez Bizkaian.

U me, gazte ta nausi,
milaka ezagun,
Bizkaian badituğu
makina bat lagun.
Danon alde da gure
otoitza gau t'egun,
zeuontzat eskatuaz
bake ta osasun.

B atian misinoak,
bestean jardunak,
landu doguz Bizkaiko
herri ta auzunak.
Okerrak zuzendu ta
argitu ilunak,
euskaldunok gaitezaz
beti fededunak.

A diskide ta lagun,
horra gure barri:
gehiago nahi badozu
Eubara etorri.
Inor hortik balebil
estu eta larri,
zerbait egiteko prest,
lagunduz alkarri.

II

E rne! gure ikastola
dozu LAUAXETA,
gehiago ezinean
goraino beteta.
Pasiotarrok beti
hauze gara eta:
euskera maite dogu,
ez da ameseta.

U rrinetatik datoz
ia-ia bi mila,
etxe baten barruan
a ze iskanbila!
Bizkaiko gurasoak
datoz zerbait bila,
"Euskaldun ta fededun
atera, mutila!".

B ardin andereñoak,
maisua ta guraso,
hona, esku artean
nahi hainbat arazo.
Praile ta danok ekin,
ez lepoa jaso;
jarri alkar lanean
buru, bihotz, beso.

A ukera ederra da
euskal ikastola,
gaztetan landatzen da
geroko arbola.
Zuzen jokatzen Jaunak
lagundu deiola,
ongarri izan edin
Eubako kaiola.

III

E z dago dana hemen
oraindik esana,
bada Gogartetxe bat
barriztuta dana.
Hortxe dogu jarrita
gaur gure afana:
ebanjelizatzea,
bizitza ta lana.

U morea badogu
gogo ta indarrak,
bultzatzen gaitulako
goitiko sugarrak.
Ebanjelioz jantzi
sendi, lan ta abarrak,
hau dogu gaur aukera
guk pasiotarrak.

B ultzatu nahi ditugu
ekintza, asmoak,
eleiz barriztatzeko
hain beharrezkoak.
Euban haizerrotan
beteaz auspoak,
zuengana garoaz
Jaun Kurutzekoak.

A bade, praile, monja,
emakume, gizon...
entzun gazte ta nausi,
begira ez egon!
Nork bere buruari
aukera bat emon:
ez ahaztu zeure etxea
Euban zelan dagon.



Hau ez da Euba. Holan deitzen hasi ginan lehenengotan, tren geltokia, korreoa eta abar auzune horretan egozalako. Orue Dudeako san Migeleko auzunean dago.

HAU DOK TXORIA, HAU!

1

Eubako praile alkarte honek
 badau gaur poztu beharra,
 gure aurpegi ta bihotzetan
 hau da poz ta irriparra!
 Hirurogei urtetan,
 Jaunaren aldaretan,
 gure Kamil lagun zaharra...
 Zure pozetan argitzen dozu
 gure etxeko batzarra.

2

Ogi Santua hartu ta emon
 aingeru santuen lana,
 ez jatzu, lagun, damu izango
 bide hau hartu izana.
 Mila esker Jaunari,
 mila ZORION zuri,
 hartu besarkada bana.
 Urte askotan jarrai daizula
 gustatuz zeruko Mana.

3

Kalbarioan gūgaitil hil zan
 Jesusekin bat egina,
 Opari santu hauxe izan da
 zure egizko atsegina.
 Ogi-ardaoak jarri,
 meza asmoak ezarri,
 eleiz bisitari fina...
 Beste askoren hutsegiteak
 zeuk betetzen ahalegina.

4

Bardin argiz ta bardin ilunez
 errezu marmarioa,
 kurutz bidea, salmo kantua
 edo errosarioa.
 Hau kabi dotoria,
 berau dok hau txoria,
 Jesusen kanarioa.
 Euban luzaro izan daigula
 zure otoitz jarioa.

5

Etxe bateko anaiak gara
 alkarrekin aspaldion,
 zure egun hau ospatu barik
 ezin gu isilik egon...
 Egun on, Aita Kamil,
 pozaren pozez pilpil,
 ez dakigu gaur zer emon.
 Jainkoak graziz bete zaizala,
 guk mila txalo, ZORION!!!



Aita Kamilo.

AGUR, AITA SABIN!

1

Oiz mendiko lur mardulean
jaio zinan eta hazi,
hirurogeita hamahiru urtez
zenbat geza eta gazi!
Hori dok-eta, Sabin,
azkenera arte ekin!
Lagun Jainkoaren grazi.
Gure zorion eta txaloak
ondo dozuz irabazi.

2


Pasiotarren artean sartu
oraindik ume zinala,
Han eta hemen ez zara izan
misiolari makala!
Luzea baizen zabal,
beroa, baina apal...
adiskide on leiala.
Zure hutsuna betetzekoak
Aitaren egin daiala.

3

Gizon jatorra, praile formala
ta euskalzale demasa,
euskal mundua jorratzea zan
bere gogoko jolasa.
Mallabiko Geria,
hau bai zala beria!
Zenbat lan eta gaupasa!
Ez ahaztu tente emon ebala
Sabinek azken arnasa.

4

Azken aldean arlo barri bat
hartu zenduan gustora:
Aitita-amamen mogimendua,
izenez BIZIAN GORA.
Pozik ta irribarrez
ta on egin beharrez,
zure jasa ta ganora...
Gaur esker onez zaitugu, Sabin,
pozik ekarten gogora.



Garro, Fermin, Aita Barandiaran, Jabi Jaio eta Sabin.

NEKALDIKO KARISMA

*Prailerik ez dala-ta,
bada kezka nahiko,
ta zer, batzen bagara
praile, monja, laiko?*

**ZERGAIK? ZERGAIK? ZERGAIK?
ZERGAIK NEGAR EGIN?
GAU BAKOITZAK EGUNA
DAKAR BERAREKIN.**

Nekaldiko Karisma
ez al da betiko?
Geu bizibarritu ta
gugan da biziko.

Paile, monja ta laiko
danok bat eginik,
Jauna lagun dogula
ez dago ezinik.

“Ez dago zer eginik”
ta mila histori...
Aita San Paulok dino:
“Guzurra da hori”.

Jesus Kurutzekoa
horra non daukagun,
geuk iragarri behar
zenbat maite gaitun.

Atxaki ta hiletak
sobra dagoz hemen,
jo daigun lanera ta
esan daigun: amen!

NEURE AMARI

Zuri eskeintzen deutsut
 KEZKAZ nire lana.
 Euskera irakatsi
 zeustan, oi, ama!
 Euskadik ta Eleizak
 biok apur bana
 osotu dabe niġan
 hasi zenduana.
 Nik gaur dakidana
 hor doa zugaġa
 bertsoġan esana,
 amatxo laztana.
 Zeuk dana ulertzea
 da nahi dodana:
 zeuk dakizun euskeran
 dinotsut dana.



“Zuk daukazu etorria”, zenbat bider entzun ete dau aita Martzelek esaldi hau? Entzun orduko sortzen jako erantzuna: “Hori fabrikako marka da”, amagandik daukan dohaia adierazoz. Baditu aita Martzelek hamar liburu idatziak, bere apostolutzako lagungarritzat. Bere amaġ eta adin bardintsukoak ulertzeko erakoak. “Zu eta ni, biok” sarreġan holan dino.

PAZKOETAKO EGUN PASA

1

Entzun barri daukaçu
 aurtengo kukua,
 gureztat onena da
 Jesus Berbiztua.
 Hau bai dala albiste
 zorağarrizkua!
 Alkar zoriontzeko
 ez al da nahikua?

2

Zorionak, anaiok,
 ađur beroena!
 Gaur ospatzen dođu ta
 Pazko astelehena.
 Berbiztu dan Jesus da
 batu gaituena,
 Berak emon deiskula
 dohairik onena.

3

Jaso barria dođu
 Pazko albistea,
 Jaunaren grazia da
 guk hau sinistea.
 Orduan zelan leike
 praile bat tristea?
 Ez al dođu hartuko
 txori alpistea?

4

Urteak gorago eta
 indarrak beherago,
 sarri esaten dođu:
 ğurea akabo!
 Zer, ba, Jesus Biztua
 ğuğaz ez al dago?
 Bera lađun dođu
 jo daıgun *ordago!*

5

Geure heziketaz ğara
 danok bakarzale,
 luzaro jađun dođu
 sutsu jo ta dale.
 Gaur bide horretatik
 sarri dator kale,
 ğaurtik aurrera bik-bat
 eđin eta bale!

6

Etxe haundiak eta
 ğu ia bapeza,
 eta ğuğana inork
 etorri nahi eza...
 Ez al da hau, anaiok,
 eđizko pobreza?
 Gutzat ezina dana
 Jaunak bete beza!

7

Gaztaro ta sasoian
 bagendun indarra,
 nunahi ezagutzen zan
 lehen pasiotarra.
 Nora doa gaur zaharra,
 gainera bakarra?
 Bizi beharrak dakar
 alkartu beharra.

8

Bizitzan ikasirik
 hainbeste karrera,
 orain ikasi behar
 zer dan zaharrera.
 Urteak sortzen dabe
 hainbeste barrera,
 ahal dan ondoen hartu
 eta jo aurrera!

9

Bere narrutik daki
 batek zer dan zaharra,
 noiznahi agertzen dira
 gorro eta abarra.
 Disimulau ezinik
 tirri eta tarra,
 egin daioGUN geure
 buruari parra.

10

Gehienok egin dogu
 zahartzaro debuta.
 gareanak gara ta
 alperrik ezkuta.
 Gaurtik aurrera kontuz
 paillar ta bermuta,
 entzun nahi ez badoGU
 hileta turuta!

11

Jesus, Zu egin zinan
 gizonen antzeko,
 baina inoiz ere ez
 zaharraren pareko.
 Biztu gUGAN gogoia
 Zugaz egoteko,
 gaztetasun barria
 Zugandik hartzeko.

12

Hau anaiarte gaur
 batu gaituzuna,
 bizi barriz beteaz
 kurutze astuna.
 Txapeldun danetan Zu
 Jesus Txapelduna,
 zahartzarorik ez daukan
 betiko Laguna!

AGUR, AITA PATXI

1

Bertso barri batzuek
gura neukez jarri;
zeruko Aita ona,
egidazu argi.
"Aita Patxi hil jaku"
esanaz alkarri,
pena haundiagorik
ez da hartu sarri.

2

Arrietako Libon
jaio ta hazia,
beragan izan eban
Jaunaren grazia.
Pasiotarren legez
ondo ikasia,
oraindik ez da galdu
santu errazia.

3

Hirurogeita lau urte
kumatik hobira,
bitartean emon dau
mila jirabira.
Ekinaren ekinez
ez dago begira,
jentiak dinozanak
guzurrak ez dira.

4

Atsedeen barik ekin
bide gogorrian,
zer ete eukan harek
bihotz motorrian!
Zeruan sartzen bada
neke zigorrian,
aita Patxi han dago
goiko tontorrian.

5

Begiak lurrean ta
bihotza zeruan,
Jaungoikoa besterik
ez eukan buruan.
Hauxe zabaltzen eban
bere inguruan:
guztiak indartuaz
sinismen beruan.

6

Aita Patxiren grina
Errosarioa,
nunbait ondo ekian
bere balioa.
Dana zan otoitza ta
bedeinkazinoa,
alper askoren orde
erremedioa.

7

Beti ebilen Patxi
pekatari bila,
beragaz autortuak
zenbat, zenbat mila!
Ez zan ez jakituna,
bai gizon umila;
bere jakituria:
Jesus Kurutz hila.

8

Gaixo minduak ziran
bere hurko lagun,
euren bila ebilen
beti gau ta egun.
Hortxe galdu ebazan
bizi ta poztasun;
berbaz barik egitez
maisua nun dogun!

9

Ez da kalte izango
 hau be esatia:
 astero Arratira
 nahi eban joatia.
 Zenbat izerdi, neke,
 otoitz zaratia...
 ondo bedeinkatuta
 dago Arratia.

10

Gerratean gizon bat
 ei zan hil beharra,
 “Agur, andra, umetxo”,
 ai haren negarra!
 “Neu nago horren ordez”
 Patxiren dearra;
 otoitz egin ondoren:
 “jo nire paparra”.

11

Anai arteko gudan
 Patxi zan kapilau,
 han egindakoak dardar
 gaur eragiten dau.
 Euskaldun anaiekaz
 zer negar, alarau...
 Bere lagun ziranak
 ez dabe ahaztu hau.

12

Jainkozale izan zan,
 euskaldun, gainera;
 biok bene-benetan
 ta biok batera.
 Bat edo beste behin be
 ez eban aukera,
 honezkero zeruan
 badakie euskera.

13

Hatzamarra jasota
 bidertzean eske,
 nork nora eroango
 arin eta merke.
 Gaur zuri eske gagoz
 txoper eta beste:
 horruntz eroan gaizuz
 ahal dozu hainbeste.

14

Jokatu dozu, Patxi,
 joko onenean,
 Zenbat on egin dozun
 zure aberrian!
 Ez al zendun ereingo
 leku lehorrian;
 fruitu emongo al dau
 gaur Euskal Herrian.

15

Ekin ahalean ekin,
 ahal dan dana bota,
 aste bete baino lehen
 hil zorian jota.
 Zure jokabidea
 agiri dago ta:
 Kurutz bidea egin;
 ondoren, Golgota.

16

Zorionak gaur zuri
 gure Herriko pitxi!
 zeugaz poztuten gara
 eta ez gero gitxi.
 Nahiko egin dozu ta
 hortik ondo bizi,
 agur ta laster arte,
 gure aita Patxi!

BERROGEITA HAMAR URTE ORUEN

*Praile, monja, laiko,
gazte nahiz zaharrak;
ez al gara danok
pasiotarrak?*

1

Habitua jantzi
nahiz amantala,
jakizu karisma
danontzat dala.

2

Batzuetan otoitz ta
besteetan lana,
holan betetzen da
Jaunak esana.

3

Kurutzekoaren
maitale fina,
behartsuen alde
dau bizi grina..

4

Hau altxor ederra
jausi jakuna,
alkarregaz zaindu
behar doguna.

5

Jesus deika dago:
"Nun dago Simon,
gaur kurutzedunei
nork esku emon?"

6

Bota bazterrera
mila atxaki,
guk zenbat ahal dogun
batek badaki!

7

Jesusen atzetik
nor jubilatu?
Oilarrak jo dau ta
espabilatu!

8

Pozik batu gara,
jan-edan bapo;
egun pasa batez
bertan akabo?

9

Praile, monja, laiko,
gazte nahiz zaharrak;
ez al gara danok
pasiotarrak?

10

Jesusen aurrean
negar intziri...
Baina Harek dino:
"jarraitu Niri".

11

Alperrik da esan,
ihes ta kito!
Alperra ezin da
izerdiz ito!

12

Badago zer egin,
ez banaz lelo,
berandu gabilz ta,
ez egon lolo.

13

Eup! Anai-arrebok,
aupá, senide!
Zer poza Oruen
danok mahaikide!

14

Maitasunez gara
aukeratuak,
Pasino karismaz
bedeinkatuak.

15

Benetan hartuta,
itzi ametsa;
koplá gixi eta
emon baietza!

16

Gu karismaz gara
misiolari,
zokotik urtenda
ekin lanari.

17

Familia baten
gara alkarte,
alkarri lotuta
eutsi hil arte!

18

Kurutzetik deia
gaur jaso daigun:
"Gora buru-bihotz,
San Paulo lagun!".

19

Hainbeste urtetan
zenbat lan ta jai!
Beste hainbestetan
jo ta ke jarrai!

20

Jaunak deitu deusku
gaur eta hemen;
gaur hemen erantzun
esanaz: amen!

DANOK PASIOTAR FAMILIA BATEKOAK

1

Hau laster dogu amaitu,
inor ezin da gogaitu;
etxean bada lekua eta
aurrera jarraitu...
Zergaitik dan ondo aitu:
alkar ikusi t'alaitu.
Urte askotan konbite honek
batuko al gaitu!

2

Alkarrekin ezin kantsa,
hau da sendi baten antza.
FAMILIA bat osotzen dogu,
nork dauka zalantza?
Etorri sarri honantza,
ba da oilo, nahiz buzkantza...
Familia baten aurkitzen dogu
alkar segurantza.

3

Hartu eizue gogotan,
serio doa oingotan:
Danena da-ta, noiznahi etorri
jaten edo lotan.
Senide izatekotan,
alkartu behar askotan;
gu zuenean, zuek gurean
harremon gozotan.

4

Agur egiterakuan
aita ta ama goguan;
eurei eskerrak, gara guztiok
senide munduan.
Otoitz bat azken orduan:
"begoz betiko zeruan".
Batu gaizuz han, Jauna, guztiok
alkarren onduan.



"Pasionistak", "Pasiotarrak", berba hau "pasino"tik dator, san Paulo Kurutzekoak hamazortzigarren gizaldian sorturiko Kongregazioa. Lehenago praille eta monja ginan bakarrik pasiotar; oraintutik laikoak ere —ezkonduak ere bai!— euren boto eta guzti izan leitekez pasiotar, KARISMA bardinean parte hartuz. Pobretasun orduan, a zer aberastasuna!

ERLIJIOSO PROFESAKO ZIDARREZKO EZTAIK

1

Egun on danoi bihotz-bihotzez,
 hau da pozezko eguna,
 Jaunari kantuz, alkar alaituz
 ospatu gura doguna.
 Gaur hogeita bost urte baietza
 poz-pozik emon zenduna,
 bihotz beteko zoriona da
 opatuten deusuguna.

2

Batzuetan triste, besteetan alai
 joten deuskue kanpaiak,
 gaur pozerako alkartu gaitu
 eleiz ta etxeko mahaiak.
 Zuontzat dira, anai maiteak,
 zorion ta ongi nahiak,
 pozez ospatu daiguzan danok
 gaur zidarrezko eztaiak.

3

Maitasunean bizi ezkeru
 besteak zer dau inporta?
 Jauna, Zu lango maitale finik
 munduan beste bat nor da?
 Hartu zuretzat gure bihotzak,
 buru, zentzun ta konorta;
 Zutzat hogeita bost urtetako
 musu ta baiezko txorta.

EGIXE DA, EGIXE DA, NEUK IKUSI DODALAKO

EGIXE DA, EGIXE DA, NEUK IKUSIA DA

1

Bizkaia erdi aldean
bada toki polit bat (2)
Ez da, ez,
Ez da beste bat, ez da, ez. (2)
Ez da beste bat, EZ!
toki politagorik. (Egixe da...)

2

Durango eta Zornotza,
Orue bitartean (2)
Hau bai hau,
zeru txiki bat hau bai hau, (2)
zeru txiki bat BAI!
bizia gozatzeko.

3

Lehen EUBA deitzen zan eta
gaur deitzen da ORUE (2)
Ez da, ez,
ez da besterik, ez da, ez. (2)
Ez da besterik, EZ!
ORUE parekorik.

4

Ume, gazte, zahar, gaixoak...
alkarren auzokide (2)
Hau hai hau,
auzo zabala, hau bai hau (2)
Auzo zabala, BAI!
zabala ta batua.

5

Gorputz, buruz ta bihotzez
gizakia osatu. (2)
Ez da, ez,
ez, giza gintzan, ez da, ez. (2)
Ez, giza gintzan, EZ,
ORUE, zu lakorik!

6

Hemen zaintzen da EUSKERA,
gainera, SINISMENA. (2)
Hau bai hau,
Euskal Herrian, hau bai hau (2)
Euskal Herrian, BAI!
eleiza ta eskola.

7

ORUE auzoko ardatz
dira pasiotarrak. (2)
Ez da, ez,
lanbide txarra, ez da, ez, (2)
lanbide txarra, EZ!
Jaunak lagun deiola!

8

Etxe, lur, diru ta dana,
ORUEren trukean. (2)
Hau bai hau,
joko zuzena, hau bai hau, (2)
joko zuzena, BAI!
Hau bai dala altxorra!

9

ORUEko moldatzaile
aita Fermin izan da. (2)
Ez da, ez,
ez da makala, ez da, ez. (2)
Ez da makala, EZ!
Eskerrik asko, Fermin!

10

Gora ORUE AUZOA!
Gora PASIoTARRAK! (2)
Hau bai hau,
etorkizuna, hau bai hau. (2)
Etorkizuna, BAI!
ORUE, daukazuna!



Fermin ORUEn.

EUBAKO EUSKAL JAIAK

1

Apirilaren hoitazortzian
san Pauloren jaieguna,
eta domekan Euskal Jaia da
Euban ospatzen doguna.
Ume, zahar eta gazte,
gotzain, praile ta nahaste,
bazan jente euskalduna!
Bedar usainez batera hartuz
goxo euskera lurruna.

2

Gure artera etorri jakun
aita Larrañaga jauna,
gotzain izanaz sermoi ederra
euskeraz egin euskuna.
Jakitun ta gotzaina
hau bai eleiz artzaina,
guk hemen behar genduna!
“Ez dot galduko neure euskera
galtzen ez badot zentzuna”.

3

Jon Azpillaga ta Ibarzabal
etorri ziran kostatik,
Enbeita jauna eta Deunoro
lur barruko Muxikatik.
Goizean be ondo ta
bazkal ordua jota,
askoz hobeto oraindik!”
Eskerrik asko, bihotz-bihotzez,
zuen lagunak Eubatik!

4

Sarri esaten da: “euskalduna
jan-edanean aparta”,
eta, jakina, ondorenean
datorrela zalaparta.
Bertso, danbolin, txistu,
hilak ere bai biztu...
odolak hauxe dakar-ta!
asmo horregaz etorri ziran
Dindirri eta Txinparta.



1960ko hamarkadan, euskaldunok, negutean txori txikiak sasipean lez, dardar eta umezurtz gengan. Han-hemen eguzki bristadatxoak jo orduko, gure pozak ez eukan neurririk. Holakoren bat ziran EUBAKO EUSKAL JAIK, Kurutzeko san Pauloren jaieguna inguruan, apirilaren azkenetan. Bertso, antzerki, dantza, zantzolari, abeslari eta bestelako “lari” asko. Aita Eleuterio eta aita Martzel izaten ziran jaialdiaren eragile.

5

Arrartetarren Itziar horrek
 gero jo euskun soinu,
 zahar eta gaztek jaso zituen
 hanka, beso ta moinua.
 Irribarre goxoan,
 eztitan lez egoan,
 gotzain jaun kaputxinua;
 txaloka baten emoten euskun
 bere bedeinkazinua.

6


Sokatira bat jarri genduan:
 “inor bada Euskal Herrian”,
 bere eguna etorri eta
 dana izan alperrian.
 Alkarren bildur ziran,
 mila atxaki jiran,
 indar gitxitxo gerrian...
 Dana dala, guk soka lodi bat
 daukaġu alkilerrian.

7

Apirilaren hoitamarrian
 Aita Pauloren jaiegun,
 goiz ta arrasti batu zan Euban
 hamaika jente euskaldun.
 Fedea ta euskera
 anai bikotx antzera,
 horra zer ikusi gendun;
 ea datorren urtean ere
 Jainkoak alkartzen ġaitun!

8

Esanak esan, eginak egin,
 egia beti da egi,
 prailea naz-ta, ġaur ġeure alde
 jarri naz berenberegi.
 Gu euskeraren alde
 asko eta debalde,
 ez da izango ġehiegi.
 Horra ġaur arte egindakoak
 eta ġura dogu segi.



Dantzariak Eubako euskal jaietan.

«ORUE 50»

1

Oruen zertan dabilzan, dabilzan, (3)
 gaur hau gura deusut esan:
 berrogeita hamar, berrogeita hamar
 urte dira honuntza heldu ginala. (2)

2

Pasiotarrak gara gu, gara gu, (3)
 Oruez ginan gustatu.
 Sinismena, sinismena,
 hau da hemen Oruen altxor gorena. (2)

3

Beste altxor bat euskera, euskera (3)
 eta lehenen bizkaiera.
 Gu hau gara, gu hau gara,
 otoi Jaunak honetan gaizan anpara. (2)

4

Ume, gazte ta guraso, guraso, (3)
 jarri buru, bihotz, beso.
 Alkarlana, alkarlana,
 hau da gure jokoa eta afana. (2)

5

Bi mila lagun bağara, bağara, (3)
 familia baten erara.
 Zahar-gaixoak, zahar-gaixoak,
 eurentzat gure mosu ta paa! goxoak. (2)

6

Pasiotarrak euskarri, euskarri (3)
 Oruen dira oinarri.
 Jarrai beti! Jarrai beti!
 Beste urte askotan holantxe bedi! (2)



2006. urtean, "Orue 50" urtemuga ospatu genduan: pasiotarrok Oruen bizitzen hasi ginaneko 50. urtemuga. Ospakizun urtea hainbeste jaialdiz hornidu genduan: aita Ferminen "Utopia saria", Orue Alkarteak irabazitako "Lauaxeta saria", telebistaz hiru domeketako euskal mezak... Eta, jakina, bertso bazkaria ere bai: Azpillaga, Mugartegi, Arregi eta Mañukorta bertsoan eta Abel Muniategi zirikalari.

ORUE EGOITZA

1

Euba aldean dogu
pozezko eguna,
esker onezko kantuz
ospatzen doguna.
Martxan jarrita dago
egoitza txukuna,
leku onean jagok
gure etorkizuna!

2

Geure neurrira jarri
ditugu baztarrak,
eta eragin deusku
geu bizi beharrak.
Alperrik da hileta,
alperrik negarrak,
gazterik ez badator
onak dira zaharrak.

3

Han-hemen entzuten zan:
“Euba sobra dago,
bera emon dau ta
laster da akabo”.
Hau entzunda gogotsu
jo dogu ordago;
esanak esan arren,
bizi gara bapo.

4

Hormak tente itzita,
barrua barriztu,
hiltzear egoana,
hobea berbiztu.
Izan da zer esana,
burla eta txistu,
sinisgogorak ere
ikusiz sinistu.

5

Etxeak egin deusku
onetik hobera,
honen aurrean hauxe
datorkit gogora:
“etxea hobetu ta
lehengoan norbera?
Bizia barriztuten
jo daigun topera”.

6

Badagoz amets eta
asmo eder nahiko,
danok gara lankide,
ez bakarrik mahaiko.
Alkarlana nahi dogu
praile eta laiko,
danau egi bihurtzen
lagundu, Zeuk, Jainko!

7

Egoitza barri honek
ORUE izena,
Lehengo baserriak lez
hau lege zuzena.
Ustez zerua dala
tokirik onena,
eta dudarik gabe
ORUE hurrena.

8

ORUE jarri nahian
danetan nagusi,
lotsati danarentzat
beti da itsusi.
Ekin ta jardun arren
ezin erakutsi;
nahi badozu etorri,
eta zeuk ikusi.

9

Bertso barri kantuan
pozik alkarrekin,
esanak esan arren
danak esan ezin.
Gizon bat izan dogu
arotz eta hargin:
Ondo merezi dau-ta,
gora aita Fermin!

10

Hiru zatitan dago
gure alkartea,
batasun baten bizi
dan senitartea.
Zatoz, Jauna, zabalik
daukazu atea,
orain ta beti zaindu
ORUE maitea!



Orue egoitzaren inaugurazioa (2001).

ORUEKO TABOR MENDIAN

JARDUNALDI GOZOAK

1

Esku baten makila,
bestean maleta;
Euba aldera noa
deia daukat-eta.
Lehendik egon diranak
hain dagoz beteta,
neuk be galdu nahi ez
holako banketa!

2

Alderdi askotako
jente nagusia,
ez da esatekoa
nik han ikusia:
norberak bizi behar
Eubako grazia,
ez jat inoiz ahaztuko
bertan ikasia.

3

Batetik berbaldia,
bazan zer esana!
Gero talde txikitan
hausnarketa lana.
Danok anai-arreba,
danok bardin dana;
harrezkero ni ez naz
hara joan nintzana!

4

Baztarrean hiletaz
hamaika jubilau!
euren buruari kolpez:
“nireak egin dau”.
Ai, balekie ondo
zer dan Eubako hau!
Konbibentzi horrexek
ni zaharbarritu nau.

5

Orain Bizkai guztian
ditut mila lagun,
noiznahi alkartzen gara
jai eta astegun.
Adiskideak doguz
onak eta edonun,
kristau jubilatuko,
zer grazi daukagun!

6

Zahartzaroan gitxien
uste nebanean,
Jesusek ipini nau
bide zuzenean.
Etorri zaitetz, lagun,
zeuk nahi dozunean,
eta ondo ibili
danon izenean!



Kristau jubiladutza ez da abaro gozoan hausnarrean egoteko. Beste martxa barri bat hartu eta bizitza bera edertzeko eta lantzeko ere bai, ordupeko arduetatik askatuta. Horretakoxe da Bizian Gora mogimentua. Aita Martzel da bere arduradun Bizkaian, gotzainak jarrita. Oruen eratzten dabez euren egun osoko batzarraldiak. Hamaika bertso barri sortu ditu aita Martzelek, Bizkaia osoan zabalik dagoan Bizian Gorakoen eskuetara!

PRAILE, MONJA ETA LAIKO GUZTIOK JESUSEN MAHAIKO

1

- P. Praile eta laikoak
alkartu beharra.
L. Gauzak bideratzeko
hau da lege zaharra.
P. Alkartzean ei dago
grazi ta indarra
L. Hau benetan hartzeko
ez da ordu txarra.

2

- P. Batzuk birjinak eta
besteak ezkondu.
L. San Paulok berak ere
hau ezetz konpondu.
P. Hau ondo konpontzeko
behar da gizondu.
L. Horren sekretua da:
geu guztiok ondu.

3

- P. Nahi dauanak jo begi
etxeko atia.
L. Probatzeko badoğu
guk borondatia.
P. Ez jatzue faltako
lapiko betia.
L. Eta gure kontura
lana ta nekia?

4

- P. Alkarrekin otoitz ta
alkarrekin lana.
L. Aiba, ez dago txarto
praileon esana.
P. Kontuak ondo hartu,
ai, ene laztana!
L. Hemen eta zeruan
dana erdi bana.

5

- P. Orain hasi doguna
da bide barria.
L. Espiritu Santuak
danoi ezarria.
P. Gurutzeko Paulo da
gure omarria.
L. Guretzat itxaropen
ikaragarria.

6

- P. Praile, monja ta laiko,
danok pasionista.
L. Zergaitik ez, bardina
badoğu karisma?
P. Holan laburtu barik
luzatzen da lista.
L. Zoragarria jaku
holako albista.

7

- P. Gogoan ondo hartu
praileen eskolak.
L. Gerizpe ona dauka
hemengo arbolak.
P. Txoririk ez badaġo,
alperrik kaiolak.
L. Ez daukaġuz ahaztuta
Ferminen etxolak.

8

- P. Bada nahiko indarrik
baġara alkartzen.
L. Bizibarritzen dana
ez da inoiz zahartzen.
P. Kostatzen jakuk, laġun,
argira itzartzen.
L. Hasi leitekek norbait
idiak buztartzen.

9

- P. Batzuk botaka eta
besteak besaka.
L. Holan alperrik ġabilz
tira eta saka.
P. Hobe lehenen zuzendu
bakotxa banaka.
L. Ezin leiteke hasi
badaezpadaka.

10

- P. Danok anai-arreba,
danok senitarte.
L. Nekaldiko karisman
danok dogu parte.
P. Hau da zuen etxea,
hau zuen alkarte.
L. Eskerrik asko, aġur
ta ikusi arte.



"Puntura" deritxon bertso jardunaldi hau puntu-puntura dator gaurko eleiz giroan: santutasuna kristau izateak dakarrena eta daroana dala; erantzuna, bakotxak bere bizitza lurretik. Noizean behin alkartu beharra daukie, karisma iturri beretik edaten jarraitzeko.

ORUEKO AUZO JAIA

1

Ondo etorriak gaur
senide ta lagun!
Gu pozik gagozala
hemen da ezagun:
Ondo jan ta edanda
hainbeste euskaldun,
bakez ta osasunez
ospatu dagigun.

2

Era askotan gagoz
lotuak alkarri:
odola ta fedea
dirala lokarri.
Hagaitik bazkari hau
jaku hain pozgarri;
ospatuko al dogu
ondo eta sarri?

3

Guk sarri jo ohi dogu
auzoko aldaba,
ta prest beti hartzeko
arto edo baba.
Orain da gure txanda
ona izango al da?
Inoiz ez da berandu
onerako bada.

4

Momentu ederra ta
bizimodu ona,
hau da, gu ikusita,
askotxok dinona.
Badakizue gaurtik
nun dan zoriona;
lekua sobra jagok
eta hator, gizona!

5

Atso agure asko
eta ume gitxi,
ume bat jaio orduko
mila aitabitxi...
Agertzen ez bada inor
txotxo edo txitxi,
laster beharko doguz
komentuak itxi.

6

Lehenago ederra zan
prailien karrera,
errez egin genduan
harako sarrera.
Barririk ez dator-ta
geu goaz aurrera;
bila joan beharko da
Afrika zaharrera.

7

Ez uste izan, gero,
gagozanik larri,
badakigu gaur lurrak
zer leiken ekarri.
Gu praileok bagabilz
honen barregarri,
ingurua txarrago
ikusten da sarri.

8

Gu ondo bizi gara
Eubako partian,
ondo konpontzen gara
alkarren artian.
Jaunak batu gaizala
datorren urtian,
ondo bizi zaiteze
bien bitartian.

9


Agur, oi bihotzeko
senide maiteak!
Zer poza emon deuskun
zuek etortek!
Indarra hartu daiala
gaur senitarteak,
zabal-zabalik dağoz
Eubako atek.

10

Agurtu egizuez
danak gure partez,
danentzat gorantziak
gaur zuen bitartez.
Gura dozuen arte
gure borondatez,
eta bizi zaiteze
osasun ta bakez!



Gaur egun "Orue auzoa" deritxogun honek urte barruan bere ospakizunak daukaz, auzo arnasea barrizatzeke eta sendotzeko. Bazkal ostea gozatzeko, aita Martzelen bertso batzuk han erabilten doguz.



Euskal Herria

“Sasi guztien gainera eta laino guztien azpitik” ibiltzen ei zan Anbotoko Mari. Gure Euska Herri maiteari ere kostatzen jako erdiko bide zabal hori aurkitzea. Gainditu beharreko mila eratako sastraka eta mugak kanpotik eta barrutik. Aspaldion oihuka dihardugu bakea, askatasuna, eskubideak... eske eta eske. Zer ez eskatu? Eta emon zer? Hori esaten ei eban abade batek: “Zuek beti zabilze eskatu eta eskatu; eta emoteko orduan, zer? Aita Martzel antzinatik da honen lekuko. Handik ziri eta hemendik zirri, lo dagoana itzartzten eta izarrei begira zaunkaka dagoana lurreratzen jardun dau era guztietako bertsoen bidez.

BELENDIZKO JAIETAN

*Aupa, mutilak! Gora Belendiz!
Bota irrintzi ta zantzo,
gaurko egunex ospatzen dogu
Belendizen San Lorentzo.*

1

Hasi gaitezan zahar eta gazte
bertso barriak kantari,
guk beti dogu umore ona
eskerrak arda onari.

2

Goitik Nabarniz, betik Arratzu,
erdian zağoz, Belendiz.
Politağorik ez dago inun
ez lurrez, ez baserriz.

3

Baso ta mendi, solo ta ibai
dana daukağu batera,
zeruan bizi gura badozu,
etorri Belendizera.

4

Guk maite doguz ekandu zaharrak
eta euskera nağusi,
ğurağo dogu hau ğaldu baino
lehenağo musturrak hausi.

5

Gure arteko anaitasunak
ez dauka inun bardinik,
haundi ta txiki, zahar eta gazte
bizi ğara bat eginik.

6

Soinu ta dantza, joko ta proba
ibili arren sarritan,
ortuariak emoten deusku
danerako lain Gernikan.

7

Gaur da domeka, bihar astelehen,
Belendizen sarri jai,
hemen txuletak beti jan leikez
dirua daukanak, ja-jai!

8

Bardin ğara ğu kalean eta
bere orduan eleizan,
ğure fedea Kristorena da
ezin ğuk besterik izan.

9

Bihotz-zabalak, buru argiak,
gorputz sendo ta tentiak,
ez deutso ezer inori be zor
gure Belendizko jentiak.

10

Belendizarrei itzi bakean
tabernan eta jokoan,
begi bixkorak ei daukez eta
eskola zaharrak kolkuan.

11

San Antonio ta San Lorentzo
bere parrila ta guzti;
gure Belendiz ba da nork zaindu,
Pelaio dala nagusi.

12

San Lorentzotan Belendizera
erdu, aixkide maitia,
gura badozu zabalik dago
zutzat gurian atia.



Gernikatik Nabarnizera bidean dago auzune zoragarri hau. Hamaika astokada ortuari eroan dabe Gernikako azokara gizaldietan zehar; baina onenak gordez, norbait haruntz doanerako. Orain 40 urte egin zan aita Martzel Belendizen etxeko. Menditxoaren gainean dagoan san Lorentzoren baseleizara sermoginen joan eta, meza ostean eta ermita inguruan, bertso paperak mahai ingurukoei banandu eta danak kantari, zurrutada batzuekaz berbiztuta. Hainbeste urte joanda gero ere, paperok etxean gordeten dabez eta askok buruz ikasita kantuz dihardue oraindik.

AGUR EUSKAL HERRIARI!

1

—Mañariko gaztiak
Arraten barriro.
—Holako leku baten
beti dago giro.
—Eibartik igon dogu
goraino astiro
—Agur egitearren
danoi maitekiro.

2

—Mañaritarak gara,
jakin nahi badozu
—Euskaldun danok hartu
laztan edo mosu.
—“Kirikiño” kantura
beti prest daukazu.
—Zeure etxean leku
emon egiozu.

3

—Eskerrik asko danoi,
aixkide antzera
—Jarri zarielako
geuri entzutera.
—Izan daigula sarri
holako aukera.
—Kantuz sartu nahi dogu
guztion etxera.

4

—Agur ta ondo bizi
etxe ta auzotik.
—Sarri entzun gaizuez
sukalde txokotik.
—Bagoaz Arrateko
Amaren ondotik.
—Zuen alde eskatu
deutsagu gogotik.



Mañariko ume eta gazte, Arratera joateko prest.

EUSKAL HERRIAN EUSKERA

1

Guk badogu geure herria,
izena Euskal Herria,
euskera maitagarria (hiru)
da gure ezaugarria. (bir)

2

Beste herrien antzera,
guk be badogu hizkera:
Euskal Herrian euskera (hiru)
lehen, orain eta aurrera. (bir)

3

Ez gero euskera galdu
ta gitxiago zapaldu;
ahal dan guztian zabaldu, (hiru)
ez gaitezala makaldu. (bir)

4

Nahiz izan hiru edo lau,
geurea dogu beti hau;
ez da euskaldun ez kristau (hiru)
euskera ukatzen badau. (bir)

5

Gora ta gora euskera,
gure hizkuntza zu zera!
Gero jo ta ke erdera, (hiru)
Madrilekoa berbera. (bir)

6

Nahiz praile ta nahiz abade,
bardin errege bada be;
euskera maite ez badabe, (hiru)
dagoz gizatasunik gabe. (bir)

7

Asko dira euskaldunak
“euskera tituludunak”;
baina berbaz erdaldunak, (hiru)
huts egiten dau zentzunak... (bir)

8

Euskaldun, ez ikaratu!
euskerea ez ukatu;
geurea da-ta, bultzatu, (hiru)
gogor ekin ta jarraitu. (bir)

ERIA... ERRIA... HERRIA...

1

Bertso kantura nator
Herriari buruz,
gaur guztiok gabilz
beraren inguruz.
Batzuetan txaloz eta
bestetan zizpuruz,
egiz guk zer nahi dogun
nork jakin seguruz?

2

Gure Herria dogu
gure sorlekua,
ta bera maitatzea
dogu legezkoa.
Nunahi agertzen da gaur
ama ordezkua,
ama zelan maitatu
erakustekua...

3

Herri bakoitzak dauka
bere nortasuna,
askok galduta dauke,
hori da astuna!
Besteak ei dakie
guk behar doguna,
euskaldunak badaki
nor dan euskalduna.

4

Euskal Herriak badau
bere izakera,
gizaldien gizaldiz
mamindu da bera.
Bere ohiturak ditu
ta bere euskera,
aita-amarik ez dago,
herriseme gera.

5

Herria herria da
bera dan modura,
berak daukan sinismen,
hizkuntz ta ohitura.
Baina askok emon nahi
nork bere itxura,
seme izan baino lehen
aita izan gura!

6

Herria hau ta hori...
bakoitzak beria,
gaur hasiko balitz lez,
hau barrikeria!
Ez da herritasuna,
bai herrikeria;
beti da oilozale
luki azeria.

7

"Gure Euskal Herriak
gaur hauxe behar dau",
hor dabiltz zarataka
betiko hiru-lau.
Ondo-ondo esanda
botoak harrapau;
beti holan izan da,
gaur be bardin dirau.

8

Txarrak ondo gorde ta
onak erakutsi,
holako denda baten
ez asko erosi.
Norbera beti garbi,
besteak itsusi:
eta herria nun da?
Ikusi-makusi...

9

Gorri, zuri ta baltzak
hor mila kolore,
Nork bere gogokoa
beti da dotore.
Herria irabazteko
bota mila lore,
“senargai asko ditu
zein baino zein hobe!

10

Herria geu gara ta
geure aldekuak,
beste guztiak dira
kontzientzi bakuak...
Gutarrak ez diranak
edo antzekuak
tontoak dira edo
parte txarrekuak.

11

Euskal Herri maitea,
gure ama lurra,
zurekin egin dana
dirudi guzurra!
Maitale zalako ha
bera da lapurra,
gaurko maitaleekin
izan zaitez zuhurra!

12

Euskal Herri maitea,
badozu kredoa,
baina zure bihotza
norantz ete doa?
Gaur arte ez zara izan
inoiz atea,
ez ahaztu hartu dozun
kristau bateoa.

13

Euskal Herri maitea,
Herri bat zara zu,
nor zaran gogoratu
beharra daukazu.
Ezker-eskuma dozuz,
mila enbarazu,
baina “zu zeu” izaten
zuk ekin jo ta su!

14

Euskak Herri maitea,
horra mila jabe,
bestela bizi zinan
holangorik gabe.
Maitatzen zaituela
bai, esaten dabe,
baina zuk ez sinistu
onena bada be!!!

EUSKALDUN eta/ala/edo FEDEDUN?

1

Bertso barriak jartzera noa
Jainkoa, eidazu lagun!
Neure euskaldun anai-arrebok,
danontzat da-ta, hau entzun.
Orain artean bat izan dira:
“euskaldun eta fededun”,
aspaldi hontan askok nahi dabe
fedea itzita, euskaldun.

2

Bizkaian dogu Begoña eta
hor Gipuzkoan, Loiola,
han, Arantzazu, Estibaliz; ta
hemen, gure Urkiola.
Hortxe gorde da orain arteko
gure fede ta odola,
ezetz dinonak esan gura dau
zeozerk huts egin deutsola.

3

Gora euskera! Behera Jainkoa!
euskaldun askok hau dino;
barrabazkeri haundiagorik
ez dogu entzun oindino!
Euskal Herriak hego bi ditu:
euskera ta erlijino;
zelan txoriak hegaz egingo
bata kendu ezketino?

4

Lehengo bideak zaharrak dira ta
itsuan goaz barrira,
barrikeriak ekarri gaitu
lehen ginanetik erdira.
Gaurko ohitura, jolas, bideei
jarri ezkerro begira,
errazoiz esan leike gugaitik:
“honeek nortzuk ete dira?”.

5

Kendu deiogun gure Herriari
 Eleizaz daukan guztia,
 ohitura, soinu, kantu ta dana
 Eleiz arnasaz betia...
 Mila gizon ta mila liburu,
 hau, hori, ha ta bestia;
 hau danau barik, zer gauza hutsa
 Euskadiren edestia!

6

Orain arte guk maite izan dogu
 bihotzez Ama Birjina,
 gaurtik aurrera maite beharko
 Anboto goiko sorgina.
 Gizon haunditzat geunkan lehenago
 pertsona zintzo ta fina,
 gaur barrabas ta lapurak nausi;
 ez geu zintzoak bagina!

7

Haize gogorrek astindu ditu
 Euskal Herriko tantaiak,
 iheska doaz euren gainetik
 milaka txori alaiak.
 Jainkoa lagun, eutsi onari,
 sendotu fede sustraiak;
 edo bestelan gure Haritza
 lurrera dator, anaiak!

8

Lotsagarri da gauza honeetat
 gaur egitea zabal hitz,
 hobe hor konpon? Hobe ixildu?
 Hobe hau guzurra balitz!
 Esan Begoña, oi hu Arantzazu,
 ekin Lourdes, Estibaliz:
 oi, euskaldunok, bene-benetan
 bide onetik ez gabiltz!

EUSKALDUNAK IRABAZI

*Bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi,
euskaldunak irabazi.*

1

“Bat, bi, hiru, lau” esanda
ezin irabazi;
mila bider ekinda
euskeraz ikasi.

2

Ikastolara joanda
jo ta ke euskeraz,
gero etxe ta kale
zer dabiltz erderaz!

3

Euskal izen politak:
Jon, Itzal, Eneritz;
gero andaluzak lez
erderaz hor dabiltz.

4

“Euskotarra naz” esan
ta erderaz egin;
zuk baietz esan arren
nik sinistu ezin.

5

Kaiku, ikurrinaz ta
txapelaz dotore,
baina euskera barik
hori da traidore.

6

Euskeraz egitea
gaur nork behartu?
Guk geuk ez egitea
hori da pekatu!

7

Ikastolara noa
amatxok esanda,
gero berak erderaz?
Alperrik izan da...

8

Txori bakotxa nor dan
atera kantutik;
bardin euskaldun nor dan
beraren pikutik.

9

Harro dinogu: "gora
Euskadi askatuta";
ta geuk zapaltzen dogu
euskera ahaztuta.

10

Bizkai, Napar, Gipuzku,
Araba, Lapurdi,
Ziberu, Behenaparre.
Hauxe da Euskadi.

11

Jaungoikoak euskaldun
gu egin gaitu,
gaur ta beti euskaldun
izaten jarraitu!

12

Agur, ondo ibili
ume, gazte, nausi,
eta ez ahaztu gero:
EUSKERARI EUTSI!

GORA BELENDIZ!

1

A, a, a...
Belendizko ibarra
Bizkaian da bakarra,
lur guztian ez bada.
A, a, a, Belendizko...

2

E, e, e...
Belendizen nahi neuke
bizi heriotz arte,
gero zeruaz truke.
E, e, e, Belendizen...

3

I, i, i...
Ez dozu galdu gitxi,
ez badozu ikusi
nun garan gu bizi.
I, i, i, ez dozu galdu...

4

O, o, o...
Oi, gure mendi, baso,
etxe, zelai ta solo,
holangorik ez dago!
O, o, o, oi gure mendi...

5

U, u, u...
Belendiz maite dogu
guztion bizileku,
honen hurrengo zeru.
U, u, u, Belendiz...

6

A, a, a...
Gure jokabidea
da Jesusen legea
osorik betetea.
A, a, a, gure jokabidea...

7

E, e, e...
Guraso zaharrak maite,
euren ohiturak bete,
beti gu euren alde!
E, e, e, guraso zaharrak...

8

I, i, i...
Hauxe dogu ikasi
ta etxean ikusi,
ez geunke gura itzi!
I, i, i, hauxe dogu...

9

O, o, o...
Mendian san Lorentzo;
herrian, san Pelaio;
daukaguz geu zaintzeko.
O, o, o, mendian...

10

U, u, u...
Beti danok kristinatu
bete daigun asmo hau
Jaunak gurako al dau!
U, u, u, beti danok...

11

A, a, a...
 Belendiztarrak gara
 inun bardinik bada
 datorrela plazara!
 A, a, a, belendiztarrak..

12

E, e, e...
 Hemengo gizon gazte
 jarri ezkerre tente
 goiko pagoak beste.
 E, e, e, hemengo gizon...

13

I, i, i...
 Dontzeila azal zuri
 andra kolore gorri
 askok deusku inbidi.
 I, i, i, dontzeila...

14

O, o, o...
 Mutil mardul morrozko
 jan dogu nahiko arto
 nor guri irabazteko?
 O, o, o, mutil mardul...

15

U, u, u...
 Nork gura dau apustu,
 gu lango jente modu
 ezetz inun aurkitu!
 U, u, u, nork gura dau...

16

A, a, a...
 Danok euskaldun gara,
 dagoana tripara
 eta gero dantzara.
 A, a, a, danok...

17

E, e, e...
 Ardu boteila bete
 okelerre ta nahaste
 ez dau egiten kalte.
 E, e, e, ardu...

18

I, i, i...
 Aupa txitxiburduntzi
 hartu ahala iruntzi
 eta bihar gorantzi!
 I, i, i, aupa txitxiburdun...

19

O, o, o...
 Gu bizi gaituk ondo,
 dirua be badago
 ta gehiago balego...
 O, o, o, gu bizi gaituk...

20

U, u, u...
 Hau dok hau bizimodu,
 eta zeuk nahi badozu
 Belendizen daukazu.
 U, u, u, hau dok hau...

GURE HERRIAREN OINARRIAK

1

Bertso barri-barriak
jatortaz burura,
eta jarri nahi neukez
behar dan modura.
Ai, euskal kultura,
zer deuskun ardura!
Asaben hazur zaharrak
zehatz jaso gura,
nahiz ta baztartu euren
lege ta ohitura.

2

Haitzur, argi ta tresna
dabilz hamar mila,
gure lehengo asaben
hazur zaharren bila.
Ete zan mutila
edo neskatila?
Zelako buruhazur
edo txorkatila...
Hazurrak gordeteko
hau jente abila!

3

Ezin dogu isildu
gertatzen jakuna,
zelako erreza zan
gu sortu ginduna:
jende euskalduna,
baita fededuna.
Zelan hazurrak gorde
ta galdu zentzuna?
Honela dabilena
a zer jakituna!

4

Hazurrak gordetzeko
badago afana,
legezko ardura da,
baina ez da dana.
Asaben izana,
barru eta gana;
osorik jaso behar,
oi, ene laztana!
Bestela ez ete da
alperriko lana?

5

Hau holan ikusita
 egin dot zizpuru,
 nun dira lehengo zentzun,
 lege ta inguru?
 Hainbeste liburu
 hor bete ditugu;
 Hazurrez ondo baina
 zer bihotz ta buru?
 Bardinak gareanik
 ez dago segurua.

6

Holakoak entzunda
 ez ei da hainbeste;
 ez al dozu ikusten
 ze sasi ta peste...?
 Zein bata zein beste,
 hau dok odoleste!
 Berton geu izateko
 jarri behar eske,
 hauxe bai dala, jaunak,
 etxean erbeste!

7

Bide txarrak itzita
 jo daigun onera,
 besteak beste, geu be
 gatozan geurera.
 Asaben hizkera
 beti zan euskera;
 ez hain errez aldatu
 batetik bestera,
 lehengo asaba harein
 semeak bagera.

8

Herri bakoitzak dauka
 berezko oinarri,
 bere gainean dana
 behar dogu jarri.
 Ez etxe lokarri,
 ez kanpo buztarri.
 Euskaldunok, eskuak
 luzatu alkarri,
 munduak esan daian:
 hau da EUSKAL HERRI!

INUXENTEAK

1

Alkartu bertso kantura,
halantxe dogu ohitura;
eta uxatu daigun gúgandik
hainbeste tristura.
Begira jarri mundura
eta zelango itxura!
Komendiante, inuxentetan
bada zenbat gura.

2

“Herriak hauxe gura dau,
ezin leio ukatu hau”;
herria gora, herria behera,
hor dabilz hirulau.
Dana ipinten dabe lau,
botoak gura harrapau...
Euren saretan jausten da mila
inuxente papau!

3

“Zu zara diktadoria”
hori berba dotoria!
Inuxenteak harrapatzeko
hori bai loria.
Berbetan bai adoria,
egitetan traidoria;
komeni dan lez kantatutzeko
hori dok txoria!

4

“Ez da esaten egirik”.
“Ez dago eskubiderik”...
Ezker-eskuma, danok gagoz gaur
protestaz beterik.
“Hau da egia”, batetik;
“hau da egia”, bestetik;
Jaunak, badago gaur zer sinistu,
balego federik!

5

Horra kanpaiak jo ahala,
ez da zarata makala:
“Gure Herriaren zapaltzaile da
eleiz ofiziala”.
Geurea lehenengo dala,
besteak lur jo daijala;
pekatari ez diranentzako
hor eleiz leiala!

6

Gaur nagusi da jokoa,
beterik dago kolkoa;
gaur igurtzika, bihar adarka
jausten da nahikoa.
Amuan jarri “kokoa”,
ondo gorde “azpikoa”...
Inuxente ta erdi lelotan
bete lapikoa!

7

Herri, kultura, euskera,
 euskaldunon izaera...
 Askatasuna, eskubideak,
 hauxe da aukera...
 Ondoren dator jokera:
 bat esan, bestea atera;
 zereko zerak ta zeraġaitik
 zertu dabe zera...

8

Hau holan dala ikusi
 ezin ġeinke tonto bizi;
 ta ġitxiago, hobe dala-ta,
 hor zehar iġesi.
 Malizia da malizi,
 jokoak ondo ikasi;
 ondo jokatzen dabenentzat da
 Jainkoaren ġrazi.

9

Otso jantzita artzaina,
 ez ġaiezala engaina;
 ondo ikasi beharko dogu
 Jesusen doktrina:
 "Usoak lez mantso, baina
 suġeak lez zuhur, alajaina!".
 Nahiz zintzo jardun, jokoak jakin
 edozeinek haina.

10

Jarri ġaitezala tente,
 ez jausi inoren mende;
 banan-banango pertsonak izan,
 ez moltzoko jente.
 Ez sinistu derrepente,
 guzurra dabil dextente;
 Oi, euskaldunok, argi ibili
 ta ez inuxente!!!

KAIKUDUN KAIKUA

1

Kaiku bat lepoan ta
Andoni izena,
euskaldun zuzena!
“No sé hablar vascuence”
dinotsu hurrena.
Euskal itxura ta
erdeldun barrena,
lorak politak dira
fruitua onena;
kaikudun kaiku batek
ekarri leikena.

2

“Eder danak ez dira
itxuraren jabe”,
hau esan ohi dabe;
horma politak baina
buztina goi ta behe.
Jantzian ez ei dago
ez praile, ez abade...
Ez Euskal Herririk
euskerarik gabe;
ez eta euskaldunik
kaikudun bada be!

3

Pikutik da txoria
zer dan ezaguna,
bardin euskalduna:
euskaldun erdeldunak
erdera laguna.
Kaiku ta ikurrina
dantza ta ttunttuna,
geurea da-ta, zaindu
geure ondasuna;
baina euskerak dakar
gure nortasuna.

4

Askok ikasten dabe
aleman, inglesa,
zelan ez fantsesa...
Ta euskeraren alde
nun da interesa?
“Ni ikasten ari naiz”
ta mila promesa,
maitasunik ez bada
dana da amesa;
atxakiak atxaki,
hori da nahi eza.

5

Ene, ez dakianak
 euskera baleki,
 dakianak balegi!
 Batzuk besteen erruz
 egin barik segi.
 Eginak egin, ez da
 inoiz be gehiegi,
 euskaldunok euskeraz
 egin daigun beti.
 Secula seculorum
 beti bizi bedi!

6

Batetik ikastola,
 bestetik Korrika,
 "Gora Euskadi"ka!
 Ondoren euskaldunok
 alkarri harrika.
 Horrek lanpostu baten
 sartzeko taktika,
 harek beste batzuen
 kontra politika;
 mitin gehiegi dago,
 falta da praktika.

7

Euskera zaharra ala
 euskera barria,
 goitik ezarria?
 Euskeragaitik dogu
 sarri hasarria.
 Jakin bai ta egin ez,
 hau joko larria!
 Hau da euskerarentzat
 kolpe hilgarria;
 geuk euskaldunok baietz
 hil Euskal Herria?

8

Erreza danok gara
 izatez bardinak,
 Jainkoak eginak;
 bakotxak ditu bere
 hizkuntza-ikurrinak.
 Geureak ondo zaintzen
 egin ahaleginak,
 kanpora kanpozale
 faltso ta ziztrinak!
 Danok izan gaitezan
 euskalzale finak!

TXORIA PIKUTIK EZAGUN

1

Txori bakoitzak zer dan
pikuz dau kantetan,
nor dan euskaldun eta nor ez dan
igerri berbetan.

2

Nahiz zuka, nahiz hitano,
"Hable en cristiano".
euskaldun izan, erderaz egin,
hori da jitano.

3

Gora Euskaltzaindia,
gora haurtzaindegia!
Baina danetan onena dozu
etxeko sendia.

4

Baneuka ta baneki,
atxakiak beti.
Horra askotxo euskeragaitik
bizi da ederki!

5

Aranburuk erderaz,
Perezek euskeraz;
euskaldun nor dan antz emoiozu
bere berbakeraz.

6

Txakurarrena da uau,
katuarena miau;
gure euskera galdu ezkeru,
guriak egin dau!

7

Barria ala zaharra
zein ona, zein txarra?
Egiten ez dan euskera dozu
txarra dan bakarra.

8

Ona da gramatika,
ona da "Korrika".
baina onena euskerarentzat
kaleko praktika.

9

Kale umeak kale,
lehen erderazale;
aspaldi baten baserritarrak
dabilz jota dale.

10

Ekin kalez oihuka,
ta nonahi burruka;
baina berbetan etxe ta kale
euskera ez uka!

"Kaikudun kaikua", "Inuxentiak", "Txoria pikutik ezagun" eta antzeko asko ditu aita Martzelek, bazterretan aurkitzen dauan faltsokeria astinduz. Zorionez, badira ekintza jatorrak, borondate oneko askok bultzatuta.




"Korrika" asko egin behar, bide bazterrean egonean dagozanak mogitzeko.



Etxea da oinarri. Askok ateraten dabe euskera titulua badaezpada, baina, badaezpada barik eurak erdera egin gehienetan. Amama zintzoak badabe gaur ere zeregina etxean, ilobatxoei euskera ederrean jardunez.



Horra Bizian Gorako jente nagusia: euskeraz irakurri, idatzi eta abestu eta otoiitz egiten ikasi dabe. Egundo euskal libururik erabili ez dabanak, gaur 300dik gora dira benetako "euskaldun barri" sentitzen diranak. Hemen dozuz benetako HABE eskolak.



Handikoz Hemendikoz

Nazareteko Maisuak barra-barra zabaldu ohi ebazan bere irakatsiak, esaera, parabola eta guzti erabiliz, egoera bakotxak eskatu ahala. Geroago ebanjelariak batu edo asmatu eben non zer eta zelan esan eban, liburuan batzerakotan. Holakoren bat aita Martzelen bizitzan: eleiz eta herri giroak eta jazoerak barruan kilikili egin eta sortuazo deutsoz bertsoak. Horixe da, "Handikoz Hemendikoz", beste gaien sailean egoki txertatzen ez diran zer batzuk.

AGUR, AUSTINA BIZKARRA

1

Jaunak eroan deusku
Austina Bizkarra,
kristinau azkarra;
gure egitekoa
eskertu beharra.
Danak ebazan maite:
gaztea nahiz zaharra,
Matiena lez bardin
Friasko baztarra.
Jaunak zaindu daijala
bere irriparra.

2

Zenbat zerbitzu apal
maitasunezkoak,
on egitekoak!
Inork behartu barik
borondatezkoak.
Gaurko gure txaloak
bihotz betekoak,
zutzat dira, Austina,
esker onezkoak.
Gure ordeztu saritu
zaizala Jainkoak!

3

Beti agertu jakun
zerbitzen apala,
danentzat leiala;
bere jokabidea:
“emon hartu ahala”
Jainkoak egin eban
hain bihotz zabala,
berak beti eukan
zabalik magala,
betiko zoriona
jaritxi daijala.

4

Eskerrik asko zuri,
o aixkide mina,
laguntzaile fina!
Hau da eskertu nahi ta
eskertu ezina!
Jaunak emon deizula
bake atsegina,
eta hartu guztion
mosu bero bina;
agur ta laster arte,
ondo izan, Austina!

Gure parrokia inguruan beti izan dira gizaseme eta emakume apalak eta zerbitzariak. Hamaika zulo bete eta isileko zerbitzu burutzen dabe! Eskerrak eurei, eleiz gizonok agertzen gara ganoraz jentaurrean, eta altare inguruak armmiarma eta sagu barik. Holako bat genduan Matienako Austina.

AGUR, IZURTZA MAITE!

1

Durangaldean bada herri bat
Izurtza dauka izena,
bere txikian polita dozu,
Bizkaian ez da azkena.
Hogei urtetik gora
ondo eta gustora,
bertan bizi izan naizena;
nire agurraz hartu egizu
besarkada beroena.

2

Txikiak beti aurkitu nahi dau
handiagoen babesa,
euren menpean jarri ta bizi
izan ohi dabe amesa.
Entzun, ene Izurtza,
ez zara umezurtza;
txikia ez da bapeza.
Burujabe dan txikia hobe,
ta ez morroi dan markesa.

3

Bizi barria ez dabe sortzen
liburuak ta papelak,
azal itxurak politak, baina
biziak barik ustelak.
Eleiza ta udala
da sendia bezala,
bestela dira hotelak.
Guk zure alde egindakoak
ez dira kontu epelak.

4

Hainbeste urte bizi ondoren
famili baten moduan,
bihotza minez sentitzen dogu
bananduteko orduan.
Agur, Izurtza maite,
Jaunağaz geldu zaite
kristau batasun estuan;
zoriona ta bakea dagoz
hori dagoan lekuan.



Txikia eta polita dozu Izurtza, Durango handiak ondoan daukan lorea. Hemengo eleiz ardurea izan dau aita Martzelek 23 urtetan, 1983tik 2006ra. Ez dira esatekoak bertan izandako hartuemon gozo sakonak eta maitasun bizikizunak.

AGUR, LORENTZO SALABERRIA JAUNA!

1

Bi mila ta bigarren urtea
hasi eta berehala,
albiste txar bat zabaldu jaku:
“Gure Lorentzo hil dala”
Giza irudi bat itzartu jat
irripartsu ta mazala,
bai maitagarria zala!
Gizatasunez ondo jantzia,
berbakoa ta leiala;
eroan dau-ta, hau lango batzuk
Jaunak bialdu daizala!

2

Ha zan gizona! Gizon-gizona,
euskaldun ta fededuna!
Buru argia, bihotz haundia,
bere lekuan zentzuna.
Iriparrez ta umore onez
etengabeko jarduna,
abade eginkizuna.
Gure Jainkoak emon deiskula
nork bete bere hutsuna;
zaġoz bakean, bizi betean,
aġur Lorentzo laġuna!

3

Gora Jainkoa! Gora Euskadi!
Lorentzo bien mirabe,
biak benetan maitatzearren
zenbat neke ta nahigabe!
Fede gizonak Jaungoikoa dau
bere bizitzan zutabe,
goiak ta beheak jota be...
Gure Eleizak eta Herriak
holanġorik behar dabe,
garbi esanda, zu izan zara
EUSKAL HERRIKO ABADE.



Durangoko Andra Mariko parroko zala ezagutu eban, batez ere, aita Martzelek Lorentzo Salaberria. Zenbat ordu pozgarri eta ekintza gogoangarri anaitasun jatorrean! Gorbeian, Eusebio Ozerinjauregi eta gizon aldra bategaz, Aldamiñapeko aterpetxean.

AGUR, MAÑARIA

1

Alkate jaunak eskeini deusku
Herriaren oparia;
mosu emonaz, onartzen dogu,
besarkatuz Mañaria.

2

Zuen saria ta esker ona
ez dogu ordaintzekorik;
egia esan, guk ez genduan
merezi hainbestekorik.

3

Maitasuna ta esker ona da
gaur zuen ezaugarria;
ikusten danez, gure Mañari
ez da bakarrik harria.

4

Orain hogeita hiru urte da
honuntz etorri ginala;
hartu genduna hobeagotzen
egin dogu egin ahala.

5

Egia da-ta, autortu daigun
ez da gure meritua;
honen egile Zu izan zara,
Jesusen Espiritua.

6

Hirukotea etorri ginan
hainbeste urte badira
Mariangeles, Mila ta Martzel
apostolu Mañarira.

7

Ondo eginak gogoan hartu
ta txarto eginak borra;
azken orduan haxe da danok
alkarrekin dogun zorra.

8

Orain arte lez, iraungo dogu
alkarren maitasunean;
eskerrik asko bihotz betean
gu hiruron izenean.

9

Egin doguna egin dogula,
hortan danok gara parte;
ez gara urrun gelditzen eta
agur ta nahi dozuen arte!



Bikario eginkizuna amaitu ondoren, aita Martzelek baserri aldera jo eban, Izurtzako eta Mañariko parrokien ardurea hartuz. Baserritarren artean, eleiz irudi barria sortzea izan zan bere gogoa eta ardurea, pastoralza horretan partaide izan dituan Milagaz eta Maria Angelesegaz. Hiru-lau urte barru, martxan egozan Guraso Alkartea, Jubilatuen Alkartea, "Kirikiño" abesbatza, hiru dantza talde eta Bizian Gora mogimentua. Harrobiko harritzarrak lez: landu ezker, artelana argiratu.

AMERIKA AURKITU

1

Mundu barriko umeak,
bizi barriko semeak;
Amerikako "urte mugetan"
zuoi zorion beteak!
Bakez ta pozez bete zaizela
hasi barri dan urteak!

2

Ez ipar eta ez hego,
Amerika bat balego!
Zeuk, Amerika, zeure burua
aurkitu eizu lehenengo;
ipar ta hego anai eginik
danentzat lain ogi bego!

3

Auzotik eginaz lorrak,
geurean jaso txondorrak!
Amerikari onenak kentzen
izan baginan bixkorrak!
Zelan hain motel agertu orain
kentzen euren kanpo zorrak?

4

Amerika ez da inola
latina, ez espainola;
aurkitu bada, berean zaindu;
ez zurrut egin odola!
Amerikari bera izaten
Jaunak lagundu deiola!

5

Gose ta gerrate latza,
Amerikan zenbat saltsa!
Auzorik auzo kristau taldeak
Jesusen argi ta gatzak;
Jauna zuekin hur-hur dago-ta
anaiok, buruak altza!

6

"Mundu barria aurkitu",
txaloak merezi ditu.
Kristobal Kolon asko behar da
eta hor dago meritu:
herria aurkitu ta ondo zaindu;
hauxe egin eta kittu!

BIZKAIKO AITITA

1

Jorrailaren batean
ehun ta zazpi urte,
Teodoro Arestik
aurten ditu bete.
Arroita baserrian
bizi jaku tente,
Garaiko herritxoak
badau hainbat suerte!

2

Jainkozale zintzoa,
euskaldun ohituraz,
kontzientziz jokaten
zelango arduraz!
Heldu-heldu eginik
ta gordin itxuraz,
egarriz bizi jaku
hobe izan guraz.

3

Teodoro Aresti
batzuetan larri da,
Jainkoak ete daukan
bidean itzita.
Ehun ta zazpi urte,
agure polita,
Garain bizi da bakez
Bizkaiko aitita.

4

Gizaldi bat lepoan
ta zazpi gainera,
Oiz aldeko haizeak
zenbat gorabehera!
Teodorok gorde dau
bere izakera;
ez da inoiz ibili
haizeen aidera.

5

Lepoan dituanak
ehun urte ta piku,
bizimodua zer dan
agertu leikigu.
Danetik ikusi dau
busti eta siku,
jakin gura dauanak
hor nahiko prediku.

6

Zer balio daben gaur
lehengo gauza zaharrak!
Aititak eurak ete
gauzeztan bakarrak?
Bila daiguzan lehengo
hazur ta hondarrak,
baina asabok doguz
maitatu beharrak.

7

Teodoro Aresti,
euskaldun gizona,
baserriko bizitzan
Jaunari emona.
Gogoan hartzekoa
da berak dinona:
“Gure Jainkoa dala
ugazaba ona”.



Aita Martzelek zazpi urtean izan eban Garaiko parrokiako ardurea ere. Han ezagutu eban Bizkaiko aitita —Teodoro Aresti—, 107 urtegaz hil zana. Hartuemon handia izan eban beragaz, bere sinismen sakon aberatsaren barri jasoz. Antzinako euskaldunen hazurrak batzea, neurtzea eta gordetzea txalagarria da; eta hazur barruan bizi izan dabean ohiturak, sinismenak eta izaerak, zer? Euskaldunok bereziak garala, baina hazurrez bakarrik eta batez ere?

IGOR GAILURRETIK BEGIRA

1

Ene Jesus maitea,
hau da ordu latza!
Gure uste osoa
egiz Zugan datza.
Zugaz edaten gaġoz
kaliza garratza,
Igor Zugaz daġola
doġu esperantza.

2

Onartu, Jesus, gure
otoitz ta negarra,
ezinbestekoa da
ġaur zure beharra.
Zeu zara bizitzako
sarrera bakarra,
Igorrentzat azkena
ez da izan Muġarra.

3

Jainko, eġin gaituzu
ġu zure antzeko,
bizirik bizi eta
beti bizitzeko.
Igor beti izan da
bizitzan aldeko,
Zeuk eġizu betiko
bizien tarteko.

4

Saminez ez daġonik
ez da hemen inor,
Jaunaren eskuetan
jarririk maitekor.
Bizizale danari
bizia jako zor;
aġur, ikusi arte,
ondo izan, Igor!



Muġarrako harkaitza bai sendoa! Gizaldietan zehar zenbat haize, edur, zurrunbilo... eta tente dirau. Igorrek, 32 urteko gernikar gazteak ere, bere ikasketa, ekintza, amets eta guzti, hamaika bider zapaldu eban Muġarrako bizkarra, arnasbarritu eta bizitzari barriri gogotsu oratzeko asmoz. Baina 2005ko maiatzaren 1 ean laprast eġin eta troka zuloan hilda gelditu zan. Muġarrak tente jarraitzen dau, baita Igor gaztearen amets eta eġitasmu ederrak ere, bere lekukotza nork hartu eta jarraituko zain.

“KIRIKIÑO” KANTARI

1

Adarrik adar dantzari
txori txikiak ugari,
gu KIRIKIÑO taldea gara
zuentzat kantari.
Gure kabia, Mañari;
gure ekintza pozkari;
aupa ta gora oihu eginez
Euskal Herriari.

2

Ezpanetan irriparra,
ahoan euskera zaharra;
gazteok dogu bizi barri hau
zabaldu beharra.
Buruan dizdiz izarra,
bihotzean pilpil garra;
jo ta su gabilz lehortu nahirik
amaren negarra.

3

Anboto mendi tartean,
leku dotore batean,
bakez ta pozez bizi gara gu
Mañari partean.
Baserrian nahiz kalean,
gabiltza ekin ahalean;
agertu nahi dogu gu euskaldunok
zer jente garean.

4

Ken gorroto, maldizino;
ta betor bedeinkazino;
mundu barri bat egin nahi dogu,
hau da erlijino.
Gazte, ahal dogu oindino,
geu prest egon ezketino,
urte askotan bizi dedila
gure KIRIKIÑO!



Nork ez dau ezagutzen “Kirikiño” Mañariko euskal idazle famatua? Ebaristo Bustintza jaunaren izena hartu eban herriko ume ta gazte abesbatzak ere. “Pueri Cantores” alkarteko kide da; urtean zehar herriz herri eskeintzen dabez jardunaldi alaiak; Begoñako abesbatzen artean ere lekua daukie, Vianan ere izan ziran. Eleiz eta herri ospakizunetan ere deituak dira.

LEKEITTOKO NAGUSIAK

1

Gu gara Lekeittoko
gaixo eta zaharrak,
gorputzez, makal; baina
bihotzez, azkarrak.
Jaunak maite gaitu ta
Berari eskarrak,
Berari zor deutzaguz
doguzan indarrak

2

Hemen guztiok gara
etxe batekoak,
zahartzaroak ta gatzak
alkartutakoak.
Jesusek egin gaitu
senitartekoak,
hona datozen danak
dira etxeakoak.

3

Batzuk, edadetuak;
beste batzuk, gaixo;
datorren guztiari
agur eta kaixo!
Umorea badoğu
eta ze arraixo!
Munduan bakarra da
eta da Lekeitto.

4


Etxe hau maite dogu
alkartzen gaituna,
hementxe zaintzen dogu
geure osasuna.
Inoiz ez jaku falta
ondoan laguna,
Jaunak zaindu deiskula
luzaro zentzuna.

5

Eskerrik asko, Jauna,
Zuk maite gaituzu,
badakizu: geuk ere
Zeu maite zaitugu.
Zenbat maite gaituzun
agertu deuskuzu,
garean dana Zeuri
eskeintzen deutzugu.

6

Agur anai-arrebok,
eta ondo bizi!
Umore ona zaindu,
ta goiari eutsi.
Onak ondo gorde, ta
txarrak galtzen itxi,
zuekaz egoteak
ez nau poztu gitxi!



Ez, Lekeition behintzat, ez dagoz ahaztuta Uribarren Abaroa egoitzan. Hara doaz Bizian Gora alkarteko anai-arrebak astean behin, eurekaz batera otoitz egin eta adiskidetasun gozoan ordu pare bat gozatzen. Aita Martzelek ere egiten deutse noizean behin bisitatxoren bat, Libek lagunduta Jaunaren argiz eta pozez betez.



NIRE BIZITZAKO NONDIK NORAKOAK

NIRE BIZITZAKO NONDIK NORAKOAK

1

Hirurogeita hamasei urte
sortu nintzala mundura,
nondik ta zelan hori izan zan
nik ez daukat akorduan.
Aurretik inon ez nintzan ezer
Jaungoikoaren eskuan,
misterio sekretuan...
Gaur ikustean, zer nazan eta
zer daukadan inguruan,
bihotzak borbor irakiten deust
esker onezko kantuan.

2

Bizkaian bada herri polit bat
Bolibar dauka izena,
pozik autortzen izan dot beti
bolibartarra nazena.
Aita Pedro ta ama Teresa
ni naz bien ondorena,
ahal ebenik ederrena.
Euren seme hau jainkoseme naz,
bai erabagi zuzena!
Eurei eskerrak, biak daukadaz:
euskera ta sinismena.

3

Bolibarrek ta Markinak dauke
erdiz Iruzubieta,
zergaitik ete hain maitagarri,
zer ete dauka gordeta?
Hainbeste zubi eta erreka,
arrain bizkorrez beteta,
ez da, gero, barriketa!
Sasi ta piper, ostu ta oste,
hamaika arineketa!
Zerbait bada ta, "Cara al sol" ondo
ikasi genduan eta.

4

Hamabi urte bete bezperan
urten etxetik kanpora,
ta hogeita lau urte beteta
barriz amaren ondora.
Pasiotarrak han Gabirian
dauken seminariora,
baina zertara ta nora?
Hainbeste urte joan ta gero
sarri datorkit gogora:
Jabea Bera izan da niri
deitu eustana arlora.

5

Gabiriako bizitza ez zan
samur joan lehenengotan,
Aita ta ama, auzo giroa
kendu ezinik gogotan.
Latin, erdera ikasi arren,
berba euskera gozotan
ta bitarteetan pelotan.
Hau dana egin behar zan eta
fraile izatekotan.
Hau ikusita, fedez dinot gaur:
“Jauna ez egoan lotan”.

6

Hatan-horretan koskondu nintzan
halako giza landara!
Udabarriko bedar bizarra
agertu zan argitara.
“Misiolari pasiotarra
laster zu izango zara”
praileen esanetara.
Nahi zan guztia izan bagendu,
gaurko gazteen modara,
nire ustez, ez nintzan helduko
gaur heldu nazan mailara.

7

Bost urte dira entzun nebala
Gabiriako kanpaia,
eta landare hau aldatzeko
ba zan legezko garaia.
Urtebetean aztertu behar
bokazinozko dohaia,
ai, Angostoko galbaia!
Hiru profesa botoen bidez
emon neban nire nahia;
ordura arte ni praileki nintzan,
Angostotik prailegiaia.

8

Bizkaian hasi eta bideak
Gipuzkoan jarraipena,
gero Araban hartu genduan
betiko bedeinkapena.
Nafarroako Tafalla santan
ia izan zan azkeña,
galdutzat euskal izena!
Astean lautan kentzen genduan
bizarraren aztarrena...
Jainkoa lagun, zaindu genduan
praile euskaldunen sena.

9

Pasiak pasa, beti aurrera,
 deika eguntsentiari
 Urretxun gagoz gogoia gartsu
 ezarriz teologiari.
 Espiritua lagun dogula
 eutsiz geure bideari,
 emondako baietzari.
 Pasiotarron heburua da
 Kurutzaren mezulari;
 hemen bateko ehun hartzekotan
 ta gero zerua sari.

10

Buru-bihotzez batu genduzan
 hango-hemengo doktrinak,
 eta nork eutsi bake santuan
 bihotzeko irakinak!
 Hara ta hona emon genduzan
 hain hegazkada arinak,
 baina oso atseginak.
 Giro haretan danak gure zain,
 halako gazte gordinak!
 Bihotz beteak euki ezkeru,
 neke guztiak arinak.

11

Beharrerako sasoi ederra
 ez zan galtzeko astirik,
 baina giroa gogor ta latza
 Franko egoan bizirik...
 "Betiko Egi Santuak" bota
 hor ez egoan hesirik,
 hemen behekoak itzirik.
 Euskera eta euskal puntuak
 hor danak gagoz garbirik;
 Gaueko lapur on ustekoak
 ez dabe gura argirik.

12

Nora joango, eta bialdu
 ninduen Deustu-Bilbora,
 hegaz ikasibbarri egoan
 txoria lehoi zulora.
 Beharrizana baegoan ta
 jo neban euskal arlora,
 Orduan bai ni gustora!
 Erlea bainintz, hor hasi nintzan
 eztitan lorarik lora.
 Uste hau daukat: iretargia
 antza, egoan hilgora.

13

Gerra ondoren ez zan mezarik
gure euskera gozotan,
a zer lehorte luze astuna
Bilbon ta bere auzotan!
Euskaltzaindia hurreratuta
ea nik emongo dotan,
praile Eskolapiotan.
Pozarren baietza agindu neutsen
hau suertea lehenengotan!
Ez ete nintzan goizegi hasi
kukurruku jotekotan?

14

Baina horra non oilar gazteak
lapurrak ere esnatu,
eta Gurrupide gotzainagana
guzur baltzez gu salatu.
Eta besterik gabe gotzainak
baimen guztiak ukatu
eta Eubara uxatu...
Ondorengoak ikusi eta
sarri hauxe dot pentsatu:
zigortu barik, Gurrupide jaunak
ninduala bedeinkatu.

15

Bihotz betean maite doguna
hondatu nahi gogorrean,
ondo dakigu guk nortasuna
zaintzen dogu zigorrean.
Bertsolariak ta Euskal Jaiak,
euskal sena borborrean
Orueko tontorrean.
Espiritua ezin da hezi
lotuta derrigorrean,
euskaltasuna dizdiz jarri zan
Orueko Taborrean.

16

Egia esan, nire bizi-tza
ez da izan barriketa,
Tabor mendiak Kalbarioaz
beharrezko dau nahasketa.
Bizkaia aldean hasi genduan
bertsolari txapelketa,
ni ere han nintzan eta.
Euskaltzaindiak sartu ninduan
ez zan nire ameseta;
baina ondo da jakin dagien:
hemen dana ez da ETA.

17

Umeak eta gazteak ziran
 hasierako ardura,
 udaleku ta mogimenduak
 jarriaz ahal zan modura.
 Ume, guraso eta gazteak
 Friasko kanpamentura,
 oi, beti aurrera hura!
 Bide barriak urratzen jarriz
 geunkan guztia eskura;
 bedeinkatua suertatu jatan
 bertso iturriko ura.

18

Zorionean agertu jakun
 Eleizan Kontzilioa:
 mundu barrian zelan eskeini
 eraz Ebanjelioa.
 Aztertuz gaurko munduko gatxa
 baita bere balioa,
 alperrik da txilioa!
 Zahagi barriak behar, non gorde
 ardaoa ta olioia;
 orduz ta moduz jokatu ezik,
 laster patrifilioa!

19

Herri bidean eleizgintza zan
 nire gogo buztarria,
 kristau fedea eta euskera
 bikote zimentarria.
 Gotzain jaunaren bikariotzat
 euskal aldean jarria,
 nire aukera barria...
 Jainkoa lagun, bihotza sendo
 eta garbi eztarria;
 askok negua pronostikatzen,
 nik, barriz, udabarria.

20

Ez dago zertan hemen kontatu
 nire mila gorabehera,
 batzuk ondo ta gehienak eskas,
 ez da epaile norbera.
 Neure gurariz zuzendu nintzan
 baserritarren artera,
 Mañari-Izurtza aldera.
 Bost urterako sartu ta urten
 hogeita hiru urtera;
 bizitza zer dan argi daukat nik:
 egiten dogun aukera.

21

Zenbat aitita, zenbat amama
 heziak lege zaharrear,
 mundu barrian noraezean
 dana galdu beharrean!
 Eurak batuta lagundu nahirik
 hasi naz su ta garrean,
 zerbait jarten indarrean;
 ezin ikusi hainbeste lagun
 geldi bide baztarrean.
 Jubiladutza ez da, lagunok,
 emoteko hausnarrean.

22

Ustekabean sartuta nago
 bizitzako atsaldean,
 Hemen dihardut fruitu emoten
 eta gustura gainera.
 Bizitzan behera, Bizian Gora,
 hau sekulako aukera,
 adinaren arabera!
 Ume, gazte ta heldu ta zaharrak
 Lagun bidean aurrera...
 Bila ta bila dabilenari
 aukerak esku artera.

23

Eleizan bada mogimendu bat
 nagusientzat jarria,
 Bizian Gora dauka izena
 eta da zora garria.
 Fedea biztuz, bihotza poztuz,
 baretuz barru larria,
 asetuz poz egarria...
 Zahartzarorako hobe ezin
 nire aukera barria:
 ez dakienak, ai, balekie
 non dagoan iturria!

24

Zorioneko Bizian Gora
 zer dan naukazu jakinik,
 orain arteko danen artean
 honek ez dauka bardinik.
 Liburu, bertso, kontu ta kantu
 hainbeste ditut eginik,
 barruan gorde ezinik.
 Gorputzez noa makalduz, baina
 bihotzez nago gordinik;
 ez neban uste izan leikenik
 zahartzaroan ume minik.

25


Aitita-amamak, txiki haundiak
 benetan dira nagusi,
 egia esan, zenbat zer onak
 eurak deustez erakutsi.
 Bizibarritu diranak horra:
 itsuak dabe ikusi,
 herrenak brinko ta jauzi.
 Ardura deustan bakarra hau da:
 eskerrak emon Jesusi;
 neuk ikusi ta bizi dodana
 kontatzea ez da itsusi.

26

Kontuak kontu, luze doa ta
 beharko dogu amaitu,
 gitxienez neu, honeik esanda,
 hustu naz eta nasaitu.
 ekin ta jarrai jardun ezkerro,
 azkenerako garaitu,
 Jaunak lagunduko gaitu.
 Jakinez ez dot guzurrik esan,
 besteak zeuok epaitu;
 beste hoberik ez dago eta
 nik lehengoari jarraitu.

27

Hau dana Zuri zor deutsut, Jauna,
 Zeuk ninduzun aukeratu,
 eta bideko arriskueta
 esku samurrez gidatu.
 Makaltasunez ta ezjakinez
 sarri egin dot pekatu,
 Jauna, Zuk, arren, parkatu!
 Eskerrak eta ezin deutsut gaur
 hauxe besterik eskatu:
 Zure soloan nik ereindako
 haziak Zuk bedeinkatu.



Aita Martzel eztegu baten gazte talde batez, adiskidetasun giroan.



Aita Martzel, Milagaz eta Maria Angelesegaz, Izurtzako Juan Mari alkategaz eta Kontxi emaztegaz, Izurtzatik agurreko omenaldian.



Aita Martzel, idatzitako 10 liburuetatik bat eskuetan daua. Ez ditu emon urte guztiak mailukiak zirian sartzen, antza.

AURKIBIDEA

Prologoa

Aita Martzel, komunikazioaren harian	5
Aita Martzel pasionistea	8

SINISMENA 12

Aita jaungoikoari

Aita-Ama dan Jaungoikoa	14
Bere seme-alabakaitik negar egiten dauan Aita	15
Aita mundiala	16
Errukizko Aita	18
Gure Aita	20
Oi, Aitatxo!	21
Jainkoa Aita da	22
Jainkoa etxeke	23
Zu zaitut iturri eta itxaso	24

Seme Jaungoikoa

Barri Onaren Profeta	28
Berbiztu da! Berbiztu da!	30
Bizi barriko kukua	31
Bizi da bizi!	32
Jesukristo gure Jauna	34
Jesus kurutzekoari	37
Jesukristo gure jaunaren Aita	38
Ni naz bidea, egia eta bizia	40
Nun jaio bila	41
Oi, Emmanuel!	42
Zuk jarraitu egidazu	43

Espiritu Santu Jaungoikoa

Espirituaren dohaiak	44
Espirituari otoitza	46
Espiritua eta eleiza	47
Espiritu arnasea	48
Espiritu gizona	49
Espiritu haizea	50

Espiritu sua	51
Espiritu ura	52
Espiritu usoa	53
Zatoz, Espiritu Santua	54

Nekaldi girokoa

Antxinako kurutz bidea	56
Arantzazko koroia	58
Bizitza eta heriotzaren arteko burruka	59
Jesukristo kurutzekoa kristauaren bizitzan	60
Jesusen odol txit baliotsua	62
Jesusen zauri gurgarriak	63
Jetsemaniko baratzean	64
Jetsemaniko otoitza	65
Kurutzan osasuna	66
Kurutzaren oinetan	67
Kurutz bidea bertsoan	68
Kurutzekoaren eskolan	71
Odolez berrerosi gaituzu	72
Zigor kurutzez erosiak	73
Urte Santuko kurutz bidea	74
Zigorrez astindua	77

Sinismen bizitza

Betiko egiak	78
Bizi nahi!	80
Bizi iturria	82
Geuk ikusi dogu	83
Ez izan bildurrik!	84
Ni gaixorik egon nintzan eta zuk...	86
Pekaturik ez!	88
Poza eta itxaropena	90
Atez ate, gabon zorionak!	91

Ospakizunak

Aurtengo belen barriak 92
 Belendik Eguberri On 93
 Belengo izarra 94
 Bizitzatik bizira 95
 Heriotza hil da, bizia bizia da . . . 96
 Hildakoa bizirik dago! 97
 Gure Pazkoa 98
 Hilobia hutsik 100
 Jainkoaren egarri 101
 Jesus berbiztuaren presentzia . . . 102

Argibideak

Eguzki erlojua 104
 Gaurko sasikredoa 106
 Jesusen artzain lagun 108
 Txikiak haundi 109

Otoitzean lagungarri

Aintza eta esker ona Zuri! 110
 Aitaxoren aurrean otoitzean . . . 111
 Ase nagizu, Jauna,
 zure maitasunez 112
 Ba al dago Jaungoikorik? 113
 Bai miragarri, Jauna! 114
 Begininia lez zaintzen
 nozu, Jauna 115
 Bihotzez txastau
 dauanak daki 116
 Ene arima, goratu
 egizu Jauna 117
 Egin otoi! 118
 Eskerrak Jaunari!
 Haren maitasuna betiko da 120
 Hemen nozu, Jauna,
 jarraitu nahi deutsut 121
 Jauna, salbau nagizu! 122

Lilutaturik naukazu, Jauna! 123
 Maite zaitut, Jauna,
 neugaz zagozalako 124
 Ni naz... zu zara... 125
 Nagusi dan Jauna dot indarra . . . 126
 Nire begiak zuri begira
 daukadaz, Jauna 128
 Nor nire aurka? 129
 Esaidazu zeozertxo 130
 Zu beti neugaz zagoz, Jauna 131
 Zugan beti nasai ta
 bakez bizi naz 132
 Zugaz bizitzea
 beste gauza bat da 133
 Zuk ondo dakizu
 maite-maite zaitudana 134
 Zurea naz ni eta zu nirea 135
 Zure begien aurrean bizi nahi dot 136
 Zure eskuetan jartzen dot
 nire bizia 137
 Zure maitasuna betikoa da 138
 Zure maitasunaren
 egarri naz, Jauna 139
 Zure presentzia barik
 ezin naz bizi 140

ELEIZEA 142

Agur, Kristoren eleiza

Eleiz misinoġintzan
 erreinuaren zerbitzari 144
 Espirituaren presentzia
 eleizean 145

Mahatsondoko aihenak

Agur, Larreatar Koldobika
 Mirena gotzaina! 146

Aita Martzelen urrezko ezteguak	148
Aupa Karmelo!	149
Auzolanaren ederra	150
Beti Aurrera	151
Bilboko gotzain barria	152
Hau izan da artzaina!	153
Itxurak bai, baina...	154
Jabier Etxebarria abade	155
Jar zutik, L A I K O A!	156
Lotsabakoak!	157
Zatoz eleiza jasotzen	158
Mila eta Maria Angeles	160
Isaak Totorika Ziortzan monje	162
Errogatiba egunez Urkiolan	164
Etixerik etxe gabon kantak	166
Gabon jaietarako abestitxoa	167
Gabon loteria jokatu	168
Gabon zoriontsu!	170
Garizuma bizia	171
Garizumako jardunak	172
Garizuman zehar	174
Gaur gabon gaba!	176
“Gogoeta astea”	177
Gora ezkonbarriak!	178
Joxe Marik eta Simonak urrezko ezteguetan zorionak	179
Jubileu haundia	180
Zidarrezko ezkontza ospakizunean	182
Zorion Pazko egunez!	183

**ANDRA MARIA
ETA SANTUAK** 184

Jesusen eta gure Ama	
Ama maite Maria	186
Arrateko Amari bertsoak kantari	187

Lourdesen bizi izan doguna	188
Lourdesen izan gara	190
Lourdesko Agur Maria	192
Lourdestik gatzoz	193
Maria, bide erakusle	194
Maria, espirituaren artelana	196
Mariaren zazpi ezpatak	198
Zerura doan Amari	199

Gure anai-arreba santuak

Agate deuna	200
Aita Kurtzeko	202
Balendin Berriotxoa, bertsolarien zaindari	204
Erregeen egunerako	206
Gora gure san Anton!	207
Gora Deustuko san Pelitzisimo	208
Gora gure san Balendin!	210
Gora gure Lorentzo Maitea!	212
Kurutzeko Paulo santua	215
Ospea Kurutzeko san Paulori!	216
Paduako san Antonioren VIII. mendeurrena	217
Paduako san Antonio	218
San Joan egunian	220
San Martin	222
Santo Tomas	224
Santuen alde, auzolanean	226
Santuen protestak	228
Zoro ala santu?	230

BIZIAN GORA 232

Zer dan Bizian Gora	
Bizian Gora	234
Bizian Gorako doktrinak	235
Bizian Gorakoen ezaugarriak	236

Bizian Gorari eskerrak!	238	Otoizlarien katea	273
Bizian Gora: batzarretarako hasiera-amaierak	239	Jubilatuen kurutz bidea	274
Bizitzako karreran	240	Kristau baten jubilazinoa	276
Bizitzan behera, Bizian Gora . . .	242	Kristau jubilatua Belengo Jesus Umearen aurrean	277
Bizian Gora dogu gure olinpiada	244	Nahi bai... baina ezin!	278
Gora Bizian Gora!	255	Nireak ez dau egin!	279
Gure Bizian Gora dator zuen ondora	246	Alkar laguntza	280
Bizian Gora gorazarrea	248	Alkar laguntza jaian Elorrioko zerbitzariei	282
Nor gara gu?	249	Hau beste gauza bat da	
Zorionekoa jubilatuta nintzan eguna	250	Aitita-amamak Belengo Kumeari eraġiten	284
Bizian Gora zabaltzen		Aitita-amamak kantari	286
Ospatu daigun bizitzako montxorra	252	Aitita-amamak kurutzearen aurrean	288
Bizian Gora gure Bolibarren . . .	253	Aupa zahar gazteak!	289
Bizian Gora Altzusten	254	Zorionak, Angel eta Pilar	290
Bizian Gora Gernikako Errenterin	255	Aitita-amamak jaunari eskerrak emoten	291
Bizian Gora Lekeition	256	Zaharbarrituak	292
Bizian Gora Natxitun	257	Zahartzaro tristea	293
Agur, Laukiz!	258	Gora aitita-amamak eta gaixoak!	294
Almikeko Amaren deia	259	Zaharraġo eta txarraġo?	296
Bizian Gora Nafarroan	260	Gora aitita-amamak	298
Arratiak bizi nahi	262	Zatoz eta bizi zaitez!	300
Mungian zer barri?	264	Simeon eta Ana santuak	301
Zaindu daigun Ondarru	265	Gure herriko nagusiak	302
Berrittu Berrittu da	266	Geure buruari barrez	
Bizian Gora haizerrota		Zergaitik neġar egin?	304
Bizian Gora Angostora	268	Agur, Benidorm!	306
Mertxe Azkonizaġa eredu	270	Agur, Guardamar!	308
Patxi eta Mertzedes	271	Bat, bi, hiru, lau	309
Txiki haundiak	272	Benidormen zer barri?	310

Gora jubilatuen erreboluzioa . . .	313
Hau da bizimodua!	314
Hau dok ganoria!	316
Hau dok hau bizimodua!	317
Estu ta larri san Pedroren aurrean	318
Geuria da-ta	320
Aleluia!	321

GIZATASUNEZ 322

Giza heldutasun bidean

Adinekoa eta denporea	324
Atzo, gaur, bihar, etzi	325
Bai ta ez, ez ta bai	326
Bakeak bakea dakar	327
Batzarretik batzarrera	328
Itxaropen eraginkorra eta alaia .	330
Ondorengoentzat argia	331
Ez indarkeriarik!	332
Geure buruari barrez	334
Ikasi ondo sufritzen	336
Irribarre egizu	338
Itsu aurreko	340
Izan bihotz	342
Urte barri, bizi barri	343
Kristau alaitasuna	344
Zorionak!	347

Bizitzako atalak

Aberetasunetik gizatasunera	348
Ahal dauanak baino nahi	
dauanak gehiago	349
Bakezale izan!	350
Borondatez	352
Bakea	354
Euki ala izan?	355
Giza heldutasun bila	356

Gu nagusiok	357
Gurasoak seme hondatzaile?	358
Hau aldaketa itzela	360

Bideko martxan

Agur, denpora jauna!	362
Ahaleginak ahalegin	264
Astoak maixu	366
Diruz erosi ezin diranak	
guretzat beharrezkoenak	368
Eskerrik asko, Vasi!!!	370
Ez jo hileta kanpairik	371
Friasko koadrila	372
Friasko udalekuak	374
Gaurko Babelgo torrea	376
Gaurko fariseo barriak	378
Gixonkiloak	380
Urkiola, arnas leku	382
Jai eta jai	384
Zaindu etxeko parkea	385

Gizonkeriak

Gizona beti gizon	386
Gure arteko supergizonak	389
Gure komeriak	390
Gure kontuak	392
Hau da komeria!	394
Hau dok hau demokrazia!	396
Karnabaletan	398
Mihina saltsan	400

Danetatik zertxobait

Ardauaren lau indarrak	402
Ikusi makusi	404
Mendiko jaialdia	406
Nork daki ziur zer dan?	408
Oporraldia	409
Oraindik ez da azkena	410

Pasadizuak	411
Pentsamentu txarren indarra	412
«Prestige» salatari	414
Testigua hutsik!	415
Txarribodako kantak	416
Udaldian atsedean bila	417
Zer dala eta zer dala?	418
Zuk iso eta nik arre	420
Zereko zera zertzen	422

KOMENTUKALE 424

Orueko praile alkartea

Agur, Luis Antxia!	426
Aita Kamilo hil jaku	427
Aita Kamiloren jaiotegunez	428
Aita Patxiren bizi oinarriak	430
Amatau jaku izarra!	431
Ama, ni pasionista noa!	432
Euba... Euba... Euba...	434
Hau dok txoria, hau!	436
Agur, aita Sabin!	437
Nekaldiko karisma	438
Neure amari	439
Pazkoetako egun pasa	440

Pasiotar familia

Agur, Aita Patxi	442
Berrogeita hamar urte Oruen	444
Danok pasiotar familia	
batekoak	446
Erlijioso profesako zidarrezko eztaiak	447
Egixe da, egixe da, neuk ikusi dodalako. Egixe da, egixe da, neuk ikusia da	448
Eubako euskal jaiak	450

«Orue 50»	452
Orue egoitza	454
Orueko Tabor mendian jardunaldi gozoak	456
Praile, monja eta laiko Guztiok Jesusen mahaiko	458
Orueko auzo jaia	460

EUSKAL HERRIA 462

Belendizko jaietan	464
Agur Euskal Herriari!	466
Euskal Herrian euskera	467
Eria... Erria... Herria...	468
Euskaldun eta/ala/edo fededun?	470
Euskaldunak irabazi	472
Gora Belendiz!	474
Gure herriaren oinarriak	476
Inuxenteak	478
Kaikudun kaikua	480
Txoria pikutik ezagun	482

HANDIKOZ HEMENDIKOZ .. 484

Agur, Austina Bizkarra	486
Agur, Izurtza maite!	487
Agur, Lorentzo Salaberria jauna!	488
Agur, Mañaria	489
Amerika aurkitu	490
Bizkaiko aitita	491
Igor gailurretik begira	492
“Kirikiño” kantari	493
Lekeittoko nagusiak	494

NIRE BIZITZAKO NONDIK

NORAKOAK	496
Nire bizitzako nondik norakoak	498

AURKIBIDEA 506



AITA MARTZEL

BERTSOLARI